Universidad de Deusto
Biblioteca

YESU-CHRISTOREN

IMITACIONEA.

Universidad de Deusto
Biblioteca

APPROBACIONEA.

Guc-François LACROIX, Bayonaco Aphezpicu, gogotic onhesten eta aprobatcen dugu Yesu-Christoren Imitacionearen edicione berri hau. Hanitz desiratcen dugu escual-herri gucian heda dadin liburu hau han baliosa, san Ignacioc ikhusi nahi çuena guiristino gucien escuetan.

Emana gure Palacioan, ekhainaren lehenean 1850.

† FRANÇOIS.

Bayonaco Yaun Aphezpicuaren manamenduz,

Franchisteguy.

Calonye-Segretario.

Liburu huntan seguitua içan da Cantica çaharren orthografa Yaun Aphezpicuaren nahiaren arabera.

Toulouse, Imp. de A. Chauvin et Cᵉ, rue Mirepoix, 3

Universidad de Deusto
Biblioteca

III.



YESU-CHRISTOREN

IMITACIONEA,

LEHENAGOCO EDICIONE BERA,

COFESATCECO ETA COMUNIATCECO OTHOITZ
BATCUEZ ENMENDATUA.

FACULTAD
DE
TEOLOGIA
Univ. de Deusto
BILBAO

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
BIBLIOTECA

32090

EL MENSAJERO DEL CORAZON DE JESUS
BILBAO

252032

TOLOSAN,

PRIVAT LIBURU SALTCAILEAREN BAITHAN.

1850.

Universidad de Deusto
Biblioteca

PROPRIÉTÉ.

IRACURTÇAILEARI.

Guiristino maitea, guero eta guehiago gostu harçaçu liburu guciz preçagarri hunençat. Iracuraçu maiz, bainan aldian guti. Cembait hitcec hunkitcen çaiztutenean, bara çaite memento bat, liburua cerraturic. Yaunaren graciac arguituco du orduan çure izpiritua, sendimendu onez betheco çure bihotça. Cernahi barneco pena, tentacione, gudu, axegabetan causi çaiten, aurkhituco dituçu liburu huntan çure arimaco behar gucien araberaco capituluac. Liburu sain-

duen ondotic ez da libururic hunec becembat ongui eguin eta eguiten duenic. Iracuraçu arthoski, eta ceronec frogatuco duçu, ceronec atheratuco dituçu iracurtce huntaric progotchuric handienac çure arimaren onetan.

MEÇA SAINDUA.

Meça saindua entçun behar da atencionerekin eta deboki.

Çure aldare sainduaren oinetan ahuspez emanic, adoratcen çaitut, Yainco bothere guciac dituçuna; fermuki sinhesten dut entçuterat nohan meça dela Yesu-Christo çure Seme-Yaincoaren gorphutz eta odolaren sacrificioa, ofritceco manera hala berecoa ez içan arren, hare berac Calbarioco mendian guiçon gucientzat ofritu çuen sacrificio hura bera. Eguidaçu gracia sartceco, ô ene Yaincoa! Apheçaren escuz, hau çuri digneki ofritceco behar dituden disposionetan. Ofritcen darotçut, bat eguiten naicelaric Yesu-Christoren eta haren Eliçaren intencionekin: 1. Çure Mayestate dibinoari çor çayoen homaya eta ohore soberanoa errendatceco. 2. Eguin darozkigutçun on eta ongui guciez eskerrac bihurtceco. 3. Munduco bekhatu gucientçat eta bereceki eneentçat çuri

satisfaccione eguiteco. 4. Finean, arimaco salbamenduarentçat eta gorphutceco biciarençat behar ditudan laguntçac eta sokhorriac çure-ganic hardiesteco. Çurè-ganic gracia hauc guciac uste ditut, Yesu-Christo çure Semearen merecimenduen bidez, ceinac nahi baitu berac içan sacrificio adoragarri hunen Apheça eta bictima.

Meçaren hastean, eta Confiteor *erratean.*

Ene bekhatuen yakiteco eta eçagutceco, ô ene Yaincoa! behar ez duçun arren ene aithorric eta cofesioric, eta ene gaichtakeria guciac ene bihotcean irakhurtcen ditutçun arren, cofesatcen darozkitçut halere ceruaren eta lurraren aitcinean: aithortcen dut ofentsatu çaitudala gogoz, hitcez eta obraz. Ene bekhatuac handiac dire, bainan çure misericordiec neurriric ez dute. Urrical nakiçu, ô ene Yaincoa! orhoit çaite çure escuco obra, çure odolaren precioa naicela.

Biryina saindua, ceruco Aingueruac, Parabisuco Saindu eta Saindac, guretçat othoitz eguiçue; eta nigarrezco eta miseriazco haran huntan dolhamenetan gaudecen orduetan, gracia esca çaçue guretçat, eta ardiex dieçaguçue bekhatuen barkhamendua.

Introïtean.

Yauna, çuc Patriarkei eta Profetei inspiratu diotçotçute, çure Seme bakhotcha lurrerat yausten ikhusteco, hain desira kharxuac; indaçu heyen khar saindutic pharte bat; eta eguiçu, bicitce mortal hunen embraçuen erdian, ene baithan senti deçadan çurekin bat içateco lehia saindu bat.

Kyrie eleison*etan.*

Dolhamen eta suspira doblatuez, ô ene Yaincoa! errekeritcen çaitut, eguidaçu misericordia, eta memento guciez, bici naiceno erran banie çaçu: *Yauna! nauçun urricari*: ez liteke oraino aski ene bekhatuen nombrearentçat eta handitasunarençat.

Gloria in excelsis*ean.*

Gloria in excelsis Deo. Et in terrâ pax hominibus bonæ voluntatis. Laudamus te. Benedicimus te. Adoramus te. Glorificamus te. Gratias agimus tibi, propter magnam gloriam tuam. Domine Deus, Rex cœlestis, Deus, Pater omnipotens: Domine, Fili unigenite, Jesu Christe. Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris. Qui tollis peccata

Universidad de Deusto
Biblioteca

mundi, miserere nobis. Qui tollis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis. Quoniam tu solus Sanctus. Tu solus Dominus. Tu solus Altissimus, Jesu Christe, cum Sancto Spiritu, in glorià Dei Patris. Amen.

℣. Dominus vobiscum.

℟. Et cum spiritu tuo.

Oremus*etan*, *edo Oracionetan*.

Agrada bekizkitçu, Yauna, guretçat eguiten çaizkitçun othoitzac : igutçu, Eliça çure esposac, Apheçaren ahoz, gure fagoretan, galdeguiten dorozkitçun graciac eta berthuteac. Ez dugu merecitcen (hala da) entçunac içatea; bainan contsidera çaçu gracia horiec escatcen darozkitçugula Yesu-Christo çure Semearen bidez, ceina çurekin bici baita eta erreguinatcen baitu menderen mende gucietan. Halabiz.

Epistolan.

Epistola huni beguiratcen diot, ô ene Yaincoa! çure borondateac irakhasteco egortcen darotaçun guthun bati beçala. Othoi, indaçu manatcen darotaçunaren complitceco indara. Çuc ceronec, Yauna, Profetei eta Apostoluei inspiratu diotçotçute, iscribuz utci darozkiguten eguiac : heyen arguietaric pharte indaçu, eta phitz çaçu ene bihotcean, hec erretcen cituen su sacratu hura : maitaçaitçadan eta cerbitça, hec beçala, ene bici gucian.

Ebanyelioan, *chutituric*.

Chutitcen naiz, ô Legue-eguile soberanoa! çuri marcatceco Ebanyelio sainduan diren eguia handiac, ene odolaz ciguilatcerat prest naicela. Eguia horiec ene bihotcean ceronec othoi, Yauna, barneraino graba çatçu. Horiec betçate erreguela ene gogoetac, ene hitçac eta ene obrac. Ez dut guehiago seguitu nahi çure maximez bertceric : mintça çaite, Yauna, huna non aditcen çaitudan sehi baten sumetimendu oso berarekin, indaçu çure erranen complitceco hambat indar nola baitut fermutasun heyen sinhesteco.

Credo*an*.

Credo in unum Deum, Patrem omnipotentem. Factorem cœli et terræ. Visibilium omnium et invisibilium. Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei Unigenitum. Et ex Patre natum ante omnia secula. Deum de Deo, lumen de lumine; Deum verum de Deo vero. Genitum non

Universidad de Deusto
Biblioteca

factum, consubstantialem Patri; per quem omnia facta sunt. Qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Mariâ Virgine: ET HOMO FACTUS EST. Crucifixus etiam pro nobis, sub Pontio Pilato, passus et sepultus est. Et resurrexit tertiâ die secundùm Scripturas. Et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris. Et iterùm venturus est cum gloriâ judicare vivos et mortuos; cujus regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem; qui ex Patre Filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur; qui locutus est per prophetas. Et unam, sanctam, catholicam et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum Baptisma in remissionem peccatorum. Et expecto resurrectionem mortuorum. Et vitam venturi seculi. Amen.

℣. Dominus vobiscum.
℟. Et cum spiritu tuo.

Offertorioan.

Creatura hilcor, eta bekhatuz cargatu bat baicen ez naicen arren, ofritcen darozkitçut Apheçaren escuz, ô eguiazco Yainco bici eta eternala!

ogui hori eta arno hori, ceinac içan behar baitute gambiatuac çure Seme Yesu-Christoren gorphutcerat eta odolerat. Errecibi çaçu, Yauna, ecin erranezco sacrificio hau amulxuki eta goçoki, eta sofri çaçu, ofrenda saindu hori yunta dioçadan, ene gorphutçaz, arimaz, onthasunez, biciaz, eta ditudan guciez eguiten darotçudan, sacrificioa. Eguiçu nitaz, ô ene Yaincoa! creatura berri bat; ogui hori eta arno hori çure bothereaz gambiatcerat çohacen beçala.

Apheçac bere erhiac garbitcean.

Garbi naçaçu, Yauna, sacrificatua içaterat doatçun Bildoxaren odolean; notha gucietaric chahutua, eta çure graciaren espos arropaz bestitua, çure ganat esku churi eta bekhatu gabeac altcha detçadantçat, eta esperantça içan egun batez errecibitua içateco çure hautatuei Ceruan preparatu dioçuten banket sacratuan.

Ichilduric Apheçac erraten dituen Othoitzetan.

Agrada bekiçu, ô ene Yaincoa, çure icen sainduaren ohoretan eta gloriarentçat, gure abantailetan, eta çure Eliça sainduarenetan, ofritcen çaitçun sacrificioa; haren intencione beretan

Universidad de Deusto
Biblioteca

sarthuric, huna non galdetcen darozkitçudan, Eliçac orai, Apheçaren bidez eskatcen darozkitçun graeia guciac hortaracotz bat eguiten naiz Apheçarekin, accorda dietçagutçun amoreacgatic Yesu-Christo gure Yaunaren bidez eta icenean.

Prefacioan.

Ordu da, ô ene arima! altcha gaitecen behere huntaco gauça guciez gorago. Tira çatçu, Yauna, tira çatçu gure bihotçac çure ganat: sofri çaçu çor çaizkitçun laudorioac eta eskerrac errendatceco, yunta detçagun gure boz flacoac, Izpiritu dohaxuen alegrantciazco eta extasiazco aire justuarekin, eta desterruco lekhu huntan erran dieçaçugun hec gloriaren egoitçan cantatçen darotçutena: *Saindua, Saindua, Saindua da armadetaco Yainco Yauna: içan bedi glorificatua Ceruetaco gorenean.*

Sanctus *erran ondoan.*

Aita bethierecoa, artçainetaco Artçain soberanoa! çure Eliça contserba eta goberna çaçu, finca çaçu, eta heda lurraren bazter gucietarat. Izpiritu bat eta bihotz bat emoçute Christau guciei. Benedica çaçu gure Aita saindua, gure

Aphezpicua, gure Erregue, gure Erretora, eta çure Eliçaren sinhestean bici diren guciac.

Lehembicico Mementoan.

Yauna, orai çure erresuman çarena orhoit çaitenitaz çure misericordian; eta Sacrificio saindu hunen merecimenduz indatçu necesario ditudan herthute guciac. Eta batac bertcearentçat othoitz eguitea manatu darocuçunaz gueroz, Yauna, othoi adi çatçu eta entçun humilki eta confident ciarekin eguiten darozkitçudan othoitçac ene ahaidentçat; adiskidençat arimaco eta gorphutceco onguieguilentçat. Ene bihotz guciaz halaber gomendatcen darozkitçu ene exayac eta tratamendu gaitcho cembeit eguin ahal darotaden guciac; ahantz bekizkitçu heyen bekhatuac eta neureac: ene bihotcetic khen çatçu khidastasun eta gaistirizco guciac; eta desiraraz dieçadaçu eta ardiex araz beyen amodioa. Mundu guciac senti beça Sacrificio hunen ona. O ene Yaincoa! iguçu guciei bake eguiazco bat, ceinac, elkharrekin unionean achikhitcen gaituela, bethicotz baigaitu unionean emanen Biryina amarekin, çure Apostoluekin, eta finean eternitate gucian çurekin.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Apheçac Khalitçaren eta Ostiaren gainean escuac çabalduac daduzcanean.

Heda çaçu, Yauna, ene gainera çure escu dibinoa, posesionetan sartceco ene bihotcean eta ene sentsuetan; ene baithan correitceco çure contra den gucia, ni consecratceco çure Aita Yaincoari, çure baithan eta çutaz, eta ni moyan hortaz libratceco debruaren escuetaric eta damnacione eternaletic.

Ostia saindua altchatcean.

O Yesus, ene Salbatçailea, eguiazco Yaincoa eta eguiazco Guiçona, sinhesten dut cinez eta fermuki Ostia sainduan errealki hor çarela, adoratzen çaitut hor ene Yauna eta Yaincoa çarena. Iguçu, niri eta hemen garen guciei, misterio adoragarri huntan çor darotçugun debocionea, amodioa eta eçagutça.

Khalitça altchatcean.

Adoratcen dut Khalitz hortan, ô ene Yesus dibinoa, ene erospenaren precioa, eta guiçon guciena. Odol adoragarri hortaric chorta bat yauxterat utz çaçu ene arimaren gainerat, içan dadinçat garbitua bekhatu gucietaric, eta sustatua çure amodioaren khar sacratuaz.

Yaincoa alchatu ondoan.

Ez darotçugu guehiago oguia eta arnoa ofritcen, bainan bai Yesu-Christo çure Semearen gorphutz adoragarria, ô ene Yaincoa! haren pasionearen, phitztearen, eta cerurat igatearen orhoitçapenetan: gure escutic, Yauna, errecibi çaçu, eta bethe gaitçatçu çure graciez.

Bigarren Mementoan.

Orhoit çaite halaber, Yauna, Purgatorioan diren arima gaichoez: dohaxuki çureac dire eta çure esposac ere dire. Bereciki gomendatcen darozkitçut ene ahaidenac, adiskidenac, arimaco eta gorphutceco ongui eguilenac eta othoitcen beharra guehien dutenac.

Nobis quoque peccatoribus *erratean.*

Gucia bekhatore naicelaric, ausartatcen naiz galdetcera gracia bera enetçat; erran nahi da, ô ene Salbatçailea! çure glorian pharte pusca bat. Mila bekhatuz hango çucena galdu dudala ikusten dut, eta aithortcen çure presentcian, ô ene Yaincoa! Ene mereciei beguiratcen badioçute, ez

Universidad de Deusto
Biblioteca

duket esperantçaric plaçatua içateco. Erresuma hartan, ceinetarat Apostoluec, Martyrec eta Birjine sainduac ecin ardiexi baitute heltcea, bethi sofrituz eta berthute guiristinozco guciac pratican emanez baicen. Nola beraz ausarta ere othe naiteke, Yauna, esperantça içaterat! Çure odolac eguiten du ene fidanteia gucia. Barkha dietçakidatçu ene faltac, eta penitentcia eguiazco batez digne errenda naçaçu hartarat heltceco.

Pater *erratean.*

Creatura ez deus eta dohacabe bat baicen ez naicen arren, halere Yainco handia! ausartatcen naiz çu ene Aita deitcerat, ceren hola nahi duçun: eguidaçu gracia, ô ene Yaincoa! ez deçadan nihoitz ere gal çure umearen calitatea. Içan bedi çure içena sanctificatua cerulurretan. Erreguina çaçu orai beretic çure graciaz ene bihotcean çurekin erreguina deçadantçat eternitatean çure glorian, eta çure borondatea compli deçadantça lurrean sainduec complitcen duten beçala Ceruan. Ene Aita çare indaçu beraz, othoi, ceruco ogui hura ceinetaz hazten baiditutçu çure haurrac. Barkhamendu accorda dieçadaçu, nic çure amoreacgatic bihotz onez ofentsatu nautenei accordatcen diotedan beçala, eta ez deçaçula permeti

nihotz tentamendu batec ere garhai neçan: aitcitic çure graciaz lagunduric, eguiçu bentçu detçadan ene salhamenduaren exai guciac.

Agnus Dei *erratean.*

Yaincoaren Bildoxa, munduco bekhatuez cargatu nahi içatu duçuna, garbi çatçu eta borrha neure guciac çure odolean, hain kharlo erosi duçun bakea içateco, digne errenda neçaçunçat. Indaçu bake hura çurekin, bake hura proximoarekin, bake hura neure buruarekin: inspiratcen darotaçularic humiltasun osoena; eta ene baithan ithotcen ditutçularic mendecuzco desira guciac.

Domine non sum dignus *erratean.*

Ah Yauna! sobera baicen ez da eguia ez dudala mereci çure errecibitcea; indigne errendatu naiz osoki ene bekhatuez: guciez urriki dut eta dolore, ceren damustatu baitçaituzte, eta çureganic urrundu bainaute. Çure hitz bakhar batec senda deçake ene arima: ez naçaçula abandona, ô ene Yaincoa! eta çure escutic atchic naçaçu.

Apheçaren Comunionean, norc berac comuniatcen ez duenean errealki.

O ene Yesus maitagarria! egun çure Haragui

Universidad de Deusto
Biblioteca

sainduaz hacia içateco coriona ez badut; sofri çaçu errecibi çaitçadan bederen izpirituz eta bihotcez, eta çurekin bat eguin nadin fedeaz, esperantçaz eta karitateaz. Sinhesten dut çure baithan; çure baithan dut ene esperantça eta maite çaitut ene bihotz guciaz.

Ala dohaxu baininteke, ene Salbatçaile maitea, çure-ganat hurbiltceco, çure mahain sainduan presentatceco, çure Gorphutz sacratua errecibitceco, eta çure odola edateco estatutan banintz! Ah! cer frankia, cer consolatione, cembat gracia ez dioçute emaiten hetaz hazten ditutçunei!

† *Norc berac comuniatcen duenan, horren orde eguin behar dire comunioneco Acta.*

Ostia puscac Apheçac biltcean.

Yauna çure graciaric mendrena hain guchiagoki baliosa da; ya erran dut, ez dut mereci çure mahainean çure haurren herruncan yartcea; bainan pèrmeti dieçadaçu bil detçadan bederen erortcen diren papurrac, Kananearrac galdetcen çuen beçala. Eguiçu ez deçadan çure inspiracionetaric batere negliya; ecen negliyentcia horrec obliga çaitçake guciez escas eguiterat.

Post-Communionean.

Contsumatu dire guciac, ô Yauna! ene beguien aitcinean sacrificaturic çatoz. O ene Yaincoa! ez naiz nihoiz guelditceo çuri laudoriozco sacrificioa errendatcetic; eta guciz bihotz çu ofentsaturic doloratu, çaurthu eta humiliatu baten sacrificioa ofricetic.

Azkeneco Oracionetan.

Nahi duçu, Yauna, arteric utci gabe gure othoitçac adreça dietçatçugun, ceren dugun bethi çure gracien beharra. Ichur çaçu gure gainerat, eta iguçu othoitçaren izpiritua, ceina baita humiltasunezco, confidentciazco eta amodiozco izpiritu bat: hortaz errekeritcen çaitugu Yesu-Christo çure Semeaz, ceinac çurekin erreguinatcen baitu glorian.

Benediccionearen aitcinean.

Trinitate guciz saindu eta adoragarria, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua, Yainco choil eta bakar bat çarena; çutaz sacrificio hau hasi dugu, çutaz finitcen dugu: agrada bekiçu, eta ez gaitçatçula egor çure benediccionea gabetaric.

Azkeneco Ebanyelioa erratean.

Berbo eternala, gauça gucien Eguilea, dem-

borac bethe cirenean gure-gatic Guiçon eguinic, Sacrificio miragarri hau establitu duçuna; eskeraac humilki errendatcen darozkitçugu, ceren eguin darocuçun gracia, hunen entçuteco, hunen efetu salbagarriac errecibi detçaguntçat. Aingueru eta Saindu guciec, hortaz lauda beçaitçate bethi ceruan, eta gu has gaitecen çu hortaz benedicatcen lurrean, comportatcen garelaric egungo egunean çure leguaren arabera. Barkha dieçadaçu, ô ene Yaincoa! ene izpirituco barrayamendua eta ene bihotceco hotztasuna, çutaz occupatua eta çuretçat sustatua içan behar çuten moment hortan. Ahantz bekizkitçu, Yauna, ene bekhatuac, ceinentçat Yesu-Christo çure Semea, aldare hunen gainean immolaturic heldu baita: eta ez deçaçula permeti aski ondicozcoa içan nadin, çure hemendic harat ofentsatceco; bainan eguiçu, çucenki comportatcen naicelaric, bethi beguira dieçaçudan ene gogoeten, ene hitcen, eta ene obren erreguelari eta azken finari beçala. Halabiz.

CER EGUIN BEHAR DEN ONGUI COFESATCECO.

Etçaitela behinere yoan cofesatcerat ahalaz ongui preparatu gabe. Hortaracotz cofesatu aitcinean eguin çaitçu bethi bi gauça. *Lehena*, examina on bat Yaincoaren eta Eliçaren manamenduen gainean, bekatu capitalen eta çure estatu eguinbiden gainean. *Bigarrena eta beharrena*, bil contricionea. Etçaitela behinere cofesa contricionea Yaincoari galdeguin gabe. Examina eguin ondoan, egon çaite bethi oren laurden baten ingurua bederen, liburua eta arrasorioac utciric, orhoitcen bereciki Yesu-Christoren Pasioneaz. Ez baduçu azken cofesatuz gueroz, bederen lehenago eta behar bada hanitz aldiz curutceficatu duçula çure bekatu mortalez. Hortaracotz arras on da estacionen eguitea. Deus hoberic ez da nola deboki curutcearen bidearen eguitea, segurtatceco bihotcean eguiazco urriki edo contricione hura, çoina gabe ez baititake behinere ongui errecebi absolicione saindua. Ez beraz, othoi, behinere ahantz hitz hauc Eliçaguiçon handienec erranac: *Hanitz cofesio eguiten da gaizki, hanitz arima galtcen da contricione escasez.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

COMUNIONECO OTHOITÇAC.

Comunione sainduaren aitcineco Othoitça.

Yainco adoragarri, Salbatçaile amulxua, ene gorphutceco beguiei sacramendu huntan estaltcen çarena, eçagutcen eta aithortcen dut ene beguiac ez litezkela gai çuri behatceco, eta ezdeusetarat bilhaca nindekela, çure Yaincozco distiadura, gloria eta mayestatean aguertcen bacine; ene flacotasuna gatic gueritçatcen çare beraz oguiaren eta arnoaren idurien azpian, bainan gorphutceco beguiez ikhusten banu baino fermukiago sinhesten dut aldareco sacramendu sainduan çarela eguiazki eta errealki çure gorphutz, arima, odola eta Yaincotasunarekin. Prest naiz, Yesus maitea, noiz nahi den eguia hunen sustenguan ene biciaren ematera. Ene arimac borthitzki desiratcen du çure gorphutçaren errecibitcea, ene bihotceco guticiaric handiena da çurekin bat eguitea: bainan nola iguriki deçaket çu ethor çaitecen ene ganat? Nor naiz ni, çuc niri çure buruaren emateco? Çu çare guiçonen Creatçailea eta Ain-

gueruen nausia, eta ni çure escuetaco obra; çu çare sainduetaco saindua, eta ni hekhatore gucietaric dohacabena; halere, ô Yesus guciz ona! çure ganat deitcen nauçu, ene bihotcean nahi duçu eguin çure egoitça: ceronec ez bacindu erraten norc sinhex leçake? Nor hurbiltcerat ausarta laiteke, ceronec ez bacindu manatcen? Çure hitz ezti, gombidatce amulxuec, çure manu adoragarriec animatcen naute, bainan ene bekhatuen nombreac eta phisutasunac guibelatcen naute: hola nahi duçunaz gueroz, ene esperantça gucia çure ontasun eta misericordia infinituan emanic, helđu naiz egun çure ganat, eria bere miricua ganat beçala, gose eta egarri dena biciaren ithurrirat, eta axecabez bethea bere consolatçaile podorosa ganat beçala, huna, Yauna, non naicen çure dohainez probotchatceco enetçat preparatu duçun axeguinezco banket huntan; errecibitcen ditut bozcariorekin çure fagoreac; ochala! ene indignitateac ez baliote trabaric ematen, eçagutcen duçu çure cerbitçaria, compli çaçu çure graciaz ene baithan escas den gucia; eguiçu, Yainco guciz botherexua, ene bihotça urth dadin gucia çuretçat, eta ez deçadan çutaz campoan bilha contsolacioneric. Ichuraçu çure gracia ene arimarat; emadaçu pharte çure benediccione eztietan;

Universidad de Deusto
Biblioteca

eguin neçaçu gai çu digneki errecibitceco sacramendu handi hortan ; atçar naçaçu ene lokhuma phisutic ; tira çaçu ene bihotça çure ganat ; bisita hortaz saindu çaçu, içan deçan çoriona Aingueruen oguiaren errecibitceco fede fermu ; eta amodio kharxu batekin, esperantça, humiltasun eta errespeturekin.

O Biryina gloriosa, Yaincoaren ama ! Çuc amulxuki errecibitcen eta fagoratcen ditutçu çure baithan bere fidantcia ematen duten guciac, esperantça horren azpian heldu naiz egun çure ganat ; eguiçu beraz gracia dibinoaren Ama, çure Seme maiteac egun ene baithan prepara deçan bere egoitça : soraraz eta finca detçan ene bihotcean berac galdeguiten dituen disposicioneac : eguiçu ; ô Ama amulxua, egun eguiten dudan comunioneac guibela naçan gaizkitic, borthitz naçan onguian, eta içan dadin enetçat phizte glorios baten bahi preciatua.

Balin baduçu dembora, iracuraçu laugarren liburuan lau arren capitulua.

Comunione sainduaren ondoco Othoitça.

O Yesus maitea, Ceru lurren Yabea eta Nausia, Cerua eta lurra bere edertasun guciarekin ichil beitez çure aitçinean, ecen deus badute laudagarriric, deus ederric, guciac heldu çaizte çure ontasunetic, eta manificentciatic, eta halere egun yauxi nahi içan çare lurric eta herrauxic baicen ez den bekhatore dohacabe hunen ganat, eman darotaçu çure gorphutz saindua yanharitçat, eta odol preciatua edaritçat ; çure Yaincotasuna eta guiçontasuna emplegatu içan dititçu ene gabearen bethetcen, eta beharren complitcen. O cein handia den egun ene ganat yauxi den Yauna ! Cein maitagarria den egun errecibitu dudan arrotça, eta cein charmagarria haren compainia ! Cein leyala ene bisitatcerat ethorri den adiskidea ! Cein ederra enekin yuntatu den esposa ! Cein miragarria eta maitatcea mereci duena, lurraren gainean maita eta desira daitezken guciac infinituki ichitcen dituenaz gueroz ! Cembat amodio, cembat errespetu, eçagutça eta laudorio ez darotkitçut çor, Yauna, çure gorphutz sacratuaz eguin darotaçun dohaina gatic ? Maitatuco çaitut beraz ene bihotz guciaz, ô Yesus guciz ona, eta guciz eztia ! eskerrac darozkitçut, eta eskerric handienac, laudatcen eta adoratcen çaitut eta ez naiz nihoiz ere gueldituco çure laudatcetic eta adoratcetic ; çure escuetan ematen naiz, eta ematen dut dudan guciac ; har naçaçu çure artharen azpian, beira naçaçu bicitce iragancor huntan,

eta guida naçaçu bicitce eternalerat, ene Yaincoa, eta ene Salbatçailea ! eguidaçu gracia, cembatenaz maiçago hurbilduco bainaiz sacramendu handi huntarat hambatenaz ene baithan berri ditecen guehiago çure alderat amodiozco eta debocionezco sentimenduac.

Biryina Saindua ! çuc çure sabel sacratuan ekharri duçun Yesus bera da orai ene baithan : lagun neçaçu comunio saindu huntaz çure seme maiteari eskerren bihurtcen. Othoitz çaçu ez dadin seculan ilki ene bihotcetic. Har neçaçu bethicotz çure gomendioan : eguiçu goça nadin mundu huntan bethi egun errecebitu dudan graciaz eta bertcean bethiereco bicitceaz.

Arras ongui eguinen duçu iracurtuz cerbait laugarren liburutic, eta bereciki bederatcigarren capitulua.

IGANDETACO BEZPERETAN.

Deus, in adjutorium meum intende. ℟. Domine, ad adjuvandum me festina.

† Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto : * sicut erat in principio, et nunc et semper, et in secula seculorum. Amen.

Ant. Dixit Dominus.

Psalmoa 109.

Dixit Dominus Domino meo : * Sede à dextris meis.

Donec ponam inimicos tuos * scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion : * dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum : * ex utero ante luciferum genui te.

Juravit Dominus et non pœnitebit eum : * tu es Sacerdos in æternum, secundùm ordinem Melchisedech.

Dominus à dextris tuis, * confregit in die iræ suæ reges.

Judicabit in nationibus, implebit ruinas; * conquassabit capita in terrâ multorum.

De torrente in via bibet; * propterea exaltabit caput.

Ant. Dixit Dominus Domino meo: * Sede à dextris meis.

Ant. Fidelia.

Psalmoa 110.

Confitebor tibi, Domine, in toto corde meo, * in concilio justorum et congregatione.

Magna opera Domini, * exquisita in omnes voluntates ejus.

Confessio et magnificentia opus ejus: * et justitia ejus manet in seculum seculi.

Memoriam fecit mirabilium suorum, misericors et miserator Dominus: * escam dedit timentibus se.

Memor erit in seculum testamenti sui: virtutem operum suorum annuntiabit populo suo.

Ut det illis hæreditatem gentium: * opera manuum ejus veritas et judicium.

Fidelia omnia mandata ejus, confirmata in seculum seculi, * facta in veritate et æquitate.

Redemptionem misit populo suo, * mandavit in æternum testamentum suum.

Sanctum et terribile nomen ejus: * initium sapientiæ timor Domini.

Intellectus bonus omnibus facientibus eum: * laudatio ejus manet in seculum seculi.

Ant. Fidelia omnia mandata ejus, confirmata in seculum seculi.

Ant. Qui timet Dominum.

Psalmoa 111.

Beatus vir qui timet Dominum, * in mandatis ejus volet nimis.

Potens in terra erit semen ejus: * generatio rectorum benedicetur.

Gloria et divitiæ in domo ejus; * et justitia ejus manet in seculum seculi.

Exortum est in tenebris lumen rectis; * misericors et miserator et justus.

Jucundus homo qui miseretur et commodat, disponet sermones suos in judicio; * quia in æternum non commovebitur.

In memoria æterna erit justus; * ab auditione mala non timebit.

Paratum cor ejus, sperare in Domino, confir-

matum est cor ejus, * non commovebitur donec despiciat inimicos suos.

Dispersit, dedit pauperibus; justitia ejus manet in seculum seculi: * cornu ejus exaltabitur in gloria.

Peccator videbit et irascetur, dentibus suis fremet et tabescet: * desiderium peccatorum peribit.

Ant. Qui timet Dominum, in mandatis ejus volet nimis.

Ant. Sit nomen.

Psalmoa 112.

Laudate, pueri, Dominum; * laudate nomen Domini.

Sit nomen Domini benedictum, * ex hoc nunc et usque in seculum.

A solis ortu usque ad occasum, * laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes Dominus, * et super cœlos gloria ejus.

Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat, * et humilia respicit in cœlo et in terra?

Suscitans à terra inopem, * et de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum principibus, * cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo, * matrem filiorum lætantem.

Ant. Sit nomen Domini benedictum in secula.

Ant. Nos qui vivimus.

Psalmoa 113.

In exitu Israel de Ægypto, * domûs Jacob de populo barbaro.

Facta est Judæa sanctificatio ejus, * Israel potestas ejus.

Mare vidit et fugit: * Jordanis conversus est retrorsùm.

Montes exultaverunt ut arietes, * et colles sicut agni ovium.

Quid est tibi, mare, quod fugisti? * et tu, Jordanis, quia conversus es retrorsùm?

Montes exultastis sicut arietes? * et colles sicut agni ovium?

A facie Domini mota est terra, * à facie Dei Jacob.

Qui convertit petram in stagna aquarum, * et rupem in fontes aquarum.

Non nobis, Domine, non nobis, * sed nomini tuo da gloriam.

Super misericordia tua et veritate tua; * nequandò dicant gentes: Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in cœlo; * omnia quæcumque voluit, fecit.

Simulacra gentium argentum et aurum, * opera manuum hominum.

Os habent et non loquentur; * oculos habent et non videbunt.

Aures habent et non audient; * nares habent et non odorabunt.

Manus habent et non palpabunt, pedes habent et non ambulabunt: * non clamabunt in gutture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea, * et omnes qui confidunt in eis.

Domus Israel speravit in Domino; * adjutor eorum et protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino; * adjutor eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum speraverunt in Domino; * adjutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostrî, * et benedixit nobis.

Benedixit domui Israel, * benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus qui timent Dominum, * pusillis cum majoribus.

Adjiciat Dominus super vos, * super vos et super filios vestros.

Benedicti vos à Domino, * qui fecit cœlum et terram.

Cœlum cœli Domino: * terram autem dedit filiis hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine, * neque omnes qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedicimus Domino, * ex hoc nunc et usque in seculum.

Ant. Nos qui vivimus, benedicimus Domino.

Capitula. Ephes. 1.

Benedictus Deus, et Pater Domini nostri Jesu Christi, qui benedixit nos in omni benedictione spirituali, in cœlestibus in Christo, sicut elegit nos in ipso ante mundi constitutionem, ut essemus sancti et immaculati in conspectu ejus in caritate.

℣. Deo gratias.

Hymnoa.

O Luce qui mortalibus
Lates inaccessâ, Deus!
Præsente quo sancti tremunt
Nubuntque vultus angeli.

Hic, ceu profundâ conditi
Demergimur caligine:

Universidad de Deusto
Biblioteca

Æternus at noctem suo
Fulgore depellet dies.
Hunc nempè nobis præparas,
Nobis reservas hunc diem,
Quem vix adumbrat splendida
Flamantis astri claritas.
Moraris, heu! nimis diu
Moraris, optatus dies:
Ut te fruamur, noxii
Linquenda moles corporis.
His cùm soluta vinculis
Mens evolàrit, ô Deus!
Videre te, laudare te,
Amare te non desinet.
Ad omne nos apta bonum,
Fœcunda donis Trinitas:
Fac lucis usuræ brevi
Æterna succedat dies. Amen.

℣. In Deo laudabimur totâ die.
℟. Et in nomine tuo confitebimur in seculum.

Ama Biryinaren Canticoa. Luc, 1.

Magnificat * anima mea Dominum.
Et exultavit spiritus meus * in Deo salutari meo.
Quia respexit humilitatem ancillæ suæ: * ecce

enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.
Quia fecit mihi magna qui potens est; * et sanctum nomen ejus.
Et misericordia ejus à progenie in progenies * timentibus eum.
Fecit potentiam in brachio suo; * dispersit superbos mente cordis sui.
Deposuit potentes de sede, * et exaltavit humiles.
Esurientes implevit bonis, * et divites dimisit inanes.
Suscepit Israel puerum suum, * recordatus misericordiæ suæ.
Sicut locutus est ad patres nostros, * Abraham, et semini ejus in secula.
Gloria Patri, etc.

Universidad de Deusto Biblioteca

IGANDETACO COMPLETETAN.

Converte nos, Deus salutaris noster.

℟. Et averte iram tuam à nobis.

Deus, in adjutorium. Gloria Patri, etc.

Ant. Miserere.

Psalmoa 4.

Cum invocarem, exaudivit me Deus justitiæ meæ: in tribulatione dilatasti mihi.

Miserere meî, et exaudi orationem meam.

Filii hominum, usquequò gravi corde? ut quid diligitis vanitatem et quæritis mendacium?

Et scitote quoniam mirificavit Dominus sanctum suum: Dominus exaudiet me, cùm clamavero ad eum.

Irascimini, et nolite peccare: quæ dicitis in cordibus vestris in cubilibus vestris compungimini.

Sacrificate sacrificium justitiæ, et sperate in Domino; multi dicunt: Quis ostendit nobis bona?

Signatum est super nos lumen vultûs tui, Domine: dedisti lætitiam in corde meo.

A fructu frumenti, vini, et olei sui, multiplicati sunt.

In pace in idipsum dormiam, et requiescam.

Quoniam tu, Domine, singulariter in spe constituisti me.

Psalmoa 90.

Qui habitat in adjutorio altissimi, in protectione Dei cœli commorabitur.

Dicet Domino: Susceptor meus es tu, et refugium meum: Deus meus, sperabo in eum.

Quoniam ipse liberavit me de laqueo venantium, et à verbo aspero.

Scapulis suis obumbrabit tibi, et sub pennis ejus sperabis.

Scuto circumdabit te veritas ejus: non timebis à timore nocturno.

A sagitta volante in die; à negotio perambulante in tenebris; ab incursu, et dæmonio meridiano.

Cadent à latere tuo mille, et decem millia à dextris tuis: ad te autem non appropinquabit.

Verumtamen oculis tuis considerabis, et retributionem peccatorum videbis.

Quoniam tu es, Domine, spes mea: altissimum posuisti refugium tuum.

Non accedet ad te malum, et flagellum non appropinquabit tabernaculo tuo.

Quoniam angelis suis mandavit de te, ut custodiant te in omnibus viis tuis.

In manibus portabunt te, ne fortè offendas ad lapidem pedem tuum.

Super aspidem et basiliscum ambulabis, et conculcabis leonem et draconem.

Quoniam in me speravit, liberabo eum: protegam eum, quoniam cognovit nomen meum.

Clamabit ad me, et ego exaudiam eum: cum ipso sum in tribulatione; eripiam eum, et glorificabo eum.

Longitudine dierum replebo eum, et ostendam illi salutare meum.

Psalmoa 133.

Ecce nunc benedicite Dominum, omnes servi Domini.

Qui statis in domo Domini, in atriis domûs Dei nostri.

In noctibus extollite manus vestras in sancta, et benedicite Dominum.

Benedicat te Dominus ex Sion, qui fecit cœlum et terram.

Ant. Miserere mei, Domine, exaudi orationem meam.

Trinitatetic Abendoraino Hymnoa.

Grates, peracto jam die,
Deus, tibi persolvimus,
Pronoque, dùm nox incipit,
Prosternimus vultu preces.
Quod longa peccavit dies
Amarus expiet dolor;
Somno gravatis nè nova
Infligat hostis vulnera.
Infestus usque circuit
Quærens leo quem devoret:
Umbra sub alarum tuos
Defende filios, Pater.
O quando lucescet tuus
Qui nescit occasum dies?
O quando sancta se dabit
Quæ nescit hostem patria?
Deo Patri sit gloria
Ejusque soli Filio;
Sancto simul cum Spiritu,
Nunc et per omne seculum. Amen.

Capitulua: 1 Thess., 5.

Omnes vos filii lucis estis, et filii diei: nos sumus noctis, neque tenebrarum, igitur non dormiamus sicut et cæteri, sed vigilemus et sobrii simus.

℟. *br.* In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum. ℣. In manus. Redemisti me, Domine, Deus veritatis. Commendo. Gloria Patri. In manus.

Ant. Domine.

San Simonen Canticoa. Luc, 2.

Nunc dimittis servum tuum, Domine, secundùm verbum tuum in pace.

Quia viderunt oculi mei salutare tuum.

Quod parasti ante faciem omnium populorum.

Lumen ad revelationem gentium, et gloriam plebis tuæ Israel.

Ant. Domine, custodi partem tuam, utsive vigilemus, sivedormiamus, simul cum Christo vivamus.

℣. Dominus vobiscum. ℟. Et cum spiritu tuo.

Oracionea.

Visita, quæsumus, Domine, habitationem nostram, et omnes insidias inimici ab ea longè repelle: Angeli tui sancti habitent in ea, qui nos in pace custodiant; et benedictio tua sit super nos semper. Per, etc.

℣. Dominus vobiscum. Benedicamus Domino, etc.

Gratia Domini nostri Jesu Christi, et caritas Dei, et communicatio Sancti Spiritûs sit cum omnibus vobis. ℟. Amen.

Salve, Regina, Mater misericordiæ; vita, dulcedo et spes nostra, salve. Ad te clamamus, exules filii Evæ. Ad te suspiramus gementes et flentes in hâc lacrymarum valle. Eia ergo, advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte. Et Jesum benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende; ô clemens! ô pia! ô dulcis Virgo Maria!

℣. Ora pro nobis, sancta Dei genitrix.

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

YESU-CHRISTOREN
IMITACIONEA.

LEHENBICICO LIBURUA.

BICITCE ISPIRITUALECOTZ ON DIREN ABISUAC.

I. CAPITULUA.

Imita Yesu-Christo, mezpreça munduco banitate guciac.

Niri *yarraikitcen dena ez dabila ilhunbean,* dio Yesu-Christoc. Hitz horiez gure salbatçaileac irakhasten darocu nola behar ditugun imitatu haren accioneac eta berthuteac, eta bici, hura bici içatu den beçala, eguiazco arguiaz nahi badugu arguitu eta bihotceco itsutasunetic osoki libratu.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Beraz gure artharic handiena içan behar da Yesu-Christoren bicitcea gogoan erabiltcea, eta hura bethi meditatcea.

2. Sainduec irakhasten darozkiguten gauçac ez dire deus, Yesusec berac irakhasten darozkigunen aldean, eta Yaincoaren izpiritua lukenac causi leçake eta gusta haren doctrina sainduan gordea den manna cerucoa.

Ordean hanitcec entçuten dute maiz Ebanyelioa progotchu gabe, eta haren obratceco guticiaric sentitu gabe. Cergatic? Ceren ez baitute Yesu-Christoren izpiritua.

Haren hitçac ungui aditu eta guztatu nahi dituenac hasi behar du haren berthuten imitatcetic, eta bici behar du ahalaz hura bici içatu den beçala.

3. Cer probetchu cinduke Trinitateco misterioaz gauça barnenac eta gordeac yakitea, eta hetaz çuhurki eta goraki minçatcea, humil içan faltaz, gaitzetsia baçare Trinitateco presunez?

Eguiaz gauça gorez minçatceac, eta hitz ederren errateac ez gaitu saindutcen; berthute choilac eguiten gaitu Yaincoaren gogoraco.

Nahiago dut minki sentitu bihotcean ene bekatuen dolorea, ecen ez yakin nola presuna yakintsunec dolore hura esplicatcen duten.

Escritura gucia eta filosofo gucien erranac gogoz bacinakizki ere, cer probetchu cinduke, ez baduçu Yaicoaren amodioa eta gracia?

Banitatetaco banitatea, eta gauça guciac dire banitate; deus ere munduan ez da funsezcoric, baicen Yaincoaren maitatcea eta hura choilki cerbitçatcea.

Çuhurciaric handiena da mundua mezpreçaturic, cerurat gure guticia gucien itçultcea eta harat lehiatcea.

4. Banitate da beraz eta errhokeria aberastasun galkorren ondoan ibiltcea, eta hetan norc bere esperançaren eta fidanciaren ematea.

Banitate da eta enganio munduco ohoren bilhatcea, eta bertceac baino gorago igan nahi içatea.

Gauça banoa eta funsgabecoa da oraino haraguiaren guticien seguitcea, eta hain garrazki punituco diren axeguinen maitatcea.

Banitate eta çorokeria da bicitce lucea desiratcea, eta ungui bicitceaz contu guti eguitea.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Banitate dohacabe bat da halaber norc bere artha guciac bicitce huntan ematea, eta ethorkiçuneco bicitceaz hurren ez orhoitcea.

Finean banitate handi bat da hain laster iragaten diren gaucei amodioz lotcea, eta bethi iraun behar duen corionarentçat ez kharric, ez lehiaric içatea.

5. Orhoit çaite maiz erran comun huntaz : *Beguia ez da asetcen ikustez, ez beharria aditcez.*

Hari çaite ahal guciaz çure bihotça gauça ikhusten direnen amodiotic apartatcen, eta ikhusten ez diren ontasunei iratchekitcen. Ecen bere sensuen nahicarac complitu nahi dituztenec lohitcen dute bere contcientcia eta galtcen Yaincoaren gracia.

Cer eguin behar dut beraz ?

Nahi baduçu erreligionearen yakitea salbamenduco balia dakiçun, yarraiki behar çaizcote Yesu-Christoren urraxei, eta behatu munduco gauça guciei ezdeuskeria batçuri beçala. Daiteken enganioric ondicozcoena baita, Jesu-Christoz onhexiac eta salbamen-

duco bidean garela uste içaitea berac eman daizcun exempluac seguitu gabe.

Othoitça.

Eçagutcen dut, Yesus maitea, alfer leitekeela enetçat, erreligioneco eguia gucien jakitea, çu ceroni munduan bici içan çaren beçala, hekien arabera bici ez banaiz. Eguidaçu, othoi, gracia, yakintasun horren arabera biciteco, behar dudan khar guciarekin.

II. CAPITULUA.

Guti iduc gure buruac, humil behar dugu içan gure yakin huciekin ere.

Guiçonac bere eguitez eta naturaleçaz du jakiteco guticia. Bainan certaco da yakitea, Yaincoaren beldurtasuna gabe ?

Eguiaz laborari humil eta Yaincotiarrac guehiago du balio filosofo urguluxuac baino, ceinac bere arimaren artha largaturic, ceruari eta içarrei beha baitarama dembora.

Bere burua ungui eçagutcen duenac, ar-

Universidad de Deusto
Biblioteca

buyatcen du bere burua, eta halacoac ez du axeguinic hartcen guiçonec ematen dioçaten laudorietan.

Munduco gauça guciez yakinxun banintz, eta ez banu caritatea, cer probetchu nuke Yaincoaren aitcinean, ceinac ene obren arabera yuyatuco bainan.

2. Utçaçu sobera yakiteco guticia; ecen hirritz harc hanitz izpirituco barrayadura dakharke, eta maiz enganioa.

Yakinxunec aguertu nahi dute eta çuhur fama ardiexi munduan.

Bizkitartean badire mila gauça, ceinen yakiteaz arimac ez baitu probetchu garbiric, edo hanitz guti.

Eta erhokeria handia da, salbamenducotz on diren gaucez bertcetan, gogoaren emaïea.

Hitz hanitcec ez dute contentatcen arima, bainan bicitce onac consolatcen du eta conscientcia chahuac ematen dio Yaincoa baitan fidancia handi bat.

3. Cembatenaz baitçare arguituago, hambatenaz punituco çare garrazkiago ez baçare yakinaren arabera sainduki bicitcen.

Içan çaçu beraz urgulu baino beldur gueIMITACIONEA. I. LIB. 49

hiago eman çaizkitçun arguien eta talenduen gatic.

Uste duçu menturaz hanitz gauça ikhasi ditutçula eta ungui dakizkitçula; segura çaitc hanitzcez guehiago direla çuc ez dakizkitçunac.

Ez içan çure buruaz urguluzco gogoetaric; contrarat aithor çaçu garbiki çure yakingabetassuna.

Cergatic çure burua iduc bertceac baino guehiago; hanitz direnaz gueroz çu baino yakinxunagoac eta Yaincoaren legueaz arguituagoac?

Nahi duçu çure istudioaz eta yakinaz ungui probetchatu? Onhetsçaçu arbuyatua içatea, eta nihortaz eçagutua içan gabe bicitcea.

4. Ikhascariric gorena eta probetchosena da gure buruen eçagutcea eta mezpreçatcea.

Ala çuhurcia eta perfeccione handi baten seinalea baita norc bere burua guti, eta bertce guciac hanitz idukitcea!

Ikhusten bacin du norbait huts agueritan erortcen, edo bekhatu handien eguiten, etcinuke hargatic çure burua hura baino hobeagotçat estimatu behar: ecen ez dakiçu

Universidad de Deusto
Biblioteca

noiz arteraino iraunen duçun estatu onean eta graciazcoan.

Guciac flacoac gare : bainan çuc uste behar duçu ez dela nihor çu baino flacoagoric.

Cer eguin behar dut beraz ?

Izpiritu Sainduac dio, deus ere ez dela guiçona Yaincoaren eçagutça gabe. Galdeguioçu beraz humilki Yaincoari, haren perfeccionez eta çure salbamenduaz guciz gainetic occupa araz çaitçaken fede bici hura. Gaineraco yakintasun guciac hura gabe, izpirituaren barrayatceco, eta bihotçaren agortceco baicen ez dire baliatcen.

Othoitça.

Nola beha deçakeçuket, ene Yesus maitea, gucia çutaz hartua içan gabe ? Eta nola beha dioçoket nere buruari, nere buruaz nardatua içan gabe ? Eguiçu, othoi, çure graçiaz, çure bicitce gorde eta aphalaren eçagutceco baicen artharic, harentçat baicen amodioric, hari yarraitkitceco baicen gosturic, ez deçadan içan. Halabiz.

III. CAPITULUA.

Yaincoaren entçutea, nore bere buruaren eçagutcea eta garraitcea dela eguiazco doctrina, eta ikhasibehar den çuhurtcia.

Dohaxu eguia, den beçala, bere baitan eçagutcen ducna, eta ez figura edo hitz clartasunic utci gabe iragaten direnez.

Gure usteac edo opinioneac enganatcen gaitu maiz, eta gure izpirituco bichta choil da laburra eta flacoa.

Cer probetchu da hain çorrozki arraçoinatcea gauça ilhunez eta estaliez, ceinen ez yakitea ez baitçaitçu bekhatutçat khondatuco Yaincoaren yuyamenduan ?

Errhokeria handia da gauça baliosac eta yakin beharrac utciric, probetchu gabecoen eta caltecorren ondoan ibiltcea ; hori da beguiac içatea, eta hetaz ez baliatcea

2. Certacoditugu filosofoen ihardukitce badnoac, eta hekien kestione deusetaco on ez direnac ?

Berbo eternala irakhastaile duenac, ez du

horlaco gauça alfer eta funsgabecoez izpiritua trabatcen.

Gauça guciac Berboac eguin ditu; hartaz mintço çaizkigu gauça guciac. Hura da gure lehenbicico principioa, eta hura bera mintço çaicu.

Harc ez bagaitu arguitcen ecin deus ikhas deçakegu, ecin deusez ungui yuyadeçakegu.

Yainco choila gauça gucien orde duenac; gauça guciac Yainco choila-ganat dakharzkenac, guciac haren baitan ikhusten dituenac causitcen du bere bihotceco descansua eta bere bakea Yaincoa baitan.

O ene Yaincoa, eguia eternala eta soberanoa! çurekin bat eguin naçaçu bethi iraunen duen amodioaz.

Hanitcetan unhatcen naiz hambat aditceaz eta iracurtceaz: cure baitan da ene guticia gucien compligarria.

Ichil beitez dotor guciac, ichil beitez creatura guciac çure aitcinean: çu choilki mintça çakizkit.

3. Cembatenaz baita nihor gauça gucietaric apartatuago, bere baitarat bilduago, bere barnean sarthuago, hambatenaz errechkiago

eçagutcen ditu misterioric gorenac: ceren eguiazco arguiac heldu baitçaizco cerutic.

Arima garbia, simplea, chuchena, eta bere deliberacione onei fermuki datchacoena, beguiratcen da bere baitaric sobera ilkitcetic eta hanitz eguitecotan bere burua barrayatcetic: ceren ez baitu gogoan Yaincoaren loria baicen, bere burua deusetan ere bilhatu gabe.

Deusec ere ez darotçu hambat pena ematen eta hambat traba, nola çure bihotceco guticia desordenatuec, hekien hezteco eta mortificatceco artharic ez duçunean.

Presuna prestu eta Yaincotiarrac bere barnean lehenic moldatcen eta arrimatcen ditu, camporat eguin gogo dituen obrac.

Handic heldu da bethi arraçoinaz gobernatcen baita, eta naturaleça bicioxuaren nahicarac ez baititu eguiten.

Norc du gudu borthitçagoric bere burua garaitu nahiz hari denac beino? Hortaz gure lan bakharra behar leiteke gure pendura gaichtoei guerla eguitea, gure buruen heztea, eta egun oroz berthutean aitcina yoaitea.

4. Gure perfeccionea cerbait escasekin

Universidad de Deusto
Biblioteca

yuntatua da bethi ere mundu huntan, eta gure arguiac ez dire cerbait ilhuntasun gabe. Çure buruaren eçagutça humila bide seguragoa duçu Yaincoa ganat yoaiteco, yakintasunic handiena baino.

Ez da hargatic arbuyatu behar edo gaichtotçat iduki behar yakintasuna eta istudioaren bidez ardiesten diren eçagutçac: onac dire berenez eta Yaincoaren ordenuaren arabera; bainan hobeagoa eta preçatcecoagoa bethi ere contcientcia garbia eta bicitce saindua.

Bainan nola guehienec guticia handiagoa baitute hanitz yakiteco, ecen ez ungui bicitceco, erortcen dire enganiorat eta eguiten dute probetchu guti, edo batere ez.

5. Oi! hain arthoski hari balire bicioen erroetaric atheratcen eta bertuten landatcen nola gauça banoez arraçoinatcen eta ihardukitcen, ez leiteke hambat gaichtakeria eta escandala ikhuz munduaren artean, ez hambat desordenu comentuetan.

Eguiaz azken yudicioan etçaitçu galdeguina içanen cer iracurri duçun, bainan cer eguin duçun: ez eta ea ederki mintçatu çaren, bainan ea eta sainduki bici içatu çaren.

Erradaçu, non dire orai dotor eta nausi çuhur hec noizbait bici ciren demboran eçagutu ditutçunac? Hekien cadirac eta beneficioac bertcec daduzcate, menturaz hetaz orrhoitcen ez direnac; bici cireno preçatuac ciren eta laudatuac, eta orai hetaz nihor ez da mintço.

6. Oi cein laster doan munduco loria! Ochala yakinxun beçain saindu içatu balire! Manera hortan etçuten eguinen istudio eta iracurtce probetchosic baicen.

Cembat dire munduan bere yakintasun banoaz galtcen direnac, contu guti eguinic Yaincoaren cerbitçatceaz.

Nola nahiago baitute munduaren beguietan handi içan, ecen ez humil, errebelatcen dire eta galtcen bere arraçoinamenduetan.

Caritate handiac eguiten du eguiazco handitasuna, eguiazco handia da bere burua chume daducana, eta ohoreric handiena ere arbuyatcen duena.

Eguiazco çuhurra da lurreco *gauça guciac balsaren pare daduzcana, Yesu-Christo irabaztea gatic.*

Eguiazco yakinxuna da, bere nahiari ukho

eguinic, Yaincoaren borondatea complitcen dakiena.

Cer eguin behar dut beraz?

Istudia çaçu erreligionea, entçun caçu Yaincoaren hitça. Iracur çatçu liburu debocionezcoac, bainan bethi Yaincoari cer dioçun çor, eta salbatceco cer eguin behar duçun, ikhasteco chedean. Cer baliatuco çaitçu egun batez berce yakintasun guciac? Utzkitçu aldebat munduco arraçoinamendu funtsgabeac, bai eta ihardokitceac.

Othoitça.

Ahalcatua, Yauna, ceren hambat aditcen, eta hain guti eguiten dudan salbatceco, arnegatcen diotet hementchet çure oinetan, çure eçagutcerat, maithatcerat eta cerbitçatcerat ez nakarketen yakintasun eta solas guciei. Eguiçu, othoi, hemendic harateco guciac horietaco balia dazkidan.

IV. CAPITULUA.

Ez errechki sinhets bertcez erraten den gaizkia. Ez gaizki yuya edo mintça bertcez. Balia prudenciaz.

Ez dire sinhetsi behar erraten çaizkigun, edo gogorat heldu çaizkigun guciac: bainan gauçac pisatu behar dire Yaincoaren arabera arthoski eta goardia handirekin.

Helas! gure flacotasuna hain handia da, non gogoticago bertcez sinhesten eta erraten baitugu gaizkia, ecen ez unguia.

Bainan perfetec ez dute arinki edo cein presuna sinhesten: eçagutcen dute cein herbal, cein erorcor den guiçona, eta cein errechki minçatcen den gaizki bere lagun proximoaz.

2. Prudentcia handia da eguitecotan ez lasterregui yoaitea, eta gure ustean edo sinhestean ez ixutuki gogortcea.

Prudentciari dagoco halaber erranguciен ez sinhestea, eta aditu eta sinhetsi gucien ez erratea.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Harçaçu bethi ere contseilu guiçon çuhur eta prestu baten ganic, eta çure arguiac baino harenac guehiago preça çaitçu.

Bicitce onac eguiten du guiçona Yaincoaren arabera çuhur, eta ematen dio experientcia handi bat.

Cembatenaz baita nihor humilago, cembatenaz haren baitan Yaincoac causitcen baitu contresta gutiago, hambatenaz du hainac çuhurtcia eta sosegu guehiago.

Cer eguin behar dut beraz?

Deusetan ez deçaçula segui çure baithaco lehen moguimendua, ez solasean, ez aditcean, ez axecabean, ez nahigabetan. Behinere ez fida bercez gaizki mintço denari. Beguira pasionezco urhaxetaric, eta hitzcuncetaric. Yaincoac eman daraitçu fedea eta adimendua, cer dakharkeyen pisatceco mundu huntaco eta bertceco.

Othoitça.

Begui ninian colpatcen çaituztela, dioçu ceronec, bere lagunaz gaizki mintço direnec, ô ene Yaincoa, eta gaitzesten tutçula,

çure arguiac consultatu gabe, bere yaiduraz dabilçanac. Eguiçu, othoi, ene accione, solas, eto gogoeta guciac pisa detçadan, caritatearen balantça çucenetan. Halabiz.

V. CAPITULUA.

Nola behar diren iracurri Escritura sainduac, eta debocionezco liburuac. Contseilu galdatu behar çayela presuna çuhur eta prestuei.

Eguia behar da Escritura sainduan bilhatu, ez elokentcia eta hitcen distiadura.

Escritura gucia iracurri behar da eguin den izpiritu eta chede berarekin.

Han ez da bilhatu behar hitcen edertasuna eta arrimua, bainan arimaren probetchua.

Iracurditçagun hain gogotic liburu izpiritualac eta debocionezcoac, lagnoac içan arren eta edergailu gabeac, nola curiosac eta gauça gorez mintço direnac.

Et çaçula beguira ea liburuaren eguilea yakinxuna den, ala ez. Bainan eguiaren amodio choilez iracuraçu.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Pisaçaçu cer erraten çaitçun, contu eguin gabe nor den errailea.

2. *Guiçonac badoaz, ordean Yaincoaren eguia bethi dago.*

Yaincoa mintço cautçu hanitz manera suertez, eta placer duen presuna guciez.

Gure curiostasuna dela causa galtcen dugu maiz liburu sainduen irracurtcetic guinduken probetchua; çundatu nahi dugunean, lagnoki iragan behar laitekeena, eta arraçoinamenduric gabe sinhetsi behar laitekeena.

Nahi baduçu çure iracurtcez probetchatu, iracuraçu humilki, chimpleki eta federekin, yakinxun aguertceco guticiaric gabe.

Çuhurrei gogo onez galdeguioçute contseilu, eta errespeturekin entçun çaitçu sainduen hitçac; etçaitçula arbuya çaharren erran comunac, ecen ez dire arraçoinic gabe erranac, eta maiz erraten dute cembait eguia handi.

Cer eguin behar dut beraz?

Iracur çaitçu liburu sainduac, eta debocionezcoac, eguia eternalen ikhasteco, berthutezco sentimenduen ardiesteco, eta hekien arabera çure biciaren erreguelatceco che-

dean. Iracurtcen hastean, galdeguioçu izpiritu sainduari liburuan aurkhituco tutçunen comprenitceco, onhesteco, eta obretan emaiteco gracia.

Othoitça.

Mintça çaite; othoi, Yauna, ene biholçari; iracurtcen ditudan eguiec ene izpiritua arguitcen duten demboran. Eguiçu çure graciaz, çure borondate adorragariac eçagut, eta har detçadan liburu huntan, ene biciaren erreguela içan ditezken beçala hemendic harat. Halabiz.

VI. CAPITULUA.

Affeccione eta guticia desordenatuez. Ecin dukegula bakeric hec mortificaturic eta heciric baicen.

Guiçonac ez du hain laster guticia desordenatu bat bere baitan garaitcerat uzten, non khechatcen eta alteratcen baita berehala.

Urguluxuec eta abariciosec ez dute behin ere pausuric: pobreac eta izpiritu humilac bake handi batean daramate bicia.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Bere baitan osoki mortificatua ez dena eta bere pasioneac hilac ez dituena, maiz da tentatua, eta laster garaitua tentacioneric chumenez.

Presuna flacoa, berthutean guti borthiztua eta sensuen axeguinen guticiac dituena, nekez libratcen da arras munduco gaucen amodiotic.

Hargatic maiz tristatcen da eta erortcen çayo bihotça hetaric apartatu behar duenean; eta galtcen du errechki pacientcia nihorc contra eguiten dioenean.

2. Bere guticia contentatcen badu, berehala contcientciaco harrac altaratcen du; ceren ez baitu axeguin falso hartan causitcen bilhatcen çuen bakea eta sosegua.

Beraz bihotceco bakea ez da edireten gure nahi desordenatuac compliturie, bainan bai heyer contra eguinic.

Hala eguiazco sosegu hura ez daiteke causi guiçon haraguizcotan, munduco izpirituac darabilçanetan, eta campoco gaucetarat barrayatuac direnetan: bainan causitcen da debocione kharsua dutenetan, presuna barnecoi eta Yaincoaren izpirituaren arabera bici direnetan.

Cer eguin behar dut beraz?

Eçagut çaitçu çure nahiac çure exaitçat. Contresta eguioçute gauça chumetan; eta hala handietaco heciac causituco tutçu. Gauçaric hoberenetan beretan guticia handiago, eta gutiago fida içan caizkio. Segur da, Yaincoari ederrago çayola gure nahiaz eguiten diogun sacrificioa, hainitz obra on baino, eta hala deusez ez dugula hain ongui ardiexico barneco goçoa, nola gure yaidurei bortcha eguiteaz.

Othoitça.

Bai, nere falta dut, ene Yaincoa, bakeric gabe, barnea grinaz bethea bici bainaiz. Ukho eguiten diotet mement huntaric nere guticia guciei, gauça gucietan çure nahiei bakharric behatceco, Emadaçu, othoi, hortan finki egoiteco behar dudan indarra. Halabiz.

VII. CAPITULUA.

Gure esparantça eman behar dugula, ez gurebaitan, edo bertce guiçonen baitan, bainan Yaincoa baitan, ceina ganic heldu baitire on guciac. Humiliatu behar dugula, eta gure buruac iduki behar ditugula bertce guciac baino gutiago.

Banoa da eta çoratua bere esperantça guiçonetan, edo cein nahi den creaturetan ematen duena.

Ez içan ahalgue Yesu-Christo gatic bertcen cerbitçatcera, eta mundu huntan pobre aguertcera.

Etçaitecela fida çure baitan : bainan çure fidantcia gucia emaçu Yaincoa baitan.

Eguiçu çure aldetic çure eguin ahala, eta Yaincoac lagunduco çaitu çure nahi eta chede onetan.

Etçaitecela fida çure yakintasunean, ez eta cein nahi den guiçonen prudentcian, edo abiltasunean : bainan çure esparantça emaçu

Yaincoaren gracian, ceinac laguntcen baititu humilac, eta humiliatcen beren baitan sobera condatcen dutenac.

2. Baldin baditutçu aberastasunac etçaçula hetan eman çure gloria eta urgulua ez eta çure adiskidetan, podorosac badire ere, bainan çure contsolacionea eta bozcarioa emaçu Yaincoa baitan, ceina ganic baititugu guciac eta ceinac bertce gucien gainerat eman nahi baitarocu bere içaitea ere.

Contu guti eguiçu çure ungui eguintasunaz, edertasunaz, eta gorphutceco bertce abantailez, ceinac eritasun chume batec desegiten baititu.

Etçaitela urgulutan sar çure abilitaleaz edo izpirituco çorrotztasunaz ; beldurrez gaitci dakion Yaincoari ceina ganic baititutçu dituçun dohain eta talendu natural guciac.

3. Etçaçula atchic çure burua bertceac baino hobeagotçat, beldurrez gucietaco gaichtoena aguer çaitecen Yaincoaren beguietan, ceinac eçagutcen baitu guiçonaren barnea.

Ez içan urguluric çure obra onen gatic : Yaincoaren yuyamenduac guretaric hanitz

Universidad de Deusto
Biblioteca

dire diferentac, eta harc gaitzesten du maiz guiçonei eder çayena.

Deus onic balinbada çure baitan sinhets çaçu guehiago dela bertceren baitan, eta horela egonen çare humiltasunean.

Ez duçu deus hirriscatcen çure burua bertce gucien azpian emateaz : bainan hanitz galtcen duçu çure burua batez gorago idukitceaz.

Bethiereco bakea du humilac : bainan urguluxuaren bihotcean maiz causi daiteke veloscortasuna, eta asarretasuna.

Cer eguin behar dut beraz?

Çorigaitz, dio izpiritu sainduac, creaturen baitan bere esparantça emaiten dutenentçat. Beraz deus onic baduçu, edo heltcen baçautçu, Yaincoari esquerrac bihurçotçu. Ez deus onic iduric ez çure ganic, ez nihoren ganic. Bainan bethi emaçu çure burua guciac baino aphalago.

Othoitça.

Ahalcatua, Yauna, nere içanean, eta munduaren laguntcetan ceren condatu dudan,

heldu naçaitçu misericordia eske, ô! ene Yaincoa, eta ene gucia. Çu içanen çare ethorkiçunean ene sustengu, ene esparantça, eta ene on bakharra. Eguidaçu, othoi, gracia sentimendu horietan bicitceco, eta hiltceco. Halabiz.

VIII. CAPITULUA.

Hautatu behar dela adiskide çuhur eta prestu bat; ez dela behar familiertu asco presuna suertekin.

Ez *dioçoçula edo-ceini-aguer çure bihotça*, bainan mintça çaite çure eguitecoez guiçon çuhur eta Yainco beldurti batekin.

Yende gaztekin, campocoekin, mundanoekin, gutitan causi çaite.

Ez aberatsei lausenga, eta ez çure gostuaren gatic aguer handien aitcinean.

Adiskide eguin çaite humilekin chimple eta chuchenekin, prestu eta Yaincoatiarrekin, eta mintça çaite bethi ere arimacotz on diren gaucez.

Ez içan adiskidetasun berecirc edo trebe-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tasunic emazteki baterekin ere ; bainan Yaincoari gomenda diotçotçu generalki emazte berthutezco guciac.

Yainco choilarekin eta ainguerekin desira çaçu maicenic içatea, egotea, mintçatcea ; eta ihes eguiçu guiçonen eçagutçari.

2. Mundu gucia maitatu behar da ; bainan hirriscu da mundu guciarekin trebe içatea.

Maiz preçatcen da presuna eçagutua ez dena bere fama ona gatic, eta bera aguertcen denean galtcen baitu bere estimua.

Uste dugu batçuetan bertcec axeguin dutela gure maiz ikhusteaz, eta hec berec gaitzesten gaituzte hambatenaz guehiago, cembatenaz gure escasac hurbilagotic ikhusten baitituzte.

Cer eguin behar dut beraz ?

Neke da, imposible ez erraiteco, adiskidetasun bereci batec, samurtasun, edo trebetasun batetarat ez deçan ekhar, izpiritua barrayatuco, dembora hanitz gal-araicico, eta barnean egon beharrac camporat atheratcico : hortacotz ongui pisa çaitçu capitulo hortaco articuluac.

Othoitça.

Ene bihotçac lurreco adiskidetasunetarat duen yaidurac, certara othe nau, çure beguietan, ô ! ene Yaincoa ? ez othe da eguia eskergabeki creatura ez deus bat preferatu daroçudala ? Eguiçu, othoi, ô ! on gucien ithurburua, bihotz triste hau, ez dadin goça, ez pausa çure ganaco amodioric samurrenean baicen, orai danic heriotceraino. Halabiz.

IX. CAPITULUA.

Maita obeditcea eta bertceren guidaren azpian içatea ; nor bere ustean ez sobra finca, eror bertceren nahirat eta abisurat.

Gauça handi bat da obedientciaren azpian bethi bicitcea, eta norc bere libertateari alde baterat ukho eguitea.

Segurago bide da, manatcea baino, obeditcea. Hanitcec obeditcen dute, ez amodioz, bainan bortchaz ; eta hec pena hanitz dute, eta deus gutiz arrenguratcen dire.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Ez dute halacoec seculan ardiexico izpirituco libertatea, non ez diren obedientciaren azpian ematen bere bihotz guciaz, Yaincoaren amorea gatic.

Ibil çaite lekhuz lekhu nahi duçun becembat, ez duçu causituco eguiazco bakeric, aitcindari baten guidaren azpian humilki ematen ez baçare.

Lekhuz aldatceco guticiac, eta bertcetan hobeki içateco usteac hanitçac enganatu ditu.

2. Eguia da; batbederari on çayo bere buruz gobernatcea, eta guiçonec maitatcen dituzte hekien nahirat eta abisurat erortcen diren presunac.

Bainan Yaincoa gurekin bada bebar diogute batçuetan ukho eguin gure izpirituco arguiei bakearen ontasuna gatic.

Cein da guiçon hain çuhurra, gauça guciac perfeki dakizkina.

Etçaitecela beraz sobera gogor çure abisuan eta sinhestean, bainan gogotic entçun çaçu eta segui bertcerena.

Çurea ona delaric uzten baduçu Yaincoa gatic, eta hartcen bertcerena, merecimendu handi içanen duçu.

3. Hanitcetan aditu dut hobeago dela, eta segurago, mintçatcea baino, entçutea, eta contseilu ematea baino, hartcea.

Guertha ere daiteke batçuen eta bertcen abisua ona den: ordean bertcerenerat ez yaustea, arraçoinac edo occasioneac hala galdetcen duenean, urgaluaren eta hisiaren seinalea da.

Cer eguin behar dut beraz?

Errana da Yesu-Christoz, bere nahi propia deusetan ez duela eguin. Bere arguiei ukho eguitea da, Yaincoaren amodiaren seinale handia; bere usteari atchikia içaitea hisiatsuarena den beçala. Beraz bethi engana beldur içan çaite çure opinionean, eta bercenerat eror errechki.

Othoitça.

Nola ikhus çaitçaket ô! ene Salbatçaile maitea, nola ikhus çaitçaket, hogoi eta hamar urthez, çure ama biryinari, eta san Yosephi obeditcen, bertcen azpico içaitean nere axeguin gucia eman gabe? Obeditu dioçute burreiiei gurutcerainocoan. Iraunguit-çatçu,

Universidad de Deusto
Biblioteca

othoi, ene bihotcean urguluaren, eta hissiaren sentimendu guciac, imita-çaitçadan guciz çure obedientcian, eta humiltasunean. Halabiz.

X. CAPITULUA.

Utz mundanoen companiac eta solas sobraniazcoac ; beguira ichiltasuna ; probetchos dire hanitz solas ispiritualac.

Ihez eguioçu ahal guciaz munduco harraboxari eta nahasmenduari, ecen chede gaichtoric ez içan arren, munduco gaucen erabiltceac trabatcen du hanitz izpiritua.

Banitatezco airea sartcen da solas hetan, ceinac liçuntcen baitu laster gure arima eta debecatcen Yaincoa gana libroki altchatcetic.

Ala nahi bainuke hanitz orduz egotu banitz ichilic, eta yende artean ez banintz causitu!

Bainan nondic dugu hambat guticia elkharrekin minçatceco, solas hetaric hurren behin ere contcientcia çaurthu gabe ilkhitcen ez garelaric?

Hori heldu da, ceren solas hekien bidez

nahi baituĝu cerbait contsolamendu elkhar ganic hartu, eta gure hihotça gogoeta diferentez cargatua eta nekhatua arindu.

Hargatic axeguin dugu mintçatceaz hanitz maitatcen eta desiratcen ditugun gaucez, bai eta beldur garenez eta gure nahien contra direnez ere.

2. Bainan helas! maiz alferric : ecen campoco contso'amendu hura ez da traba chumea Yaincoaren barneco contsolamenduentçat.

Beraz atçarriac eta othoitcean egon behar dugu, dembora alferric ezdoacuntçat.

Mintçatu behar bada, mintça çaite arimacotz on daitezken gaucez.

Gure usantça gaichtoa, eta berthutean aitcina yoaiteco dugun artha gutia da causa hain gaizki mihia beguiratcen baitugu.

Guciarekin ere solas ispiritualac ez dire guti baliatcen perfeccioneco bidean aitcina yoaiteco, guciz presuna Yaincoaren baitan yuntatuac, eta izpirituz eta bihotcez bat eguinac elkhargana bilcen direnean.

Cer eguin behar dut beraz?

Hanitz erasten duena, ez da bekhaturic

Universidad de Deusto
Biblioteca

gabe içanen, dio izpiritu sainduac. Hitz alferrez contu galdatuco darocula erraiten darocu Yesu-Christoc. Berce sensuen gainean beçain atçarria egon çaite beraz çure mihiaren gainean, beharrez, edo probetchoski baicen ez mintçatceco. Hortacotz ikhas çaçu barnea bildua atchikitcen; eguia eternalen gogoan erabiltcen; bihotcez Jaincoari mintçatcen çure beharren gainean; eta çure descansua osoki Yaunaren baithan emaiten.

Othoitça.

O! Yainco, izpiritua çure eçagutceco beçala, mihia çure laudatceco eman darotaçuna, oraidinoco ene hitcez nola benedicatua içan çaren, aurkhituco dut çure yuyamenduan? eguiçu, othoi, çure graciaz, finca diten ene gogo eta bihotça, çure handitasunari, eta ene bethiereco dohaxutasunari, daozcoten sendimenduetan: eta horrela has nadin, oraidanic, çure benedicatcen, behin ere ez baratceco. Halabiz.

XI. CAPITULUA.

Nola behar den ardiexi bihotceco bakea, eta aitcina yoan berthutearen bidean. Heci behar direla bicioac, eta guticia desordenatuac.

Bake handi bat guinduke nahi ez baguindu sarthu bertcec erraten, edo eguiten dutenetan, eta guc contu eman behar ez dugun gaucetan.

Nola dagoke luçaz bakean, bertceren eguitecoez behar gabeco arthac hartcen dituena, camporat izpiritua barrayatcen duena, eta bere baitan guti sartcen dena?

Dohaxu simpletasun saindu batean bici direnac, ecen hec goçatuco dire bake handi batez.

2. Cergatic saindu batçuc hambat herthute ardiexi dute, eta hain gora contemplacionean altchatu dire?

Ceren bere bihotcetic khendu baitute alde baterat lurreco gaucen amodioa, eta bide hortaz ardiexi baitute bere izpirituco liber-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tate osoa, eta lothu baitçaizco Yaincoari bere bihotceco indar guciez.

Bainan guri sobra lan ematen darocu gure guticia desordenatuen contentatceac, eta artha sobra hartcen dugu gauça iragancorrez.

Gutitan garaitcen ere dugu bicio bat osoki; ez dugu kharric berthutean aitcina yoaiteco; hala bethi ephel eta bethi lacho guelditcen gare.

3. Gu baguine gure alderacotz osoki hilac, eta munduco amarraduretaric libratuac, Yaincozco gaucei gostu harguinoçokete, eta contemplacionearen goçotic cerbait froga guineçake.

Guehienic gù trabatcen gaituena da, gure bicioac, eta guticia gaichtoac oraino biciac baitire, eta urruntcen baicare sainduec bere exempluez eracuxi darocuten bidetic.

Cerbait axecabe chume guertatcen çaicunean ere, gogoa hiltcen çaucu berehala, eta abiatcen gare munduco consolamenduen bilha.

4. Guc baguindu bihotcic aski guduan fermu egoteco, içan guineçake falta gabe laguntça handi bat cerutic.

Ecen Yaincoa bethi dago gogotic laguntcerat haren alde guduan hari direnac, eta haren gracian bere esparantça dutenac, eta harc berac sorarazten ere darozkigu paradac guri khoroen mereciarazteco.

Erreligioneco perfeccionea, eta berthuteco aitcinamendua choilki ematen badugu campoco gauça batçuen arthoski complitcean, gure debocioneac ez du hanintz iraunen.

Bainan goacen gaitçaren erroraino; hez ditçagun gure bihotceco mobimendu desordenatuac, eta goçatuco gare arimaco bakeaz.

5. Urthe guciez bicio bat atheratcen baguindu, eta khentcen bihotcetic, laster ardiex guineçake berthutearen perfeccionea.

Bainan urrun gare handic: aitcitic frogatcen dugu maiz conbertitu berrian berthute guehiago guinduela, handic hanitz urtheren buruan baino.

Egun oroz saindutasunean behar guinduke aitcinatu, eta orai hanitz çaucu lehenbicico kharraren ez osoki galtcea.

Hastean gure buruei bortcha pichcabat eguiten baguinote, handic haratco guciac errechki eta bozcariorekin eguin guinetçazke.

Universidad de Deusto
Biblioteca

6. Gaitz da usantça gaichtoen uztea, bainan gaitçago da oraino norc bere nahiari ukho eguitea.

Ordean gauçaric chumenetan ez baduçu çure burua garaitcen, nola bada garaituco duçu handienetan?

Hastetic contresta eguioçu çure bihotceco yaidurari, eta pendura gaichtoari, etçaçula entçun çure hazdurac erraten darotçuna: beldurrez egunetic egunera gaitztasunac handi daitecen, eta eguin dakiçun ecin garaituzco traba.

Çuc bacinaki cer bake cinduken cerorrec, eta cer bozcario bertcec, çure eguinbiden arabera bici bacine, artha guehiago cinduke berthutean aitcina yoaiteco.

Cer eguin behar dut beraz?

Gure pasioneac sua beçala, bazca emanago, eta bortitçago dohaz; eta hambatenaz guehiago nahasten dute barnea, eta trabatcen izpiritua Yaincozco gogoetetan. Eta hori deusec ez du guehiago eguiten ohi, berceren eguitecoezco artha behar gabeac baino. Nahi baçare beraz goçatu barneco bakeaz, eman

çaite gogo onez, ez çure nahi gaichtoen seguitcen, bainan bai arras hekien bençutcen; cofesiotic cofesiora bat bereciki bichtan hartcen duçularic.

Othoitça.

Ala dohaxu içanen bainintcen orai, ô! ene Yaincoa, nere nahientçat beçain ekharria içan banintz, oraidinocoan, çure borondate sainduen eguiterat! ah! Yauna, ikhusten dut orai erdizca baicen ez badago ene bihotça çure ganat, batere ez dagola. Iraungui-çatçu beraz cerorrec, ô! ene bihotçaren Yaincoa, ene pasionen moguimendu guciac; çurekilaco bakeaz goça nadin orai, eta bethi. Halabiz.

XII. CAPITULUA.

Cein progotchos den sofritcea.

On da batçuetan guretçat penac eta trebesiac içatea, ceren hec gure baitan sararazten baicaituzte, eta orhoitarazten desterru batean bici garela, eta ez dugula eman behar gure esparantça munduco gaucetan.

Universidad de Deusto
Biblioteca

On da noicic behin causi deitecen gure contrestaçaileac, eta gutaz opinione gaichtoa dutenac, gure accioneac, eta chedeac onac içan arren. Gauça hori maiz baliatcen da banelioratic gure beiratceco eta humiltasunean fincatceco.

Nihoiz ere ez dugu hobeki bilhatcen gure barnean Yaincoaren lekhucotasuna, eta aprobacionea nola campotic guiçonec arbuyatcen eta gaizki yuyatcen gaituztenean.

2. Hargatic behar luke guiçonac Yaincoa baitan hartaraino bortiztu, non ez bailuke munduco contsolacionen bilhatceco beharric.

Cembatenaz presuna prestu bat baita afligituagoa edo tentatuagoa, edo gogoeta gaichtoez penatuagoa, hambatenaz frogatcen du bere baitan hobeki Yaincoaren beharra, ceina gabe ez baitaguikegu deus onic.

Orduan tristatcen da, dago plainuz, eta othoitcez sofritcen tuen gaitzetaric libratua içateco. Unhatcen da hain luce bicitceaz, eta hiltcea desiratcen du bere gathetaric libro, eta Yesu-Christorekin bat içateco.

Orduan eçagutcen du ez dela mundu huntan segurantca osoric, ez bake perfetic.

Cer eguin behar dut beraz?

Urrhea suan beçala, frogatcen da gure bertutea trebesia, eta contrastetan, dio izpiritu sainduac. Eta non dic guinakike, ea pacientcia, eta lagunaren guiristino amodioa badugun, nihondic contrastaric, ez axecaberic ez baguinu? Desteruan garela-ere ahantz lakiuke. Hurren Yaincoaz ez guinteke orhoit. Hartu behar dugu beraz axecabe eta mesprecioac Yaincoaren gracia batçuec beçala, eta yasan alegueraki ez bada, bederen pacienki.

Othoitça.

Cer eskerra ez nuke içan behar çuretçat, ô! ene aita ona, ceren nere beharraz beraz hertchatcen nauçun, çu ene ontasun bakharçat eçagutcerat? Emadaçu bada, othoi çure graciaz, munduco trebesia gucien gatic çure nere lagunaren alderaco amodioaren ez galceco behar dudan pairua; eta hala, ô! Salbatçaile, amulsua, çuc hambat, eta hain gurutce gogorrac beçala, nic nereac yasanic, içan nadin partalier çure lorian. Halabiz.

Universidad de Deusto
Biblioteca

XIII. CAPITULUA.

Tentacionen progotchuaz, eta nola behar çayoten contra eguin.

Mundu huntan bici gareno ecin gaitezke afliccione, eta tentacione gabe.

Hargatic erran du Yopec, guiçonaren bicia ez dela bethiereco tentacionéric baicen lurraren gainean.

Hargatic batbederac goardian egon behar luke tentacionen contra, eta othoitcean erne, beldurrez engana deçan debruac ceina ez baita behin-ere loharcatcen, eta *bethi gure ingurutan baitabila nor irets ahal deçaken.*

Ez da guiçonic hain sainduric ez hain perfetic, noicic behin tentacioneac ez dituenic, ecin gaitezke ere osoki halacoric gabe.

2. Halere tentacioneac maiz arimacotz progotchos dire, nekhgarriac eta phasticagarriac diren arren, ceren guiçonaren humiliatceco chahutceco, eta arguitceco baliatcen baitire.

Saindu guciac hanitz afliccione eta tentacionetaric iragan dire, eta progotchatu dire

heyer contra eguinic, eta tentacioneac ecin yasan dituztenac galdu dire.

Ez da ordena hain sainduric, ez lekhu hain gorderic non ez baitire penac eta tentacioneac aurkhitcen.

3. Guiçona bici deno ecin daiteke seguratua ez dela behin-ere tentatua içanen, ceren nola baicare bekhatuan sorthuac, gurekin baitarkegu tentacione gucien ithurburua.

Tentacioneac eta tribulacioneac bata bertceari darraizco, eta gure lehenbicico dohaxuíasuna galduz gueroztic içanen dugu bethi cerbait sofritceco.

Hanitz presuna tentacionei ihesi dabiltçanac dohacabekiago hetarat erortcen dire.

Ihez eguite choilac ez darocu garaya emanen, bainan pacienciac, eta eguiazco humiltasunac eguinen gaitu gure exai guciac baino sendoago.

4. Campotic baicen gaitçari ihes eguiten ez diocnac, eta hura erroctaric atheratcen ez duenac, guti abantçatuco du : aitcitic lasterrago bihurtuco çayo tentacionea, eta lehen baino borthitzkiago.

Errechkiago Yaincoaren laguntçarekin ba-

Universidad de Deusto
Biblioteca

tean garraituco tutçu emeki emeki tentacioneac patientcia humil eta luce batez; ecen-ez çure buruaren contraco gogortasun, eta omore gaitcez.

Har çaçu maiz contseilu tentacioneco demboran, eta ezçaçula gogorki trata tentacionez doloratua den presuna: aitcitic contsola çaçu ceronec casu berean nahi cinduken beçala.

5. Tentacione gucien hastapena gure arimaren inconstancia da, eta Yaincoa baitan fidancia escasa.

Ecen nola untci lema gabe bat uhinec norat nahi baitarabilate, hala presuna lachoa eta bere deliberacionetan inconstanta darabilate tentacionec.

Suac frogatcen du burdina, eta tentacionec guiçon yustua.

Ez dakigu maiz certaraino doan gure ahala, bainan tentacioneac eracusten darocu nor garen.

Bizkitartean bethi erne egon behar da, eta bere gainki tentacionearen hastean, ecen errechkiago garaitcen dugu exaya aitcina goaz-conean, eta hurbil senti dugun beçain laster arimaco athea cerratcen diogunean.

Hargatic erraten çuen çuhur batec: *Hastetic emoçu gaitzçari erremedio, bertcela alferric emanen dioçu sobera luçaturic gaitça nausitu denean.*

Tentacioneac baitu bere graduac; hastean ez da izpirituco gogoeta bat baicen, guero imaginacione borthitz bat, guero axeguina, guero mobimendu desordenatua, eta askenean consentimendua: emeki emeki exaya sartcen da osoki arima barnean, ceren etçayon berehala contra eguin.

Ecen cembatenaz berantcenago baitugu hari contra eguiterat, hambatenaz flacatcen gare guehiago, eta hura guehiago borthitzten da.

6. Batçuec bere conbersioncaren hastean pairatcen tuzte tentacioneric dorphenac; berce batçuec finean, badire bere bici gucian tentacionez penatuac direnac.

Batçuec tentatione arinagoac dituzte, eta horiec guciac guertatcen dire Yaincoaren çuhurciaren eta yusticiaren ordenuen arabera, ceinac pisatcen baititu batbederaren disposicioneac, eta merecimenduac, eta guciac arrimatcen bere hautexien salbamenducotz.

7. Ez dugu beraz exitu behar tentatuac garenean, contrarat hambatenaz khar guehiagorekin othoitz eguin behar diogu Yaincoari, berac lagun gaitçan gure pena gucietan, eta harc yondoni Pauloc dioen beçala, *progotchurekin atheraco gaitu tentacionetic, haren garaitceco indarra emanic.*

Humilia gaitecen beraz Yaincoaren escu poderosaren azpian tentatuac eta afligituac garen gucian, ceren *humilac salbatuco*, eta bere loriarat altchatuco baititu.

8. Guiçona tentacionetan eta trebesietan frogatcen da, hetan ikhusten du cembat berthutean aitçinatu den, hetan merecimendua handiago da, eta berthutea eçagunago.

Ez da gauça handi bat debocionean bere içatea deusic sofritceco ez denean, bainan trebesietan pairacor denaz esparantça içateco da berthutean abantçatuco duela.

Halere badire batçuec ceinac tentacioneric dorphenac garaitu ondoan erortcen baitire chumenetan, eta ardurazcotan, Yaincoac hori permetitcen du hainac humilia daitecentçat, eta bere indarretan fida ez ditecentçat ocasione handietan, hain flaco guerthatu diren ondoan ocasioneric chumenetan.

Cer eguin behar dut beraz?

Tentacioneac baditezke berthuteco banodurez guc merecitu gaztigu batçuec. Beldur horrec bethi humiliatu behar gaitu tentacionean, eta erne egoneraci, hari bideric ez emaiteco. Bainan beguira khecha, are guebiago loxatcetic. Gucien buruan, gure onetan permetitcen du Yaincoac, tentatuac içan gaiten. Handic orhoit gaiten cer garen gure baitharic, eta berac escuti ez bagaitu atchikitcen. Hortacotz, haste hastetic bihur çaite tentacioneari othoitçaz, eta izpiritua bartaric aldara deçaketen gogoeta onez, eta gainera-coan Yancoa baithan fida, eta pausa.

Othoitça.

Tentacioneric chumena aski da, Yauna, ene aurthikitceco. Bainan, ene Salbatçaile ona, promes darotçut, atçartasun berri batekin occasionei ihes eguinen diotedala, tentamendua heldu çautenean escua hedatuco darotçut; Yondoni Petric beçala, eta fidentciarekin igurikico dut bitoria çure laguntçatic. Halabiz.

XIV. CAPITULUA.

Ez yuya bertcez temerarioki : finca çatçu beguiac çure gainean, eta etçaitecela yar bertcen accionen yuye.

Bertceren yuyatcen hari dena, alferric trabailatcen da, maiz enganatcen da, eta errechki hutsetan erortcen; bainan bere buruaren yuyatcen eta examinatcen hari dena, bethi progotchoski hari da.

Gure bihotceco penduren arabera dire comunzki gure yuyamenduac, eta gure amodio propioac gaichtatcen ditu guehienean.

2. Yaincoa balitz gure chede bakharra, eta gure guticia gucien objecta ez guintezke hain errechki altara gure sentimenduei contra eguiten çayenean.

Bainan maiz edo cembait amarradura gordec, edo cembait compoco objetec garamatça. Batçuec gordeki eta nola ez dakitela bere buruac bilhatcen tuzte bere accione gucietan.

Bakean daudez eta soseguan hekin gogora gauçac doaceino, bainan hekien desgogara

deus guerthatcen bada, altaratcen dire eta tristatcen berehala.

Sentimendu eta omore contrarioec escatimac sorarasten tuzte adiskiden, herritarren, ordena saindutaco presunen, eta prestuen, eta Yaincotiarren artean.

3. Usantça çaharrac nekhez uzten dire, eta nihore ez du gogotic utci nahi guidatcerat gure argui propiez urrungano.

Çure izpirituan eta çure antcean guehiago fidatcen baçare, ecen ez Yesu-Christoren indarrean, ceinac irabazten eta garaitcen baititu bihotçac, gutitan eta berant içanen ditutçu haren arguiac, ecen Yaincoac nahi du haren azpian perfeki humilia gaitecen, eta amodio kharsu batec sacrifica diotçan gure arroçoin eta argui guciac.

Cer eguin behar dut beraz ?

Bertceac yuyatcean çure burua condemnatcen duçu, dio Yondoni Pauloc, eta Yesu-Christori bere khoroa aramaten dioçu, dio San Yeromec. Accionea gaichtoa bada-ere, ez deçaçula beraz condemna chedea, dio San Bernatec yuya çaçu hortic materia horren de-

licatasunaz, eta pisa capitulu hortaco arraçoinac, eta içanençare bercez çure buruaz baino fidago.

Othoitça.

Norat naramaçue munduco banitate, curiositate, eta berri funtz gabeac? cer eguin dut, ò ene! Yaincoa, bercez hain arinki yuyatu dudanean? Ah! Yaũna eçagutcen dut ene çoramendua. Eguiçu, othoi, çure graciaz, içan nadin bakharric hartua çure gogoraco içaiteaz. Halabiz.

XV. CAPITULUA.

Accione guciac amodiorekin eguin behar direla.

Ez da eguin behar gaizkiric deusen ere gatic, edo nihoren amorea gatic; bainan obra on bat hasia utz deçakegu, edo gambia hobeago batetara, gure lagun proximoaren beharrac hala galdetcen duenean.

Manera hortan gure obra ona ez da gallcen, bainan bai hobeago baterat gambiatcen.

Yaincoaren amodioa gabe eguiten diren obrac, ez dire deusetaco baliatcen; bainan Yaincoaren amodioz eguiten diren gauçac merecimenduzcoac dire, chumeac eta mespreçagarriac iduri arren.

Yaincoac ez du hambat consideratcen cer obra eguiten dugun, nola cer chedezharigaren.

2. Hanitz maite duenac hanitz eguiten du. Ungui eguiten duenac hanitz eguiten du, eta ungui eguiten du bere progotchua baino bertcerena hobeki bilhatçen duenac.

Maiz chede humanoec garabiltçate, eta uste baitugu caritateac garabiltçala; ecen gure pendura naturala, borondate propioa, cembait abantailen esparança, eta gure aïsien gutticia hurren sentitu gabe sartcen da gure chedetan.

3. Yaincoaren amodio eguiazcoa eta perfeta duenac ez du deusetan ere bere burua bilhatcen; bainan gauça gucietan bilhatcen du Yaincoaren loria.

Etçayo nihori bekhaizten, ecen ez du bere baitan ematen bere contentamendua.

Ez da bere baitan alegueratcen, bainan bai

Universidad de Deusto
Biblioteca

Yaincoa baitan, ceina baita harc desiratcen duen ontasun bakharra, eta hura dohaxu eguin deçakena.

Ez diote deus onic eratchikitcen creaturei, bainan on gucien loria ematen dio Creatçaileari, ceina ganic heldu baitire gauça on guciac bere ithurburutic beçala, eta ceina baitan causitcen baitute sainduec bere errepausu eta dohaxutasun soberanoa.

Oi eguiazco caritatetic den gutiena baguindu, ikhus guineçake munduco gauça guciac ez direla banitateric baicen!

Cer eguin behar dut beraz?

Autorraren hitçac ungui har-çaitçu, eta horiekin Yondoni Pauloren hauc: Yaincoaren amodioan ez banaiz, eguin çakedan obra on guciac alfer ditut cerucotz; eta comprenituco duçu errechki. 1º Yaincoaren amodioan dena cein dohaxu den, eta hartan ez dena cein dohacabe. 2º Yaincoaren amodioac dabilana, gogoac emaiten lazcokeyen obra on batçuen ecin eguinaz, ez dela khechatcen, ez eta deus bercez, Yaincoa ofensatua ikhusteaz baicen. Examina çaite beraz maiz, ea cer

chedec othe çabilçaten goicetic arraxerainocoan çure hara hunetan.

Othoitça.

Galduac dire beraz enetçat, ô! ene Yaincoa, çure amodioan, eta çure ariaz eguin edo sofritu ez ditudan guciac. Oi! ene Yainco, eta ene bihotçaren on bakharra, eman çaitçu othoi, bihotz hotz, eta dohacabe huni, çure amodio sacratuaren sentimendu kharsu batçuec, gauça guciei çu baitan beharaz, guciac çure ganic hararaz, guciac çure gatic eguin dietçaketedan beçala. Halabiz.

XVI. CAPITULUA.

Nola behar tugun yasan bertceren escasac.

Gure edo bertceren baitan ecin corregui detçakegun escasac, behar tugu pacientki yasan, Yaincoac bertcela ordena deçaken arteraino.

Sinhetsaçu menturaz hori hobe dela gure frogatceco, eta gu borthitzteco patientcian,

ceina gabe deus guti condatu behar baitira gure merecimenduac.

Halere behar diogu Yaincoari minki othoitz eguin : deseguin detçan gure baitan traba hec, edo eman dieçagun indarra heyen ungui yasateco.

2. Presuna bat behin edo bietan abisatu duçun ondoan ez bada erortcen çure sentimendurat, et çaçula guehiago harekin iharduc; bainan utçaçu gucia Yaincoa ganat, haren borondatea compli dadintçat, eta haren loria aguer dadintçat haren cerbitçarietan, ecen badaki harc ungui gaitça onera gambiatcen.

Usa çaite bertceren escasen eta flakecien pacientciarekin yasaten, ecen baitutçu çure hanitz bertcec pairatu behar dituztenac.

Hortaz ecin çure burua erakhar badeçacuke nahi cinduken ozcarat ; nola bertceac moldatuco tutçu çure nahien arabera ?

Axeguin dugu bertceac içan ditecen escasic gabe, bainan guerorrec ez ditugu gurcac uzten.

3. Nahi dugu hec garrazki mehatcha ditecen, eta ez dugu gueronec nahi mehatchatuac içan.

Errateco dugu bertcei bere galdeac errechkiegui complitcen çaizcotela, eta ez dugu nahi guri deus errefusa dakigun.

Galdeguiten tugu bertcentçat erreguelamendu herxiac, bainan guretçat ez dugu nahi herxitasun guehiago.

Agueri da beraz cein guti bertceac gure buruaz neürtcen tugun.

Mundu gucia escaz gabe balitz, cer guinduke guiçonen ganic pairatceco Yaincoaren amorea gatic ?

4. Bainan Yaincoac bertcela ordenatu du, ikhas deçaguntçat elkharren cargac yasaten.

Nola ez baita nihor escas gabe, hala ez da nihor carga gabe.

Nihor ez da beretçat aski, nihor ez da aski çuhur bere buruaren guidatceco, eta behar dugu guciec elkhar yasan, elkhar consolatu, elkhar lagundu, eta abisu onez arguitu.

Ez da berthutearen froga seguragoric sofricariac baino.

Ecen ocasionec ez gaituzte flacatcen, bainan cein flaco garen eracusten.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Cer eguin behar dut beraz?

Capitulu hori pausuki iracurriric, examina çaçu, ea cerorec bertceren, eta guciz Yesu-Christoren patientciaren, eta misericordiaren hain beharra içan eta, ez othe cinuken bertceren escasac ecin yasanezco moldegaiztasun hortaric. Ikhusaçu nola errairen othe duçun, barkha dietçagutçu gure çorrac, guc guri çor diotegunei barkhatcen daiztegun beçala; erran nahi baita, içan çaite, Yauna, gure alderat, gu bertceren alderat garen beçalaco. Eta ez çare bercentçat hain garraiz içanen; bainan bai amulxu, eta pairacor.

Othoitça.

Aspaldion galdua niteken, ô! ene Salbaitçaile maitea, ni nere lagunen alderat bainо yasancorrago içatu ez bacine ene alderat. Argui çaçu, othoi, ene izpiritua, eta hunki ene bihotça eguia hauyen premiaz, içan nadin hemendic harat, bertcen alderat, ezti eta amulxu; egun batez çu, ene yuyea, ene alderat causitu nahico çaitudan beçala. Halabiz.

XVII. CAPITULUA.

Ereligioneco bicitceaz.

Ikhasi behar duçu hanitz gaucetan çure buruari bortcha eguiten, eta çure nahia garaitcen, bertcekin batasunean bici nahi baduçu.

Ez da gauça gutia comentu edo congregacione batean errencuratcèco suyetic eman, edo hartu gabe bicitcea, eta heriotceraino bicitce erreguelatu batean irautea.

Dohaxua da han eraman duen bicitce saindua heriotce on batez khoroatcen duena.

Nahi baduçu berthutean fermu egon, eta yoan aitçina, çure burua iducaçu desterratubat edo bideante bat beçala lurraren gainean.

Ereligioneco bicitcea eraman nahi duenac, eta Yesu-Christoren gogoraco içan nahi duenac, iguriki behar du erhotçat pasatuco dela munduaren artean.

2. Ordenaco arropa, eta ilearen mochtea deus guti baliatcen dire: bicitcearen gam-

Universidad de Deusto
Biblioteca

biantçac, eta pasionen mortificacioneac, eguiten du eguiazki ereligioneco presuna. Yaincoaz eta salbamenduaz bertceric bilhatcen duenac, ez du causituco dolorerie eta ondicoric baicen.

Gucien azken, eta gucien azpico içan nahi ezduenac eçin duke bake luceric.

3. Orhoit çaite obeditcera ethorri çarela, eta ez manatcerat, ereligionerat deithua içatu çarela sofritceco eta trabailatceco, eta ez solas alferretan dembora galtceco.

Comentutan beraz frogatcen dire guiçonac, urrea labean beçala.

Han nihorc ecin iraun deçake ez bada Yaincoa gatic humiliatcen bere bihotz guciaz.

Cer eguin behar dut beraz?

Hortic compreni çaçu: 1º Comentu, edo congregacione batean Yaincoa cerbitçatu nahi duenac, manera bereci batez bere nahiari ukho eguina içan behar duela. Hori gabe nihon ez da contcientciaco bakeric; bainan han gutiago, bertce bicitce suerte gucietan baino. 2º Har çaçu hortic fraide, edo serora baino guehiago, presuna debota, ez duela

arropac, ez gaineraco campoac eguiten; bainan Yesu-Christoren idurico içaiteac; eta haren berthute seinalatuenac içaitec dire humiltasuna, eta eztitasuna arbuyo gucien erdian.

Othoitça.

Ikhusten dut, Yesus maitea, pairu escasa eta thema gaichtoa hambatenaz gaitciago içan behar çaitçula ene baitan, cembatenaz aintcinago bainoha debocionezco urhaxetan. Eguidaçu, othoi, gracia cerbait contresta edo mesprecio yasan behar orduan, çure eztitasun miragarriaz orhoitceco, eta haren orhoitçapenean, nere khechadura eta minberatasunaz ahalcatua, heyen sentimenduen garaitceco. Halabiz.

XVIII. CAPITULUA.

Sainduen exempluaz progotchatu behar dugula.

Considera çatçu sainduen exempluac, ceinac içatu baitire ereligionearen eta perfeccio-

Universidad de Deusto
Biblioteca

nearen mirail biciac, eta causituco duçu deus guti edo ez deus dela guc eguiten duguna. Hélas! cer da gure bicia heyenaren aldean?

Sainduec eta Yesu-Christoren adiskidec cerbitçatu dute Yaincoa, sofritcen çutelaric gosea eta egarria, hotça eta bilhustasuna, nekheac eta trabailuac, beilac eta barurac; eguin dituzte othoitçac eta meditacione sainduac, eta pairatu hanitz persecucione eta laido suerte.

2. Oi cembat pena dorphe eta afliccione gogor ez dute pairatu Apostoluec eta Martirec, Confesorec eta Biryinec, eta Yesu-Christoren urraxei yarraiki nahi içatu çaizten bertce guciec? *Higundu içan dute mundu huntan bere bicia, hartaz goçatceco eternitatean.*

Oi! ala desertuco aitec eraman duten bicitcea içatu baita pobrea eta mortificatua! Ala hekien tentacioneac luceac içatu baitire eta dorpheac! Cein maiz ez dire hec içatu exaiaz persecutatuac? Oi! nolacoa içatu den othoitcetan heyen berotasuna eta yarraikitasuna? Cein garratçat içatu diren hekien abstinenciac? Cein zelo kharsua içatu duten deboçionean aitcina yoaiteco?

Cer animorekin ez diote guerla eguin bicioei? Cer chede chuchen eta chahurekin bilhatu ez dute Yaincoa? Egunaz lanean hari ciren, eta gabaren guehien partea othoitcean çaramaten, eta lanean hari cirenean ere heyen izpiritua etcen othoitz eguitetic gueldítcen.

3. Bere dembora gucia progotchoski emplegatcen çuten; orenac laburregui citçaizcoten Yaincoa baitan aplicatuac egoteco, eta contemplacionean sentitcen cituzten axeguinec ahantzçarazten ciotçoten gorphutceco beharric handienac.

Ukho eguiten cioten aberastasunei, carguei, ohorei, adiskidei eta ahaidei; eta etçuten desiratcen munduco gauçaric batere. Doidoya hartcen çuten biciarentçat beharcena ere, eta etçuten bere gorphutcez ecin bertcezco artharic baicen.

Pobre ciren munduco ontasunez, bainan aberax graciaz eta berthutez. Campotic gauça guciac escas cituzten, bainan barnean ceruco dohainez eta consolacionez betheac ciren.

4. Munduarekin atce beçala bici ciren,

Universidad de Deusto
Biblioteca

bainan Yaincoaren adiskideric maitenac hec ciren.

Munduac mezpreçatcen cituen, eta bere beguietan ere etciren deus; bainan Yaincoarenetan maite eta preciatu ciren, humiltasun eguiazcoan bici ciren, obediencia simple batean, caritate eta paciencia perfet batean, eta hala egun guciez bicitce ispiritualean aitcinatcen ciren, eta berretcen ciren graciaz eta berthutez.

Saindu hec eman içan diotçate mirailçat Yaincoac ereligioneco presuna guciei, eta hekien exempluac hobekiago behar gaitu obra onetarat animatu, ecen ez hanitz ephelen ikhusteac lachatu.

5. Oi nolacoa içatu den fraide eta serora gucien debocioneco kharra bere ordenen hastapenean! Cein handia hekien othoitcetaco berotasuna, heyen lehia elkharren berthutean imitatceco, bere erreguela ponturen pontu beiratceco! Nolaco errespetua eta obediencia bere aitcindariençat!

Hec utci darozkiguten berthuten urraxeo eracusten darocute eguiazki perfetac cirela, eta içatu dutela animo munduari guerla egui-

teco, haren garaitceco, eta bere handitasun guciekin osticatceco.

Orai gauça handitçat daucate botuac ez haustea, eta hartu duten uztarria pacientki yasatea.

6. Oi gure demboraco lachotasuna eta epheltasuna, lehenbicico khar hura laster iraunguitu da, eta hain gare flacoac eta hagoranduac non bicia ere nekhagarri baitçaicu! Ochala hambat sainduren exempluec phitz baleçate gure baitan ere saindutceco guticia!

Cer eguin behar dut beraz?

Considera çaçu Sainduac nola heldu diren loriarat. Ea nor atrebituco çaitçun erraiterat berce moldez harat hel cikezkela. Erraçu beraz maiz çure baitan: non nabila? cer hari naiz? hunela biciz, nola iguric deçaket Sainduekin dohaxu içaitea? cer eite du ene biciac heyenarekin? neronec yuyatu behar banu orai nere burua, cer çuçen aurkhi neçake nere baitan heyekin içaiteco? cer arraçoin çuten hec nic dudan baino guehiago, hain bersiki bicitceco? hec ala ni trompatcen othe gare?

Othoitça.

O ! Sainduen Saindua, gogora eman daroztatçun erreflexione horien ondoan, nola niteke eçagutu, eta aithortu gabe, ni içan naicela enganioan orai artean? deithoratcen dut egun nere çoramendua. Aithorcen dut egun nere çoramendua. Aithorcen dut, Yauna, Sainduen urhaxei yarraikiz baicen ez naitekela hel çure ganat. Hartcen dut deliberacione fermu bat, munduac cer nahi erran deçan, hec hartu duten berthutezco bidetic ez apartatceco. Eguidaçu, othoi, gracia sentimendu hortan irauteco heriotceraino. Halabiz.

XIX. CAPITULUA.

Debocioneco pratikez.

Ereligioneco presuna prestu baten bicitceac behar du içan berthute guciez berreguindua, campotic agueri den beçalacoa barnean içan dadinçat.

Artha guehiago behar du ere içan barneaz,

ecen ez campoaz, ceren Yaincoa baita gure bihotceco mobimenduen lekhucoa eta yuyea, eta hala haren aitçinean aguertu behar baitugu Ainguerueu errespetuarekin, eta garbitasunarekin.

Hortaracotz egun oroz erreberritu behar ditugu gure deliberacione onac, eta phiztu behar dugu gure kharra, gure conbersionea egun hasi balitz beçala. Erran behar diogu Yaincoari: Yauna, lagun naçaçu çure ungui cerbitçatceco eman darotaçun desira onean, eta indaçu gracia egundic ungui hasnadin, ecen orai arteraino eguin ditudan guciac ez dire deus.

2. Berthutean gure aitcinatcea, maiz gure deliberacionen berotasunac eguiten du, eta bide hanitz eguin nahi duenac animo handia behar du.

Baldin deliberacioneric hoberenac hartcen dituena ere erortcen bada maiz, cer içanen da bada gutitan eta flacoki deliberatcen dutenez?

Hanitz manera suertez guerthatcen da gure lachatcea deliberacione onetan: eta Yaincozco eguinbidetan eguiten dugun [illegible] chumena

ere hurren bethi gure caltetan eta gutimendatan eguiten da.

Bizkitartean yustuen deliberacione onac hoheki dire fundatuac Yaincoaren gracian, ecen ez hekien çuhurtcian, eta cerbait eguitecori lotcen çaiztenean, Yaincoa baitan emana dute bere esparantça gucia. Ecen guiçonac *deliberatcen du*, *eta Yaincoac disposatcen du*, eta guiçonac bere çorthea ez du bere escuco.

3. Gure arduraco debocioneac uzten baditugu noicic behin Yaincozco chedez, edo gure anayen progotchua gatic hux hura errechki erremediatuco dugu, bainan desgustuz edo lachotasunez uzten baditugu, hux handia içanen da, eta sentituco ditugu haren ondorioac.

Yarraiki gaguizcoten beraz ahal guciaz gure eguinbidei, guciarekin sobra baicen ez dugu hux eguinen hainitz gaucetan.

Halere on da bethiere cerbaiti lot gakiscon particularrean, eta guciz har detçagun gure deliberacioneao perfeccioneco bidean causitcen ditugun traben contra. Orobat behar dugu içan artha gure barneaz, nola gure

campoaz, ecen biec eguiten dute gure aitcinamendua.

4. Instant guciez çure barnean ecin sar baçaitezke, sar çaite bederen demboratic demborara, eta gutienean egunean behin, goicean edo arraxean.

Goicean arrima çatçu çure izpirituan egunean eguin behar ditutçun gauça guciac, eta examina çaçu arraxean cer eguin duçun, nolacoac içatu diren çure gogoetac, hitçac eta obrac, eta causituco duçu menturaz hux hanitz eguin duçula Yaincoaren eta lagun proximoaren contra.

Har çaitçu harmac soldadu on batec beçala debruaren maleciaren contra : ebac çaitçu yan edaneco sobrancia guciac, eta errechkiago garaituco ditutçu haraguiaren bertce guticiac.

Ez çaudecela behin-ere alferric, bainan aurkhiçaite bethi othoitcean edo meditacionean, iracurtcen edo iscribatcen, edo etchecotcat cerbait lanen eguiten.

Hargatic, campoco praticac eta gorphutceco obra debocionezcoac prudenciarekin hautatu behar dire, ecen ez dire guciac on gucientçat.

Universidad de Deusto
Biblioteca

5. Guretçat particularki hartu ditugunac, ez ditugu bertcen aitcinean eguin behar, eçen segurago da hec gordeki eguitea.

Berautçu halere içan etçaitecen lacho elgarrekilaco debocionetarat, eta sobra kharsu çure pratica hautesietarat, bainan çure eguitebideac arthoski eta osoki complitu ondoan, balin baduçu guehiagoco demboraric, emplega çaçu çure debocione particularrac inspiratcen darozkitçun gaucen eguiten.

Guciec ecin dukete emplegu bera, bata gauza batecotz da gai, eta bertcea bertcecotz. Eta on da ere demboren arabera debocione diferentac hartcea, ecen batçuec hobeki dagozcote phestei, bertceac astelegunei.

Batçuen beharra dugu tentacioneco demboran; eta bertcena bakean eta soseguan.

Batçuec on ditugu triste garen demboran, eta bertce batçuec Yaincoa baitan boztuac garenean.

6. Besta banditan erreberritu behar dugu gure debocionea, eta galdetu berotasun handirekin sainduen arartecotasuna: on da besta batetic bertcera presta gaitecen orduan munduric ilkhi behar baguindu beçala, eta yoan

eternitaterat, ceinetan eguinen baitugu dohaxuen besta handia.

Hala dembora sainduetan gure artha gucia behar da içan gure bicia guehiago saindutcea, eta gure eguimbide guciac leyalki complitcea, gure nekhen saria içateco menean baguine beçala.

7. Eta baldin Yaincoac luçatcen badu oraino gure golardoa edo saria, sinhex deçagun ez garela oraino aski prest, eta ez garela digne haren gloriaren ikhusteco ceina eracuxico baitarocu berac ordenatu duen demboran; eguin ditçagun beraz gure eguin ahal guciac ungui prestaturic ilkhitceco mundu buntaric.

Dohaxu cerbitçaria (dio san Luc evangelistac) *Yauna heldu denean, atçarria edirenen duena; erraten darotçuet eguia, bere ontasun gucien gainean eçarrico duela.*

Cer eguin behar dut beraz?

1º Asenta çaçu çure barnea pausu oh batean lanari, ala othoitçari, eta eguiteco tutçun guciei probidentciaren ordenan behatuz.

2º Içan çatçu, egun gucietaco çure debocionezco pratica erreguelatuac, dembora har-

Universidad de Deusto Biblioteca

tuentan ecin complituez çure burua altaratcerat utci gabe. 3º Ez usayaz eguin çure debocionezco praticac; bainan fedearen, esparantçaren, eta caritatearen sentimenduetan çure bihotça berreguinduz heyen premiaren arabera. 4º Berech çaçu ungui eguinbidea debocionetic, eta guciz çure gostuco, eta hautuzcoetaric; eguinbidea bethi aitcinean emaiteco.

Othoitça.

Eçagutcen dut, ô! ene Yaincoa horrela eguiten dela çure cerbitçua. Cembat aldiz ez dut deliberatu, seguida hortan yartceco! Bainan hambat aldiz nere amodio propiac, nere gostuen eguiteco lehiac, eta çure alderaco epheltasunac, occasionean bide bererat ekharri naute. Yabe çaite bada, othoi, Yauna, mement huntan, ene bihotçaz, çure cerbitçuari eman den beçala, nere pratica gucietan guida neçaken moldean. Halabiz.

XX. CAPITULUA.

Maitatu behar dela erretiramendua, eta ichiltasuna.

Har çaçu dembora çure baitan sartceco, eta maiz gogoan erabil çatçu Yaincoa ganic errecibitu ditutçun ontasunac.

Utz çaitçu euriostasun guciac, eta hauta çatçu liburuac izpirituaren bethetceco baino bihotçaren hunkitceco hobeago direnac.

Çure eguitecoen contutic khentcen baditutçu solas banoac, bisita alferrac, eta munduco berriac, causituco duçu demboraric aski othoitcean, eta meditacionean egoteco.

Sainduric handienac urrundu dire ahal guciaz guiçonen balxatic, eta hautatu içan dute bakhartasunean Yaincoaren cerbitçatcea.

2. Arroçoinekin erran çuen lehenago çuhur batec: *Ez naiz egundaino guiçonen artean içatu non ez naicen gutiago, eta flacatuago bihurtu;* eta gauça hori frogatcen dugu gure solasac lucechco diren gucian.

Errechago da batere ez mintçatcea, ecen ez hasiz gueroztic ez sobera mintçatcea.

Errechago da etchean bakharric egotea, ecen ez camporat gueroztic bere buruaren ungui beguiratcea.

Beraz bicitce ispiritualean aitcinatu nahi duenac behar du Yesusekin munduaren artetic, eta habarroxetaric apartatu.

Erretiramendua onhexi behar da segurantçarekin campoan aguertceco. Ichilic egoten ezdakienac beldurrekin behar du mintçatu. Cerbitçatcen ez dakienarentçat hirrisca da buruçagui içatea, obeditcen dakienac ungui manatcen du.

3. Ez da bozcario eguiazcoric contcientcia onaren soseguan baicen.

Halere sainduen segurantça bethiere yuntatua içatu da Yaincoaren beldurtasunarekin, eta cembat baitciren ere gracian, eta berthutean alchatuac, bethi humil içatu dire, eta ikharan egotu dire. Contrarat gaichtaguinen seguratasuna heldu da heyen urgulutic eta presumpcionetic, eta azkenean baliatcen da heyen enganatceco eta galtceco.

Etçaçula çure burua segurean conda munda

huntan çareno, comentuan edo desertuan sainduki bici bacin ere.

4. Maiz confidencia sobrac aurthiki ditu hirriscuric handienetarat munduac guehienic estimatcen cituenac. Hargatic on da hanitcençat tentacionetaric osoki libro ez içatea, bainan bai hetaz usu penatuac içatea; beldurrez segurantça sobrac ororaraz detçan urgulutarat, eta libertate sobrarekin ibil daitecen consolacione humanoen ondoan.

Oi ala gure contcientcia garbia bailiteke, bozcario iragancorren bilha ibiltcen ez baguine, eta munduarekin eguitecoric ez baguindu!

Oi nolacoa liteken gure bihotceco bakea eta sosegua, behargabeco arthac utciric, gure salbamenduan baicic pensatcen ez baguindu, Yaincoa baitan gure esparantça guciac ematen dugularic!

5. Nihor ez da gai ceruco consolacionen errecibitceco, ez badu maiz sentitu bere baitan bihotz doloratu, eta humiliatu baten urrikia.

Nahi baduçu urriki min harc hunki deçan çure bihotça, sar çaite çure barnean, urrun

Universidad de Deusto
Biblioteca

çaite munduco habarroxetaric, eta Psalmoetan iscribatua den beçala, *çure ohean eman çaite urrikimenduzco sentimendu eguiazcoetan.* Causituco duçu çure erretiramenduan maiz mundupean gal cineçakena.

Erretiramendua ederresten da ungui beguiratua denean; bainan gaizki beguiratcen bada, unhagarri da eta desgustagarri.

Çure conbersionearen hastetic erretiramenduan lakhet baduçu, guerorat maitatuco duçu, eta çure arimac han gustatuco ditu consolacioneric eztienac.

6. Arima debotac eta Yaincotiarrac ichiltasunean eta soseguan eguiten du bide berthutean, eta han ikhasten ditu iscripturaco secretuac.

Han causitcen ditu nigar nasayac ceinez garbitcen baitu gau guciez bere arima; eta hambatenaz hurbiltcen da bere Yaincoa ganat, cembatenaz urruntcen baita munduco eguitecoetaric eta habarroxetaric.

Bere adiskidetaric eta eçagunetaric urruntcen dena hurbiltcen da Yaincoa ganat, eta aingueruen ganat.

Hobeago da gorderic egotea, eta salbamenduaz artha içatea ecen ez artha hura utciric miraculuen eguitea.

Ereligioneco presuna batentçat laudagarri da guti ilkhitcea, ez ikhusi, ez ikhusia nahi içatea.

7. Cergatic nahi duçu ikhusi çuretçat içatea cilhegui etçaiçuna? Mundua iragaten da, eta iraganen dire halaber munduco guticiac ere.

Axeguinaren hirrixac bagarabiltça maiz pasayeta alferretan, bainan dembora hura yoan denean, cer hantic ekharrico dugu baicen ere concienciaren pisutasuna, eta bihotceco barrayadura?

Maiz nihor aleguera ilkhitcen da, eta triste bihurtcen, eta arrax bozcariozcoac goiz tristea dakharke.

Hala ohi dire munduco bozcario guciac, axeguinekin sartcen dire, azkenean çaurtcen dute eta biltcen arima.

Cer ikhusico duçu bertcetan, ikhusten ez duçunic çaren lekhuan? Beguien aitcinean ditutçu cerua, lurra eta elementac, bada hetaz eguinac dire munduan ikhus daitezkeen gauça guciac.

8. Cer ikhus deçakeçu iguzkiaren azpian

bethi iraun deçakenic? Uste duçu menturaz contentamendu oso bat causituco duçula, ez eiki ez duçu causituco seculan.

Munduco gauça guciac betan çure aitcinean ikhusten bacintu ere, cer liteke ikhuste bano bat baicen?

Altcha çatçu beguiac gora çure Yaincoan ganat, eta othoitz çaçu barkha dietçakitçun çure bekhatuac eta lachotasunac.

Utz diotçatçute gauça banoac presuna banoei, çu lotçakizco Yaincoac manatcen darotçun lanari

Hex çaçu barnetic çure guelaco athea eta deithçaçu harat çure Yesus maitea. Egon çaite harekin, nihon ez duçu causituco hambat sosegu.

Handic ilkhi ez bacine, eta hambat berri ez bacindu aditu, hobeki goçatuco cinen bihotceco bakeaz. Gauça berrien aditcen axeguin hartcen dugun pondutic, bihotça altaratcen da, eta izpiritua barrayatcen.

Cer eguin behar dut beraz?

Munduco solas, libertimendu, eta guiçonen artean içan ditezken consolacionen fluchtzuna, eta hirriscua, ikhusiac dire. Bainan campoz heyei ihes eguitea, cer probetchu cinuke gogoa hetan badabilaçu? Har çaçu beraz usaya saindu bat, çure gogo bihotcen Yaincoaren presenciaz, eta haren ganaco desirez ocupatceco. Eta frogatuco duçu laster ceindiren preçatcecoac, barneco eretiramenduari, eta ichiltasunari Yaincoac eratchiki dituen goçoac, barneco pena, eta eternitatearen beldurric bandienetarainocoan.

Othoitça.

Oi! Yauna, cer çoramenduc ibili nau ni munduarekilaco ihaurdukitcetan? Cerc urrunaraci du ene gogoa çure ganic, mement batere; çurekilacoa atchikitcen ez badut, galdua baicen içan ez nitekin demboran? çato beraz othoi, ene Yesus maitea, çato ene bihotcerat. Bethe çaçu ene bihotça çure ganaco errespectuzco, eta eçagutçazco sentimenduez, eta çure ganaco desirez; berce guciac alde-bat utciric, horietan egon nadin bici naiceno. Halabiz.

Universidad de Deusto
Biblioteca

XXI. CAPITULUA.

Bihotceco urrikimenduaz.

Nahi baduçu aitçinatu debocionean, iducaçu, çure bihotça Yaincoaren beldurtasunean, eta ez dioçaçula eman çure buruari sobera libertate, bainan beiguiraçatçu çure sensuac goardia herxiaren azpian bozcario banoei ihes eguiten dioçutela. Eman çakizco osoki çure bekhatuen doloreari, eta ardiexico duçu debocione eguiazcoa.

Dolore harc hanitz ontasun ematen darocu; bainan izpirituco barrayadurac ontasun hec guciac galarazten darozkigu.

Espantagarri da, nola ahal duken guiçonac mundu huntan instant batez ere eguiazco bozcarioric; consideratcen duenean here desterrua, eta cembat hirriscu harrigarriz den inguratua.

2. Gure bihotceco arintasunac, eta bicioen uzteco dugun anxigabetasunac debecatcen gaitu gure arimaco çaurien sentitcetic, eta

hala irri eguiten dugu maiz nigar eguin behar guinduken demboran.

Ez da eguiazco libertateric eta ez bozcario perfetic, Yaincoaren beldurtasunean eta contcientciaren garbitasunean baicen.

Dohaxu, traba eta barrayadura gucietaric izpiritua libra ahal deçakena, eta bere bekhatuen urrikiac here baitan sarrarasten duena. Dohaxu contcientcia lohi edo carga deçaketen gauça guciac bere ganic urruntcen dituena.

Harçaçu animo eta ez çaitecela guduan unha; usantça onac gaichtoa garaitcen du. Ikhasten baduçu behin guiçonen aldebaterat uzten, hec ere utcico çaituzte laster nahi duçunaren eguitera.

3. Ez çaitecela carga bertceren arthez eta lanez, guciz ez çaitecela sar handien eguitecoetan. Çure beguiac finca çatçu lehenic çure buruaren gainean, eta çure abisu onac lehenago emotçu çure buruari, çure adiskideric maitenei baino.

Guiçonen gracian edo adiskidetasunean ez baçare, ez deçaçula gauça hortaz bihotzminic iç.n; bainan çure damu gucia behar da

içan ceren etçaren bici Yaincoaren cerbitçari edo ereligioneco presunac batec behar luken herxitasun eta goardia guciarekin.

Maiz segurago da eta progotchosago, mundu huntan consolacione hanitz ez içatea, guciz sensuen araberacoric.

Yaincozco consolacionez denaz beçambatean, maiz gure falta da ez balinbaditugu; ceren ez baicare aski enxayatcen gure bekhatuen urrikia bihotcean fincatcera, ete ez baidiogute ukho eguiten aldebaterat consolacione humanoei.

4. Eçagut çaçu beraz ez çarela digne ceruco consolacionen errecibitceco, contrarat ez duçula mereci damuric eta desgusturic baicen.

Eguiazco urrikiaz bihotça hauxia denean, munduac ez du harentçat deus khirexic eta hastiagarriric baicen. Guiristino on batec bethi causitcen du arraçoinic aski nigarretan eta doloretan egoteco.

Ecen considera deçan bere burua edo bere lagun proximoa, ez du ikhusten alde gucietan laceriaric eta ondicoric baicen, eta cembatenaz guehiago bere burua examinatcen baitu hambatenaz guehiago doloratcen da.

Hortaz gure urrikien eta nigarren arraçoin yustuac dire gure bekhatuac eta bicioac, ceinec halaco maneraz baicaduzcate herstuac eta çapatuac, non hurren ecin ceruco gaucetan pensa baiteçakegu.

5. Bicitce lucean baino heriotce hurbilean maizago bacindu gogoa, khar guehiago cinduke çure biciaren chuchenceco.

Fede bici batekin consideratcen bacintu ifernuco eta purgatorioco tormentac, uste dut ez leitekela penaric edo nekheric gogorregui litçaikeçunic, eta gogo onez paira etcineçakenic.

Bainan nola eguia premiaxu horiec ez baitire sartcen gure bihotceraino, eta oraino sensuen axeguinen ondoan baigabiltça, bethi ephelta-sunean eta naguitasunean guelditcen gare.

6. Maiz gure izpirituaren flacotasunetic heldu da gorphutz dohacabea hain senti-cor eta errencuraeguile baita. Eguioçu beraz othoitz Yaincoari humilki, eta galde dioçoçu bihotz urrikimenduz doloratu bat, erraten dioçularic Profetarekin: *Yauna, yanaraz die-*

çadaçu nigarrezco oguia, eta edenaraz dieçadaçu nasaiki ene nigarren ura.

Cer eguin behar dut beraz?

Izpiritu sainduac abisatcen gaitu, ez gaitecen içan belduric gabe barkhatua çauçun bekhatuaz-ere. Içan çatçu beraz bethi bistan çure huxac, erregue penitentac beçala. Aplica-çaçu çure izpiritua hekien ondorioen gainean. Eta mundua alegueratcen duten gauçac nakhaitzgarri, bici hau unhagarri, eta herioa desiragarri idurituco çaitçu. Ordutic penitenciaren, eta berthuaren pausuric, eta bideric gogorrenac, eta herxienec emanen derautçute consolacioneric guehiena.

Othoitça.

Emoçu, othoi, ene bibotçari, o! ene Yaincoa, çure baitan bildua egoiteco, penitencia eguiteco, eta çuretçat sofritceco gostua, eta indarra. Salbatu nahi naiz, Yauna, cer nahi gostaric. Sustenga naçaçu, othoi, ene Yainco maitea, nere huxen erreparatceco, deusic ez guphidesteco, orai hartcen dudan chedean Halabiz.

XXII. CAPITULUA.

Consideratu behar ditugula mundu huntaco miseriac.

Non nahi den içan çaitecen, eta norat nahi den itçul çaitecen, bethi dohacabe içanen çare, Yaincoari lotcen ez baçaizco.

Cergatic altaratcen çare çure chedetan heltcen ez çarenean? Nor da gauça guciac bere gogora dituena? Ez çu, ez ni, ez munduan nihor. Ez da mundu huntan nihor penaric eta ondicoric gabe, ez Erregue edo Aita Saindua.

Gucietaco dohaxuena da Yaincoaren amorea gatic, cerbait pairatcen duena.

2. Flacoec erraten dute maiz: Ala hunelacoa dohaxu baita! ala aberax! ala podoros baita!

Bainan beha dioçoçute ceruco ontasunei, eta ikhusico duçu mundu huntaco gauça guciac ez direla deus; guti segurac bere iraupenean, descansu baino carga hobekiago di-

rela, eta hekien goçamena mila beldurrez eta grignez bethea dela.

Ez dago guiçonaren dohaxutasuna hanitz ontasunen içatean, hain guti aski duenaz gueroztic bicitceco.

Eguiazki beraz miseria handia da lurrean bicitcea: eta cembatenaz nihor aitcinatcen baita guehiago bicitce ispiritualean, hambatenaz çayo bitcitce hau khirestasunez betheago; ceren harc minkiago sentitcen baititu, eta aguerikiago ikhusten corrupcionezco estatu hunen escasac.

Ecen yatea, edatea, atçarria egotea, lo eguitea, lanean haritcea, pensatcea, eta naturaleçaren bertce behar gucien azpico içatea, ez da bada bethiereco miseria, eta ondico gogorra guiçon prestu eta Yaincotiarrençat, ceinac nahi bailuke libro içan gorphutçaren amarretaric, eta bekhatuaren gatibotasunetic?

3. Segur da Yaincoaren izpirituaz bici den arima batentçat gorphutçaren beharrac carga pisu bat direla. Hargatic Profetac hain beroki erraten dio Yaincoari: *Yauna, othoi libra naçaçu ene behar gucietaric.*

Bainan çorigaitz bicitce huntaco laceria eçagutcen ez dutenentçat, eta çorigaitz guehiago bicitce hau miseriaz eta laceriaz inguratua delaric halere maite dutenentçat.

Ecen badire presunac bicitce hunekin hartaraino lothuac, bethiereco lanez eta eskez baicen kharrayatcen ez dutelaric, non hortaz bethi goça ahal balitez, ez baileçakete eguin conturic ceruco erresumaz.

4. O arima fede eta adimendu gabeac, bihotz gogorrac, ceinac hartaraino baitire lurarekin yosiac non ez baitute sentimenduric munduco gaucentçat baicen!

Bainan helas! dohacabe hec azkenean frogatuco dute cein ez deusac, eta mezpreçagarriac ciren hec hambat maitatu dituzten gauçac.

Bertcela eguin dute sainduec, eta Yesu-Christoren adisquidec; ez dute conturic eguin sensuen axeguinez, edo mundu huntaco pompez; bainan bere esparança gucia eman içan dute ceruco ontasunetan, ceinentçat baitire heyen amodio, eta guticia guciac.

Bethi bere bihotçac altchatuac çaozcaten ontasun ikhusten, eta finitcen ez direnetarat,

Universidad de Deusto
Biblioteca

beldurrez ikhusten diren gaucen amodioac behera cetçan lurreco alderat.

Ez deçaçula bada gal, ene anaya, bicitce ispiritualean progotchatceco fidancia eta animoa, Yaincoac hortacotz ematen darotçunaz gueroztic oraino dembora.

5. Cergatic nahi duçu luçatu egunetic egunerat çure combersionea? Altcha çaite, khecha çaite, haz çaite orai beretic, eta erroçu çure buruari: orai da dembora cerbait haritcecoa, orai da dembora guducatcecoa, orai da dembora cincinez conbertitcecoa.

Noiz-ere guerthatcen baitçaitçu cerbait ondico edo altaramendu, orduanche da dembora merecimendu eguiteco. Ecen iragan behar duçu, *uretic eta sutic frescaduran sarthu baino lehenago.*

Çure buruari ukho eguiten ez badioçu ecin garaituco ditutçu çure bicioac.

Gorphutz herbal hau karrayatceco duguno ecin gaitezke bekhatu gabe, ez eta enheadura eta oinhaceric gabe.

Nahi guinduke eguiazki sosegu oso batez goçatu munduan, bainan bekhatuaz galtcearekin batean innocencia, galdu dugu halaber dohaxutasuna.

Hartu behar dugu beraz paciencia, eta egon Yaincoaren misericordiaren beira: *gaichtakeriaren dembora iragan daiteken arteraino, eta gure baitan hilcor den gucia ethorkiçuneco bicitceac irexdeçaketen arteraino.*

6. Oi! nolacoa den gure flakecia ceinac hain abiadura handian baigaramatça biciorat.

Egun confesatcen ditutçu eguin ditutçun bekhatuac, eta bihar eguiten ditutçu berriz confesatu ditutçun hec berac. Orai deliberatcen duçu beiratuco çarela hux batetic, eta oren baten buruco erortcen çare hartan, deliberacioneric hartu ez bacindu beçala.

Arraçoin handiac ditugu beraz gure buruen humiliatceco, eta gure indarrac deus gutitçat idukitceco, hain flaco eta gambiacor garenaz gueroztic.

Naguitasunac eta anxigabetasunac galarazere dieçakegu instant batez neke gogorrekin graciac ardiex araci darocun berthutea.

7. Cer içanen da beraz gutaz, egunaren

akhabantçan, goicetic hain ephel garenaz gueroztic?

Çorigaitz guretçat, pausatceco guticia badugu, yadanic bakea, eta salbamenduaren segurantça ardiexi baguindu beçala. Gure bicitcean saindutasunaren seinaleric batere agueri ez den arren.

Beharra baguinduke berriz has litecen gure nausiac gauçaric chehenac guri iracasten, eta gure guidatcen berthutean aprendiçac beçala, ikhusteco ea baden esparantçaric correytuco garela, edo aitcinatuco bicitce ispiritualean.

Cer eguin behar dut beraz?

Gogoan ungui harçaçu, Yaincoac certaco eman çaituen mundurat. Orhoit çaite, ez mundu huntan çure gogoara içanaren, edo ez içanaren eredura, bainan mundu huntan Yesu-Christoc beçala hemengo on gaitcei behatu, edo ez, dioçuketenen arabera, sarri, eta laster non içanen çaren seculacotz. Eta capitulu hau eguia bera aurkhituco duçu. Ordutic comprenituco duçu. S. Gregorioc dioen beçala, bicitce huntaco onen, eta

aisen desiratcea, eta heyei atchikitcea bere ondicoaren maitatcea dela. Ordutic munduco satisfaccionez, ez trebesiez, ez duçu conturic eguinen; eta munduco lorian, Salomon çuhurrac beçala, miseriaric baicen ez duçu ikhusico.

Othoitça.

Çure maitatceco eta eternitate gucian goçatceco eguina, ala dohacabe bainaiz, ene Yaincoa, munduari hain yosia, nere pasionen, eta nahien çapatcerat hain guti ekharria, eta ene gainean ditutçun deseinuen eçagutceco hain lehia guti içaiteaz! bainan, helas! cer dut berceric igurikitceco ene baitharic? hel çakizkit, othoi, beraz Yainco misericordiosa, argui çaçu ene izpiritua, mundu huntaco ene içaitearen gaincan. Borthitz çaçu ene bihotça, lurrera herrestatcen duten yaidura triste hauyen contra. Gaineraco guciez cer içanen baita-ere, hel nadin çure loriara. Halabiz.

Universidad de Deusto
Biblioteca

XXIII. CAPITULUA.

Heriotceaz behar dugula pensatu, eta hartarat preparatu.

Mundu huntan çureac eguin duke laster ikhusaçu certan çaren. Egun baçare, bihar etçare; eta presuna bat bichtatic galduz gueroz, galtcen da halaber laster orhoitçapenetic.

O guiçonen bihotz gogor, eta sentimendu gabeac, ceinec ez baitute pensatcen oraingo gaucetan baicen guerocoez conturic eguin gabe! Egun oroz çure accione eta gogoeta guciac erreguelatu behar cintuzke, egun berean hil behar bacindu beçala.

Contcientcia ona bacindu, ez cintezke heriotcearen beldur. Hala hobeago liteke bekhatuari ihes eguitea heriotceari baino.

Egun hiltceco prest ez baçare, nola bihar içanen çare? Biharco egun hura ez da segura: ecen cer dakiçu Yaincoac emanen darotçun?

2. Cer progotchu dugu hanitz bicitcea, hain guti gure huxac uzten ditugunaz gueroztic?

Helas! bicitce luceac ez ditu maiz gutitcen gure faltac, contrarat guehienean emendatcen.

Ochala gure bici gucian egun bat bederen ungui iragan baguindu!

Hanitcec condatcen dituzte conbertitu direla dituzten urtheac, bainan ecin eracux deçakete cer fruitu gueroztic ekhari duten.

Heriotcea beldurtceco bada, maiz beldurtcecoago da luce bicitcea.

Dohaxua da heriotceco orena bethi beguien aitcinean darabilana, eta egun guciez hiltcera prestatcen dena.

Ikhusi baduçu nihor hiltcen, orhoit çaite gauça bera çuri ere guerthatuco çaitçula.

3. Goicean, penxa çaçu ez duçula ardiexico arraxa; eta arraxa ethorri denean, ez çaitecela atrebi çure buruari biharamuna aguintcera.

Çaren beraz bethi prest, eta bici çaite halaco maneraz, non herioac ez baitçaitu seculan uste gaberic atcemanen.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Hanitz presuna hiltcen dire uste ez dutela, eta heriotce supituz : *Ecen guiçonaren Semea nihorc uste ez duen orduan ethortcen da.*

Azkeneco oren hura ethortcen denean, bertce guisaz behatuco bide diocu çure bicitce iraganari, eta ungui urrikituco çaitçu, ceren hain ansicabe eta lacho içatu çaren.

4. Ala dohaxu baita eta çuhur haina ceinac bere ahal guciac eguiten baititu bicitcean halacoa içateco, nolacoa nahi bailuke heriotcean causitu !

Heriotce on eta dohaxu baten esparantça har ahal deçakegu, baldin balin badugu munduarentçat mezprecio oso bat, berthutean aitcina yoaiteco desira bero bat, bicitce errecuelatuaren amodio handi bat, baldin penitencia garratz bat eguiten badugu, obeditcera prest bagaudez, gure buruari ukho eguiten badiogu, eta sofricari guciac Yesu-Christorekin amorea gatic pairatcen baditugu.

Hanitz ungui daguikeçu osasuna duçuno ; bainan erituz gueroz ez dakit certacotz gaiçanen çaren. Ecen eritasunec, eta erromeriec nihor guti hobetcen ohi dute.

5. Ez çaçula urrun egor çure salbamenduaren lana, eta ez çaçula utz eguiteco handi hura çure auçuen edo adiskiden gainean, uste duçun baino lehenago guiçonei ahantcico çaizcote.

Segurago da hanitcez eta hobeago orai danic çure salbamenduaren eguiten ceroni haritcea, eta çure obra onac çure aitcinean egortcea, ecen ez condatcea çu hil ondoan bertcec eguinen darozkitçuten laguntcen gainean.

Bici çareno ceronec artharic ez baduçu çure arimaz, norc nahi duçu hartaz duen achola çu hil ondoan.

Orai da dembora baliatcecoa, *orai dire salbamenduco egunac, orai dembora fagorezcoac, memento guciac dire orai preciatuac.*

Bainan helas ! ala çuc gaizki emplegatcen baititutçu oren eta momentu hec ceinac eman baitçaizkitçu bicitce eternalaren merecitceco.

Ethorrico da dembora ceinetan galdatuco baituçu egun bat edo oren bat penitenciaren eguiteco, eta ez dakit ardiexico duçun.

6. Oi, ene anaya maitea ! ikhusaçu cembat hirriscutaric eta beldurretaric athera deça-

Universidad de Deusto
Biblioteca

keçun çure hurua, bethi herioaren ustean eta beldurrean bici baçare.

Enxeya çaite orai halaco maneraz biciteera, non çure heriotceco orenac beldur baino bozcario guehiago eman baitieçakeçu.

Ikhasaçu orai danic munduari hiltcen, Yesu-Christorekin orduan bicitcen hasteco.

Ikhasaçu orai danic gauça gucien arbuyatcen libro içan çaitecençat orduan çure salbatçailea ganat yoaiteco.

Gaztiga çaçu orai çure gorphutça penitenciaz, orduan Yaincoa baitan esparantça fermu bat içateco.

7. Helas, erhoa! cergatic darabilaçu gogoan luceki bicitcea, egun batez segur ez çarenaz gueroztic?

Cembat ez ditu enganatu hanitz bicitceco esparantçac, ceinac hil baitire gutien uste çutenean?

Cembatetan ez duçu aditu hunelaco hil da ezpata colpe batez, halaco itho da, bertce batec goratic eroriric hauxi du burua? Bata hiltcen da yatean, bertcea yocoan; bata consumitcen du suac, bertcea akhabatcen du burdinac, bata hiltcen da içurriteaz; bertcea ohoinen escuz, eta hala herioac badaramatça guçiac, eta guiçonen *bicia sunsitcen da itçala beçala.*

8. Çu hil ondoan norc eguinen du çutaz orhoitçapen, edo othoitz Yaincoari?

Eguitçu beraz orai danic, ene anaya maitea, eguin aha! ungui guciac, ecen ez dakiçu noiz hilen çaren, eta hil ondoan cer guerthatuco çaitçun: dembora duçuno biltçatçu aberastasunac eternitatecotz: ez içan gogoetaric salbamenduaz baicen, ez acholaric Yaincoaz baicen.

Eguitçatçu orai adiskideac ceruan, sainduac ohoraturic eta imitaturic, hil ondoan errecibi çaitçaten tabernacle eternaletan.

9. Bici çaite lurraren gainean arrotz eta bideante bat beçala, ceina ez baitute munduco eguitecoec deusetan ere hunkitcen.

Beira çure bihotça mundutic apartatua, eta Yaincoa ganat altchatua, ecen ez da hemen çuretçat egoitça iraupenecoric.

Ofrenda diotçotçu bethiere Yaincoari çure othoitçac, nigarrac eta plainuac, bicitce hunen ondoan çure arimac mereci deçantçat haren ganat dohaxuki yoaitea.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Cer eguin behar dut beraz?

Orhoit-çaite çure azken finez, eta ez duçu bekhaturic eguinen, errairen dautçu izpiritu sainduac. Pensa çaçu herioac certaraco dueu mundu hau çuretçat, eta certaraco çaituen ceroni, eta lucenaz ere cein laster alchatuco çaituen lurretic. Orduan, behar bada bihar, eta lasterrago, akhabo enetçat mundua; akhabo enetçat Salbamenduco laguntçac. Orduan Yaincoaren gogoraco banaiz, bethicotz dohaxu. Bainan hala aurkhitcen ez banaiz, bethicotz dohacabe. Horrela pensatuz, norc ez ditu eguinen capitulu huntan causitu dituenac?

Othoitça.

Posible da bada, ene arima, mundu iragancor huntaz hartua, ecin ebitatuzco, eta seculaco hire ona edo gaitça dakharken heriotce latzgarri hura, galduco duan gogotic? Içan daiteke holaco çoramenduric? Ordean certaco ez naiz gai, ô! ene Yaincoa, nere baitarat uzten banauçu? Sar araz çatçu beraz, Yauna, ceronec ene gogoan pensamendu salbagarri hauc. Eraguin deçadatan orduan eguinic causitu nahico dudana. Halabiz.

XXIV. CAPITULUA.

Yaincoaren yuyamendu ikharagarriaz, eta Bekhatoren suplicioaz.

Gauça gucietan orhoit çaite çure azken finaz, eta ez deçaçula ahantz egun batez aguertuco çarela yuye garratz haren aitcinean ceinarentçat ez baita deus gorderic, ceinac ez baititu errecibitcen ez gure presentac, ez eta gure aitcekiac, edo estacuruac, bainan yuyatcen baitu bethiere yustutasunaren arabera.

O bekhatore erho eta dohacabea! ceina ikharatcen baitu maiz guiçon baten colerac, cer ihardexico dioc bada Yaincoari, ceinac ikhusten baititu hire crima guciac?

Cergatic ez haiz prestatcen yuyamenduco egun ikhagarric hartacotz, ceinetan nihorc ez baitu içanen beguiratçaileric, sustenguric eta defendatçaileric, eta ceinetan batbederac aski içanen baitu bere carga?

Orai lituzkec hire obrac progotchosac, hire nigarrac entçunac, hire urrikiac mere-

Universidad de Deusto
Biblioteca

cimenduzcoac, eta hire doloreac baliosac eta salbamenducotz onac.

2. Oi! ala bicitce hau purgatorio ona baita guiçon pairacor batentçat, ceinac afrontuac errecibitcean damuago baitu ofensatçailearen bekhatuaz, ecen ez berari eguiten çayon gaizkiaz; ceinac bihotz onez othoitz eguiten baitio Yaincoari bere persecutatçailentçat, ceinac barkhatcen baitiote gogotic bere exayei, eta ceina prest baitago bethi bere huxic chumenen gainean bertcei barkhamendu escatcera; ceinaren bihotcean errechkiago sartcen baita urricalmendua, ecen ez asarradura, ceinac maiz bere buruari bortcha eguiten baitio; ceina enxeyatcen baita bethiere bere buruaren garaitcera, eta izpiritua haraguiaren nausi errendacerat.

Hobeago da balinba orai gure contcientciaren chahutcea, eta handic bicioac atheratcea, ecen ez hec uztea bertce munduco suaz purgatceco: bainan gure haraguiarentçat dugun amodio desordenatuac enganatcen eta ixutcen gaitu.

3. Helas! ez dugu pensatcen su icigarri harc ez duela bertce bazcaric içanen gure bekhatuac baicen?

Cembatenaz hemen çure burua guphidesten baituçu guehiago, hambatenaz guehiago han sofrituco duçu; çuc hemen çure haraguia mainozkiago lausenga, hura guehiago han puni eta tormenta; cembatenaz Yaincoa ofensatcen baituçu guehiago, hambatenaz biltcen duçu ifernuco suari bazca guehiago.

Certaz ere guiçonac eguin baitu bekhatu, hartaric beretic içanen du pena, eta gaztigu guehienic.

Han naguiac eta anxicabeac içanen dire suzco punta çorrotcez sistatuac; han gormantac eta hordiac goseaz eta egarriaz, icigarriki tormentatuac.

Han lohiac eta desonestac pulumpatuco dire bikhezco, eta sufrezco tulumbio irakituetan; eta bekhaiztiac bere dolorearen çorrotztasunean egonen dire marrumaz çakhur errabiatuac beçala.

4. Han bicio bakhoitchac içanen du bere suplicio particularra. Han içanen dire urguluxuac seculaco laidoaz eta ahalguez estaliac, eta abariciosac errumeseriaric handienaz herstutuac.

Han oren baten pena gaitçago içanen da

Universidad de Deusto
Biblioteca

pairatcea, hemen ehun urtheren penitencia den garratcena baino.

Hemen nekheac badu bere sosegua, doloreac bere descansua, bainan han damnatuentçat ez da pausuric batere, ez consolacioneric, ez descansuric.

Içan çaçu beraz çure bekhatuen dolore bici bat, eta hari çaite çure falten penitenciaz urratcen, yuyamenduco egunean sar çaitecentçat dohaxuen bakean eta soseguan.

Ecen orduan yustuac *altchatuco dire segurantça handirekin mundu huntan desohoratu eta persecutatu dituztenen contra.*

Orai hemen guiçonen yuyamendu inyustuac humilki pairatcen dituena ethorrico da orduan loriaz betheric hekien yuye içatera.

Orduan humila eta pobrea içanen dire segurantça oso batean, eta urguluxua ikharan eta eximenduan.

5. Orduan ikhusico da eguiazco çuhurrac cirela hainac ceinec nahi içan baitute mundu huntan içan mespreçatuac edo erhotçat idukiac Yesu-Christoren amore gatic.

Orduan pacienciarekin pairaturicaco axecabeac içanen dire persecutatuen loria, eta

persecutatçailen gachtakeriac eguinen du hekien axecabea eta bihotz mina.

Orduan presuna prestua eta debota bozcarioan içanen da, eta gaichtaguina nigarrean eta plainutan.

Orduan gorphutz mortificatua eguinen da distiantago eta ederrago, bethi axeguinpean, eta mainapean hacia içatu balitz baino.

Orduan distiatuco dute pobrearen arropa tcharrec, eta ilhunduco da aberaxaren berreguintça edo distiadura.

Orduan guehiago preçatua içanen da etchola tcharra, ecen ez yauregui urrestatua.

Orduan hobeago causituco da paciencia humila, ecen ez munduco bothere gucia, eta obediencia simple batec guehiago balioco du munduco prudencia eta errefinamendu guciac baino.

6. Orduan bozcario guehiago emanen du contcientcia onac eta garbiac, ecen ez filosofoen yakintasun guciac.

Orduan guehiago laudatuco da aberastasunen mesprecioa, ecen ez munduco tresor gucien yabetasuna eta posesionea.

Ikhusico dugu orduan othoitcean emple-

gatu dugun dembora hobeki eremana içan dela, ecen ez axeguinezco othuncetan iragan çaicuna.

Orduan bozcario guehiago içanen dugu ichilic egonaz, ecen ez solas luceac eguinaz.

Progotchosago içanen ditugu hitz ederrac baino, obra sainduac. Eta descansu guehiago emanen darocu bicitce herxi eta penitentac, munduan hartu ditugun axeguin guciec baino.

Ikhasaçu beraz bicitce huntaco gaitz chume, eta iragancorren pairatcen, bertceco tormenta dorphe, eta eternaletarat êror ez çaitecen.

Froga çaçu hemen, cer han paira deçakeçun; hemengo gaitz chumen yasateco indarric ez baduçu, ikhusaçu nola han pairatuco ditutçun bethi iraunen duten suplicioac.

Hain paciencia guti baduçu orai gaitcic chumenetan, nola iraunen duçu ifernuco sulametan.

Orhoit çaite ez dela posible bozcariotic bozcariorat iragatea, mundu huntan lehenic dohaxu içatea, eta guero ceruan Yesu-Christorekin erreguinatcea.

7. Çure bici gucia ohorez eta axeguinez

orai artheraino bethea içan balitz ere, cer progotchu cinduke orai berean hil behar bacindu?

Gauça guciac dire beraz bano eta ez deus salbu Yaincoa maitatceaz, eta haren choilki cerbitçatceaz campo.

Bere bihotz guciaz Yaincoa maite duenac, ez du belduric heriotcearençat, ez suplicioarentçat, yuyamenduarentçat, ez ifernuarentçat, ceren Yaincoaren amodio perfetac haren ganat segurantçarekin hurbil arazten baicaitu.

Bainan ez da miresteco bekhatuan oraino lakhet duena heriotcearen eta yuyamenduaren beldur içatea.

On da bada halere amodioac oraino guibelatcen ez baçaitu bekhatutic, guibela çaitçan bederen ifernuaren beldurrac.

Guciarekin ere Yaincoaren baino bertce cerbaiten beldurrago denac, ecin onean luceki iraunen du, eta laster erorico da debruaren artetarat.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Cer eguin behar dut beraz?

Bicien eta hilen yuye soberanoac declaratcen darocu, gure obra onac berac examinatuco dituela garrazki bere yuyamenduan. Asma çaçu beraz, ea cer beguitarte, eta bista içanen duen arima supher, edo mendecari batec, Yainco, gure gatic hain aphaldu denaren aitcinean; eta bere Saibamenduaz casu guti eguin duenac, bere bicia gure salbatceco eman duen Yainco semearen presencian, eta yuyamenduan.

Orhoit çaite maiz, mement bateco çure pasionearen contentatceac dakhazkeyen tormenten garratztasunaz, hedaduraz, eta iraupenaz. Cer suplicio? Sua; eta asma ditezken guciac. Nondic? Sensu gucietaric. Noiz artean? Bethi. Finic gabe. Eternitate gucian. Pensatcen balu, nor liteke aski bere buruaren burregoa, harat condenatua içateco hirriscuan, bekhatu mortalean mement bat ere egoiteco?

Othoitça.

Bicien, eta hilen yuye soberanoa, gure heriotceco mementoan, çuc behar darocuçu

eman, bacoitchari gure çorthea. Bainan orhoit çaite, othoi, gure Salbatçailea çarela, eta çure odola, sarraski gucien erdian, guretçat ichuri içan duçula. Bahi preciatu hortaz errekeritcen çaitugu, barkha dietçagutçun gure bekhatuac, eta erakhar ditçatçun gure gogo bihotçac, çure yusticiari satisfaccione eguiteco deusic ez guphidesterat. Halabiz.

XXV. CAPITULUA.

Guerotic guerorat berthutean aitcinatcera behar dugula lehiatu.

Içan çaite erne eta arthos Yaincoaren certbitçuan, eta manera bereci batean Yaincoari consecratua baçare, erroçu maiz çure buruari: Cer chedez ethorri haiz hunat? Certaco utci duc mundua, Yaincoaren cerbitçatceco, eta bicitce ispiritual bat eramateco baicen?

Çoaz beraz khar handirekin aitcina, sinhexiric neken saria laster içanen duçula, eta orduan içanen çarela çure gaitz eta beldur gucietaric campoan.

Nekhe hec chumeac direlaric ere içanaracico

Universidad de Deusto
Biblioteca

darotçute sosegu eternal bat, eta dohaxutasun infinitu bat.

Içan çaite leyal eta kharxu Yaincoaren cerbitçuan, eta Yaincoa leyal içanen da eta yeneros çure saristatcean.

Behar duçu içan esparantça handi bat ardiexico duçula sari hura, ordean halere ez dioçoçula çure buruari eguin segurantça osoric beldurrez eror epheltasunerat edo urgulutan.

2. Behin Yaincoaren cerbitçari bat khechatua hanitz, eta penatua beldurraren eta esparantçaren artean yoan cen tristeciaz betheric Eliça batetara, eta han aldare baten aitcinean ahuspez emanic, gogoeta hau çarabilan bere baitan: Oi banaki bederen iraunen dudala Yaincoaren cerbitçuan! Eta berehala aditu çuen boz bat ceinac bere barnetic erran baitcioen: Eta bada gauça hori bacinaki, certeguin nahi cinduke? Eguiçu orai ordua eguin cineçakena eta içanen duçu desiratcen duçun segurantça. Errepusta hortaz consolatua gucia, eta borthiztua erori cen osoki Yaincoaren borondatera, eta apacegatu cirenharen khechagune guciac.

Handic harat etcen curioz içatu yakitecotz cer guerthatu behar citçayoen ethorkiçunean, bainan haren artha guciac içatu ciren yakiteco cercen Yaincoaren nahia, cercen haren beguietan hoberenic eta perfetenic bere obra on guciac sainduki hasteco eta akhabatceco.

3. *Içan çaçu esparantça Yaincoa baitan*, dio Profetac, *eta eguiçu unguia, egon çaite lurrean, eta hacico çare haren ontasunez.*

Gauça batec guibelatcen gaitu edo gueldiarazten salbamenduco bidean; eta hura da han causitcen diren gaitztasunen, eta han yasan behar diren guduen beldurra.

Bertcenaz hainac guehienean berthutean aitcinatcen dire, ceinac animo guehiagorekin enxeyatcen baitire trabaric handienen, eta gure desira sainduac guehienic contrestatcen dituztenen garaitcerat.

Ecen cembatenaz guiçonac bere burua garaitcen eta mortificatcen baitu guehiago, hambatenaz ardiesten du gracia, merecimendu, eta perfeccione guehiago.

4. Bainan guciec ez dute hambat pasione mortificatceco, ez hain gudu handia eguin behar bere buruen garaitceco.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Halere khar eta zelo guehiago duenac bide guehiago eguinen du berthutean pasione borthitçagoac içan arren, ecen ez pendura onac dituelaric khar gutiago duenac.

Bi moyan dire guciz handiac gure escasetaric libratceco, lehembicicoa da gure buruei bortcha eguitea, gure bicio naturalei contra eguiteco, eta bertcea cincinez lehiatcea guehienic behar ditugun berthuten ardiesteco.

Enxeya çaite beraz arthoski çure baitan garaitcerat bertcen baitan guehien gaitzesten ditutçun escasac.

5. Progotcha çaite gauça guciez çure aitcinamenducotz, eta lehia çaite imitatcerat ikhusten, edo aditcen ditutçun exemplu on guciac.

Nihorc hux bat eguiten badu çure aitcinean, goardia guehiagorekin beira çaite hux hartaric, edo çu ere hartara erori baçare altcha çaite lehen bai lehen.

Orhoit çaite çuc bertcen gainean beçala, bertcec ere çure gainean beguia idekia daro-catela.

Oi! ala on baita eta ezti bicitcea presuna debot eta kharxuekin, bere eguinbidei

yarraikiekin, eta bere bicitcean erreguelatuekin.

Contrarat, ala triste eta doloragarri baita ikhustea yende desordenatuac, eta bere eguinbidetaric batere complitcen ez dutenac!

Ala periloz baita norc bere estatuco obligacioneac uztea, eta obligatu ez den eguitecoei lotcea!

6. Orhoit çaite bethiere certarat deithua içatu çaren, eta maiz beha dioçoçu Yesu-Christo gurutceficatuaren imaginari.

Çuretçat ahalgue handi baten suyeta behar da içan ikhustea cein guti çure bicia harenaren idurico errendatu duçun, hambat dembora duelaric eman çarela Yaincoaren cerbitçuan.

Arima Yaincotiar batec amodiorekin meditatcen ducnean Yesu-Christoren bicitce saindua, eta haren pasionea, causitcen ditu han bere salbamenduaren eguiteco progotchos dituen gauça guciac. Alferric bilhaleçake bertcetan Yesusen baitan causitcen duen baino cerbait hobeagoric.

Oi baldin sartcen baliz Yesus gurutcefica-

tua gure bihotçean, ala laster baikinakike yakin behar den gucia!

7. Ereligioneco presuna batec zeloz eta kharrez bihotça bethea duenean, hartcen ditu gogo onez, eta berehala complitcen eguiten çaizcon manu guciac; bainan ephelac eta anxicabeac bereburuari erakhartcen dio axecabea axecabearen gainean, eta ez du halacoac alde gucietaric penaric eta dolorerik baicen, ceren gabetua baita barneco contsolacionez, eta debecatcen baitçaizço campocoac.

Bere erreguelatic urruntcen dena osoki galtceco menean da.

Aisian eta largotasunean bici nahi duena ondico gogoretan causituco da; ceren eta gauça batean lachatcen denac ez baitu aurkhitcen bertce gucietan desgusturic eta unhduraric baicen.

8. Nola eguiten dute hambat ereligioneco presunec, ceinec bere erreguela hain herxiki beiratcen dutela bici baitire comentutan!

Bakhan ilkhitcen dire, bakhartasunean daudez, pobreki yaten dute, arrunki beztitcen dire, hanitz nekhatcen, guti mintçatcen, luceki beilatcen dute, goiz yaikitcen dire,

berant etçaten, othoitz luceac eguiten, hanitz iracurtcen, eta bere buruac bere eguinbide gucietan arthoski atchikitcen.

Ikhusaçu Chartrusen Ordena, Citoscoa, eta hambat bertce fraide eta serora, ceinac gau guciez yaikitcen baitire Yaincoaren laudorioen cantatcera.

Laido handi bat liteke çuretçat lacho eta nagui içatea hain eguinbide sainduan, hambat arima on khar eta debocionerekin othoitcean daudecen demboran.

9. Oi posible balitz bertce artharic ez içatea munduan salbu gure bihotz guciaz Yaincoaren laudatcea baicen! Ez balitz bebar behinere ez yan, ez edan, ez lo eguin, ahal baguintez bertce artharic gabe Yaincoaren eta gure arimaren alderacoez lekhora, orduan hanitcez dohaxuago bide guintezke orai garen baino, gorphutceco behar gucien gatibo edo esclabo garen huntan baino.

Ochala bada gatibotasun huntaric alde batera libratuac baguine, eta lan bakhartçat baguindu gure arimari bere bazca izpirituala ematea! ceina, helas! gutitan yastatcen baitugu!

10. Guiçonac ardiexi duenean estatu hura ceinetan ez baitu bilhatcen creaturen contsolacioneric, orduan hasten da Yaincoaren ungui gustatcen, eta cer nahi den guertha dakioen bake handi batean dago haren arima.

Orduan ez gauça handiec ez chumec ez diote ematen bozcarioric edo tristeciaric, nola osoki ematen baitçayo Yaincoari, gauça guciac causitcen ditu Yaincoa baitan, ceinarentçat ez baita deus ġaltcen, ez hiltcen, eta ceina gauça guciec obeditcen baitute guibelamenduric batere gabe.

11. Bethi orhoit çaite çure fina hurbiltcen dela egunetic egunerat, dembora galduac ez direla guehiago bihurtcen eta artha eta grina handiarekin baicen berthuteac ez direla ardiesten.

Epheltcen hasten çaren pontutic, hasten çare gaizkitcen, bainan çure berotasunean irauten baduçu, bake handi batez goçatuco çare, eta Yaincoaren graciac eta berthutearen amodioac eztituco darozkitçute nekhe guciac.

Arima kharxua eta arthosa prest dago gauça gucietaco.

Arimac pena guehiago hartcen du bicioei

eta pasionei contra eguiten, ecen ez gorphutçac nekheric handienen yasaten.

Falta chumei ez badioçute ihes eguiten, erorico çare emeki emeki handienetarat.

Nahi baduçu içan aleguera arraxean, emplega çaçu eguna progotchoski.

Egon çaite erne çure buruaren gainean, atçaraçu çure burua, anima çaçu, mehatcha çaçu, eta bertcez cer içanen bada ere, ez deçaçula utz çure buruaren artha.

Cembatenaz çure buruari bortcha eguinen baitioçu, hambatenaz yoanen çare aitçina berthutean.

Cer eguin behar dut beraz?

Guiristino ephelac erreboltatcen du Yesus Yaunaren bihotça, dio Salbatçaile maite harrec berac. Içanez doidoya baicen bere salbamenduan trabailatcen ez denac, nola ihardesten du Yesu-Christoc guretçat duen amodio kharsuari? eta nola ezda aurdikia içanen banotasunean dagona, bethi berekin dabiltçan exai podoros, eta sothilaz? artha handirekin istudia çatçu beraz çure yaidurac, eta enseya gueroago osokiago,

Yesu-Christoren maxima sacratuen arabera, heyen erreguelatcerat. Salbatceco segurantça sobera ez diteke har.

Othoitça.

Cer abisuren beharra nuke nic, Yesus maitea, pontu hunen gainean, gurutce dorphe baten gainean hiltcen çu ikhusi ondoan. Hortarainacoan nere buruari borcha eguitea, gosta behar çait; bainan eguina da, Yauna, deliberatcen dut bideric hersienari lotcera mement huntaric. Borthitzçaçu, othoi, ene chedea; laguneçaçu egunetic egunera berthutean aitcinatcen, eta bide hortaz segurtatcen bethiereco çoriona. Halabiz.

YESU-CHRISTOREN
IMITACIONEA.

BI-GARREN LIBURUA.

BICITCE ISPIRITUALEAN ARIMAREN ABANTÇUAZ.

I. CAPITULUA.

Sarthu behar dugula gure barnean, eta solastatu Yesu-Christorekin.

Yaincoaren *erresuma çuen baitan da*, dio Salbatçaileac, *conberti çaite Yaincoa ganat çure bihotz guciaz*, eta utçaçu mundu dohacabe hau, eta çure arimac causituco du eguiazco sosegua.

Usa çaite campoco gauça gucien arbuyatcen, eta maiz çure barnean sartcen, eta

sentituco duçu Yaincoaren erresuma çure ganat ethorcen. Ecen Yaincoaren erresuma ezta bertceric baicen ere izpiritu sainduac bihotcera dakharken bakea eta bozcarioa, ceinaz gaichtoac ez baitire goçatcen.

Yesu-Christo ethorrico da çure ganat, eta yastaracico darozkitçu bere contsolacioneac, hari dagocon egoitça bat preparatcen badioçu.

Harc maite duen loria eta edertasun gucia ariman dago, han egotea du lakhet.

Guiristino barne bilduac içaten tu haren ganic bisita usuac, mintço çayo amulxuki, ematen daizco contsolacione eztiac, bake handi bat, eta comunicacione batçuc guciz miragarriac.

2. Ea beraz arima leyala aphain dioçoçu çure bihotça espos dibino hari; han bere egoitça eguin deçantçat. Ecen berac erran du: *Ni maite nuenac ene hitçac beiratuco ditu ethorrico gare haren ganat, eta eguinen dugu haren baitan gure egoitça.* Idec dioçoçu beraz çure bihotça Yesu-Christori, eta hex bertce guciei.

Hura baduçu aberax çare, eta hura bakharric aski duçu, harc berac complituco

ditu çure behar guciac; hura içanen da çure habea eta adiskidea, eta etçare içanen guiçonen laguntçaren galdeguiteco beharretan. Ecen guiçonac laster gambiatcen dire, eta escasten berehala; bainan Yesu-Christo *bethicotz dago*, eta haren adiskidetasunac irauten du mende gucietan.

3. Guti behar duçu pausatu guiçon flaco eta hilcor baten gainean, nahi beçain progotchosa edo maitea çuretçat içan arren: eta etçaitçu halaber sobera gaitcitu behar, haren inconstancia, edo herra çure aldera; iragaten dire haicea beçala, egun çure alde direnac, bihar çure contra içanen dire, eta berriz egun exai ditutçunac bihar çure fagore altchatuco dire.

Ez beraz eman çure esparantça bertcetan, baicen Yaincoa baitan; den hura bakharric çure beldurtasun, eta amodio gucien chedea. Harc ihardexico du çuretçat, eta gauça gucietaric probetchu atheraracico darotçu.

Ezta hemen çuretçat iraupenezco egoitçaric, norat nahi çoacen, arrotz eta bideante içanen çare, eta eztuçu eguiazco soseguric causituco non etçaren Yesu-Christorekin osoki yuntatcen.

4. Cer ikhusten duçu mundu huntan tricaraz çaitçakenic, eztenaz gueroztic hemen çuc pausatu behar duçun lekhua? Ceruan behar duçu eguin çure egoitça; hala lurreco gauça guciei eztioçute beiratu behar iragaitçaz edo pasayaz baicen.

Gauça hec iragaten dire eta çu ere bai hekiekin, beguirautçu heyer loth etçakizcoten beldurrez, har çaitçaten eta gal bethicotz.

Atchic çaçu çure izpiritua Yaincoa ganat altchatua, eta ofrenda diotçoçu bethiere çure othoitçac Yesu-Christori. Contemplacione gora batera ecin hel baçaitezke, pausa çaite Yesu-Christoren pasionean, eta duçun lakhet haren çauri sacratuetan egotea. Ecen ihes lekhu sacratu hartara debocione handirekin yoaiten baçare, causituco duçu descansu handi bat çure axecabe gucietan, contu guti eguinen duçu guiçonen arbuyoez eta calomniez.

5. Yesu-Christo bera guiçonez mespreçatua içatu da, behar suerte guciez inguratua, bere ahaide eta adiskidez abandonatua, laidoen eta doloren erdian. Yesusec nahi içatu du içan penatua eta arbuyatua, eta

guero çu atrebituco çare nihortaz errencuratcera? Yesusec içatu ditu exayac eta gaizki erraileac, eta çuc eztuçu nahi causitu adiskideric eta ungui erraileric baicen? Nola Yaincoac khoroatuco du çure pacientcia, ez baduçu nahi guertha dakiçun axecaberic? Eta ez baduçu deus sofritu nahi, nola içanen çare Yesu-Christoren adiskide? Sofri çaçu Yesusekin eta Yesus gatic, nahi baduçu Yesusekin erreguinatu.

6. Oi behin sar ahal bacintez Yesusen galtçarrean, eta aphur bat senti bacineça haren amodioaren kharra eta goçotasuna, etcintezke casu hari çure amodio propiaren gogora edo desgogora litezken gaucez, bozcariorekin har cinetçazke eguiten çaizkitçun afrontuac, ecen Yesusen amodioac ekhartcen gaitu gure buruaren mespreçatcerat.

Yesus eta haren eguia cincinez maite duena, eta afeccione desordenatuetaric libraturic barneco bicitceaz bici dena ematen çayo osoki Yaincoari, eta altchatcen da izpirituz bere buruaz gorago, sosegu ezti batez goçatceco bere maitearen goçamenean.

7. Norc ere gaucez yuyatcen baitu ez yen-

den ustearen, edo erranaren arabera, bainan gauçac berenez direnaren arabera, haina da çuhurra; ez guiçonen ganic heldu den cuhurtciaz, bainan Yaincoa ganic heldu denaz. Barneco bicitceaz bicitcen dakienac eta campoco gaucetan guelditcen eztenac, eztu muga edo lekhu suerte baten hartceco beharric bere debocionearen phizteco.

Guiçon barnecoya laster bere ganat biltcen da, ceren ez baita behin-ere osoki camporat airatcen: campoco lanec, eta ardurazco eguitecoec eztute trabatcen, ez barrayatcen; bainan alogatcen da eguitecoekin, guerthatcen direnaren arabera. Bere baitan ungui disposatua denac, contu guti eguiten du munduan condemnatcen edo laudatcen diren gauçez. Cembatenaz guiçonac hartcen baitu campotic eguiteco guehiago, hambatenaz guehiago barrayatcen da bere barnean.

8. Bihotça chuchena bacindu, eta garbia gauça guciez, eguin cineçake probetchu eta berthutean aitcinamendu. Mila gaucec khechatcen çaituzte eta áltaratcen, ceren ez baitçare oraino çure baitan osoki hila, eta munduco gaucetaric apartatua. Deusec eztu hala

nothatcen eta trabatcen guiçonaren bihotça, nola creaturen amodio lohiac: munduco consolacioneac hastantcen bacintu çure ganic, ceruco gauçac contempla cinetçake, eta senti cinetçake hango bozcarioac.

Cer eguin behar dut beraz?

Eguin, eta eguiten tuen amodiozco obra miragarrietan, Yesu-Christoc içan duen chedea da, bera bere aitarekin bat den beçala, gu berekin bat eguitea. Ordean ikhusaçu, ceronec, eta batasun hura harekin içan deçakeçun, autorrac erraiten dautçun beçala çure yaidurac, Yesu-Christoren borondateaz, eta nahiaz erreguelatu gabe? harrec bereac bere aita Yaincoarenaz erreguelatcen cituen beçala, gaineraco gauça guciac ez deusentçat utciz. Eta cer dira ere, Salbatçaile maite haren amodioan içaitearen aldean? urrun çatçu beraz çure izpiritutic gogoeta funx-gabeac. Çauden atçarria çure bihotçaren gainean, Yesu-Christoren ganat ez dohan afeccioneric, ez penaric pausatcerat han ez ucteco.

Othoitça.

O! ene Salbatçaile maitea, ó! ene arima-

ren bicia, ô! ene Salbamenduaren bahi sacratua, Yabe çaite othoy, ene bihotçaz. Çurea da Yauna oso osoa. Berreguinçaçu çure misterio handien izpirituan, eta çure bihotz Sacratuaren disposicionetan; bici dadin osoki çutaz, urt nadin, çure baitan, eta ez deçan sofri borondatezki çure amodio Sacratuaren moguimenduez berceric. Halabiz.

II. CAPITULUA.

Guiçonec ecin deus eguin deçakete bere esparantça Yaincoa baitan emana duenaren contra.

Etçaitecela penetan eman nor den çure alde edo çure contra; bainan içan çaçu artha solamente Yaincoa den çurekin, eguiten dituçun gauça gucietan. Içan çaçu bethiere conticientcia garbi, eta Yaincoac defendatuco çaitu gucien contra. Ecen guiçonen maleciac ecin eguin dioçoke bidegaberic Yaincoac lagundu nahi duenari.

Baldin badakiçu ichilic sofritcen, frogatuco

duçu falta gabe Yaincoaren laguntça. Harc daki ungui cein diren çure laguntceco mugaric, eta maneraric hoberenac; hala emaçu çure burua haren escuetarat. Harc daki çure laguntcen; eta çure atheratcen çure nahasdura gucietaric. On da maiz gure humiltasuna beiratceco eta handitceco, bertcec yakin detçaten gure escasac, eta hekien gatic mehatcha gaitçaten.

2. Nihorc bere huxa aithortcen duenean, eta hartaz humiliatcen denean, errechki facegatcen ditu, eta contentatcen bere mehatchatçaileac. Yaincoac humila beguiratcen du eta defendatcen; maitatcen du, consolatcen du, haren ganat ethortcen da, bethetcen du bere graciez, eta beheramendu handi baten ondoan altchatcen du azkenean loriaric gorenera.

Yaincoac humilari aguertcen diotça bere secretuac, deitcen du eta erakhartcen emeki bere ganat. Cer nahi ahalgue içan deçan humilac, bakean da hargatic, ceren bere sosegua ematen baitu Yaincoa baitan, eta ez guiçonen baitan. Eztuçu uste behar perfeccionean aitcinatu çarela, ez badaucaçu sinhexia gucietaco chumena çu çarela.

Cer eguin behar dut beraz?

Errech da munduco estimua dugunean, erraitea, mereci gabe dugula; bainan Yaincoari bakharric gatchezcola eracusteco, mesprechatuac garenean, erran behar dugu, mereci dugula; eta munduco estimu, edo mesprecioaz conturic ez eguin. Delibera çaçu beraz, eguin detçaketçuketen escarnio guciac hartuco tutçula errencuratu gabe, Yaincoaren ganic ongui merecitu gaztigu batçu beçala; dohaxu estimatcen duçularic çure burua, moyan hortaz haren loriara helceco esparantçaren içaiteaz, hambat aldiz bethiereco ilhumbea merecitu duçun ondoan.

Othoitça.

Ah! Yauna, ikhusten duçu mesprecio, eta afrontuentçat cein naicen minbera, eta senticor. Lur triste hunec narabila, eta bancrama, Yesus maitea, heltcen ez baçaizkit. Eguiçu, othoi, ene Salbatçailea, çure hitcez arguitua, eta exempluaz, eta graciaz goritua beha dioçodan munduco estimuari ikharrarekin, eta har detçadan munduco laido, eta mesprecioac, çure idurico eguiten nauten dohain batçuec beçala. Halabiz.

III. CAPITULUA.

Barneco bakeaz.

Has çaite behindic behin çure bihotcean bakearen eçartcen, eta guero bertcen artean emanen dukeçu. Guiçon bakezcoa progotchosago da bertcentçat guiçon sabanta baino. Bere pasionen gathibo den guiçonac ona ere gaitcera itçultcen du, eta errechki sinhesten du bertcez erraten den gaizkia, bainan guiçon baketiarrac guciac onerat aldatcen ditu.

Bere baitan bakean den guiçonac eztu nihortaz suspitcharic, bainan guiçon khechosa eta pausu gabea hanitz suspitcha suertez bethea da, eta ez bere buruari, ez bertce nihori ustendio halacoac bakeric. Mintço da maiz erran behar ez lituzken gaucez, eta uzten ditu eguin gabe guehienic eguin behar lituzken gauçac. Artha handi du yakiteco bertceac certara diren obligatuac, eta berac uzten ditu eguin gabe obligacionez eguin behar lituzken gauçac. Duçun beraz zelo lehenic çure buruarentçat, eta guero bertcetara ere hedatuco dukeçu.

2. Badakiçu choil ungui çure huxen eta falten gueriçatcen eta bernuçatcen; eta ez dituiçu errecibitcen bercec bere huxen estaltceco edo gutitceco ekhartcen dituzten arraçoinac. Ez liteke bada yustuago çure burua hobendun aithortcea, eta bertceac faltatic descargatceac?

Nahi baduçu bertcec yasan çaitçaten, yasan çatçu çuc ere bertceac. Ikhusaçu hortic cein urrun çaren oraino eguiazco caritatetic, eta eguiazco humiltasunetic, ceinac ez baitu asarraduraric bere buruaren contra baicen.

Ez da gaitz bakezco içatea onekin eta eztiekin, natural da ecen bakea maitatcea, eta gure sentimenduco diren presunen onhestea. Bainan gracia handi bat, eta berthute sendo bat behar da, buru gaitz eta errebesekin, desordenatuekin, makhurrekin, eta contrestatçailekin bakean bicitceco.

Badire presunac bere buruekin, eta bertcekin bakea dutenac: badire bertce batçuc ez berekin ez bertcekin bakeric ez dutenac, bertçentçat nekhagarri eta nekhagarriago beretçat.

Bertce batçuc ez dire contentatcen bere buruekin bakean içateaz, enxeyatcen dire bertcei ere haren ematerat. Guciarekin ere gure bakea bicitce dohacabe huntan gareno, hobeki datça trebesien humilki pairatcean, ecen ez axecaberic gabe içatean. Cembatenaz baitaki guiçonac hobeki pairatcen, hambatenaz du bake guehiago. Paciencia duena da bere buruaren garatçaile, munduaren nausi, Yesu-Christoren adiskide, eta parabisuco premu.

Cer eguin behar dut beraz?

Ez deçaçula uzte barneco pausuaren içaiteco, bertcen baitan, ez ceroren baitanere, gauçac çure gogora ikhusi behar tutçula. Molde hortan nihorc ez luke. Bake on hura behar duçu aurkhitu contrasten, mesprecioen, eta axecaben erdian. Nola hori? eguin detçakeguten, edo gutaz erran detçaketen gaizkiac, pacienki Yaincoaren amorea-gatic yasanez. Arima humilac ez du bere burua baicen condenatcen, ez gaitzesten. Duçun beraz artharic handiena, Yaunaren borondaten complitceco, çure guiristino lagunaren bethi ongui hartceco, çure nahiei gudu eguiteco, eta içanen çare bake osoan.

Othoitça.

Manatcen daucuçu, Yauna, çure Profetaz, ez gaitecen bara bakearen bilhatcetic, causi deçagun artean? bainan, ô! çure gurutceaz çure aitaren, eta gure arteco bakea eguin içan duçun, Yesus maitea, bakean nahi ninteke içan çurekin, nere minberatasunac, eta nere khirastasunac nahasten nauten demboran. O! haice eta tempestei manatcen duçuna, ezti çaçu, othoi, ene odol supherra, eguiçu çure graciaz, ene nahia egon dadin çurerat erориa, eta hortan eman deçan bere descansua. Halabiz.

IV. CAPITULUA.

Bihotceco garbitasunaz eta chedearen simpletasunaz.

Garbitasuna eta simpletasuna bi hegal dire ceinec lurraz gorago altchatcen baicaituzte. Simpletasunac behar du içan gure chedetan, garbitasunac gure afeccionetan. Simpletasunac eramaten gaitu Yaincoaren ganat, garbitasunac erakhartcen du Yaincoa gure ganat.

Cer nahi den àccione onetaco prumpt içanen çare, baldin libro baçare barnean afeccione desordenatuetaric. Ez baduçu bertce chederic Yaincoaren gogoraco, eta lagun proximoaren probetchuco içatea baicen, goçatuco çare barneco libertateaz.

Çure bihotça chuchena balitz, creatura guciac çuretçat creatçailearen contemplatceco mirailçat litezke, eta liburu bat ceinetan ikhus baitcinetçake bicitce saindu baten eramateco erreguelac. Ecen ezta creaturaric hain chumeric, eta tcharric non ez baitarocu eracusten Yaincoaren ontasuna.

2. Arima ona eta chahua bacindu, gauça guciac ikhus cinetçake içalic gabe, eta errechki adi cinetçake: ecen bihotz chahuarentçat ezta deus estaliric, idekiac dire ceruac eta ifernuac.

Nolacoa baita guiçona bere barnean, halacoac dire haren yuyamenduac campoco gaucen gainean.

Eguiazco bozcarioric baldin bada munduan, hura du bihotz onetaco guiçona. Eta balin bada axecaberic edo ondicoric, conciencia gaichtoentçat dire guciz halacoac.

Nola burdina herdoildura guciac utciric gorritcen baita suan, hala Yaincoari osoki ematen çayon guiçona eguiten da guiçon berri bat uzcurdura guciac utciric.

Arima bat epheltcen hasten den pontutic icitcen da nekheric chumenaz, eta campoco consolacionen ondoan abiatcen da.

Bainan noiz eta ere bere burua osoki garaitcen hasten baita, eta Yaincoaren bidetan gogo onez ibiltcen, orduan errech causitcen du lehen gaitz eta dorphe citçayona.

Cer eguin behar dut beraz?

Izpirituco simpletasunaz aditcen da hemen, bertce chederic nahastecatcerat utci gabe, Yaincoaren ariaz trabaila-arazten gaituen berthute bat. Bihotcez garbi içaiteaz aditcen da, lurreco estecamendu soberaniazcoetaric libro içaitea, eta Yaincoac gaitzesten duen notharic gabe, edo lurreraco atchikidurarik gabe içaitea. Horiec ez badituçu, nola içanen çare bakean Yaincoarekin? ez detçakeçu bi nausi cerbitça, dio Yesu-Christoc. Hortacotz behar duçu: 1° usança gaichtoei ukho eguin; 2° galdatu minki Yaincoari, Dabid erregueac

beçala, berreguin deçan çure cheden çucentasuna, eta çure bihotceco garbitasuna; 3° enxeyatu çure ahalaz, Yaincoaz campoco gaucen alderaco amodiotic bihotçaren osoki lachatcerat. Harrec deseguiten baitu guciz arima Yaunaren beguietan.

Othoitça.

Ebanyelioan ceronec manatcen deraucuçu, ó! Yainco handia, haur chumen simplecia eta humiltasuna içan detçagun, nahi bagare çure ganat heldu. Ala ene barneco disposicioneac urrun baitire horietaric! emoçute, othoi, çure behatce eztia eta çure amodioa merecierazten daucuten, çure gogoraco içateco chede, eta khar bici hura: eta hala çure amodioan içan nadin bician, hiltcean, eta eternitate dohaxuan. Halabiz.

Universidad de Deusto
Biblioteca

V. CAPITULUA.

Gogo gucia eman behar dugula gure buruen esteustaçunean eta Yaincoaren handitasunean pensatcen.

Eztugu behar gure baitan sobra fidatu, ceren eta maiz escas baitugu gracia, eta izpirituco arguia. Eztugu gure baitan arguichume bat baicen, ceina laster galtcen baitugu gure anxicabez, eta guehienean haiñ ixu gare non ez baitugu eçagutcen gure ixutasuna ere.

Maiz gaizki eguiten dugu, eta gaizki eguina gure aitcekiez gaizkiago gueriçatçen.

Batçuetan uzte dugu zeloac garabiltçala, eta pasioneac baicarabiltça.

Mehatchatcen ditugu bertceac falta chumen gatic, eta gure buruei huxic handienac ere barkhatcen diotçogute.

Biciki sentitcen ditugu eta gure hitcez beretcen bertcen ganic pairatcen ditugunac, eta ez gare orhoitcen ere cer pairaazten ¡dugun bertcei.

Gure obrac çorrozki eta chuchenki pisatcen baguindu, ez guinduke lekhuric bertcen herxiki yuyatceco eta condemnatceco.

2. Barneco bicitceaz bici den guiçonac artha gucien aitcinean darabila bere arimaren artha, eta bere buruaren gainean atçarria dagoena guti minço da bertcez.

Etçare seculan içanen debot eta barnebildua, ez baduçu ikhasten çure buruaren gainean atçarriric egoten, eta bertcen eguitecoac alde batera uzten.

Çure gogoan ez bada Yaincoa eta çure burua baicen campoan, ikhusten ditutçun gaucec guti muñico çaituzte.

Non çare çure buruaren biztan etçarenean, eta çure baitan gogoa eztuçunean? Eta cer probetchu guelditcen çaitçu çure buruaren artha largaturic, campoan gogoa ibiliz haiçatu çaitçunean?

Nahi baduçu barneco bakeaz goçatu, eta Yaincoaren adiskide eguiazco içan, emoçu çure buruari contu, eta ahantz çatçu bertce guciac.

3. Hanitz aitcinatuco çare berthutean gauça iragancorren artha uzten baduçu, bainan

Universidad de Deusto Biblioteca

heyer lotcen baçaizcote hanitz guibela egonen çare.

Ezteçaçula estima badela deus handiric, goraric, agradagarriric, edo baliosic Yaincoa baicen, eta Yaincoa ganic heldu denic baicen.

Banotzat eta ez deustçat iducatçu creaturen ganic heldu diren consolamendu guciac.

Yaincoa maite duen arima haren azpian ematen da eta altchatcen da dembora berean bertce gauça guciez gorago.

Yainco choilac bere içate neurri gabecoaz, eta fin gabecoaz eguiten du arimaren consolacionea, eta bihotceco bozcario eguiazcoa.

Cer eguin behar dut beraz?

Cembat gracia, cembat dembora, eta cembat merecimendu ez dugu galtcen, gure buruez, eta salbamenduari hunkitcen ez çaizcoten gaucei gogoa aplicatuz? Yaincoa gabe deus ez içan, iguric ahal detçakegun on guciac haren ganic behar, gu berekin bat eguiteco Yainco soberano harc hambat eguin, eta eguiten, eta gu gure banitate, eta gure curiositatearentçat baicen ez diren gaucez hartuac. Cer çoramendu! bil çaite beraz,

maiz çure baitharat, Yaincoaren presenciaz orhoitceco, çure ez deustasuna eçaguturic, haren escuetan çure buruaren emateco, eta gauça guciei harc behatcen dioten beçala behatceco. Horrela beiratuco duçu çure bihotça lurreco gaucei lotcetic.

Othoitça.

Cembat gogoeta alferrec ez naute gabetcen çure graciez, eta çure presencia sainduaren goçoaz, o! ene Yaincoa. Helas! horrelacoa da ene miseria. Hori dela casu, cembat ez dut beldur içaiteco, ene othoitz barrayatuac mespreciotçat hartcen tutçula? Eguidaçu, othoi, gracia, çure eta nere buruaren ongui eçagutceco; çure handitasunaz, eta nere ezdeustasunaz gucia hartua, çure adoratceaz, çure maithatceaz, nere urhax gucien, çure gana hel naçaketen beçala, erreguelatceaz campoan, munduco bertce gora behera guciac ezdeusentçat iduc detçadan. Halabiz.

VI. CAPITULUA.

Conciencia onaren bakeaz.

Presuna prestuaren *loria eguiten du haren concienciaren lekhucotasunac.* Içan çaçu bihotça garbi, eta bethi içanen çare bozcarioan.

Conciencia onac pairatcen du hanitz, eta bethi boz dago sofricarien erdian ere.

Conciencia gachtoa bethi da icialduran, altaramenduan.

Sosegu ezti batez goçatuco çare, çure bihotçac deusez accusatcen ez baçaitu.

Ez çaitecela deusez ere boz ungui eguinaz baicen.

Bekhatoreac eztu eguiazco bozcarioric, ez barneco soseguric, ceren Yaincoaren beraren errana baita: *Gaichtaguinentçat eztela bakeric.*

Erranen dute menturaz: *Descansuan gare, ezta gure gainera gaitcic erorico, eta nor atrebi ere liteke guri gaizki eguitera?* Bainan ez detçaçula sinhex, ecen Yaincoaren colera

betan altchatuco da hekien contra; eceztatuco ditu heyen obrac, eta heyekin batean sunxituco dire heyen gogoeta guciac.

2. Ezta gaitz Yaincoa maite duen arima *batentçat axecabetan loriatcea*, ecen hori da nihorc *bere loria Yesusen gurutean ematcea.*

Guiçonec elkarri ematen eta hartcen dioten loria berehala iragaten da, eta loria hari bethi darrayo tristecia.

Prestuen loria hekien bihotz barnean dago, eta ez guiçonen ahoetan.

Nola yustuen bozcarioa Yaincoa ganic heldu baita, Yaincoa baitan da gucia, eta da eguian fundatua.

Loria eguiazco ete eternala bilhatcen duena ezta casu hari mundu huntacoaz, eta munduco loria arbuyatu behar bidean, bilhatcen duenac eracusten du ceruco loria eternalaz eztuela acholaric.

Bihotceco bakea handia du hainac, ceinac ez baitu ansiaric ez munduco laudorioez ez afrontuez.

3. Conciencia garbia errechki da content eta soseguan.

Hortaz guiçonen laudorioec etçaituzte sain-

Universidad de Deusto
Biblioteca

duago eguiten, eta halaber etçaituzte gaichtoago eguinen yendec çutaz erraten dituzten gaizkiec.

Hec gucien gatic, çarena çare; eta guiçonen erranec etçaituzte eguiten Yaincoaren eçagutçan çarenaz bertce bat.

Ikhusaçu beraz cer çaren çure barnean, eta contu guti eguinen duçu cer dioten yendec çutaz.

Guiçonec campoa ikhustendute, eta Yaincoac bihotça. Guiçonac ikhusten ditu accioneac, eta Yaincoac pisatcen chedeac eta intencioneac.

Bethi ungui eguitea, eta bere burua guti preçatcea, da arima humilaren seinalea.

Creaturen ganicaco consolamendu gucien uzteac, marcatcen du arima bat hanitz garbia, eta bere esparantça gucia Yaincoa baitan duena.

4. Guiçonen estimuaren den gutiena ere bilha eztabilanac eracusten du Yaincoari osoki eman çayola.

Ecen Yondoni Pauloc dioen beçala: *Laudagarri eta estimagarri da ez bere burua laudatcen duena, bainan Yaincoac laudatcen duena.*

Guiristino barne bilduaren estatu eta seinalea da, Yaincoari yarraikitcea bere barnez, eta campoco guticia eta estecamenduetaric libro içatea.

Cer eguin behar dut beraz?

Ezda erran nahi, conciencia garbi içaitea, aski dela, tentacioneric, eta izpirituco penaric gabe içateco: bainan bere arta principala conciencia garbi içateaz duenac, Yaincoaren baithaco esparantça handiarekin guducatcen du tentacionea; eta izpirituco penetan, asaldatu gabe, humilki behatcen da hartaco conseilu eman deçoketenei: 1° Beraz deliberaçaçu finki, Yaincoaren gogoraco içaiteaz baicen conturic ez eguiteco. 2° Çure artha guehiena içan bedi, penitenciaz çure arimaren garbitceaz. 3° Usa çaite eguiten, errairen, eta aditcen tutçun gucietan, çure buruari, galdetcen san Bernatec beçala, cer da hau Yaincoaren arabera? Haren legue sainduac debecatcen dituen gucien gaitzesteco, eta arbuyatceco.

Othoitça.

Cer miserian ez dut atchiki nere burua ô! ene Yaincoa, munduco ospe funx-gabea alde bat utciric, ceren ez naicen çure gogoraco içatera bakharric aplicatu ? Ikhusten dut Yauna orai, ez dela hartan baicen sosegu funxezcoric. Ordean ene gogo, eta sensu tristec bercetarat naramate bethi. Bil çaçu, othoi, ceronec ene gogoa, eta inhaurres-çaçu çure presenciaren orhoitçapenaz, çure goçamenac baicen dahaxu eguin ez neçaken beçala eternitatean, çure gogoraco içateaz, içan dadin ene artharic handiena bici naiceno. Halabiz.

VII. CAPITULUA.

Maitatu behar dela Yesus gauça gucien gainetic.

Dohaxua da ungui dakiena cer den Yesusen maitatcea, eta Yesusen gatic bere buruaren arbuyatcea.

Utci behar ditutçu maite ditutçun guciac

guciz maite haren gatic, ceren bakharric, eta gauça gucien gainetic nahi baitu içan maitatua.

Creaturen amodioa enganagarria da, eta gambiacorra, bainan Yesusen amodioa leyala eta iraupenezcoa.

Creaturari lotcen çayoena erorico da harekin, bainan Yesusi yuntatcen çayoena hura beçala egonen da fermu eternitatean.

Maita çaçu eta atchic çaçu çure adiskidetçat mundu guciac uzten çaituenean utcico etçaituena, eta galtcetic debecatuco çaituena.

Berdin nahi baduçu eta ez noizbait utci beharco ditutçu creatura guciac.

2. Lot çakizco beraz Yesusi, eta çaude harekin bician eta heriotcean; eman çaite adiskide leyal haren escuetan ceinac baitu podore çure laguntceco bertce guciac escasten çaizkitçunean ere.

Ordean gucizco maite harc bakharric nahi du içan maitatua, eztu nahi bertcerekin partitu çure bihotça, berac nahi du gucia, eta nahi du han yarri erregue bere tronuan beçala.

Nahi bacindu hustu çure bihotça creaturen

afeccione gucietaric, ethor liteke Yesus gogotic çure baitan bere egoitçaren eguitera.

Berdin guiçonen gatic eguiten ditutçun obrac, eta Yesusi khentcen diotçotçunac galduac dire guciac.

Etçaçula har çure habetçat sesca bat haiceac darabilana, ecen *haragui gucia belharraren pare da, eta haren loria gucia eiharteen da belharraren lorea beçala.*

3. Guiçonen campoari baçauzco beira laster enganatuco çare, eta hetan bilhatcen baduçu çure consolamendua, eta probetchua, maiçago causituco duçu çure arimaco caltea, eta çorigaitça.

Gauça gucietan Yesus bilhatcen baduçu falta gabe edirenen duçu; eta çure burua bilhatcen baduçu halaber causituco duçu, bainan çure bidegabetan.

Ecen guiçonac Yesus bilhatcen eztuenean, bere buruari calte guehiago eguiten dio, mundu guciac eta bere exaric handienac eguin dioçocoten baino.

Cer eguin behar dut beraz?

Cer exortaren beharra dugu, den gucia

guretçat sacrificatu den Yainco guiçon baten maitatcerat ekharriac, eta bakharric hartuac içaiteco? Certaco gare guiristino hortaco baicen? Aplica çaite beraz, gucien gainetic, Salbatçaile maite haren biciaren estudiatcerat, haren cheden çundatcerat, haren disposicionetan, eta haren misterioen izpirituan sarcerat, eta eiteric perfetenaren harekin içaterat. Enxeya çaite sor arazterat çure baitan haren loriarentçat, harc çure salbamenduco duen beçalaco khar bat. Ez guphidex çure burua harentçat sofritcean; haren lorian partalier içaitecotz, haren aphaltasun, eta gurutcean partalier içan behar baitugu; eta hori baita amodio eguiazcoaren seinalea.

Othoitça.

O! Yesus maitea, senti-araz dioçoçu, othoi, ene bihotçari, cein triste eguiten duen çuri bakharric ez datchikeçunean. Susta çaçu çure amodioaren kharric bicienez. Eguiçu çure graciaz, sar dadien çure sentimenduetan; bicitce humil, pairacor, eta eztian, çuc beçala gostu har deçan. Hala hel nadin çure iduricoe; destinatcen dioçuten dohaxutasunera. Halabiz.

Universidad de Deusto Biblioteca

VIII. CAPITULUA.

Yesusen amodioa dela on gucien ethorkia.

Yesus bihotz batean denean han dire on guciac, errech çaizco gauça guciac, bainan handic urrun denean, gauça guciac çaizco gogor eta gaitz.

Yesus arima bati mintço etçayoenean deusec eztu consolatcen; bainan Yesus mintço denean hitz bat baicen ez erranic ere consolacionez bethetcen da.

Maria Madalena laster altchatucen nigarrez çagoen lekhutic, Marthac erran cioenean: *Hemen da Yauna, çure galdez dago.*

Dohaxu orena, ceinetan Yesusec deitcen baicaitu nigarretaric bozcariorat.

Ala çure bihotça agor baita, eta gogor Yesus gabe! Oi cein erhoa, eta banoa çaren Yesusez campoan deus bilhatçen baduçu! Munduco tresor gucien galtcea ezta deus orduan eguin cineçaken caltearen aldean.

2. Hortaz cer probetchu ekhar dieçaçuke mundu guciac ere Yesus gabe.

Yesus gabe bicitcea ifernua da, harekin bicitcea parabisua.

Yesus çurekin bada, ecin nihorc calteric eguin dieçaçuke.

Yesus causitcen duenac causitcen du tresor bat, edo hobeki, ontasun gucien gaineco ontasun bat.

Hura galtcen duenac galtcen du guehiago aberastasun guciac baino, eta mundu guciac baino-ere.

Yesus gabe bicitcea azkeneco miseria, Yesusekin bicitcea aberastasunic handiena.

3. Secreturic handiena da beraz Yesusekin biciteen yakitea, eta prudencia soberanoa norc bere bihotcean hura idukitcea.

Çaren humil eta baketiar, eta Yesus çurekin içanen da.

Içan çaite debot eta ezti, eta Yesus çure baitan idukico duçu.

Orduan ihesi egorrico duçu, eta segurki galduco duçu, munduco gaucetara beheratcen baçare. Eta ihesi badoatçu, noren ganat yoanen çare? Galtcen baduçu, non causituco duçu adiskide leyal bat?

Ez bada posible adiskide gabe bicitcea,

Yesus ez denean çure adiskide içanen, ala çu triste eta larri egonen baitçare.

Erhoki beraz çure esparantça eta bozcarioa ematen duçu hartaz bertcetan.

Hobeago cinduke mundu guciaz higundua içatea ecen ez Yesusez gaitzexia.

Içan bedi beraz Yesus çure adiskiden artean guciz hautexia eta onhexia.

4. Maita çatçu bertce guciac Yesusen gatic, eta Yesus bere gatic.

Harc bakharric behar du içan bereciki maitatua, hura bakharric hobeago, maitagarriago eta leyalago baita bertce adiskide guciac elkharrekin baino.

Maita çatçu haren baitan çure adiskideac, eta haren gatic çure exayac, eta egnioçu othoitz batçuentçat eta bertcentçat, eman dioçoten gracia haren eçagutceco eta maitatceco.

Eztuçu nahi behar bakharric maitatua edo laudatua içan: hori etçayo çor Yaincoari-baicen, ceinac ez baitu nihor bere pareric edo iduricoric.

Ez deçaçula cherkha bertcez sobera maitatua içatea, eta ez çuc ere utz nehor bar-

negui sartcera çure bihotcean. Yesusen eta Yesus choilaren amodioac behar ditu bethe çure eta bertce gucien bihotçac.

5. Beguira çacu çure arima garbi eta libro creaturen traba gucietaric.

Bilhuci behar duçu gucietaric, eta bihotça garbi eman behar dioçu Yaincoari, nahi baduçu harekin yuntatu, eta Yauna cein goçoa den gustatu.

Eguia da bilhustasuneco estatu hortara ez çare helduco, graciac ez badu çure bihotça behindic behin atçartcen, eta guero thiratcen eta alchatcen; munduco lothura gucietaric libraturic Yainco choilarekin yuntaçaitecentçat.

Ecen graciac borthizten gaituenean, gauça gucietaco gai eguiten gare; bainan uzten gaituenean, erortcen gare gabetasunerat eta flakeciarat, eta gaudez paratuac pena eta gaztigu suerte gucietarat.

Hargatic ez çaiçu bihotça erori behar, edo esparantçaz gabetu; bainan bakezki Yaincoaren borondateari behar gaizco sumetitu, eta guerthatcençaizkigun gaitz guciac Yesu-Christoren loria gatic pairatu, ecen uda heldu da

neguaren ondoan, eguna badarrayo gauari, edo dembora ederra tempestari.

Cer eguin behar dut beraz?

Neke, eta hanitz gogor da, içaitea gure barnea idec dioçocogukeyen adiskide bat gabe. Bada ala! sosegu ez deusa, eta iraupen gutitacoa içanen baituçu, guiçonei çure barnearen eracustetic, eta icusten duçu cer dohaxutasunac, Yesu-Christorekin çure gogoa maiz erabiliz. Bilha çatçu beraz, çure consolacioneac haren baitan çure axecabe gucietan. Hura içan bedi çure ihes lekhua. Munduaren ganic cer nahi içan deçaçun pairatceco, hari çakizco. Utz çaçu nausi çure bihotcean. Othoitz-çaçu, hercha-çaçu, errekeri-çaçu, lagun dakiçun; eta frogatuco duçu laster çure fidantciaren ondore goçoa.

Othoitça.

Eçagutcen dut, Yauna, çutaz campoco consolacioneac fluchac, eta galcorrac direla enetçat; bainan ene gogo tristea dut creaturekilaco goçorat emana. Altcha çaçu, othoi,

çure ganat ene bihotça; ez deçan desira soseguric çu baitan baicen; ez dadin bici çutaz, eta çuretçat baicen, eta ez deçan içan kharric, çure urhaxei yarraikitceco baicen munduan naiceno. Halabiz.

IX. CAPITULUA.

Barneco agortasunez eta desgustuez.

Ezta gaitz guiçonen consolacionen arbuyatcea Yaincoaren consolacioneac gustatcen ditugunean. Bainan berthute hanitz handi bat behar da consolamendu batçuez, eta bertcez gabetua bicitceco, eta Yaincoaren loria gatic gabetasun hura gogo onez pairatceco, norc bere burua deusetan ere ez bilhatceco, eta bere merecimenduari ez batere behatceco.

Ezta miresteco bozcario senticen baduçu gracia çure ganat yausten denean. Norc ezterauca bere burua dohaxu memento çorionezco hartan?

Bere gogora dabila graciac darabilana: eta ez da miraculu ez baçaitcu deus pisu idurit-

cen, Yainco guciz podorosac sustengatcen eta guidatcen gaituenean.

2. Axeguin dugu bethiere causitceaz cerbait consolagarri; eta nekhez gure buruei ukho eguiten diogute.

Yondoni Laurendi martyr handi harc garaitu çuen mundua bere aphespicu sainduac beçala, hemengo axeguinac eta charmac osticaturic, bai eta oraino pacientki pairaturic apartatua içatea Sixto Aita saindua hanitz minki maite çuena ganic.

Manera hartan Yaincoarentçat çuen amodioaz garaitu çuen guiçonarentçat çuen amodioa, eta consolacione humanoa utciric seguitu çuen Yaincoaren nahia.

Hortic ikhasaçu behar duçula utci Yaincoa gatic çure adiskideric maitena eta beharrena.

Ez bekiçu damu adiskide batec uzten çaituenean, orhoit çaite noizbait berdin behar dugula elkhar ganic separatu.

3. Gudu luce eta dorphe bat eguin behardio bere buruari guiçonac, bere burua osoki garaituco badu, eta bere afeccione guciac Yaincoa ganat itçulico baditu.

Bere baitan sustengatcen dena errechki yausten da munduco consolacionetarat.

Bainan Yesu-Christo cincinez maite duena, eta berthuteari arthoski darrayoena ez da beheititcen guiçonen consolamenduetarat, eta ez abiatcen sensuen araberaco solayamenduen ondoan, contrarat lotcen çayo debocionezco praticaric gaitcenei, eta nekheric gogorrenac yasaten ditu Yesu-Christoren amorea gatic.

4. Hala Yaincoac egortcen darotçunean barneco consolacioneric, har çaçu eskerrekin, eta pensa çaçu harc eguiten darotçun dohain bat dela hura; eta ez çuc irabaciricaco sari bat.

Ez orduan sobera khonda çure gainean, ez içan bozcario sobera, contrarat içan çaite humilago, çure gainean atçarriago, çure accione gucietan beldurtiago; ecen oren dohaxu hura iraganen da eta tentacioneco dembora ethorrico da.

Barneco eztitasun hartaz gabetcen çarenean, ez bekiçu eror bihotça, bainan humiltasun, eta pacienciarekin iduricaçu bihur dakiçun; ecen aski botherexu da Yaincoa

çuri emateco fagore bera, eta oraino abundantkiago.

Comportamendu hori ez da berria, ez mirestecoa Yaincoaren bideac eçagutcen dituztenentçat; ecen Profeta çaharrec eta Sainduric handienec frogatu dituzte ecen bere baitan gambiantça horlacoac.

5. Hargatic Erregue Profetac graciazco abundancian erraten ohi çuen : *Nic errari dut neure abundancian, ez naiz seculan mutitco* edo aldaratuco. Orduan gracia hura haren ganic urrundu denean, berenaz cein flacoa cen frogaturic, dio : *Itçuli duçu ene ganic çure beguitartea, eta erori naiz altaramenduan.*

Halere bada ez du galtcen bere esparantça, bainan khar guehiagorekin othoizten du Yaincoa, eta diotço : *Yauna, ene oihua altchatuco dut çure ganat, eta eguinen darotçut ene othoitça.* Eta finean marcatcen du ardiexi duela galdetu duena, dionean : *Yaunac entçun nau, eta urricaldu natçayo, ene Yaincoa eguin da ene laguntçaile.*

Bainan adideçagun cer laguntça eguin dioen, dio : *Yauna, ene plainuac gambiatu ditutçu bozcariorat, eta inguratu naçu alegranciaz.*

Sainduric handienei horla guerthatu baçaye, guc gacho eta herbalec ez dugu esparantça galdu behar, batçutan kharxu, eta bertcetan hotz causitcen bagare, ceren Yaincoaren izpiritua hurbiltcen eta urruntcen baita berac placer duen beçala.

Hargatic diotço Yopec Yaincoari : *Goicetic guiçona bisitatcen duçu eta berehala ondoan frogatcen duçu haren ganic apartaturic.*

6. Ceren gainean beraz fida ahal naiteke eta certan eman ahal deçaket neure esparantça baicen Yaincoaren gracian, eta haren misericordian ?

Ecen nahiz aurkhi nadin presuna prestuekin eta arima sainduekin, edo adiskide leyalekin ; nahiz iracur detçadan liburu sainduac eta Yaincozco gaucez mintço direnac, nahiz canta detçadan edo entçun detçadan cantatcen hymnoac, eta Eliçaco bertce cantuac ; horietan gucietan laguntça eta descansu guti causitcen dut graciaz bilhucia eta neure miseriarat largatua balin banaiz.

Orduan erremedio hoberena da paciencia, eta gure huruen largatcera Yaincoaren nahirat.

7. Ez dut egundaino causitu guiçonic hain debotic eta kharxuric ceinez ez baitu frogatu bere burua graciaz gabetua, eta lehen çuen berotasunetic epheldua.

Ez da egundaino içatu sainduric hartarainoarguituric, edo hain gora alchaturic, ceina ez baita lehenche edo gueroche içatu tentacionez humiliatua.

Yaincoaren amorea gatic gudu handirik yasan ez duenac ez du mereci contemplacione gora batetara altchatua içatea.

Ecen presenteco tentacionea da marca consolacioneac laster ethorri behar duelacoa: hortaz consolacioneac etçaiste ere bertcei aguintcen, baicen ere axecabez frogatuac içan direnei baicen, dio ecen Yaincoac: *Bitorios içanen denari emanen diot yatera bicitcearen arbolaco fruitutic.*

8. Ecen gracia suerte horiec ematen çaizco guiçonari sendoago içan dadintçat sofricarien pairatceco, eta berriz nahi gabeac egortcen çaizco bere baitan alcha ez dadintçat gracia hekien gatic.

Hala çaude bethi prest gudu eguiterat, ecen debrua ez datça lo, haraguia ez da

hila, escuin eta ezker baitutçu exayac behinhere pausatcen ez direnac.

Cer eguin behar dut beraz?

Presunaren berthutea nihoiz ez da hala eçagun, nola barneco agortasunean. Orduan da agueri certarainocoan den gure baitan gure ezdeustasunaren eçagutça, eta Yaincoarentçat dugun amodioa, eta haren baitan dugun esparantçat. Beraz humilia çaite barneco goçoen, eta consolacionen nasaitasuna frogatcen duçunean; eta har çaçu animu Yaunaren baithaco esparantçan, agortasuna, edo desgostua heldu denean. Çaren seguratua, agortasunean eguiten diren othoitçac, eta bertce obra onac, ez dutela gutiago balio, descansuan, eta consolacionean eguiten direnec baino. Har çatçu ongui, eta pisa erregue profetaren erranac capitulu hortan.

Othoitça.

Ala dohaxua baita, Yauna campoco trebesia, eta barneco agortasunen erdian bere debocionei, eta çure graciari leyalki yarraikitcen dena! orduan baituke esparantça han-

Universidad de Deusto
Biblioteca

diac, ez bere nahiari, bainan çureari darraicola. Badakit, Yesus maitea, hori dela ene on gucia. Emadaçu, othoi, berthutea, eta curaya, consolacionean beçala agortasunean, eta guduan çure nahiaren bethetcen baicen sosegurie ez aurkhitceco, ez bilhatceco. Halabiz.

X. CAPITULUA.

Yaincoaren gracientçat behar den eskerraz eta eçagutçaz.

Certaco çabilça pausu bilha nekhecotz sorthua çarenaz gueroztic; prepara çaite guehiago pacientciarat ecen ez consolacionerat axecaberat hobeki ecen ez bozcariorat.

Nor da munduan presuna bozcario eta consolacione ispiritualac gogotic gusta ez detçakena, bethi hetaz goça ahal baledi? Ecen goçoago dire consolacione hec haraguiaren placer, eta munduco axeguin guciac baino.

Ecen haraguiaren axeguinac edo dire banoac, edo laidoxuac; bainan izpirituaren

placerac ederrac dire eta garbiac, ceren berthutetaric sortcen baitire, eta Yaincoac ichurtcen baititu arima garbietarat. Bainan ecin nihor goça daiteke nahi beçaimbat Yaincozco consolacione hetaz, ceren tentacionen epheac laburrac baitire.

2. Consolacione ispiritual hekiençat traba handiac dire gure burua baitan dugun fidancia soberaniozcoa eta gure arimaren libertate falsoa.

Yaincoac ungui eguiten darocu bere graciaz consolatcen gaituenan, bainan guc ungui hura gambiatcen dugu gaizkira, gure eskerren bidez gucia hari berari bihurtcen ez diogunean; eta horren gatic ez dire heldu gure ganat graciaren dohain hec, ceren esker gabeac baicare hekien emailearen alderat, eta ez baiditugu iganaratcitcen bere ithurbururat aithor humil baten medioz.

Ecen gracia errecibituen eçagutçac erakhartcen ditu gure ganat gracia berriac: eta Yaincoac urguluxuari khentcen dioena, ematen dio humilari.

3. Ez dieçadaçula eman, ô ene Yaincoa, consolacioneric ene bekhatuen urrikiaz gabe

naçakenic, ez eta contemplacioneric urgulutarat altcha naçakenic.

Ecen gora guciac ez dire saindu, ezti diren guciac ez dire on, desiratcen den gucia ez da garbi, eta guiçonaren gogora den gucia ez da çure gogora.

Bainan indaçu, Yauna, gracia bat humilago eta atçarriago eguinen nauena, eta neure buruari ukho eguitera ekharrico nauena.

Yaincoac bere gracia batean emanez bertcean khenduz presuna bat arguitu duenean, ecin atrebituco da sinhestera deus onic bere ganic baduela; bainan aithortuco du hainac gauça guciez dela pobrea eta billucia.

Emoçu Yaincoari Yaincoarena dena, eta çuretçat, ez çaçula har çureric baicen; errân nahi da, emotçu eskerrac Yaincoari haren ganic ditutçun graciez, eta aithoraçu ez duçula çure ganic bekhatua baicen, eta hala ez duçula mereci hari çorçayoen pena baicen.

4. *Emançaite bethi lekhuric beherenean*, eta altchatuco çaituzte gorenerat; lehenbicico herrunca azkenecoa hautatcen duenarena da.

Saindu Yaincoaren beguietan handienac

dire bere beguietan chumenac, cembatenaz distiantago, hambatenaz humilago.

Ecen nola baitire ceruco eguiaz eta loriaz betheac, ez dire casu hari munduco ohore banoez: Yaincoa baitan fincatuac eta borthiztuac ez ditu higuitcen urguleriac; eta nola Yaincoari egortcen baitiotçate haren ganic içatu dituzten on guciac, ez dute nahi batçuec bertcen loriaric, eta ez dute desiratcen Yaincoa ganic heldu dena baicen.

Hec gauça gucien gainetic desiratcen dutena da Yaincoa den laudatua bere baitan, eta bere sainduetan, eta hori da heyen accione gucien chedea.

5. Duçun beraz eçagutça handi bat gratiaric chumenez, eta merecituco ditutçu handienac. Yaincoa ganic heldu çaitçun dohainic chumena estima çaçu hanitz, eta guiçonei tchar iduritcen çayena den preciatu çure beguietan.

Emailearen handitasunac errendatcen badu balioz dohaina, Yaincoaren dohainic ecin daiteke tcharric edo chumeric; ecen guciz handi denac ecin deus chumeric eman deçake.

Haren ganic heldu çaizkigun gaztiguac,

eta cigorradac ere on behar çaizkigu, ecen deus ez çaicu guerthatcen non ez duen harc gure salbamendua gatic permetitcen.

Beraz Yaincoaren gracia conserbatu nahi duenac esker, eta eçagutça behar du hura ematen çayonean, eta paciencia khentcen çayonean; behar du eguin othoitz haren ardiesteco, eta behar du içan humil, eta goardiacor haren conserbatceco.

Cer eguin behar dut beraz?

Gogoan erabilaçu maiz, cer eta certaco çaren gai çure baitharic, eta Yaincoac cembat fagore eguiten darotçun, haren colera mereci cinduen demboran. Haren dohaxutasuna guretic heldu baliz-ere cer eguin leçake guchiago? considera çaçu beregainki, cembat ez dagon ifernuan çuc baino gutiago merecituric: eta ahalcatua haren ontasunaz, eta çure eskergabetasunaz, deusez-ere ez çare hala hunkitua içanen, nola haren, eta çure bihotcen-arteco contrestaz. Ordutic aphaltasuna, eta penitenciac dituen bideric hersienac, ez çaizkitçu gogorregui idurituco.

Othoitça.

O! ontasunezco Yaincoa, aspaldi du ene gaichtakeriez, eta çure alderaco eçagutça escasaz, meceritu dudala çutaz aldebat utcia içaitea. Eçagutcen dut, Yauna, çure ontasunaren escua, egortcen dauztatçun cigorradetarainocoan. Ah! ez naiz baratuco erraitetic, çure misericordiari diodala çor, ez banaiz ifernuan. Barkha dieçadaçu, othoi, oraidinoco ene eskergabetasuna, eta eguidaçu gracia, çure ontasunaz orhoitceco orai, eta bethi. Halabiz.

XI. CAPITULUA.

Gutic dutela maite Yesu-Christoren gurutcea.

Yesusec baditu hanitz haren erresuma maite dutenac, bainan guti harren gurutcea yasaten dutenac.

Hanitcec bilhatcen dituzte haren consolacioneac, gutic haren sofricariac.

Lagun hanitz du mahainean, bainan bakharric da barurean.

Guciec nahi dute içan haren bozcarioetan partalier, bainan nihor gutic nahi du haren gatic pairatu.

Hanitz darraizco Yesusi oguia partitcen diotenean, bainan guti pasioneco khalitça edan behar denean.

Hanitcec ohoratcen dituzte haren bicitceco miraculuac, bainan gutic haren heriotceco laidoac.

Hanitcec maite dute Yesus, nahi gaberic guertatcen ez deno, laudatcen dute eta benedicatcen, consolatcen ditueno; bainan gordetcen baçayote, eta uzten baditu dembora bateco, erortcen dire berehala murmuracionerat eta epheltasunerat.

2. Yesus maite dutenec ez bere contentamendu propia gatic, bainan Yesus bera gatic, benedicatcen dute sofricarietan hain ungui nola bozcarioetan.

Eta behin-ere consolacioneric eman ez balioçate ere, ez litezke gueldi hargatic bere laudorioac, eta eskerrac hari bihurtcetic.

3. Oi ala indarsua baita Yesusen amodioa

garbia denean, eta amodio propiaz nahastacatua ez denean! Cer dire beraz Yaincoaren cerbitçuan eztitasunen bilha bethi dabiltçanac, baicen cerbitçari intresatuac, eta soldataco sehiac?

Hainec bere buruac Yesus baino guehiago dituzte maite ceinac bethi bere abantailen, eta aisien ondoan baitabiltça.

Bizkitartean nor causitcen da orai Yaincoa dohainic edo urriric cerbitçatu nahi duenic?

4. Presuna ispiritualen artean ere nekhez causituco da bat gauça guciez bilhucia denic.

Non causi daiteke presuna izpirituz eguiazki pobrea, eta creatura gucien amodiotic osoki libroa? *Munduaren bazterreraino yoanic behar da aurkhitu halaco bat.*

Guiçonac bere ontasun guciac ematen balitu ere, ez da hori deus. Penitencia garratz bat eguin baleça-ere deus guti da hori. Munduco yakintasun guciac balituere urrun da oraino. Balu-ere berthute handi bat, eta debocione kharsu bat, escas du gauça bat hanitz beharra.

Cein da hura? Gauça guciac utci ondoan, utz deçan bere burua; bere baitharic athera

Universidad de Deusto Biblioteca

dadin osoki, eta ez deçan deus atchic bere amodio propitic; eta oraino gauça horiec eguin ondoan, eta eguitecotz dauzcan guciac sinhex deçan ez duela deus eguin.

5. Guti preça deçan bertcei haren baitan handi iduritcen çayena, eta cincinez aithor deçan cerbitçari alfer bat dela; Yesu-Christoc berac eracusten darocun beçala: *Manatu çaizkitçuen guciac eguin ondoan, erraçue bethi, cerbitçari inutilac gare.*

Orduan daiteke eguiaz izpirituzco pobrea, eta gauça guciez bilhucia: orduan erran deçake Profetarekin: *Pobrea naiz eta abandonatua.*

Halere ez da nihor içanen aberaxagoric, puchantagoric, ez libroagoric halaco guiçona baino, ceinac baitaki gauça gucietaric apartatcen, eta azkeneco herruncan bere buruaren ematen.

Cer eguin behar dut beraz?

Examina çaite, ea ez othe çaren capitulu huntan aiphatuac direnetaric. Nola iguric deçakeguke bada salbatuac içatea, mesprecio eta laidoac Yesu-Christoc beçala yasan gabe?

Cer balia dakiuke haren adoratcea hura bera imitatcen ez badugu? Delibera çaçu beraz finki, çure gostu propioaren deusetan ez bilhatceco, eta munduco axecabe gucietan Yesus gurutceficatuari behatuco duçula, eta haren bihotz lançaz cilhatuan, haren borondate saindua iracurriric, cer nahi pairatceco içanic-ere haren nahirat erorico çarela.

Othoitça.

Eçagutcen dut, Yesus maitea, nere aiseac bilhatuz ez nitekela çurekilaco içan: bainan helas! hetaraco lehiac daramat bihotça. Hel çakizkit, othoi, Yauna, garbi naçaçu munduco afeccione gaichto gucietaric. Çure bicia, eta çure odola, çuc enetçat eman tutçun beçala, çuretçat sofritceari, eta hiltceari, dohaxutasunic handienari beçala beha dioçotedan mundu huntan bici naiceno. Halabiz.

XII. CAPITULUA.

Gurutcea dela ceruco bidea.

Yesu-Christoren hitz hauc dorphe çaizcote hanitcei: *Ukho eguioçu çure buruari, altcha*

UNIVERSIDAD DE DEUSTO - BIBLIOTECA

çaçu gurutcea, eta yarraiki çakiskit. Bainan hanitz dorpheago içanen da aho beretic aditcea azkeneco hitz hauc: *Aparta çaitezte ene ganic madaricatuac, eta çoazte seculaco surat.*

Orai gurutcezco hitz hec gogotic aditcen dituztenac ez dire beldur içanen adi deçaten Yaincoaren yuyamenduan condemnacionezco arrasta ikharagarri hura.

Gurutcea aguertuco da ceruan, Yesu-Christo ethortcen denean gure yuyatcera. Orduan gurutcearen cerbitçari guciac, bere bician Yesus gurutceficatuaren idurico eguin direnac seguratuki hurbilduco dire bere yuyearen ganat.

2. Cergatic çare bada beldur gurutcearen hartcerat, haren bidez yoan behar denaz gueroztic cerurat? Gurutcean causituco duçu çure salbamendua, çure bicitcea, eta çure exayen garaitceco behar den gucia.

Gurutcea da gracien canala, arimaren indarra, izpirituaren bozcarioa; gurutcean da berthuten kheroa, eta saindutasunaren perfeccionea.

Ez dugu causituco arimaren salbatceric, ez bicitce eternalaren esparantçaric, gurutcean baicen.

Har çaçu beraz çure gurutcea, eta yarraic çaite Yesusi, eta yoanen çare bicitce eternalerat.

Berac yasan du lehenic bere gurutcea, eta hil da hartan çure gatic; çuc ere yasan çaçuntçat çurea, eta hartan hiltcera dedaçuntçat.

Ecen harekin hiltcen baçare, harekin bicico çare, eta haren penetan partalier baçare, içanen duçu halaber haren lorian parte.

3. Gauça dago, beraz gurutcearen maitatcean, eta hartan hiltcean; ez da bertce bideric bicitce eternalerat, eta eguiazco bakerat salbu gurutcearen eta mortificacionearen bidea baicen.

Çoaz norat nahi, bilha çaçu placer duçun beçambat; behatcen baduçu goïti, ez duçu causituco bide altchatuagoric, behatcen baduçu beheiti, ez duçu causituco seguragoric gurutce sainduaren bidea baino.

Antola çatçu eta arrima gauça guciac çure nahien, eta cheden arabera; nahi baduçu eta ez, aurkituco duçu bethi cerbait pairatceco; hala causituco duçu bethiere gurutcea; ecen edo içanen duçu gorphutcean oinhace, edo izpirituan axecabe.

4. Batean Yaincoac utcico çaitu, bertcean guiçonec persecutatuco çaituzte, eta guehiago dena, maiz çure buruarentçat ceroni nekhagarri içanen çare. Eta ecin causituco duçu çure penen erremedioric, edo arintasunic; hala beharco ditutçu guciac pairatu Yaincoac placer duen arteraino. Ecen Yaincoac nahi du ikhas deçaçun pairatcen consolamendu gabe; osoki haren azpian eman çaitecentçat, eta pairatuz humilago eguin çaitecentçat.

Yesu-Christoren pasioneac ez du nihor hala hunkitcen nola haren idurico sofricariac pairatu dituena. Alde gucietaric beraz ethorrico çautçu gurutcea, lekhu gucietan çure beira dago.

Norat nahi den ihes eguin deçaçun, ecin espacatuco çaizco; ceren norat nahi den çoacen, çurekin eramaten baitutçu çure burua, eta hala causituco baitutçu çure burua lekhu gucietan.

Çoacen goïti, çoacen beheiti, çoacen camporat, edo çaudecen barnean; alde gucietan aurkhituco duçu gurutcea, lekhu gucietan beharco duçu pacienciaz borthiztu, nahi baduçu ardiexi bihotceco bakea, eta merecitu seculaco khoroa.

5. Gogotic ekhartcen baduçu çure gurutcea, harc ere ekharrico çaitu, eta guidatuco çaitu chede dohaxu hartara ceina baita nekhe gucien akhabantça, eta ceina ez baita edireten bicitce hunetan.

Bainan gogoaren bortcha yasaten baduçu carga pisuago eguiten duçu, eta pena guehiago çure buruari ematen dioçu, berdin bai eta ez bada pairatu behar duçunaz gueroztic.

Gurutce bat uzten baduçu, causituco duçu bertce bat menturaz pisuagoa.

6. Egundaino nihor ecin itçuri çayo gurutceari, eta çuc uste duçu espacatu çaizcola? Sainduetaric cein içatu da egundaino gurutce eta penaric gabe bicia iragan duenic?

Yesus gure nausiac ez du berac içatu munduan bici içan deno oren bat cerbait pairatugabe. Ecen dio berac: *Pairatu behar çuen Christoc, hiletaric phiztu behar çuen, eta sofricarien bidez behar çuen sarthu bere lorian.* Nola bada bilhatcen duçu ceruco bertce bideric, gurutcearen bide erreguezcoa baicen.

7. Yesusen bicitce gucia bethiereco gurut-

cea, eta martyrioa içatu da, eta çuçabiltça pausuaren, eta bozcarioaren bilha?

Enganatcen çare, berriz-ere diot, enganatcen çare, mundu huntan bilhatcen baduçu penaric, eta pairatceric baicen; ceren bicitce mortal hau miseriaz bethea baita, eta alde gucietaric, axecabez, eta gurutcez inguratua.

Eta cembatenaz arima bat aitcinatcen baita guehiago bicitce ispiritualean, hambatenaz comunzki gurutce handiagoac ditu; ceren ceruarentçat duen amodioac minkiago sentiarazten baitiotça bere desterruco penac.

8. Halere hain minki afliitua den arima ez da consolacione gabe; ecen frogatcen du cembatenaz baita haren gurutcea gogorrago eta pisuago, hambatenaz dela haren abantçua, eta probetchu ispirituala handiago.

Ecen nihorc amodiorekin axecabeac hartcen dituenean, heyen dorphetasuna gambiatcen da Yaincoaren esparantça handi batetara, eta cembatenaz sofricari hec guehiago flacatcen baitute haraguia, hambatenaz graciaz borthizten du izpiritua.

Eta batçuetan Yesus gurutceficatuaren

idurico içan nahiac inspiratcen dio arima bati hambat amodio, axecabentçat, non ez bailuke nahi içan hetaz gabetua; ceren uste baitu hambatenaz içanen dela Yaincoaz maitatuago, cembatenaz pairatuco baitu haren amorea gatic guehiago.

Eta ezdu hori eguiten guiçonaren berthuteac, bainan bai Yaincoaren graciac, ceinac haragui flacoan bici bagare-ere ematen baitarocu hambat indar non maitarazten baitarocu, eta khar handirekin bilharazten naturaleçac guehienic higunarazten darozkigun gauçac.

9. Ez da guiçonaren pendura gurutcearen yasatea eta maitatcea, gorphuçaren gaztigatcea, eta gathibo errendatcea, ohorei ihes eguitea afrontuac bozcariorekin hartcea, bere buruaren arbuyatcea, eta bertcez arbuyatua içan nahi içatea, calteac eta nahigabeac gogo onez pairatcea, eta mundu huntaco onen eta abantailen guticiaric ez içatea.

Çure burua ungui consideratcen baduçu, eausituco duçu horietarican deus ecin daguikeçula; bainan Yaincoa baitan ematen baduçu çure esparantça, harc emanen darotçu

ceruco laguntça, eta ala mundua, ala haraguia çure azpian içanen dire.

Fedeaz harmatua eta gurutceaz seinalatua baçare, debruaren-ere exai cruel haren beldur etçare içanen.

10. Çaude beraz prest Yesusen cerbitçari on eta leyal bat beçala, bihotz handirekin yasatera gurutcea, ceinetan çure nausi adoragarriac nahi içatu baitu hil çure amoreac gatic.

Deliberatu behar duçu bicitce dohacabe huntan çareno hanitz gaitz eta axecabe suerteren pairatcerat; ecen norat nahi çoacen, eta non nahi gorde çaitecen, ez duçu causituco halacoric baicen.

Horiche da çure çorthea; eta gaiz horien gucien contraco erremedioric ez dukeçu, guciac pacientki yasatea baicen.

Edan çaçu beraz gogo onez Yesusen khalitça, nahi baduçu içan haren adiskide, eta haren erresuman partalier.

Consolacionez denaz beçambatean, utçatçu hec Yaincoaren borondatera, eguin deçan hetaz placer duena.

Bainan çuc delibera çacu axecaben hartzerat consolacioneac balire beçain bozcario handirekin. *Ecen mundu huntaco sofricariac (guciac pairatcen bacintu-ere) ez dire comparatceco aguintcen çaiçun loriarekin.*

11. Ardiexi dukeçunean estatu hura, ceinetan penac ezti idurituco baiçaizkitçu, eta axecabeac goço Yesu-Christoren amoreac gatic; orduanche iducaçu çure burua dohaxu, aurkhitu dukeçu munduan parabisua.

Bainan sofricarien ihesi çabiltçaino, edo hec khechamenduekin pairatcen ditutçuno; dohacabe içanen çare, eta ihesi eguin nahi dioçun gaitça beti yarraikico çaitçu.

12. Ematen baçare behar çaren beçala pairatceco, eta hiltceco estatuan, causituco çare berehala hobeki, eta ardiexico duçu bihotceco bakea.

Yondoni Paulo beçala bacine-ere altchatua hirurgarren ceruraino, etcinduke segurantçaric ez duçula deus pairatuco. Ecen Yesu-Christoc berac hambat fagoren ondoan erran du Apostolu hartaz : *Nic eracutsico diot cembat beharco duen pairatu ene icenaren ohoretan.*

Çure eguiteco bakharra da beraz pairat-

çea, nahi baduçu Yesus maitatu, eta çure bici gucian cerbitçatu.

13. Ochala gai bacine Yesusen icenean cerbaiten pairatceco! Oi nolaco ohorea liteken çuretçat! Nolaco bozcarioa Sainduentçat, eta exemplu ona çure lagunentçat! Ecen guciec laudatcen dute paciencia, nihor gutic hartu nahi badu-ere.

Ez liteke bada yustu cembait pena chume har cineçan Yesu-Christo gatic, hambat yendec mundua gatic hanitzez dorpheagoac hartcen dituztenaz gueroztic?

14. Sinhexaçu çure biciac behar duela içan mement gucietaco bat, eta cembatenaz çure buruari hiltcen baitçaizco guehiago, hambatenaz guehiago hasten çarela Yaincoarentçat bicitcen.

Nihor ez da gai ceruco gaucen eçagutceco, ez bada yartcen axecaben sofritcerat Yesu-Christoren amoreac gatic.

Deusere ez da Yaincoaren gogoragoco denic, eta gure salbamenducotz hoberic, nola Yesu-Christo gatic gogo onez pairatcea.

Eta hautua ematen balitçaitcu, hobeki behar guintuzke hartu axecabeac ecen ez

bozcarioac; ceren horla iduri guehiago baikinduke Yesu-Christorekin, eta haren sainduekin.

Ecen gure merecimendua, eta aitcinamendua ez dago hanitz consolacionen, eta eztitasunen içatean, bainan hanitz nahigaben eta penen yasatean.

15. Içan balitz sofricariac baino deus hoberic, eta progotchosagoric guiçonentçat, Yesu-Christoc eracuxico çarocun bere hitcez eta exempluz.

Bizkirtartean bere discipuluac eta bere yarraikun guciac ez ditu exhortatu pairatcerat baicen, eta ez diote erran bertceric, baicen ere: *Nihore ethorri nahi badu ene ondotic ukho eguin bioça bere buruari, ekar beça bere gurutcea, eta yarraiki bekit.*

Hala gauça guciac ungui consideratu eta examinatu ondoan, hitz hautan cerratcen da: *Hanitz axecabetaric, eta hanitz sofricaritaric iragan behar dela ceruco erresuman sartceco.*

Cer eguin behar dut beraz?

Har çatçu ongui guciz autorraren azken hitz hauc. Izpiritu sainduac erranac dire:

Yesu-Christorekin dohaxu içan nahi badugu, behar dugu harc beçala pairatu, dio yondoni Pauloc-ere. Compreni çaçu hortic gurutcea, eta sofricariac direla, penitencia eguiteco, eta salbatceco moyan hautatuac, Yaincoaren hautexien seinaleac, eta deusec ez gaitulea hain Yesus-Christoren idurico eguiten, nola gurutceac. Orhoitçapen hori baicen, cer behar du guiristino batec berceric, cer nahi pairatceco içan deçan, consolatua içateco? Ifernutic libro içateco, eta parabisura heltceco, cer behar çauçu neke, eta gogor iduritu?

Othoitça.

Ikhusten dut, Yauna galbarioan gaindi baicen, ez dela cerurat bideric, gure salbatceco, ceronec han iragan behar içan duçunaz gueroz. Cembat mila Martyr ez dut ikhusten darraitçula, eman dioçuten fedea bere odolaz ciguilatcerainocoan? Eguiçu, othoi, ene Salbatçaile maitea, orhoitçapen hauc axecabezco ordu hetan, phitz diten ene baitan, eta çure gogoraco içaiteco, eta çure gana heltceco desirac sustenga, eta anima naçaten, çuc enetçat pairatu duçun beçala çuretçat pairatcerat. Halabiz.

YESU-CHRISTOREN
IMITACIONEA.

HIRURGARREN LIBURUA.

BARNECO CONSOLACIONEAZ.

I. CAPITULUA.

Nola behar den preparatu Yaincoaren aditcerat.

ARIMAC.

Adituco *dut Yainco Yaunac ene bihotçaren barnean erranen darotana.*

Dohaxu arima, Yaincoa mintço çayonean aditcen duena, eta haren ganic consolacionezco hitçac harteen dituena!

Dohaxu beharriac, Yaincozco hitcen soinua

entçuten dutenac, eta munduco babarroxentçat cerratuac direnac.

Berriz-ere diot dohaxu beharriac, campotic heldu çayoten boça aditu nahi ezdutenac, bainan bihotçari mintço çayon eguia entçuten dutenac.

Dohaxu beguiac campoco gauça gucientçat bethi çarratuac daudecenac, eta barnecoei baicen idekitcen etçaiztenac.

Dohaxu, bere barnearen berri dakitenac, eta egun oroz debocionez, pratica sainduz guerotic guerora guehiago ceruco secretuen eçagutcerat preparatcen direnac.

Dohaxu guiçona, munduco traba gucietaric libraturic Yainco choila baitan gogoa duena.

Gaudecen erne, ô ene arima, eta hertsditçagun gure sensuen atheac aditceco cer erranen darocun gure Yainco Yaunac; huna cer dioen çure guciz maiteac.

YESU-CHRISTOC.

2. *Ni naiz çure salbamendua*, çure bakea eta çure bicia; çaude enekin, eta cansituco duçu eguiazco sosegua.

Utz çatçu gauça iragancorrac, eta yarraic çakizcote bethi iraun behar dutenei.

Cer dire demborac daramatçan gauçac, doidoya liluramendu banoac?

Eta certaco tutçu creaturac, creatçaileac uzten baiçaitu?

Beraz gauça guciei ukho eguioçute Yaunaren gogoraco, eta haren cerbitçari leyal içan çaitecentçat, eta eguiazco dohaxutasuna ardiex deçaçuntçat.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoa mintçatcen çaicu hanitz-moldez: barneco inspiracione onez, predicarien erranez, ikhusgarri ukigarriez, eta liburu onez. Bainan harren hitz sainduaren aditceari eratchikiac diren probetchuac içan nahi baitutçu, aditu behar duçu munduco gogoeter ukho eguinac diren izpiritu, eta bihotz batekin, eta erraten darotçunaren eguiteco chede bici batekin. Iduki behar duçu gogoa ahalic bilduena haren presentcian; haren inspiracionen hartceco. Munduco itçulietarat barrayatua den bihotz bat, ez da gai hitz saindu harc

eguin behar tuen moïmenduen içateco*; eta mesprechatcen du bere Yaincoa.

Othoitça.

Cer dire, ô! ene arima, cer dire munduan aditcen ditudan hitzcuntça guciac, Yesus maiteac hemen erraiten dauzkian hitcen aldean? Eta cer atencione mereci-dute? Ah! Yauna, creatura guciec bere moldean gauça bera erraiten dautet. Lurreraco yaidura gaichtoec nombait ixutu, eta gogortu naute, hoin hitzcuntça sarkhorrec ez banaute hunkitcen. Ez naçaçula, othoi, abandona, ô! ene Salbatçaile amulxua. Bil çatçu, othoi, ene gogo bihotça, eta eman çatçu çuri doatçun beçala aditceco estatuan. Halabiz.

II. CAPITULUA.

Arimac Yaincoari galde eguiten dio mintça çakion beraz bihotcerat.

ARIMAC.

Mintça *çaite, Yauna, ecen çure cerbitçariac adituco çaitu. Ni naiz çure cerbitçaria; indaçu arguia eçagut deçadan cer manatcen darotaçun.*

Sufla çaçu ene bihotça, eta gai eguiçu çure ahoco hitcen entçuteco, eta ichur beitez hitz saindu hec ihintça beçala ene bihotcera.

Lehenago Israeldarrec erraten cioten Moïseri: *Mintça çakizkigu çu cerorri, eta adituco çaitugu; bainan ez bekigu Yaincoa mintça, hil ez gaitecentçat.*

Eztarotçut nic hori galdeguiten, ô ene Yaincoa! aitcitic atrebitcen naiz humiltasunekin eta debocionerekin, çuri erraterat Samuel Profeta beçala: *Mintça çaite, Yauna, ecen çure cerbitçariac entçuten çaitu.*

Ez bekit mintça Moïse, ez bertce Profetaric; bainan çu mintça çakizkit, ô ene Yauna eta ene Yaincoa! çu ceinac inspiratcen eta arguitcen baititutçu Profetac; ecen çuc bakharric hec gabe perfetki argui naçaçuke, eta hec çu gabe ecin daguikete deus.

2. Eguia da, hitçac adiaraz detçakete bainan ecin eman deçakete izpiritua eta gracia.

Ungui mintço dire; orduan çu gabe bihotça ecin hunki deçakete.

Hec ematen dute letraren achala; bainan çuc aguertcen duçu eta adiarazten sensua.

Hec predicatcen tuzte misterioac ; bainan heyen eçagutça çuc ematen duçu.

Hec adiarazten darozkigute çure manuac ; bainan ecin compli detçakegu çure laguntça gabe.

Hec iracasten darocute bidea ; orduan çuc ematen han ibilceco indarra.

Hec ematen tuzte campoco arguiac ; bainan çuc arguitcen tutçu barnetic gure izpirituac eta bihotçac.

Hec campotic ihinztatcen dute arbola ; orduan çuc erakhartcen diotçute fruituac.

Finean bere boçaren oihua adiarazten dute ; bainan çuc idekitcen bihotceco beharriac.

3. Ez bekit beraz niri Moïse mintça ; bainan çu mintça çakizkit, ene Yaincoa, ceina baitçare eguia eternala.

Hil ez nadintçat, eta agor, eta fruitu gabe egon ez nadintçat ; ecen hori guerthatucoçait campotic choilki banaiz abisatua ; eta ez barnetic hunkitua eta sustatua.

Beldurrez çure yuyamenduan condemna nadin, ceren entçun dudan çure hitça, eta ez beguiratu ; eçagutu, eta ez maitatu ; sinhexi, eta ez complitu. *Mintça çaite beraz,*

Yauna, ecen çure cerbitçariac aditcen çaitu, eta çuc ditutçu bitcitce eternalaren hitçac.

Mintça çakizkit ene arimaren consolacionecotz ; mintça çakizkit ene biciaren onera gambiatcecotz : finean mintçaçakizkit çure icen sainduaren ohore, loria, eta laudorio eternalecotz.

Cer eguin behar dut beraz ?

Moïse, edo Profetac mintço balaizkitçu-ere predicu hortan, ez cinuzke aski Yaincozco eta salbamenduco gogoeta, eta chederic baicen ez duten izpiritu, eta bihotz batekin haren aditcea. Yaincoaren graciaren ihintz sacratuac behar du lot-araci salbamenduco haci hura çure bihotcean. Beraz, Yaincoaren hitçaren aditceracoan kharxuki galdetu beharduçu gracia hura.

Othoitça.

Minça çaite, othoi, ceroni ene bihotçari, ó ! ene Salbatçaile maitea : bainan mintça çakizco senti deçaken guisan ongui, cer çaren ene alderat, eta cer naicen çure alderat. Senti araz dioçoçu çure boz sacratuaren adit-

cea, adituac ez eguitecotz, ene condemnacionearen emendaceco baicen ez dela baliatuco. Mintça çakizco ene bihotçari; bainan dembora berean higui, inharros-çaçu çure graciaz, ceronec khoroa deçaçun ene salbamenduco obra. Halabiz.

III. CAPITULUA.

Yaincoaren hitçac humiltasunekin entçun behar direla, eta hanitcec eztituztela hec aski pisatcen.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, adi çatçu ene hitçac, hitz eztitasunez bethericacoac, pasatcen baitute infinituki muduco çuhurren yakintasun gucia.

Ene hitçac izpiritu eta bicitce dire, eta eztute guiçonen izpirituaren arabera neurthuac içan behar.

Etçaçula hetan bilha complacencia bano bat: bainan entçun çatçu ichiltasun handi batean, eta har çatçu berotasun eta zelo hainitcekin.

ARIMAC.

2. *Dohaxua da çuc arguitcen duçuna*, ô ene Yaincoa! *eta ceronec çure leguea irakhasten dioçuna bere axecabezco egunetan descansuan emateco, eta mundu huntaco miserietaric atheratceco.*

YESU-CHRISTOC.

3. Nic arguitu ditut hastetic Profetac, eta orai ere ni bethi mintço natçayote guiçonei. Bainan guehienac gogor dire, eta sentimendu gabe ene boçarentçat.

Yaincoa baino gogoticago aditcen dute mundua, eta hobeki behatcen diote bere haraguiaren guticiei, ecen ez Yaincoaren nahiei.

Munduac aguintcen tu ontasun iragancorrac eta mezpreçagarriac, eta cerbitçatua da beroki; nic aguintcen ditut ontasun soberanoki handiac, eta bethi iraunen dutenac, eta guiçonac nagui dire eta hotz enetçat.

Norc hambat artharekin, eta kharrekin obeditcen eta cerbitçatcen nau ni, nola mundua eta munduco handiac eguiten baitire?

Gorri çaite Sidon, dio ixasoac, edo hobeki

ahalca çaite arima guiristinoa, dio munduac; arraçoina galdetcen baduçu, huna non den.

Bide hanitz eguiten da beneficio chume baten içatea gatic; eta urhax bat-ere doidoya nihorc eguin nahi du bicitce eternala gatic?

Hanitz nekhez bilhatcen da gauça tchar bat; ez deus gatic alchatcen dire hauci ahalcagarriac; airezco esparantça batec, edo aguintça bano batec gabac eta egunac iraganarazten darozkigu nekhe eta borroketan.

4. Bainan oi gure laidoa! uzcur gare den nekheric chumenaren hartcerat ontasun eternal baten gatic, golardo ecin aski estimatuzco baten gatic, ohore soberano eta loria negurri gabe baten gatic.

Ahalca çaite beraz cerbitçari lacho, eta errencuraria ikhusteaz hambat yende bere caltetaco gaucentçat lehia guehiago dutenac, çuc çure salbamenducoentçat baino; eta itchurapenezco ontasunetan axeguin guehiago hartcen dutenac çuc eguiazcoetan baino.

Bizkitartean maiz enganatuac guerthatcen dire bere esparantcetan; bainan ene aguintçac eçin faltatuzcoac dire, eta ene baitan

esparantça eman duena eztut huxic egorri egundaino.

Emanen dut aguindu dudana, erran dudana complituco dut; baldin ene cerbitçariac fineraino irauten badu ene amodioan.

Nic onac handiroki saristatcen ditut: ordean lehenago frogantça dorphetan eçartcen ditut.

5. Escriba çatçu ene hitçac çure bihotcean, eta maiz gogoan erabil-çatçu, behartuco çaizkitçu tentacioneco demboran.

Ez badituçu aditcen iracurtcean, adituco ditutçu nic bisitatuco çaitudan demboran.

Bi maneraz bisitatcen ohi ditut neure hautexiac, tentacionez eta consolacionez: eta egun oroz bi leccione suerte ematen diotçatet: bata utz detçatentçat bere escasac: bertcea berthuteac ardiex detçatençat.

Leccióne horiec hartu ondoan, arbuyatu dituena, heyen gainean condenatuco da azken egunean.

OTHOITÇA.

Debocionearen gracia ardiestecotçat.

6. Ene Yauna eta ene Yaincoa, çure bai-

tan dire ene ontasun guciac, eta ni cer naiz ausartatceco çuri mintçatcerat?

Ni naiz çure cerbitçarietan den mendrena, eta on guciez gabetuena, esdeusago lurreco harra baino, nihaurrec dakidan, eta erran ahal deçakedan baino miletan dohacabeagoa, eta mezpreçagarriagoa.

Guciarekin ere orhoit çaite, Yauna, ez naicela deus, eztudala deus, eta ecin deus daguikedala.

Çu çare bakharric ona, yustua eta saindua, çuc dakizkitçu guciac, çuc ematen tutçu guciac, çuc bethetcen tutçu guciac, lekhat *edo salbu* bekhatorea, ceina uzten baituçu çure ontasunez gabetua.

Orhoit çaite çure misericordiez, bethe çaçu ene biholça çure graciez, çuc ceinac ez baituçu nahi çure obrac içan ditecen escasac.

7. Nola neure burua yasan deçaket bitcitco dohacabe hunetan çure graciac, eta misericordiac ez banaute borthizten?

Etçaçula itçul ene ganic çure bisaya, eta ezteçaçula luça çure bisita, ez naçaçula gabe çure consolacionez, ene arima çure aitcinean eguin eztadintçat *lur agor, eta idor baten parre-*

Yauna, iracax *dieçadaçu çure nahiaren eguiten*, iracax dieçadaçu çure aitcinean humilki eta digneki ibiltcen; ecen çu çare ene çuhurtcia çuc eçagutcen nauçu eguiazki naicen beçala, çuc eçagutu nauçu nintcen baino lehenago, bai eta ere mundua creatu baino lehenago.

Cer eguin behar dut beraz?

Mundu huntaco eguiteco ez deusen gainean içaten ditugun conseiluac premia, eta khar guehiagorekin hartcen baditugu, Yaincoac gure salbamenduaren gainean emaiten darozcunac baino, norc mirexico du aditcea Yaincoac bere hitçaren, eta Yesu-Christoc bere bicia, eta odola gosta çayon gure salbamenduco obraren mesprechatçaile batçuentçat hartcen gaituela? Yaincoaren hitçaren entçuteracoan goardia emaçu beraz noren aditçera çohacen, eta certaz dohatçun mintçatcerat. Çure Yaincoa dohatçu mintçatcerat, eta çure seculaco onaz, eta haren ardiesteco moyanez minçatu nahi çaitçu. Cer behar duçu bertceric humiltasunic, atencioneric eta intresic handienarekin haren aditcerat ekharria içateco?

Othoitça.

Yauna eguin nauçu mundu huntan çure maithatceco, eta bercean çutaz goçatceco. Bi gauça horiez mintço çaizkit bethi. Eta cer içan behar da nitaz horiez hartua ez banaiz guciz gainetic? Bizkitartean munduco gauça iragancorrez hartuagoa causitcen dut ene bihotça. Oi hau lastima, eta ahalkeria! gambia çaçu, othoi, ene bihotça, ez deçan içan munduco itçulientçat arbuyoric baicen, eta estimuric, ez ernetasunic çure erranentçat baicen. Halabiz.

IV. CAPITULUA.

Eguiaren eta humiltasunaren arabera ibili behar dela Yaincoaren aitcinean.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, çure bicia chuchen çaçu ene eguiaren arabera, eta bihotz simple eta chuchen batekin bethi bilha naçaçu.

Ene aitcinean eguiaren arabera dabilana gueriçatuco dut exayaren colpetaric, eta

eguia harc berac beiratuco du gaichtaguinen atacada eta enganamenduetaric.

Eguiac libratcen baiçaitu, eguiazki libro içanen çare, eta contu guti harico çare çure contraco erasia guciez.

ABIMAC.

2. Eguia da, Yauna, eguiçu ene baitan dioçun gucia, çure eguiac argui benaça, guida benaça, eta beguira fin dohaxu batetaraino.

Libra beça ene bihotça amodio lohi, eta guticia desordenatu gucietaric, çurekin ibil nadintçat bihotceco libertate handi batean.

YESU-CHRISTOC.

3. Eguia bera naiz ni, eta nic iracaxico darotçut cein den bide chuchena, eta nola içan ahal çaitezken ene gogoraco.

Gogoan erabiltçatçu çure bekhatuac damu eta bihotz min handirekin, eta çure obra onec ez bieçaçute eman buruperic *edo urguluric.*

Hortaz bekhatore bat çare mila pasionez, eta guticia gaichtoz gathe batçuez beçala herstua eta trabatua.

Çure buruz ez deusera duçu çure pendura gucia; bethi erorca hari çare, berehala çare garaitua, den gauçaric chumenac nahasten çaitu ez deusec bihotça erorarazten darotçu.

Eztuçu non dic preça çure burua, aitcitic çure baitan diren gauça guciec humiliatu behar çaituzte; ecen çure flakecia handiago da cerorrec eçagut ahal deçakeçun baino.

4. Ez deçaçula beraz deus preça eguiten duçun gaucetaric.

Etçaçula deus itchec handi, balioz, miragarri, gora, laudagarri, edo guticiagarri bethi iraun behar duena baicen.

Bilha çaçu gauça gucien gainetic eguia soberanoa: mezpreça çaçu deus-ere baino guehiago çure beheratasun eçin guehiagocoa.

Deusi-ere ez dioçoçula hambat ihes eguin nola çure bicioei, ez bekiçu deus iduri hain icigarri eta condenagarri, nola çure bekhatuac, ceinac aborrimendu guehiago eman behar baitarotçute munduco gaitz guciec baino.

Hanitz presuna estabiltça ene aitcinean simpleki eta chuchenki; bainan arroganciazco eta curiostasunezco izpirituz nahi tuzte yakin ene secretu gordeac, eta çundatu ene misterioac, bere buruen, eta bere salbamenduaren artha utciric.

Bainan nola ni halacoen exaya bainaiz, curiostasun eta arrogancia harc erorarazten-ditu hainac tentacione eta bekhatu handietara.

5. Çutaz denaz beçambatean çaren Yaincoaren yuyamenduen beldur, ikhara beçaitça guciz Podorosoaren colerac.

Etçaçula çunda Yaunaren obren barnetasuna; bainan bai çuren malecia eta gaichtotasuna, conda çatçu cembat bekhatu eguin ditutçun, eta cembat obra on utci eguin gabe.

Batçuec bere debocione gucia liburuetan darabilate, bertce batçuec imaginetan, edo campoco seinale, edo itchurapenetan.

Batçuec bethi dute Yaincoa berc mihitan, eta hurren behin-ere bere bihotcetan.

Bainan badire bertce batçuc ceinen izpiritua arguitua baita, eta bihotça eguiazki chahutua ceinec ez baitute bertceric gogoan eta chedean, ontasun eternalac baicen, ceinec ecin bertcez aditcen badituzte munduco gauçac, eta gogoaren bortcha yarraikitcen baitçaizco bere bici beharrari, hainec sentitcen

eta aditcen dute Yaincoaren izpirituac bihotz barnerat erraten diotena.

Izpiritu harc eracusten diote lurraren arbuyatcen, ceruaren maitatcen, mundutic desamarratcen, eta gabaz eta egunaz ceruco dohaxutasuna desiratcen.

Cer eguin behar dut beraz?

Cerda eguiaren arabera ibiltcea? hura da gure buruac, mundu huntaco gauçac, Yaincoa, eta salbamendua direnentçat harturic, horiec mereci duten estimuaren, edo arbuyoaren gure bicitceco moldeaz cinki eracustea. Ikhusaçu bada pontu horietan engañatcen baguine, cer leiteken gutaz. Horien çundatcerat enxeya çaite beraz maiz, eta cinki; eta Yaincoaren handitasunaren, hemengo gaucen ezdeustasunaren, Salbatceco duçun premiaren, eta çure ecinaren bistan, ibilico çare humiltasunean, eta gauça guciez eguinen duçu Yaincoac eguiten duen estimua.

Othoitça.

Ikhusten dut, Yauna, hori dela ene baitan guciz gainetic ikhus nahi cinuken disposicionea, eta salbatcecotz behar dudana. Ordean, ene Yaincoa, lurreco enganio ondicozcoac ceihararaci du ene gogoa eguia eternalen consideracionetic. Ah! bihurtu nahi dut harat. Eguiçu, othoi, çure graciaz, hetaz içan dadin hartua, çuretçat baicen amodioric, eta çure cerbitçuco baicen kharric içanen ez duen beçala. Halabiz.

V. CAPITULUA.

Yaincoaren amodioaren efetu miragarriez.

ARIMAC.

Benedicatcen çaitut, Aita ceruco, ene Yesus Yaunaren Aita, ceren ni beçalaco bekhatore dohacabeaz orhoitu çaren.

Esker darotçut, *ó misericordien Aita*, eta consolacione *gucien Yaincoa*, ceren nahi nauçun noicic behin consolatu çure graciez, hain guti mereci dudalaric.

Laudatcen çaitut eta lorificatcen bethi Yesu-Christo çure seme bakhotcharekin, eta Izpiritu Saindu consolatçailearekin, ceinec

erreguinatcen baitute çurekin mendetaco mende gucietan.

O ene Yaun eta ene Yaincoa ene maitatçaile saindua, ene ganat yausten çarenean boztucoda ene bihotz gucia.

Çu çare ene loria eta ene arimaren bozcario gucia. Çu çare ene esparantça, eta iheslekhua axecabezco demboran.

2. Bainan nola oraino çure amodioan flaco bainaiz, eta berthutez escas, çure laguntcen, indarren eta consolacionen beharrean naiz.

Bisita naçaçu beraz, ô ene Yaincoa! eta iracax dietçakidatçu çure manu sainduac.

Libra naçaçu ene pasione gaichtoetaric, eta senda çaçu ene bihotça afeccione desordenatu gucietaric, ene barnea sendo, eta garbi dela, gai içan nadintçat çure maitatceco, indarxu pairatceco eta fermu fineraino irauteco.

3. Eguiaz, amodioa gauça handi, eta miragarri bat da, harc arintcen du pisu dena, harc behin-ere altaratcen ezten sosegu batekin yasaten tu bicitce huntaco mudantça diferentac.

Pena gabe yasaten tu penac, nekhe gabe

nekheac, eta eztirat gambiatcen tu khiraxic minenac. Yesusen amodioa yenerosa da, hertchatcen gaitu gauçaric handienetarat, eta lehiarazten berthuteric perfetenetarat.

Amodioac goïti du yaidura, eta ecin gueldi daiteke gauça beheretan.

Amodio saindu harc libro nahi du, eta hastantcen *edo urruntcen* da lurreco gaucen gutieietaric, beldurrez haren barneco arguia ilhun dadin, eta beldurrez munduco onec traba deçaten, edo garrait munduco gaitcec.

Ezta deus-ere ceruan, ez lurrean eztiagoric, eta borthitçagoric amodioa baino, deus-ere altchatuagoric, edo hedatuagoric, nahicarazcoagoric, perfetagoric eta excelentagoric hura baino; ceren amodioa Yaincoa ganic heldu baita, eta creatura guciez gorago altchatcen dela Yainco choila baitan causitcen baitu bere sosegua.

4. Amodio duena bethi da boz, lasterca, eta airetan dabila den kheinuric chumenean, libro da, deusec eztu trabatcen ez guibelatcen.

Gauça guciac ematen tu Yaincoa gatic, ceina baita harentçat gucia, eta haren baitan

guciac causitcen tu, ceren pausatcen baita ontasun soberano hartan, ceina guciez gorago baita, eta ceina ganic heldu baitire bertce guciac.

Dohainei baino guehiago behatcen dio hekien emaileari, eta hura ontasun guciac baino maiteago du bethiere.

Maiz amodioac eztu eçagutcen negurriric, eta bere kharrac badarama mugarri guciez urrunago.

Amodioac eztu carga sentitcen, hura eztu nekheac icitcen, lan garayari-ere edo ecin eguinari lotcen çayo, eztu alegatcen ahal escasa; ceren uzte baitu gauça guciac badakizkiela, eta cilhegui çaizcola.

Hala amodioa duena gai da gucietaco; halacoac eguiten tu, eta obretan atheratcen mila gauça, ceinei ez bailitçayote lothuco amodioric eztuena.

5. Amodioa ezta loharcatcen, loan-ere atçarria dago.

Ezta unhatcen nekhetan, libro guelditcen da hersturetan, ezta altaratcen icialduretan, khar bici, eta suzco bat beçala altchatcen da cerurat traba guciac ichituric.

Maite duenac aditcen du boz ichil hura, suzco haxbeherapen hec, plainu samur hec, ceina arima batec egortcen baitiotça Yaincoari, erraten dioenean: O ene Yaincoa, ene amodio bakharra, gucia enea çare, eta ni çure naiz gucia.

6. Çabal çaçu ene bihotça guehiago maita çaitçantçat, gusta deçadantçat ene baitan cein on den çure maitatcea, eta igueri ibil nadintçat amodio saindu hartan, ixaso batean beçala, edo hobeki han urth eta nahasta nadintçat.

Ochala har banintça osoki amodio harc, eta haren kharraz gorituric, eta gorphutceco sentimenduez gabeturic altcha banendi neure buruaz gorago çurekin bat eguiteco.

Ene arimac, canta beça amodiozco canta, yarraic bekiçu eta airetan ibil bedi çure ondotic, ó ene guciz onhexia, çu laudatuaren podorez flaca bedi, eta honda bedi bere bozcarioaren eztitasunean eta goçoan.

Maita çaitçadan neure burua baino guehiago, ezteçadan maita neure burua çure amoreac gatic baicen, eta maita detçadan çure baitan çu maite çaituzten guciac.

Hala manatcen du amodiozco legue harc ceina çure arguiaren arrayo bat baita.

7. Amodioac eztu luçamenduric, eguiatia da, eztia, agradagarria, prudenta, pairacorra, bihotzduna, leyala, desintresatua; ecen nihorc bere burua bilhatcen duen pontutic galcen du amodioa.

Amodioa gauça gucietan goardiacor da; humila da eta chuchena, ezta lachoa, ez gauça banoetarat emana, sobrea da, garbia, fermua, pausatua, bere sensuac herxiki beguiratcen dituena.

Harc eguiten gaitu obedient gure aitcinguidarien alderat, eta mezpreçagarri gure beguietan.

Zeloz eta eçagutçaz bethea da Yaincoaren alderat, harc inspiratcen darocu esparantça fermu bat agortasunic handienen artean, ecen amodio hura haztenda axecaben erdianere.

8. Hala gauça gucien pairatcerat, eta gauça gucietan bere maitearen borondatearen complitcerat prest eztagoenac eztu mereci haren adiskidearen icena.

Yaincoa maite duena gogotic lothu behar

çayote gauçaric gaitcenei, eta gogorrenei, eta cein nahi den trebesia guertha dadin, eztute behar apartatu bere amodiotic.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoaren amodioaren efetu eta indar hortaric ikhus-çaçu certarainocoan othe duçun amodio hura; ea estatutan çaren erraiteco: Yauna çurea naiz gucia, eta ez dut deus çuretçat guphidestecoric. Cer lehia sentitcen duçu Yaincoari lakhet çaizcon gaucen eguiteco, eta lakhet ez çaizconetaric urruntceco? Cer gostu aurkhitcen duçu Yaincozco gogoetetan, eta solasetan? Harekin içaitea certarainocoan desiratcen duçu? Hortaric behar duçu eçagutu ea amodio garai bat bederen baduçun Yaincorentçat. Galdeguioçu berari amodio eguiazco hura; eta enxeya çaite çure bihotçaren hartarat erakhartcerat.

Othoitça.

Erran duçu, Yesus maitea, deus ez duçula hala desiratcen nola gure bihotçac susta diten çuc cerutic ekharriricaco suaz. Ungui guti orhoitu behar ninteke çutaz gucien gainetic

Universidad de Deusto
Biblioteca

çu ez maithatceco. Balirurikct ordutic çutaz baicen ez nintekela orhoitu behar. Bainan hunela naiz, Yauna, hotça, eta miserablea. Phitz-çaçu, othoi, ceronec su sacratu hura ene bihotcean, bainan phitz-çaçu, cer nahi den çu gatic eguiterat, eta pairatcerat erakhar neçaken heinerainocoan. Halabiz.

VI. CAPITULUA.

Nola amodioa eztagoen axeguin ispiritualetan; bainan bai gudutan leyal içatcan.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, ez nauçu aski borthizki, eta aski prudentki oraino maitatcen.

ARIMAC.

Nola bada, ene Yauna?

YESU-CHRISTOC.

Ceren den contrestaric chumenac utzarazten baitarotçu hasi duçun gauça, eta sobra lehiarekin baitçabiltça consolacionen bilha.

Ni cincinez maite nauena fermu dago teu-

tacionen erdian, eta eztute haina exayaren aguintcec enganatcen.

Eta maite banau ene ontasunez bethetcen dudanean, eznau gutiago maite axecabez frogatcen dudanean.

2. Amodio arguituac eztio behatcen hambat dohainaren balioari, nola emailearen amodioari.

Amodio haren eredura preçatcen tu emaitçac, ez hetaric heldu çayon progotchuaren arabera: eta bere maitea baino beherago ematen tu haren emaitça guciac.

Amodio yenerosac ene baitan ematen du bere bozcario, eta ez ene ganic dituen onetan, eta on hec guciac baino gorago ni altchatcen nau.

Halere eztuçu uste behar galdu çarela ez baduçu batçuetan enetçat, edo ene sainduentçac nahi cinduken beçambat berotasun sentitcen.

Noicic behin sentitcen duçun samurtasun ezti hura ene gracia çure baitan denaren efetu bat da, eta orai danic parabisuco bozcarioen dastatce suerte bat; bainan ez çaitecela hartan sobra pausa; ecen gustu horiec

heldu dire, eta badoaz laster nic nahi dudan beçala.

Bainan berthute eguiazco, eta merecimendu handi baten seinalea da, gure bihotceco guticia gaichtoei contra eguitea, eta debruac eman nahi darozkigun enganioen arbuyatcea.

3. Etçaitecela beraz altara çure izpiritura heldu diren imagina banoez, cer nahi den guisetacoac ahal ditecen.

Çaude fermu çure deliberacione onetan, eta çure chedea chuchen idecaçu Yaincoaren alderat.

Çure burua sentitcen duçunean betan ceruraino altchatua, eta handic berehala erortcen baçare çure izpirituco flakecia, eta imaginacione banoetara, eztuçu hargatic uste behar lilurámenduzco, eta enganiozco estatuan çarela.

Ecen eztire horiec çure nahitic heldu, aitcitic gogoaren bortcha pairatcen dituteçu; bada gaitcesten tutçuno, eta contra eguiten dioçuteino merecimenducotz dituteçu, eta ez çure galtceco.

4. Orhoit çaite çure exai çaharrac bere

ahal guciac eguiten dituela çure guticia onen debecatceco eta obra on gucietaric çu guibelatceco: hala nola baitire sainduen ohoratcea, ene pasionea maiz gogoan erabiltcea, çure bekhatuez urrikirekin orhoitcea, çure bihotçaren goardian egotea, eta berthutean aitcinatceco deliberacionean fermuki irautea.

Eraintcentu çure izpirituan gogoeta gaichtoac çuri descustu, eta higuintça emateco, eta çu othoitcetic, eta liburu sainduen iracurtcetic guibelatceco.

Higuindu hanitz çure bekhatuez eguiten duçun aithor humila; eta (ahal balegui) guibelacintçake alde batera comunione saindutic.

Ezteçaçula sinhex, eta eztuçun hartaz ansiaric, maiz arteac hedatcen badarozkitçuere.

Egoratçu haren ganat heldu çaizkitçun gogoeta gaichtoac, eta erroçu:

Hoa izpiritu liçuna; ahalcaadi, dohacabea.

Hanitz behar haiz lohia horlaco hasketiac *edo tçarkeriac* ene gogorat ekhartceco.

Apartaakit enganari gaichtoa; eztuc ene gainean deus irabacico. Eznauc Yesusec utcico, ene alde gudu eguinen dic, eta laidorekin guelldituco haiz.

Nahiagotiat sofritu suplicioric handienac, eta heriotcea-ere ecen-ez, hire nahi gaichtora erori.

Ago ichilic, ez akidala mintça guehiago, ecen ez haut hemendic harat adituco cer nahi erranic ere.

Yauna da ene arguia, eta ene salbamendua, noren beldur naiteke?

Exayezco oste bat ene contra altcha baledi-ere, ezlite ici ene bihotça.

Yaincoa da ene habea, eta ene salbatçailea.

5. Gudu eguiçu soldado on batec beçala, eta noicic behin flakeciaz erortcen baçare, altcha çaite lehen baino indar guehiagorekin, seguraturic gracia sendoago batez lagundua çarela, guciz beguira çaite complacencia banotic, eta urgulutic.

Handic hanitz presuna erortcen dire engañerat, eta hurren ecin sendatuzco ixutasun batetarat.

Halaco urguluxuen, eta bere baitan erhoki fidatcen direnen eroricoa balia bekiçu humilago, eta goardiacorrago içateco.

Cer eguin behar dut beraz?

Ez da gaitz comprenitcea tentacioneco, eta agortasuneco demboran hobeki agueri dela, ea eguiazki Yaincoa maite dugun, descansusco, eta bozcariozco, edo bakezco demboran baino. Ungui errebesac behar guintezke içan goçotasunic baicen frogarazten ez laucukeyen Aita bat ez maithatceco. Har çaçu beraz ungui Capitulu huntaric Yaincoaren amodioaren hitzcuntça dela, guciac Yaincoa gatic, deus ere nere axeguina gatic. Axeguinean, eta goçoan ez fida, tentacionean, eta agortasunean ez altara, ez loxa: batçuec beçala berceac har Aita on haren escutic. Hortan da Yaincoaren ganaco amodioa.

Othoitça.

Ala berdur içaiteco baitut, Yesus maitea, oraidinocoan çure goçoac baicen ez dudala maite içan çu baitan! Hori eracusten daut ene khechamenduac. Ah! Yauna, eçagutceco dut, ez dudala mereci consolacioneric. Froga eta garbi naçaçu mundu huntan naiceno, ce-

ronec borthizten duçularic ene bihotça, deus ere çutaz campoan ez bilhatceco behar duen khar hartaz. Agrada bekiçu, othoi, Yesus maitea, nere buruaz eguiten darotçudan sacrificio osoa. Halabiz.

VII. CAPITULUA.

Arimaco agortasunean beguiratu behar dela humiltasuna, eta bakea.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra ezta deus çuretçat hobeagoric, eta seguragoric, nola debocionearen gracia gordetcea; haren gatic buruperic ez içatea; hartaz guti mintçatcea, çure buruaren mezpreçatcea, eta gracia haren beraren beldur içatea, sinhexiric mereci gabe duçula.

Eztuçu sobra fidatu behar bihotceco sentimendu samur horietan, hain laster contrarat gambia daitekenaz gueroztic.

Gracia hura duçuno orhoit çaite eein urricaltceco çaren hura eztuçunean.

Bicitce ispiritualeco aitcinamendua eztatça bihotceco consolacionen içatean; bainan noiz

bere buruari ukho eguinic, humilki hekien gabetasuna pairatcean, çure othoitçac, eta bertce debocionezco praticac uzten ez ditutçularic.

Aitcitic çure ahal gucia eguiten duçula berthutean lachatu gabe çure bihotceco agortasun, eta nahastura gucien gatic.

2. Hanitci erortcen çaye bihotça eta escasten paciencia den trabaric chumena aurkhitcen duten beçain sarri.

Bainan guiçonaren bidea eztago bethi guiçonaren ahalean. Yainco choilac bere graciac eta consolacioneac ematen diotçate placer duenei, eta placer duen demboran, eta neurrian.

Bertce batçuc goardia escasez galdu dire bere debocionean: ceren ahala baino guehiago eguin nahi içan baitute, bere flacotasunari behatu gabe, eta guehiago sinexi baitute bere bihotceco zeloa, eta kharra, ecenez bere arraçoinaren arguia.

Eta ceren Yaincoac galdeguiten cioten baino guehiago eguin nahi içatu duten, galdu dute laster gracia.

Hegaldatu nahi çuten ceruetan gora, eta

erori dire pobreciarat, eta mezpreciorat; humilduric, eta pobreturic ikhas deçatentçat ez abiatcen fidoski airetan gora, bainan bere esparantça eta indarra ene hegalen itçalean ematen.

Yaunaren bidean sarthu berriac, eta oraino ungui ikhasi gabeac errebelatuco dire falta gabe, eta tulumbiorat erorico, presuna çuhurren, eta yakinsunen arguiez ez badire guidatcen.

3. Hainec bere buruac guehiago sinhesten baituzte presuna ungui ikhasiac eta arguituac baino, hekien salbamendua hirriscu handitan dabila, baldin ez badiote ukho eguiten bere sentimendu propiari.

Gutitan guerthatcen da bere buruac çuhur daduzcatenac bertcez guidatcea.

Hobeago da argui guti, eta humiltasun hanitz içatea, ecen ez çuhurciazco tresor guciac bere buruaren complacentia bano batekin.

Hobeago da gutia, ecen-ez urguluac eman deçaken hanitça.

Prudenciaric ez içatea da bere bihotça bozcarioari osoki ematea, orhoitu gabe bere

leheneco gabeaz, eta ahanciric Yaincoaren beldurtasuna, ceinac bethi goardian baicaduzca içatu dugun gracia gal ezteçagun.

Bainan berthute guti içatea da halaber penac, eta nahigabeac ditugun demboran bihotça galcea, eximendurat erortcea, eta ene ontasunean behar den esparantça ez içatea.

4. Bake demboran bere burua sobra seguratua daducana, lacho eta beldurti içanen da guerla demboran.

Bethi humil bacine eta chume çure beguietan, eta bacinaki çure bihotceco mobimenduen bridatcen eta chuchentcen, etcintezke hain laster eror tentacionen hirriscutarat.

Graciaz goçatcen çarenean, on da pensatcea, nola içanen çaren hura eztuçunean: yoaiten çaitçunean orhoit çaite berriz-ere bihur daitekela hargui saindu hura, ceina khendu baitarotçut dembora batecotz çure hobeagoa gatic, eta ene loria gatic.

5. Frogantça suerte hori hobeago duçu maiz, ecen ez ene graciac, eta fagoreac bethi çure gogora bacintu.

Ecen merecimendua ezdatça ceruco bisionen eta consolacionen içatean ; ezdatça halaber Escriptura sainduaren ungui aditcean, ez eta cargu goretarat altchatua içatean ; bainan eguiazco humiltasunean fincatua içatean, Yaincoaren amodioz, eta haren loriaren zeloz bethea içatean, nori bere burua ez déus estimatcean ; finean nahiago içatean bertcez içan mezpreçatua, ecen ez ohoratua.

Cer eguin behar dut beraz?

Ikhus çaçu, ea çure eximendua, edo nekhatcen çaituzten asco penaren causa ez duçun capitulu hortan causituco. Arimaric berthutean aintcinatuenac penatuac içanditezke : bainan bere burua deusentçat ez daucana, ez da deuzez asaldatuco. Bere ecinaren eçagutçac, ala arguian, ala ilhumbean, consolacionean, ala agortasunean, bere Yaincoaren amodioan, eta haren baithaco confidencian berreguintceco bidea emaiten dio. Sentitcenere du, penatua den presuna osokiago dohala Yaincoa ganat. Ez deçaçula beraz gal behinere bistatic cerçaren çure baitharic, eta ez duçu galduco sosegua.

Othoitça.

Ah ! Yauna, nere amodio propiac ekharri nau debocionezco urhaxetarainocoan nere satifaccione propiaren bilhatcera. Garbi çaçu, othoi, ene bihotça çu ganaco chedez bertce gucietaric. Hortacotz eguiçu, çure graciaz, ez deçadan ahantz deusonic badut, çure ganic dudala, eta escasian ez darotaçula faltatuco : horrela nere contentamenduaz conturic eguin gabe, axecabetan, eta barneco hiraduretan, consolacionetan beçala pausa nadin çure borondate sainduan. Halabiz.

VIII. CAPITULUA.

Nola behar dugun gure burua eceztatu Yaincoaren aitcinean.

ARIMAC.

Mintçatuco *othe natçayo ene Yaunari, ni hauxa eta herrauxa baicen ez naicena ?*

Cerbait guehiago naicela uste badut, altchatuco çare ene urguluaren contra, eta ene hobenec eguinen dute ene contra lekhuco-

tasun bat ceinari ecin deusic ihardexico baitiot.

Bainan ene burua mezpreçatcen badut, ezeztatcen banaiz, eta fama bano guciei ihes eguinic ene herrauxerat bihurtcen banaiz; orduan çure gracia alde içanen dut eta çure graciac ene bihotcean distiatuco du.

Eta ene ezteustasunaren tulumbioac iraunguituco ditu bethicotz ene amodio, eta estimu propriaren inhar guciac.

Estatu hartan eracusten darotaçu cer naicen, eta cer bilhacatu naicen. *Ceren eta ez bainaiz eguiazki deus, eta hori ez nakien.*

Neure ganat uzten naucunean ez naiz flakeciaric baicen; bainan çure beguitartea ene ganat itçultcen duçun beçain sarri bethetcen naiz indarrez, eta bozcarioz!

Oi gauça miragarria horla betan altchatcen bainauçu, eta hain samurki besarcatcen, ni ceina ene pisutasun propiac ez deusera bainarama!

2. Horra cer eguiten duen çure amodioac, nic mereci gabe hasten da ontasunez ene bethetcen; laguntcen nau ene beharretan,

beiratcen nau hirriscuric handienetan, eta atheratcen nau mila gaitz suerten artetic.

Ene burua galdu dut sobera maitatuz; eta çu bakharra bilhaturic; eta maitaturic causitu çaitut, baita halaber neure burua, eta çure amodioa baliatu çait ene ezdeustasunean barnago sartceco.

Hala, ô Yesus, guciz ona eguiten darotaçu ez solamente nic mereci baino gracia guehiago; bainan oraino çure ganic igurikitcen, eta galdetcerat atrebi naiteken baino guehiago.

3. Çaren bethiere benedicatua, ô ene Yaincoa! Ceren gracia guciençat indigne naicelaric, halere çure yenerostasun, eta ontasun infinitua ez baita guelditcen niri ungui eguitetic, hala nola hanitz bertce esker gabei, eta çuretçat higuintçaric baicen ez dutenei.

Yauna, osoki çure ganat itçularaz gaitçatçu, içan gaitecençat esker emaile, humil, Yaincotiar; ecen çu çare gure salbamendua, gure indarra, eta berthutea.

Cer eguin behar dut beraz?

Noiz-eta-ere baneloriazco, edo çure buruaz contentamenduzco cerbait liluramendu sentitcen baitutçu, orhoit çaite cer çaren çure ethorkiaz ; eta certara cinteken çure baitharat Yaincoac utz bacintça. Ezdeustasunetic athera, hambat aldiz ifernua merecitu, gaizkirat hain ekharria, onguiarentçat cein nagui, eta gogor : consideracione horrec erran aracico darotçu, guiçonac bere burua ungui ahantzi behar duela, bere buruaz hartua, edo deusetan buruperic içaiteco.

Othoitça.

O! Yainco handia, ni baitan deus onic bada, çuri dauzkitçut eskerrac çor. Nere baitan ez naiz, eta ez dut gaichtakeria baicen. Ezdeustasunean, eta helas! Çure urricalmendua baliatcen ez baçait, ifernuan dire ene çucen guciac. Eguiçu, othoi, ene Salbatçaile maitea, orhoitçapen horrec itchic naçan bethi eman çautan humiltasunean. Halabiz.

IX. CAPITULUA.

Nola Yaincoa baita gucien fina, eta azkenchedea, hari behaturic eguin behar direla gauça guciac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, dohaxu içan nahi baduçu, nic behar dut içan çure chede azkena eta sobera noa ; chede horrec chahutuco ditu çure bihotceco afeccioneac, ceinac maicegui çure baitharat, eta creaturetarat baitçaramatçate.

Ecen cerbaitetan çure burua bilhatcen baduçu crorico çare berehala flakeciarat, eta agortasunerat.

Niri behar darotaçu beraz gauça gucietan behatu gauça gucien chede principalari beçala ; ecen nic gauça guciac eman darozkitçut.

Ontasun guciac iducatçu ontasun soberanotic ethorriac beçala, eta ene ganat bere ethorkira guisa bihurtu beharrac beçala.

2. Ene ganic ithurburu bici batetic beçala, chumec eta handiec, pobrec eta aberaxec bärtcen tuzte graciaren urac, eta gracia bat

bertce gracia baten saria da ni bihotz onez cerbitçatcen nautenentçat.

Bainan norc-ere nitaz campoco ontasun batean eman nahico baitu bere loria eta axeguina, eztu içanen behin-ere bozcario unguri fincaturic, ez sosegu eguiazcoric bere bihotcean; aitcitic, haren trabac eta hersturac beretuco dire guerotic guerorat guehiago.

Ez beraz eman çure contuan, edo bertcerenean unguiric edo berthuteric, bainan gauça guciac bihur Yaincoari, ceina gabe guiçonac ez baitu deus.

Nic eman darozkitçut guciac, eta nic nahi dut guciac içan detçatçun; bainan halaber nahi dut herxiki bihur dietçakidatçun çor çaizkidan eskerrac.

3. Horra eguia bat, bana loria guciac sunxitu behar dituena.

Yaincoaren gracia eta eguiazco amodioa çure bihotcean sartcen badire, ezta han guehiago içanen ez inbidiaric, ez tristeciaric, ez amodio propiric.

Ecen Yaincoaren amodioac garaitcen tu gauça guciac, eta beretcen arimaren indarrac. Eguiazki çuhurra baçare emanenduçu ene

baitan çure bozcario, eta esparantça gucia, ceren ez baita nihor onic Yainco choila baicen, ceinac behar baitu içan gauça gucien gainetic laudatua, eta gucietan benedicatua.

Cer eguin behar dut beraz?

Ala yan deçaçun, ala edan deçaçun, ala bertce cer nahi eguin deçaçun, guciac eguintçaçu Yaincoaren ohoretan, dio Yondoni Pauloc, nere miserietan emanen dut nere loria, dio Apostolu berac. Deus onic eguiten baduçu beraz, erraçu hura Yaincoarena dela, on gucien ithurburuarena beçala. Çure accione guciac eguin çatçu Yaincoari axeguin eguiteco chede phuru batez hari ofrituric. Hala accioneric chumena ere baliatuco çaitçu cerucotz. Chede hori erreberri çaçu maiz san Ignaciorekin erranez bihotcez, Yauna çure ohoretan.

Othoitça.

Norentçat hari naiz bada ni, çure ganat ez dakharzkedan accionetan? çu çare ene hastea eta fina, çure ganic behar dut nere lan gucien golardoa. Deliberatcen dut, ó ene

Yaincoa, eta ene gucia, nere urhax guciac altchatuco ditudala çure ganat chederic phuruenaz. Eguidaçu gracia gogo on horren behin-ere ez galtceco. Halabiz.

X. CAPITULUA.

Cein on den Yaincoaren maitatcea, eta munduaren mezpreçatcea.

ARIMAC.

Ez naiz ichilic egonen, Yauna, atrebituco natçayo berriz-ere mintçatcerat ene Yaincoari, ene Yabeari, ene Erregueari ceina baitago ceruric gorenean.

Oi ala çuc ontasun, eta goçotasun handia gorde baituçu çure beldur direnentçat, ô ene Yaincoa!

Bainan cembatenaz çare eztiago, eta gôçoago çu maitatcen çaituztenentçat, eta bere bihotz guciaz cerbitçatcen çaituztenentçat.

Eguiaz nihor ezta gai explicatceco çuc çure maitatçailei contemplacionean ematen dioçotçuten axeguinac.

Nintcen baino lehenago eman darozkidaçu

çure amodioaren seinale handiac, ceren ezdeusetic athera bainauçu ni eguiteco, eta formatceco: guero çure ganic urrundu naicenean ene errebelamendutic erakharric nauçu çure cerbitçatceco; eta cembat higuingarria banaiz-ere manatu darotaçu maita çaitçadala.

2. O amodiozco ithurburu eternala! cer erranen dut çutaz? Nola çu ahantz çaitçaket, nitaz orhoitu çarenaz gueroztic galdua nindabilanean.

Ni çure cerbitçaria bethe nauçu misericordiaz, graciez, eta samurtasunez, ez solamente merecitu baino guehiago; bainan oraino esparantça guciez gorago.

Hambat ontasunen orde cer bihurtuco darotçut, ene Yaincoa?

Ecen ezta guciei eguiten dioçuten dohaina munduari ukho eguitea, eta guciac utciric ereligioneco bicitcean sartcea.

Gauça handia da bada nic çu cerbitçatcea, creatura guciac hortara obligatu direnaz gueroztic?

Ez, ezta handia; aitcitic handi eta miragarri dena da çuc ni cembat guti gaya, eta dohacabea banaiz-ere hartcen bainauçu çure

cerbitçaritçat, eta ematen bainauçu çure adiskeden nombrean.

3. Nic dudan guçia çurea da, nic çu cerbitcatcea-ere çuc niri eguiten darotaçun dohain bat da.

Bainan cer eguiten darotçut? Hobeki erran diteke çuc ni cerbitçatcen nauçula, ecen ez nic çu.

Horra non cerua eta lurra creatu tutçun guiçonaren cerbitçucotz, complitcen tuzte arthoski çuc gure progotchucotz eman diotçotçuten manuac.

Eta hori gauça gutia balitz beçala, eguin ditutçu aingueruac guiçonen çain, eta defendatçaile içateco.

Bainan fagore horiec guciac ichitcen dituena da cerori beheratu baitçare guiçonaren cerbitçatceraino, eta aguindu baitioçu emanen çaizcola çure lorian.

4. Milaca ontasunen orde cer bihurtuco darotçut?

Ochala ene bicico egunetan cerbitça ahal bacintçat!

Helas! egun batez bederen digneki cerbitça bacintçac.

Ecen çuc ditutçu mereci cerbitçu guciac ohore eta loria guciac.

Çu çare ene nausi eguiazcoa, eta ni çure cerbitçaria, cerbitçatu behar çaitut ene indar guciez, eta laudatu behin-ere unhatu gabe. Hori nahi dut, hori da ene guticia, compliçaçu othoi ene ahal escasa.

5. Ohoreric eta loriaric handiena balinba, çure cerbitçatcea da, eta çure amorea gatic gauça guciac arbuyatcea.

Ecen çure graciez betheco tutçu çure cerbitçuan bihotz onez ematen diren guciac.

Çure gatic munduco axeguin banoac uzten dituztenec içanen tuzte Izpiritu sainduaren consolacione goçoac; eta munduco arthac utciric çure loria gatic bicitce herxiaric lotcen çaizconac bihotceco libertateaz goçatuco dire.

6. Oi gathibutasun ezti eta maitagarria, ceinac ardiesten baitio arimari libertatea eta saindutasuna!

O Ereligioneco bicitce saindua, ceinac eguiten baitu guiçona aingueruen berdin, Yaincoarentçat maitagarri, eta guiristino gucientçat ohoragarri!

O esclabotasun ecin aski desira eta bilha daitekena haren bidez irabazten dugunaz gueroztic ontasun gucien gaineco ontasuna, eta bethi iraunen duen bozcarioa !

Cer eguin behar dut beraz?

Compreni-çaçu capitulu hortan cer obligacione duçun Yaincoaren legue Sainduaz çure gogoeta, accione, eta solasen erreguelatceco. Eta hori da Yaincoaren cerbitçatcea. Norentçat içanen ditu Yaincoac bere goçoac, holacoentçat baicen? Ikhusaçu nolacoa içan den çure eskergabetasuna, eta çure çoramendua, haren manuez conturic eguin gabe, munduco usayac, eta çure gostua seguitu tutçunean. Ondoan pisa çatçu ungui capitulu berean Yaincoari eguin tutçun aguintçac.

Othoitça.

Eçagutçarekin, eta nere hautura çure borondaten eta manuen complitceco eguin duçun lurreco creatura bakharra naiz beraz, ene Yaincoa, hec hauxi ditudana. Bertce creatura suerte guciec çure manuac eguiten dituzte beretçat probetchuric gabe eta nic

çurekilaco batasunari ukho eguin diot nere guisa bicitceco. Cer çoramendu ! barkhadaçu, Yauna, othoi, iragana, eta eguidaçu gracia capitulu hortan hartu ditudan sentimenduen behin-ere ez galceco. Halabiz.

XI. CAPITULUA.

Guticia onac ere behar ditugula bridatu, izpirituaren azpian eman haraguia, eta izpiritua Yaincoaren azpian.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, nahi darozkitçut iracaxi hanitz gauça oraino ungui eztakizkitçunac.

ARIMAC.

Cer bada, ene Yaincoa?

YESU-CHRISTOC.

Çure borondatea eman behar baituçu enearen azpian ; ez baituçu çure burua maitatu behar, ez bilhatu bertceric ene nahiaren complitcea baicen.

Maiz çure guticiec borthizki çarabiltçate ; ordean ikhusaçu ungui, eta guticia hekien chedea ene loria den, ala çure aisia.

Ene gatic hari baçare, cer nahi den ene ordenuz guertha dadin content içanen çare; bainan çure chedetan estaliki sartcenbada çure buruaren amodioa, gauça horrec nahasico çaitu eta altaratuco.

2. Etçaitecela beraz sobra fida ni consultatu gabe hartu tutçun deliberacionetan beldurrez urriki dakiçun, eta higuin deçaçun lehen on citçaitçuna.

Ecen eztire berehala complitu behar gure bihotceco guticia on diruritenac, eta halaber etçayote bere berehala ihes eguin behar gaichto diruritenei.

On da maiz desira onen ere bridatcea beldurrez lehia sobrac phartaya deçan gure izpiritua, edo zelo gaizki neurthu batez bertcei escandala eman dioçoguten, edo finean bertceren contrestac altara gaitçan.

3. Maiz behar da bortchaca hari, eta borthizki contra eguin behar çaye sensuen guticiei; eta beiratu gabe cer nahi duen, edo cer ez haraguiac, artha behar da choilki izpiritua haren nausi eguiteaz.

Hari behar dugu haren garaitcen eta cençatcen gauça gucietara prest içan dadin arteraino, gutiz contenta dadin arteraino, eta den errencuraric chumena nahi gabetan itçur eztakion arteraino.

Cer eguin behar dut beraz?

Orhoit çaite gauça onetaco beretaco desira, eta nahi borthitçac dituztenec, errechki eman deçaketela debocionea eguinbidearen lekhuan. Eta guciz hec behar dute ungui hartu autorraren maxima hau, « on da desira onen bridatcea. » Horren arraçoina han berean du. Gauça gucietan çohaz beraz pausurekin Yaincoaren ohoratceco cein den hobe pisatuz, çure nahiaz conturic eguin gabe.

Othoitça.

Nere nahi propiac cembat obra on ez darot alfer errendatu, ô! ene yabe soberanoa! bethi errairen dut, çure nahi saindura nahi nintekela egon, baitakit hura dela merecimenduzco obren erreguela; bainan cembat ez doha ifernurat nahicunde horrekin? Ah! eguin da Yauna, promes darotçut, ez diodala gogoari emanen çure gogoara eguitea baicen. Borthitz naçaçu, othoi, guerotic guerora sentimendu hortan. Halabiz.

XII. CAPITULUA.

Pairacor içan behar dela gaitcetan, eta arbuyatu behar direla axeguinac.

ARIMAC.

Ene Yauna eta ene Yaincoa ikhusten dut pacienciaren behar handian naicela; ecen bicitce hau bethea da hanitz axecabez.

Cer nahi den eguin deçadan bakean bicitceco, ecin naiteke gudu eta pena gabe.

YESU-CHRISTOC.

2. Eguia da, ene haurra; bainan eztut nahi bilha deçaçun bake bat tentacione eta ondico gabecoa.

Aitcitic nahi dut çure bakea eman deçaçun çure indarra eta paciencia frogatcen duten axecabetan.

Erráten badarotaçu ecin hambat paira deçakeçula, nola bada pairatuco duçu purgatorioco sua?

Bi gaitcetaric bethi chumena hautatu behar da.

Hala nahi duçu ez erori seculaco suplicioetarat? Yasan çatçut pacientki oraico gaitçac Yaincoaren amorea gatic.

Uste duçu munduco presunec eztutela deus sofritcen?

Eztuçu hori causituco, munduco dohaxuenetan ere.

3. Erranen duçu baituztela hec hanitz axeguin, bere nahiaren eguiten hari direla, hala bere penac arintcen çaizcotela.

4. Bainan emagun hala dela, eta gauça guciac bere gogora dituztela, horiec guciec cembat iraunen dute?

Munduco handi hec guciac iraganen dire khea beçala, hekien axeguinen orhoitçapenic ere guelditcen eztela.

Eta mundu huntan bici direino-ere eztire axeguin hetaz goçatcen khirax, beldur eta desgustu gabe. Eta maiz cerc-ere eguin baitu hekien bozcarioric handiena harc causatcen ere du hekien doloreric minena.

Eta yustu da ene nahiaren contra axeguinac bilhatu dituztenec, ez detçaten dasta laido eta khirestasunic gabe.

Oi ala axeguin hec guciac laburrac baitire, falsoac, desordenatuac eta ahalcagarriac!

Bainan guiçonec eztute hori ikhusten munduac ixutu eta horditu dituenean, aitcitic iduri bestia adimendu gabecoac bere arima ematen dute heriotceco hirriscuan mement batez iragaten den axeguina gatic.

Çu beraz, ene haurra, *etçabiltçala çure pasionen ondotic, ukho eguioçute çure guticia desordenatuei.*

Emaçu Yauna baitan çure bozcarioa, eta çure bihotceco galdeac eta desirac complituco darozkitçu.

5. Nahi baduçu betheki goçatu eguiazco bozcarioez eta consolacionez, mundua mezpreçaturic, eta axeguinei ukho eguinic aurkhituco duçu ene benedicionen eta fagoren gaindidura.

Cembatenaz guehiago urrunduco baitçare munduco consolacionetaric, hambatenaz aurkhituco duçu descansu guehiago Yaincozco consolacionetan.

Eguia da, eztuçu hartarat ardiexico pena gade, nekhe eta gudu gabe.

Çure haztura gaichtoac traba eguinen daro-

tçu; bainan hobeago batez garaituco duçu.

Haraguia altchatuco da çure contra; bainan çure izpirituaren kharrac hecico du.

Finean sugue çaharrac armatuco ditu çure contra bere malecia eta indar guciac; bainan othoitçac ihesi egorrico du, eta guero cembait lan on eta progotchosec cerratuco diote çure bihotceco athea.

Cer eguin behar dut beraz?

Ala santa Theresac eguia horiec ongui comprenitcen baitcituen cionean Yaincoari: « Yauna sofri edo hil. » Eta nola nahi çare heldu Yesu-Christoren gana, çure gurutcea bizcarrean baicen? Eta norc ez du ikhusten, munduco axeguinec nola ahantz-arazten duten Yaincoa? Larga çaite beraz erreflecioneari, autorrac emaiten dauzkitçun arraçoinen gainean; eta galdeguioçu Yaincoari minki, hetan ungui sarteceo arguia; eta hec galdetcen dutenaren eguiteco indarra.

Othoitça.

Desterruan, eta exayen artean nola içan uste duket, Yauna, gaitcic, eta penaric gabe?

Çure bicia, çure heriotcea, eta munduco axeguinen ondoreac ikhus, eta nola desira deçaket hemen sofritcecoric gabe içaitea? O! ene Salbatçaile maitea, eguia hautaz ene izpiritua arguitu duçun beçala, hunkiçaçu ene bihotça arraçoin horien premiaz; eta emoçu humilki gaitçac, eta axecabeac yasaiten dituztenei ematen diotçoçuten goçoentçat baicen gosturic ez içaiteco dohaina. Halabiz.

XIII. CAPITULUA.

Obedienciaz.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, obedienciatic aldaratcen dena urruntcen da graciatic; eta bere guisa biei nahi duena gabetcen da baltsan eguiten den unguiaz.

Bere aitcinguidariac gogotic, eta bihotz onez obeditcen eztituenac eracusten du eztuela haraguia ungui hecia; bainan muthiria, eta maiz izpirituaren contra alchatcen dena.

Ikhasaçu beraz berehala obeditcen çure

guidariei, baldin nahi baduçu çure haraguiac obedi çaitçan.

Campoco exaya laster da garaitua barneco guerla iraunguitu denean.

Eztuçu çure arimaren exai handiagoric eta gaichtoagoric ceroni baino, baldin çure izpirituarekin bakean ez baçare.

Behar duçu çure burua cincinez mezpreçatu, nahi baduçu çure haraguia eta odola osoki garaitu.

Herabe duçu bertceren borondateari osoki arrimatcera, ceren sobra maite baituçu oraino çure burua.

2. Cer da miresteco çuc Yaincoa gatic obeditcea guiçon bati, etçarenaz gueroztic herraux, eta ez deus baicen? Ni eguin naiz bada çure gatic guiçonen obedient, naicelaric guciz gora, eta guciz podorosa.

Gucietaco humilen eta azken eguin naiz, ene humiltasuna balia dakiçunçat çure urgûluaren garaitceco.

Herrauxa, ikhasaçu beraz obeditcen; lurra, humilia çaite; ongarria, utzaçu çure burua osticatcerat.

Ikhasaçu çure nahi guciei ukho eguiten, eta obediencia gucietarat arrimatcen.

3. Hasarra çaite sainduki çure buruaren contra, eta etçaçula utz urgulua çure baitan bicitcerat.

Eguiçu çure burua hain chume, emaçu hain behera non batbedera baitabilke çure gainean carricaco balsaren gainean beçala.

Guiçon banoa, certaz errencura çaitezke? Bekhatoros hambat maneraz liçundua, nola atrebitcen çare mintçatcerat, çuri eguiten çaizkitçun hirriez? Hambatetan çure creatçailea ofensatu, eta ifernua merecitu duçun ondoan.

Bizkitartean ene misericordiac barkhatu darotçu ceren çure arima preciatu içatu baita ene beguietan.

Eta ene amodioaren seinale horiec eman darozkitçut ene ganic içatu tutçun ontasunez bethiere eçagutça içan deçaçuntçat, eta çutazco mezprecio guciac pacientki paira detçaçuntçat.

Cer eguin behar dut beraz?

Obedi çaçu çure aintcindariei ez choilki

campoz, eta gauça errechetan; bainan bihotcez, eta çure amodio propia, edo çure nahia guehienic gurutçatcen dutenetan. Cer diteke hortaco Yesu-Christoren exemplua duçun baino arraçoin sarkhorragoric? Yainco guiçon eguin hura guiçon baten manupeco ikhusi ondoan? cer bista dute gure baitan desobedienciec eta errencurec? cembatenaz ere obeditcea guehiago gostatcen batçaitçu, yuya çaçu, hambatenaz bertceren azpico içaitea beharrago duçula.

Othoitça.

O obedientciaz sorthu, obediencian bici, eta obedienciaz hil çaren Salbatçaile amulxua, eguin dieçaguçu, othoi, gracia çure phartez manatcen dautcutenen alderat obedient içaiteco, çuc çure aintcindarientçat hartu nahi içan tutçunen alderat eracuxi içan duçun amulxutasun berarekin; guciz gainetic miragarri eguiten çaituen berthute huntan çu imitaturic, içan gaiten egun batez çure lorian! Halabiz.

XIV. CAPITULUA.

Yaincoaren yuyamenduetan pensatuz behar dugula beguiratu obra onen banaloriatic.

ARIMAC.

Yauna, çure yuyamenduen ihurtçuria aditcen dudanean, beldurrac, eta ikharac inharrosten tu ene heçurrac, eta ene arima transitcen du icialdurac.

Harritua guelditcen naiz eta nahasia ikhustean ceruac-ere *eztirela garbi çure beguietan.*

Baldin causitu baduçu corrupcionea ainguerue-tan-ere, eta ez badiotçute barkhatu, helas! cer içanen da nitaz?

Içar distiant hec erori dire cerutic, eta herrauxa baicen ez naicena cer burupe *edo confientcia duket.*

Hanitz presuna ceinen obrec laudagarriac baitciduriten erori dire, ecin erran beçain behera, eta aingueruen oguiaz hazten cirenec eguin dute bere axeguina urden bazco liçunaz.

2. Ezta beraz saindutasunic, çuc urruntcen baduçu çure escua gure ganic.

Ezta çuhurtciaric, çure arguiaz ez bada guidatua.

Ezta indarric çure laguntça gabe.

Ezta garbitasunic segurean, çure gracia gabe.

Eta finean guiçonen ernetasun gucia ezta deus baliatcen çure artha gabe.

Çu gure ganic urruntcen çarenean erortcen gare, eta galtcen gare; çu bihurtcen çaizkigunean altchatcen gare, phizten gare.

Cordocan gare bethi; choilki çuc borthiztcn gaitutçu; bethi gare ephel, çuc berotcen gaitutçu.

3. Oi ala nic arraçoin baitut neure buruaren mezpreçatceco! Ala nic hanitz behar baitut humiliatu, eta guti preçatu ene baitan on diruriena!

Certaraino behar dut eceztatu çure yuyamenduen tulumbiotan barna sartcen naicenean, ceinec iracasten baitarotet ez deusetic heldu naicela, eta ez deus baicen ez naicela.

O pisutasun negurri gabecoa, carga ecin yasanezcoa! O ixaso hondo eta bazter gabe-

coa ceinetan causitcen bainaiz hondatua, eta ceinetan nondic nahi mira nadin ez baitut causitcen ezdeustasunic baicen neurebaitan.

4. Non gordeco da beraz ene baitan, urguluaren erroa, eta ene berthute aphurraz dudan burupea *edo confientcia.*

Ene bana-loria gucia galtcen da, eta hondatcen çure yuyamenduen tulumbio barnean.

5. Cer da guiçona çure aitcinean? *Buztina atrebituco dabada altchatcera bere moldatçailearen contra.* Laudorio banoec nola hant ahal deçakete bihotz bat Yaincoaren aitcinean humiliatua, eta beheititua?

Munduco lausengu guciec ecin altcha deçakete bihotz bat eguia berac aspiratu duena, ez eta aldara laudorio guciez Yaincoa baitan bere esparantça fincatu duena.

Ecen lausengagarri hec eztire deus; suntsituco dire bere hitcen soinuarekin; *bainan eguia badago eternitate gucian.*

Cer eguin behar dut beraz?

Hortic compreni çaçu Izpiritu Sainduac emaiten dauzkitçun abisuen premia, erraten darotçunean (çure salbamendua eguin deçaçun beldur eta ikhararekin. Yaincoaren gracian baçare ere bethi eror belduriçan çaiten). Hortic yuya çaçu cein esparantça handia behar dugun içan Yaincoaren baitan, aingueruac lehen bekhatuan galdu, eta guri bekhatutic alchatceco hambat moyen emaiten daucunaz gueroz. Bainan ez ahantz cein hobendun, eta cein dohacabe behar den içan Yaincoaren beguietan, moyen hetaz baliatcea guerorat egortcen duena.

Othoitça.

Harritua, Yauna, çure yuyamenduen barnetasunaz, huna non naicen oraidinoco nere biciaz deus onic yuya ez deçakedan estatuan; eta çure gracian banaiz-ere, mement guciez haren galtceco irriscuan. Cer dolore, cer lastima, hortan baratcen banintz? bainan oraidinocoan enetçat içan duçun pacienciac berac ihardesten daut çure misericordiaz. Eguidaçu, othoi, gracia, guehiago demboraric galdu gabe, baliatcerat ekharria içaiteco. Halabiz.

XV. CAPITULUA.

Eztugula nahi behar Yaincoac nahi duenic baicen.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, huna aldi gucian atchiki behar duçun solasa. Yauna, hauche eguin bedi baldin çure nahiaren arabera bada. Yauna, gauça hau çure loriacotz balin bada guertha bediçure icen sainduaren ohoretan.

Yauna, ikhusten baduçu nic nahi dudana on dela ene arimacotz, eta progotchos epe salbamenducotz, arren eguidaçu balia nadin çure ohoretan.

Bainan eçagutcen baduçu caltiar nukela, khen dieçadaçu othoi guticia hura.

Ecen eztire Izpiritu saindua ganic heldu guticia guciac, ez eta on eta probetchos diruritenac-ere.

Gaitz-ere da chuchenki yakitea ea gure desirac heldu diren izpiritu ona ganic, ala gaichtoa ganic, ala eztiren heldu gure izpiritu propiotic.

Hanitz presuna azkenerat enganatuac guerthatu dire, ceinec baitciduriten hastean izpiritu onaz guidatuac cirela.

2. Hala beraz gogorat heldu çaizkigun gaucetaric eztugu behar deus desiratu edo galdetu humiltasunekin eta Yaincoaren beldurtasunekin baicen ; eta bere gainki orduan behar dugu utci guciac Yaincoaren nahirat, eta erran behar diogu errespetu handirekin.

Yauna, çuc dakiçu cer den hobe ; eguin bedi hau edo hori çure nahi sainduaren arabera.

Indaçu placer duçuna, placer duçun maneran, eta placer duçun demboran.

Eguiçu nitaz behar dela dakiçuna, çuc nahien duçuna, eta çure loriarentçat hoberen dena.

Eman naçaçu nahi duçun lekhuan, eta gauça gucietan compli bedi ene baitan çure borondatea.

Çure escuan naiz, guida naçaçu, eta erabil placer duçun beçala.

Bai, Yauna, huna non naicen çure cerbitçaria prest gauça gucietarat, ecen eztut enetçat bici nahi ; bainan bai çuretçat, ochala eguin baneça digneki eta perfetki !

Othoitça.

3. O Yesus, guciz ona eta urricalmenduxua, eguiçu arren çure gracia bethi *enekin içan* dadin, *enekin trabaila* dadin, eta fineraino bethi enekin egon dadin.

Desiraraz dieçadaçu bethi guehienic çure gogora dena, çure borondatea den bethi enea; enea yarraic bekio bethiere çureari, eta enea bethi yunta bedi çurearekin.

Nahi içatea, eta ez nahi içatea dire osoki çure baitan, eta ene baitan halaco façoinez non ez baituket ahalic nahi içateco çuc nahi eztuçuna, edo ez nahi içateco çuc nahi duçuna.

4. Arren eguiçu naicen hila munduco gauça gucientçat, eta dudan lakhet munduaz ahantcia, eta arbuyatua içatea çure amorea gatic

Eguiçu arren çure baitan causi deçadan neure sosegua, eta ene bihotçac gauça gucietan baino hobeki çure baitan causi deçan bere bakea eta bozcarioa.

Çu çare eguiazki bihotceco bakea; çu bakharric çare gure arimaco sosegua.

Çutaz campoan ezta penaric eta khechaduraric baicen.

Beraz ene loa eta pausua hartuco dut bake soberano hartan, ceina baitçare çu ceroni, ò ene Yaincoa, ene ontasun guciz handia eta eternala.

Cer eguin behar dut beraz?

Deusic ez çaucu heltcen Yaincoaren nahitic baicen, eta harrec permetitcen dituenac gure probetchutan dire. Guri probetchos iduritcen çaucuna, baditeke caltecor. Nahi içan çaçu beraz Yaincoac nahi duena, harrec nahi duen guisan, eta harrec nahi duen demboran. Çaude atçarria çure huxez haren nahiei contrestaric ez eguiteco. Hortacotz enseya çaite gueroago guehiago çure nahiari ukho eguiterat.

Othoitça.

O! Yaincoa guciac çure borondateaz erreguelatcen dituçuna, içan çaite, othoi, ene nahi eta accione gucietan ene guida. Uzten dut osoki nere borondatea çure escuetarat, çuc nahi duçuna, eta çuc nahi duçun beçala baicen ez nahi içaiteco. Eguiçu çure graciaz deusec ez naçan aldara sentimendu hortaric. Halabiz.

XVI. CAPITULUA.

Yaincoa choila baitan bilhatu behar dugula gure consolacionea eta sosegua.

ARIMAC.

Ene Yaincoa, eztitut hemen igurikitcen, bainan eternitatean ene descansucotz desira edo pensa ahal detçakedan gauça guciac.

Munduco consolacione guciac neronec banitu-ere, eta lurreco axeguin guciez goça banendi-ere, segur da ez litezkela hec guciac dembora lucetaco.

Beraz, ó ene arima, ecin causi deçakeçu bozcario oso, eta perfetic çure Yaincoa baitan baicen, ceina baita pobren consolatçailea, eta humilen habea edo sustengua.

Iduricaçu aphur bat, ene arima, iduricaçu compli daitecen Yaincoaren aguintçac, eta ontasun gucien bethetasuna içanen duçu ceruan.

Yaincoaren ordenuen contra oraingo ontasunac desiratcen baitutçu ontasun eternalac galduco tutçu.

Munduco ontasunez balia çaite eta cerucoac desira çatçu.

Ontasun iragancorrec etçaitçakete osoki contenta, ceren ez baitçare eguina hetaz goçatceco.

2. Munduco ontasun guciac bacintu-ere etcintezke hargatic dohaxu, ecen Yainco gauça gucien creatçailea baitan datça çure eguiazco çoriona.

Bai, Yainco choilac eguiten du gure dohaxutasuna, ez munduaren maitatçailec preçatcen duten beçalacoa; bainan Yesu-Christoren cerbitçari leyalec igurikitcen duten beçalacoa, eta arima garbiec, eta bere gogo eta desira guciac ceruan dituztenec noicic behin mundu huntan berean gustatcen duten beçalacoa.

Mundu huntaco consolacioneac falsoac dire, eta laburrac.

Ezta axeguin eguiazcoric, eta iraupenecoric Yaincoac bihotçaren barnean sentiarazten darocuna baicen.

Guiçon Yaincotiarrac berekin darabila lekhu gucietarat Yesu-Christo bere consolat-

çailea, eta erraten dio aldi gucian : Yauna, lagun çakiskit dembora eta lekhu gucietan.

Den ene consolacionea guiçonen consolacioneric ez nahi içatea.

Eta çure consolacionea faltatcen baçait-ere, çure borondatea eta çure frogantçac balia dakizkit.

Ecen çure colerac eztu bethi iraunen, eta çure dichiduac eztire eternalac içanen:

Cer eguin behar dut beraz ?

Yauna, çuretçat halaco moldez eguin gaitutçu, non gure bihotçac ez baituke pausuric çu ganarainocoan, cioen san Augustinec, eta hori frogatcen dugu egun guciez. Ez beraz conturic eguin munduco chuchen makhurrez ; bainan Yaincoaren ganat heltceaz ; eta beha dioçoçu Yaincoari, çure ontasun bakharrari beçala, eta sarri harekin içaiteco esparantçan emaçu çure consolacione gucia. Munduco on guciac aldarteca dire.

Othoitça.

Noiz içanen da, Yauna, ene bihotça lurreco axeguin gucietaric apartatua, çure gogoraco içaiteaz bertce dohaxutasunic munduan eçagutuco ez duen beçala? Ah! eguiçu, othoi, ene Yainco maitea, munduaren, eta guiçonen baithaco sosegua aldebat utciric, çure baitan eguin deçadan ene arimaren pausua bici naiceno. Halabiz.

XVII. CAPITULUA.

Gure buruazco artha guciac eman behar tugula Yaincoa baitan.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, utz naçaçu çure alderat nahi dudanaren eguiterat, nic badakit cer den on çuretçat.

Çuc guiçon guisa gaucez yuyatcen duçu, eta çure gogoetac, hala nola çure guticiac humanoac dire.

ARIMAC.

2. Horiec guciac eguiac dire, ô ene Yaincoa, çuc artha guehiago duçu nitaz nerorrec ahal dukedan baino.

Çure gainean bere artha guciez pausatcen eztena hirriscu handitan dabila.

Yauna, baldin ene borondatea bethi çure baitan fermu badago, eguiçu nitaz placer duçuna.

Ecen nitaz eguiten duçun gucia ecin diteke ona baicen.

Nahi duçu içan nadin ilhumbean? çaren benedicatua. Nahi duçu içan nadin arguian? çaren halaber benedicatua.

Placer nauçu consolatu? çaren laudatua. Placer nauçu afligitu, çaren orobat laudatua.

YESU-CHRISTOC.

3. Ene haurra, estatu hortan behar duçu eman çure burua, nahi baduçu enekin ibili.

Hain ungui egon behar duçu axecabei paratua nola bozcarioei.

Hain gogotic içan behar duçu pobre nola aberax.

ARIMAC.

4. Yauna, çure amorea gatic bihotz onez pairatuco tut çuc egorrico darozkidatçun sofricari guciac.

Çure escutic orobat nahi dut harthu ona eta gaitça, eztia eta khiraxa, bozcarioa eta

tristecia, eta orobat bethi eskerrac bihurtuco darozkitçut cer nahi den guertha dakidan.

Beira naçaçu solamente bekhatutic, eta eztut heriotcearen ez ifernuaren beldurric içanen.

Baldin ez banauçu bethicotz khentcen çure ganic; ez banauçu urratcen bicitcearen liburutic deusec ecin calteric eguinen darot.

Cer eguin behar dut beraz?

Eguiçu capitulu hortan Yesu-Christori arimac erraiten dioena. Seguratua, Yaincoac ez duela çure alderat fagorezco chederic baicen; çaude haren borondatera, osasunean beçala eritasunean, nahicaretan beçala axecabetan, soseguco demboran beçala guduan. Horrela ez tristeciac, ez axeguinac ez du altaratuco çure barneco bakea; ez eta barrayatuco çure gogoa Yaunaren orhoitçapenetic. Eta hola eguiten ez badugu, adi deçagun Yainco soberano harrec eguiten darocun errencura latzgarria profeta batez, çuen Yaincotçat eçagutcen banuçue, non duçue çor darotaçuen fidantcia.

Othoitça.

Yaincoa alde badut noren beldur içanen naiz, cioen lehenago çure cerbitçari handi batec, ò! Yainco guciz podoros eta ona? cembat arraçoinec ez dautet eracusten, ez choilki ene alde çarela, bainan oraino artha suerte guciac ene dohaxutasuneco ditutçula? eguiçu othoi, Yauna, profetac dioen beçala, certan nahi causi nadin, heriotceco ilhumben erdian berean, çure besoetarat nere burua emanic, çu baitan pausa nadin. Halabiz.

XVIII. CAPITULUA.

Pacienki behar ditugula sofritu munduco miseria eta nahigabeac Yesu-Christoc beçala.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, çure salbamendua gatic cerutic yauxi naiz, eta cargatu naiz çure miseriez, ez baitezbada hala beharrez; bainan çure ganaco amodio phuruz, ikhas deçaçuntçat pairatcen, eta bihotz onez mundu huntaco axecaben yasaten.

Ecen sorthu nintcen pontutic gurutcean hil naicen oreneraino ez naiz içatu dolore gabe.

Bici içatu naiz gauça gucien beharrean, aditu ditut maiz ene contraco iroi, eta errencura inyustuac, eztiki pairatu ditut desohoreac eta laidoac.

Ene ungui eguinac esker gaitcez pagatuac içatu dire.

Ene miraculuac blasfemioz, eta ene doctrina afruntuz eta mehatchuz.

ARIMAC.

2. Yauna, çure bicitcean hain patient içatu çarenaz gueroztic, eta pontu hortan guciz çure aitaren ordenuac complitu tutçunaz gueroztic; yustu da nic ceina bainaiz bekhatore dohacabe bat pacientki yasan detçadan axecabeac, eta çuc nahi duçun beçambat demboraz kharraya detçadan, ene salbamenducotz, bicitce flaco eta galcor hunen carga pisua.

Ecen bicitce hau pisu eta penagarri delaric çure graciac eguiten du merecidun, eta çure saindu gucien exempluac eztitcen tu,

eta ohoragarri errendatcen mundu huntaco sofricariac.

Consolacione guehiago ere dugu orai legue çaharrean baino, ceinetan ceruco athea herxia baicen, eta haraco bidea gutiago eçagutua noiz eta ere hain gutic baitçuten artha bide haren bilhatceco.

Orduan yustu cirenac-ere ecin sar citezken ceruco erresuman, ceren hango athea ecin idec baitciteken çure pasioneco dolorez, eta çure heriotcearen merecimenduz baicen.

3. Cer esker eta eçagutça eztarotçut beraz çor niri eta fidel guciei eguin darocuçun graciaz çure erresuman sartceco hain bide çucena, eta segura eracuxi darocuçunaz gueroz.

Ecen çure bicitcea gure bidea da, eta pacientciaren medioz goaz çure ganat, ceina baitçare gure khoroa, eta golardoa.

Çu ceroni ez bacine abiatu gure aitcinean, çuc ez bacinarocu eracuxi bide hura, nor sartuco cen sofricarien bidean.

Cembat lagozke guibelerat, eta banitz urrun, çure exemplu ederrac ez balituzte beguien aitcinean.

Eta hambat miraculu, eta instruccionen ondoan ephel, eta nagui bagare; cer liteke bada argui distiant haren laguntça ez baguindu çuri yarraikitceco.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoac egortcen dauzcu mundu huntaco laceriac, eta gurutceac gure berthutearen frogatceco, eta gure bekhatuen gaztigutaco. Eta gucietaco gurutceric nekhagarriena gure umore mudacor, eta errebesa, gure burua dugu. Ikhus-çaçu, eta orhoit çaite maiz Yesu-Christoc cer, eta certaco pairatu duen, eta cein amulxuki. Pensa çaçu serioski, ea cein latzgarri içanen den Salbatçaile maitearen pacienciazco exemplu hori egun batez presuna minbera, eta errencurarientçat. Enxeya çaite arimac capitulu hortan eracusten dituen sentimenduetan sartcerat.

Othoitça.

O! Yesus maitea, çu hunenbat doloreren erdian ikhus eta, norc uste içan deçake ceruan çure loriara hel ditekela sofricariric gabe? Ah! Yauna borthitz naçaçu nere fla-

keciaren contra. Othoizten çaitut enetçat içatu duçun pacientciaz, eguin dieçadaçudan arren gracia, çure urhax dolorosei curayoski yarraikiric, çure loriara heltceco. Halabiz.

XIX. CAPITULUA.

Nola behar ditugun pairatu afrontuac eta mezprecioac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, cer duçu errateco, ulçatçu errencurac, beiratu ondoan ene pasioneari, eta sainduen sofricariei.

Eztuçu *oraino odolaren ichurtceraino sofritu.*

Çure pena guciac deus gutiac dire hanitz bertcen aldean, ceinec pairatu baitituzte hain tentacione borthitçac hain axecabe gogorrac, hain frogantça husuac eta luceac.

Çure gogoan erabilçatçu hekin sofricari handiac, eta çure chumeac errechkiago pairatuco tutçu.

Eta chumeac iduritcen ez baçaizkitçu ikhusaçu ea eztituen çure pairu escasac handitcen.

Bainan nahiz diren handiac, edo chumeac, enxaya çaite hekien eztiki pairatcerat.

2. Cembatenaz baitçare sofritcerat emanago, hambatenaz duçu çuhurtcia eta merecimendu guehiago; eta gaitçac arinago idurituco çaizkitçu deliberacione fermuez, eta usantça saindu batez borthiztua baçare.

Ez erran: *Ecin paira deçaket hau, edo hori hunelacoren ganic; ezta hori gauça bat sofritu behar dudana; calte handi bat eguin daut; egundaino orhoitu ez naicen gaucez iroi eguiten daut. Bertce baten ganic sofri neçake gogotic, eta ene ustez sofritu behar nuken beçala.*

Solas horiec arraçoin gabecoac dire, eta horla mintço denac eztu consideratcen, ez pacientciaren merecimendua, ez hura khoroatu behar duen Yaincoa; bainan bai choilki nolacoa den eguin çayon ofensa, eta nor den ofensatçailea.

3. Nahi duena ganic, eta nahi duen beçambatean baicen sofritu nahi eztuenac eztu eguiazco pacientcia.

Eguiazco pacientciac eztu behatcen noren ganic heldu çayon, ala heldu çayon goragoa ganic, ala berdinecoa ganic, ala behera-

gocoa ganic, ala prestua ganic, ala gaichtoa ganic.

Bainan nor nahi denec ofensa deçan, cein nahi den demboraz, edo cer nahi den maneraz guertha dakion axecabe hura hartcendu bethiere esker onez Yaincoaren escutic eta uste du abantail handi bat dela harentçat; ceren eta Yaincoa gatic pairatcen den gauçaric chumena ez baita merecimendu gabe.

4. Çaude beraz bethi gudurat prest, nahi baduçu içan bitorios. Pacientciaren khoroa ecin dukeçu gudu gabe; ez baduçu nahi pairatu, ezluçunahi khoroatu.

Khoroa ardiexi nahi baduçu, eguiçu gudu borthizki, paira çaçu pacientki.

Ez da nekheric gabe soseguric, ez eta guduric gabe bitoriaric.

ARIMAC.

5. Ene Yaincoa, çure graciaz errech diecadaçu ene baitan naturaleçac ecin daitekena.

Badakiçu ez naicela gai hanitz sofritceco, eta den gaitcic chumenac bihotça erorarazten darotala.

Ene Yaincoa, eguidaçu, othoi, gracia desira, eta maita detçadan çure ohoretan ene frogatceco egortcen darozkidatçun sofricari guciac; ecen abantail handi bat da enetçat çure amorea gatic pairatcea, eta persecutatua içatea.

Cer eguin behar dut beraz?

Hartu behar duçu, Dabid erregueac beçala, nihorc eguiten dauzkitçun mesprecio eta escarnioac Yaincoaren manuz eguiten dauzkitçutela, eta yasan behar tutçu errencuratu gabe; seguratua Yaincoaren aitcinean mereci duçun baino beherago etçaituztela emanen. Apostoluac nihoiz ez ciren alegueragO, Yesu-Christoren gatic presondeguian eta açotatuac içan ondoan haino: eta pensa çaçu munduan afrontuac hain min çaizconac, cer beguitarte duen igurikiteeco gurutcearen gainean bere laidoztatçaile, eta hiltçailençat barkhamendua, bere Yaincoari galdetu dioen seme Yaincoa ganic.

Othoitça.

Çu, ene Salbatçaile maitea gurutceco laidoen erdian hain amulxu, eta nic hemengo

afrontu chume bat ecin yasan, oi diferentcia ahalca eta condemnagarria enetçat! ô! khirastasunaren arraiçonac, ala funx gabeac causituco batçaituztet haren aitcinean! Yesus ona, eguidaçu gracia ene bihotçaren çure pacientciazco exempluaren gainean moldatceco; eta hortaric ez nadin aparta heriotceraino. Halabiz.

XX. CAPITULUA.

Eçagutu behar dugula gure flakecia, eta mundu huntaco miseriac.

ARIMAC.

Aithortuco *dut ene buruaren contra ene inyustutasuna*, bai, ene Yaincoa, aithortuco darotçut ene flacotasuna.

Maiz, den gauçaric chumenac loxatcen nau, eta tristatcen. Maiz deliberatcen dut borthitz içanen naicela; bainan tentacionea heldu da bai, erortcen naiz nahasmendurat.

Batçuetan ezdeuskeria batec etchatcen nau tentacione handitarat.

Eta noiz-ere uste baitut segurean naicela,

ceren eztudan hirriscua aitcinean ikhusten, betan causitcen dut neure burua den baiceric chumenaz etchatua.

2. Urrical bekiçu beraz, Yauna, ene beheratasuna, ene flacotasuna, çutaz ungui eçagutua.

Nauçun urricari, eta athera naçaçu *balsatic, han sarthua ez nagoen, ecin nihoiz ilkhizco maneran.*

Horrec bada doloratcen nau, eta ahalcatcen çure aitcinean, ikhusteaz cein erorcor naicen, eta cein indar guti dudan ene pasionen garaitceco.

Eta ez osoki consentitu arren, halere bethiereco gudu horrec penatcen nau hanitz eta choil unhatcen naiz ene bici gucia barneco guerla hortan iragateaz.

Eta oraino ene flakecia guehiago eçagutarazten darotana da gogoeta lohi, eta ahalcagarriac errechkiago ene arimaŋ sartcen baîtire handic ilkhitcen diren baino.

3. O Israelgo Yainco podorosa, guiristinoen arimac hain samurki maite ditutçuna, ikhusaçu çure cerbitçariaren penac eta

nekheac, eta eztioçoçula falta çure laguntça bere behar gucietan.

Ceruco indarraz borthitz naçaçu, beldurrez nausi dakidan guiçon çaharra, haragui dohacabe hau, ceina oraino ez baita izpirituaz ungui garaitua, eta ceinaren contra bethiereco gudua baitugu.

Helas! cer da bicitce dohacabe hau! Axecabez, eta laceriaz gucia cargatua, arthez, eta exayez alde gucietaric inguratua.

Tentacione bat iragan deneco bertcea heldu da, eta lehenbicico guduac oraino dirauela hanitz bertce aguertcen dire betan ustecaberic.

4. Eta nola maita ahal deçakeguke bicitce bat hambat behacunez bethea, hambat axecabei, eta miserieri paratua?

Nola ere deith ahal daiteke bicitcea, hambat içurri eta heriotceren ithurburu phoçoindatua?

Halaric-ere maite dute hanitcec, eta bicitce huntan bere axeguinac bilhatcen dituzte, hanitz yende errencuratcen dire mundua gueçurtia eta banoa dela, halere nekhez

uzten dute, ceren gure pasioneac gure arimetan sobra baitire nausi.

Hala badire munduan gauça batçu hura maitarazten darocutenac, eta badire bertce batçu higuin arazten darocutenac.

Alde batetic *haraguiaren guticiec*, *beguietaco axeguinec*, *bicitceco urguluac* maitarazten darocute mundua, bertce aldetic nekhec, penec, eta miseriec (ceinac baitire bekhatuaren gaztigu yustuac) higuin arazten darocute.

5. Bainan helas! munduaren amodioa garaitcen da hanitcen arimetan, eta munduarekin yosiac direnec bilhatcen tuzte beroki sensuen axeguinac.

Ceren hainec ez baitute egundaino ikhusi berthutearen edertasuna, ez gustatu Yaincozco goçotasunac eta axeguinac.

Bainan mundua cincinez arbuyatcen dutenec, eta Yainco choilarentçat erreguela sainduen azpian bici nahi dutenec eçagutcen tuzte ungui Yaincoac mundua uzten dutenei aguintcen diotçaden goçoac eta desçanxuac, eta ikhusten clarki, certaraino mundanoac enganatcen diren berac, eta certaraino bertceac enganatcen dituzten.

Cer eguin behar dut beraz?

Hor ikusten duçu nolaco lacerian *edo miserian* daramagun bicitce hau, eta cein deithoragarria den munduco goçoac bilhatcen dituztenen çoramendua. Bainan horien eçagutcea ez da aski ; behar gare humiliatu Yaincoaren aitcinean gure flakecien bistan, eta deliberatu bici gareno heyen contra guducatcerat. Gure ahalei baicen behatcen ez baguinu loxatceco-ere baliçate, bainan indarra bera den gure Yaincoaren baitan behar gare fidatu ; berthutea, eta guduan iraupena, hari humilki galdatu. Hola gure flakecia bera indar bilhacatuco da, dio Izpiritu sainduac.

Othoitça.

Ikhusten dut, Yauna, Yob sainduarekin, miseriaric eta miseriaric baicen ez dela bici hau. Cer çorigaitz çutaz goçatceco eguintçat bere burua eçagutcen duenarentçat ! ordean hula du mereci ene infidelitateac. Errendatcen naiz, ô ! saindutasunaren Yaincoa, errendatcen naiz çure escuaren colpeari. Laceria *edo miseria* hautan içanen naiz placer duçuno. Eguidaçu, othoi, gracia, hautaric lekhora çu gana naiteken beçala, hautaz baliatceco. Halabiz.

XXI. CAPITULUA.

Yainco choila baita causitu behar dugula gure sosegua.

ARIMAC.

O ene arima, gauça gucietan, eta gauça gucien gainetic pausa çaite çure Yauna baitan, ecen hura da saindu gucien sosegu eternala.

O Yesus, guciz ezti eta maitagarria, eguidaçu gracia çure baitan bake eta sosegu guehiago causi deçadan creatura gucietan baino, osasunaren, eta edertasunaren abantailetan baino ; ohorean, eta lorian baino ; podorean eta cargutan baino ; arguietan, eta yakintasunetan baino ; aberastasunetan, eta ancean baino ; bozcario eta axeguinetan baino ; fama onean eta laudorietan baino ; eztitasun, eta consolacione gucietan baino ; munduco esparantça eta aguintça gucietan baino ; guc ahal dituzkegun merecimendu, eta nahi saindu gucietan baino.

Eguidaçu gracia, ene Yaincoa, guehiago preça çaitçadan çu cerorri çure ganic errecibi

Universidad de Deusto
Biblioteca

ahal detçakedan dohain, eta fagore guciac baino; ene arimac çure ganic içan ahal detçaken placer, eta bozcario guciac baino; finean eguidaçu fagore guehiago estima deçadan çure baithaco pausu saindua, ecen-ez aingueruac, arkhanyeluac; eta izpiritu dohaxuen armadac; ecen-ez ontasun agueri direnac, eta eztirenac; eta hitz batez çutaz bertce guciac, ô ene Yaincoa.

2. Ecen, Yauna, çu cerorri çare ona, eta guciz ona gauça gucien gainetic; çu cerorri çare guciz gora; eta guciz podorosoa; çu cerorri bai çuretçat bai bertce gucientçat aski çarena; deusen, edo nihoren beharric ez duçuna.

Çuc cerorrec ematen tutçu eguiazco consolacioneac eta goçoac.

Çu cerorri çare edertasuna bera, ontasun eta amodio bera; çu çare mayesta, eta loria bera; çu çare ithurburu bakharra, ceinetan baitire, içatu eta içanen baitire betan ontasun guciac bere perfeccioneric handienean.

Hala çutaz bertce ematen darozkidatçun guciac chume çaizkit, eta eztire aski enetçat çure buruaz ematen darozkidatçun eçagutçac

eta arguiac, eta çure loriaz eguiten darozkidatçun aguintcec ez naute contentatcen, ez baçaitut cerorri ikhusten, eta ez banaiz çure baitan descansatcen.

Hortaz non ene bihotçac causi deçake eguiazco soseguric, eta contentamendu osoric ez bada creatura guciac baino, eta dohain guciac baino gorago altchatcen çurekin bat eguiteco?

3. Ene arimaren espos maitea, Yesus, amodio garbiaren ithurburua, mundu guciaren Yaun eta Yabea, *norc libratuco nau, eta norc emanen darozkit hegalac çure ganaraino hegaldatceco, eta çure baitan pausatceco?*

Helas! noiz ethorrico da memento dohaxu hura ceinetan bertce lan guciac utciric ez baitut içanen bertce eguitecoric baicein ikhustea eta gustatcea cein eztia eta goçoa çaren, ô ene Yauna eta ene Yaincoa?

Noiz içanen naiz hain barna sarthua çure baitan, hain sustatua çure amodioz non ez baitut neure burua sentituco, eta çu bakharric gustatuco baitçaitut sensuez goragocc manera batean, ceina ez baitute guciec eçagutcen?

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
BIBLIOTECA

Orai bici naiz plainuen, eta haxbeherapenen erdian, eta ene bicitce dohacabea dolorez yasaten dut.

Ecen miseriazco haran huntan guerthatcen dire mila gaitz, ceinec ene izpiritua altaratcen, nahasten, eta ilhuntcen baitute, eta ene bihotça trabatcen dute, barrayatcen, thiratcen, cargatcen, halaco maneraz non ecin baitoake çure ganaraino, eta ecin goça baitteke çure arraiciez, ceinec eguiten baitute dohaxuen bethiereco bozcarioa ceruan.

Ene Yaincoa, hunki beçaitçate ene haxbeherapenec, eta nic lurraren gainean pairatcen tudan hambat gaitz diferentec.

4. O Yesus, *loria eternalaren distiadura*, arima desterratuaren consolamendua! ene ahoa mutu da çure aitcinean; bainan ene bihotça mintço çaitçu ene ichiltasunaz.

Noiz arteraino ene Yaunac beranduco du ene ganat ethorri gabe?

Bethor ene ganat, ene pobrecian ene consolatcerat.

Heda biecat escua, eta athera benaça ene laceria *edo miseria* gucien artetic.

Çato, Yauna, çu gabe eztenaz gueroz bicitcean bozcariozco ez egunic, ez orenic, eta çu çarenaz gueroz ene neurimendua, eta habea.

Hagorandua naiz, mundu huntan presundegui belz batean beçala gaitcez cargatua, burdinez herxtua, çure presenciaren arguiac consola naçakeen arteraino, eta çure beguitarte arrayac libertatean eman naçan arteraino.

5. Berceec galde beçate çure orde, eta bilha beça:e nahi badute, nic ecin deus bertceric maita deçaket; ezta, eta ezta içanen ene goracoric çu baicen, ô ene Yaincoa, ene esparantça, eta dohaxutasun eternala.

Ez, eznaiz ichilduco; eznaiz behin-ere guelldituco othoitz eguitetic; çure gracia bihur dieçadaçun arteraino, eta barnean ene bihotçari mintça çakizcon arteraino.

YESU-CHRISTOC.

6. Huna non naicen bada, ene haurra, heldu naiz çure ganat, ceren deithu bainauçu. Çure beguietaco nigarrec, çure arimaco desirec, çure bihotceco humiltasunac, eta urrikiac yauxaraci naute cerutic, eta erakharri çure ganat.

ARIMAC.

Eguia da, Yauna, deithu çaitut, çutaz goçatcea desiratu dut, eta deliberatu dut gauça guciei ukho eguiterat, choilki çurekin yuntatcea gatic.

7. Bainan çuc lehenbiciric hertchatu nauçu çure bilhatcerat. Çaren beraz benedicatua, ene Yaincoa, ceren çure cerbitçarientçat hambat ontasun içatu duçun çure misericordia infinituaren arabera.

Cer erran deçake beraz guehiago gathibo pobre batec çure aitcinean humiltatcea baicen, behin ere bere bekhatuen, eta behera-tasunaren orhoitçapena galdu gabe.

Ecen ceruan eta lurrean eguin tutçun gauça miragarri gucietan ezta çure pareric.

Çure obra guciac perfetac dire; çure yuyamenduac çucentasunez betheac; eta creatura guciac çure probidencia guciz çuhurraz gobernatuac dire.

Çaren beraz laudatua eta lorificatua, ô Yesus, aita eternalaren çuhurcia.

Ene mihia, ene arimac, eta creatura guciec elkharrekin lauda, eta benedica beçaitçate eternitate gucian.

Cer eguin behar dut beraz?

Capitulu hortan erraten tutçun eguiac içateco, behar tutçu izpiritua, eta bihotça içan Yaincoaz hartuac gauça gucien gainetic. Çure barneac behar du içan occupatua haren yusticiari satisfatceaz, hari çure accionen sacrificioaren ofritceaz, eta guerotic guerora haren gogoraco içaiteaz, eta axecabetan, ala nahicaretan haren baitan eman çure pausua. Hortacotz behar duçu lachatu çure bihotça lurrari yosten duten amarradura gucietaric, ukho eguin hemengo axeguin galcorrei, bai eta asco cilhegui direnei-ere, cilhegui ez direnez Yaincoari eguin diotcitçun afrontuen arabera.

Othoitça.

Cerc eguin deçake ene sosegua ceruan, ez lurrean çuc baicen, ô ene Yaincoa; bainan nola atrebituco naiz, çu ene baitharat deitcerat, eta hiratcen hari nauten laceria hautaric alicha naçaçun erraiterat? çure bihotz sacratua gogoaintcen duten hambat yaydura çaichtoz bethea dut barnea. Çato beraz, Yesus

maitea, çato ene bihotcera; eracux-çoçu çu çarela haren on gucia; eta eçarraçu cerorec, çutaz baicen occupatu nahico ez duen estatuan. Halabiz.

XXII. CAPITULUA.

Orhoitu behar dugula bethi Yaincoa-ganic içatu ditugun unguiez.

ARIMAC.

Yauna, *idec dioçoçu ene bihotça çure legue sainduari, eta iracax dieçadaçu çure manamenduen bidean ibiltcen.*

Eguidaçu, othoi, gracia eçagut deçadan çure borondate saindua, eta errespetu, eta atencione handirekin gogoan erabil detçadan çure ganic içatu ditudan ontasun yeneralac eta particularrac; hetaz orhoituric bihur dietçakitçudantçat çor darozkitçudan eskerrac.

Eguia da, eta aithortcen dut, ez naicela gai çure fagoreric chumeenaz-ere behar beçala çuri eskerren bihurtceco.

Infinituki urrun naiz çuc eguin darozkidatçun unguien merecitcetic, eta ausartatcen

naicenean çure Yaincozco mayestateraino beguien altchatcerat, haren distiadurac erorerazten nau liluramendurat eta flakeciarat.

2. Arimaco eta gorphutceco abantail guciac, barnean eta campoan ditugun dohainac, nahiz naturazcoac, nahiz graciazcoac, guciac dire çure ganic ditugun unguiac, ceinec eçagut arazten baitute çure manificencia, misericordia eta ontasuna.

Batçuec guehiago dute, bertceec gutiago, bainan guciac çureac dire; eta nihorc ecin duke den chumeena-ere çure ganic baicen.

Guehiago errecibitu duenac eztu hargatic burupe guehiago behar, guehiago mereci balu beçala, eztu behar altchatu bertceac baino gorago, eta ez arbuyatu gutiago duena; ecen gucietaco handiena eta hoberena da bere ganic deus eztuela uste duena, humillen dena, eta çuri eskerren bihurtceco arthosena.

Eguiazki norc-ere baitaroca bere burua mezpreçagarrientçat, eta dohainen errecibitceco gutienic gaitçat, haina eguiten da gai handienen errecibitceco.

3. Dohain gutiago errecibitu duenac eztu

behar tristatu, eta etçayo behar guehiago errecibitu duenari bekhaiztu.

Hobeki behar du mirexi, eta laudatu çure ontasun infinitua, ceinac hain liberalki dohainic eta gogotic, ichurtcen baititu bere ontasunac gure gainerat; presunen handitasunari, edo chumetasunari behatu gabe.

Gauça gucietan çu behar çare laudatu, ene Yaincoa; ecen gauça guciac çure ganic heldu dire.

Çuc dakiçu cer behar çayon batbederari, eta certaco behar çayon eman batari gutiago, eta bertceari guehiago, eztagocu guri diferencia horren eguitea; bainan bai çuri, Yauna, ceinac marcatu baituçu guiçon bakhotcharen merecimenduen negurria.

Hargatic, ene Yaincoa, fagore handi batençat dagoçat ez içatea dohain distiantic, guiçonen laudorioac eta ohoreac ene ganat erakhar deçakenic.

Eta norc-ere bere burua pobre, eta bilhuz baitacusa eztu hargatic behar tristatu, eta doloratu, aitcitic boztu behar du; ceren eta çuc, ô ene Yaincoa, humilenac, eta munduaren arabera mezpreçagarrienac hautatu baititutçu çure cerbitçaritçat, eta maitetçat.

Lekhuco dire çure apostoluac, ceinac eguin *baititutçu mundu gucico Prince.*

Bici içatu dire munduan errencura gabe.

Hain ciren humilac, hain malecia eta enganio gabeac: non hekien bozcario gucia baitcen *afrunturic handienen çure gatic pairatcea*, eta cer munduac higuintcen baitu, eta hura gogo onez besarcatcea.

5. Hargatic çu maite çaituenac, eta çure ungui eguinez behar den eçagutça duenac bere axeguinic handiena behar du içan çure borondatearen eguitea, eta desiratcea compli daitecen haren baitan çure ordenu eternalac.

Hori behar da içan haren bozcario gucia, eta nahi behar du hain gogotic içan chumeena, nola bertce batec nahi bailuke içan handiena; hain content behar du içan azkeneco herrunca hortaz, nola bertce batec lehenbicicoaz.

Finean hambat bozcario behar du içan beheratua, mezpreçatua, eta fama gabe içateaz nola bertcec bailukete ohoreen, eta loriaren erdian içateaz.

Guciac baino guehiago estimatu behar duguna da çure loriaren maitatcea, eta hartan bozcario eta consolacione guehiago behar dugu causitu çure ganic erricibitu ditugun, eta errecibituco ditugun ontasun gucietan baino.

Cer eguin behar dut beraz?

Ez da mementic Yaincoaren ganic fagore handiric errecibitcen ez duçunic. Ez çaitecela eskergabe içan. Orhoit çaite maiz hetaz, eta bihur-çotçu bihotcez eskerrac, seguratua, içaiten tutçunac çure merecimenduez goragocoac direla. Ez çaçula desira munduan ospe eguiten duten dohainic, eta lakhet içan bekiçu bicitce ichila, eta gordea. Har çaçu arbuyoa merecitua beçala, eta maita mezprecioa Yesu-Christoren gatic. Horrelacoen gainean idekitcen ohi-tu Yaincoac bere gracia berecien trésorac.

Othoitça.

Deusic ez dut, deusic ez naiz, Yauna, çure ganic baicen, eta cer esker içan dut çuretçat? Helas! pretencione tcharrez bethea, eta munduco lanhoaz ixutua, nere baitharic

banitu beçala behatu diotet çure emaitcei. Sarthua, Yauna, nere baitan, huna non naicen ahuspez çure misericordia galdetceco, eta çure othoizteco, arren eman naçaçun çure beguitarte sacratuaren itçalean, nere ez deustasunaz, eta çure ontasunaz baicen ez penxatceco. Halabiz.

XXIII. CAPITULUA.

Lau abisu probetchos bihotceco bakearen âçateco.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, orai iracaxi nahi darotçut bakearen bidea, eta eguiazco libertatearena.

ÇARIMAC.

2. Eguidaçu gracia hori, Yauna; axeguinekin adituco çaitut.

YESU-CHRISTOC.

3. Ene haurra, eman çaite çure nahia baino hobeki bertceenaren eguitera.

Hauta çaçu hobeki gutia, ecen ez hanitça.

Bilha çaçu bethiere azkeneco lekhua, eta eman çaite bertceac baino beherago.

Desira çaçu eta othoitz eguiçu, çure baitan eguin dadin Yaincoaren borondatea.

Horra nolaco behar duen guiçonac bakean eta soseguan sartceco.

ARIMAC.

4. Yauna, solas labur horrec perfeccione handi bat cerratcen du.

Hitz baino sensu guehiago da hor eta manu baino fruitu guehiago.

Erreguela horiec leyalki beira ahal banetça, ez ninteke erechki eror altaramendurat.

Hortaz eçagutcen dut bakea eta sosegua galdu dudan gucian, çorigaitz hura guerthatu çaitala, ceren maxima saindu horietaric urrundu naicen.

Bainan çuc, ene Yaincoa, ceinac gauça guciac eguin ahal baiteçaketçu, eman dietçadatçu cure graciac; çure manuac compli detçadançat, eta eguin detçadançat ene salbamendua.

Gogoeta gaichtoen contraco Othoitça.

5. *Ene Yauna eta ene Yaincoa, etçaitecela urrun ene ganic; çato, othoi, ene laguntcerat;* ecen hanitz gogoeta gaichto altchatu dire ene contra, eta icialdura handiec altaratcen dute ene arima.

Hambat exayen artetic nola iraganen naiz çaurthu gabe, eta nola nic hec garaituco ditut?

6. Yauna, çuc erran darocuçu çure profetaren ahoz: *Ni çure aitcinean ibilico naiz, eta munduco podorosen urguluac beheratuco dut. Presondeguitaco atheac idekico ditut, eta aguertuco ditut gauçaric gordeenac.*

7. Beraz, Yauna, compli çaçu aguindu darocuçuna, *eta ni nahasten nauten gogoeta gaichto guciac sunxi bitez çure aitcinean.*

Ene esparantça eta consolacione bakharra, ene axecabe gucietan da çure ganat ihes eguitea, çure baitan fidantcia osoaren emalea, çure deitcea eta othoiztea, çure ganicaco consolacioneac pacienciarekin igurritkitcea.

Yaincoaren arguien galdetceco Othoitça.

8. Yesus, guciz ona eta maitagarria, ar-

gui naçaçu, othoi, barneco arguiaren arrayoez, eta ken çatçu ene arimatic ilhumbe guciac.

Ezteçaçula utz ene izpiritua errebelatcerat, eta hez çatçu ene tentacione muthiriac.

Eguiçu gudu ene alde, egorratçu ihesi bestia cruel hec, pasione gaichto hec, ceinec gure galtceco lausengatcen baicaituzte, *çure bothereac bakea eman dietçadantçat*, eta ene arima garbituric eguin dadintçat templu saindu bat, ceinetan contu gabe adituco baitire çure laudoriozco cantac.

Mana dioçoçute haiceei eta tempestei, erroçu ixasoari pausa adi, eta haiceari gueldi adi; eta berehala eguinen da calma handi bat ene ariman.

9. *Egorratçu çure arguia, eta çure eguia, lurraren gainean distia deçatentçat : ecen ni naiz lur hura ilhun eta agor dagoena*, çuc argui deçakeçun arteraino.

Çure graciac ichuratçu ene gainerat, ceruco ihintz hartaz busti çaçu ene arima, egorratçu debocione samur baten uriac lurraren ihintztatceco, eta hari erakharazteco fruitu onac eta excelentac.

Altcha çaçu ene arima bere bekhatuen carga pisuaz çapatua, ene desirac atchi çatçu ceruco gaucei lothuac, dohaxutasun soberanoaren goçotasuna dastatu ondoan ahalca nadintçat lurrerat gogoaren hedatceaz.

Thira naçaçu, ene Yaincoa, eta osoki aparta naçaçu creaturen iragaitçazco consolamendu gucietaric; ecen ezta creaturaric ene bihotça osoki sosegu, eta descanxa deçakenic.

Bat eguin naçacu çurekin bethicotz çure amodioaren lokharri ecin urratuzeoaz; ecen çu care bakharra çure maitatçaileentçat aski çarena, eta çu gabe alfer dire bertce guciac.

Cer eguin behar dut beraz?

Arimaco bakearen, eta concienciaco sosegaren içaiteco behar direla errandautçun, eta ascotan chehatu dituen moyanac, ekhartcen daitçu hemen autorrac lauretara. Harzkitçu ungui, eta obretan eman, Yaincoari hortaco graciac galdeturic, eta içanen duçu Yesu-Christoc aguinteen dautçun ona.

Othoitça.

Bai, Yesus maitea, exemplua eman darotaçu; eta ikhusten dut çure borondate sainduaren bide eguiazcoan ez naitekela içan, laur gauça horiec eguin gabe. Eguin nahi ditut, ene Yaincoa, lagun naçaçu, othoi, çure graciaren berthuteaz; hortaco behar dudan beçala, neure nahiez osoki biluzten eta gauça gucietan çurean pausatcen. Halabiz.

XXIV. CAPITULUA.

Eztugula behar curiostasunic berceren berrien yakiteco.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, ez içan curios, eta ezteçaçula traba çure izpiritua behar gabeco arthez.

Hunelaco edo halaco eguitecoetan cer doatçu çuri? Choilki yarraic çakizkit niri.

Batac duen hunelaco, edo halaco umore; bertceac eguin deçan hau, erran deçan hori edo hura, çuc cer achola behar duçu?

Ez duçu çuc berteeentçat ihardexico; bainan çure buruaz contu eman beharco duçu, cergatic beraz horla khechatcen çare, çuri eztoazkitçun eguitecoez?

Nic eçagutcen tut guiçon guciac, ikhusten tut iguzki azpian iragaten diren guciac, badakit batbeđera cer den, cer darabilan gogoan, cer nahi duen, cer chedez hari den.

Niri behar çaizkit utci artha horiec: çu çaude soseguan, eta utçatçu khechosac khecha ditecela nahi duten beçambat.

Cer ere eguinen baitu edo erranen guiçonac, bere contuco içanen du; ni ecin engañatuco nau.

2. Etçabiltçala fama handi bat ardiexi beharrez, hanitz adiskide eguin nahiz, edo handien estimua merecitu beharrez.

Horiec guciac eztire izpirituaren barrayatceco, eta bihotça ilhumbez bethetceco baicen.

Adiaraz nieçaçuke gogotic ene hitça, eta aguer secretu gordeac, beguira bacinaudez noiz heldu naicen çure ganat, eta idekitcen bacinarot çure bihotceco athea.

Çaren beraz goardiacor, atçarria othoitcetan, eta humil gauça gucietan.

Cer eguin behar dut beraz?

Presuna curiosa camporat dago bethi beha, eta bere barneaz, eta Yaincoarekilacoaz ez du conturic eguiten, dio san Bernatec. Hortic beretic cer bicio triste ez da curiostasuna? Bertce alde, cembat bertce bekhaturen ama, eta umea ez da? Presuna curiosa banitatez bethea da. Cembat medisencia eta calomnia ez du erran-arazten, eta segurki-ere erraten, bertcei barnean dutenaren atherateco. Bere hitz-uncikeriez cer guerlac ez ditu phitzten? Pisaçatçu beraz ungui, eta pratica capitulu hortaco maxima sainduac.

Othoitça.

Cembat aldiz ez dut frogatu, Yesus maitea, curiostasunac cembat barrayadura emaiten duen izpirituan, eta agortasun bihotcean. Ikhusten dut gaitzexi behar duçula çure secretuetan atchiki nahi tutçun gaucen ondotic dabilana. Arnegatcen dut, Yauna, seculacotz yaidura triste horri. Eguidaçu, othoi, gracia çuri yarraikitceaz bertce artharic ez içaiteco bici naiçeno. Halabiz.

XXV. CAPITULUA.

Certan dagoen bihotceco bukea, eta aitcinamendu ispirituala.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, erran diotet ene discipuluei, *Uzten darotçuet ene bakea, ematen darotçuet ene bakea, eta eztarotçuet ematen munduac ematen duen beçala.*

Guciec nahi dute bakea : orduan guciec ezlituzte bilhatcen bake eguiazcoaren ardiexeco bideac.

Ene bakea bihotcez humil, eta ezti direnentçat da.

Causituco duçu bakea, baldin pacientcia handia baduçu.

Baldin aditcen banauçu, eta ene manuac beiratcen baitutçu sosegu handi batez goçatuco çare.

ARIMAC.

2. Cer beraz eguinen dut, Yauna ?

YESU-CHRISTOC.

3. Goardia herxi bat iducaçu erraten eta eguiten tutçun gauça gucien gainean.

Ez içan bertce chederic ene gogora eguitea baicen, eta nitaz campoan ez deçaçula deus-ere ez bilha, ez desira.

Ezteçaçula temerarioki yuya bertceen errannez, eta eguinez, eta ezteçaçula traba çure burua çure eguiteco eztirenez. Manera hortan gutitan içanen çare altaratua, edo çure altaramentuac guti iraunen du.

Ecen bihotça bethi soseguan içatea, eta gorphutcean, edo izpirituan penaric ez sentitcea, hori ecin daiteke bicitce huntan, eta aurkhituco da solamente eternitateco pausuan.

Ez duçun beraz uste bake eguiazcoa ediren duçula, ceren ez duçun gaitcic pairatcen; edo osoki ona çarela, ceren ez duçun exairic; edo gucia perfeta çarela, ceren gauça guciac çure gogora doazkitçun.

Etçaçula balaber iduc çure burua berthute handitacotçat, eta Yaincoaz bereciki maitatutçat, debocione, eta samurtasun hanitz çure baitan sentitcen duçunean.

Ezta seinale horietan eçagutcen berthutearen maitatçaile eguiazcoa, eta eztago hortan gure aitcinamendu ispirituala, eta perfeccionea.

ARIMAC.

4. Certan bada, Yauna?

YESU-CHRISTOC.

5. Perfeccionea dago çure burua Yaincoari çure bihotz guciaz sacrificatcean, eta çure abantailac niholere ez bilhatcean, ez gauça chumetan, ez handitan, ez demboran, ez eternitatean. Halaco maneraz bai non bisaya bethi content duçula çure eskerrac bihurtuco baitiotçotçu Yaincoari, hain ungui çorigaitcetan, nola çorionean, guciac çuretçat orobat idukiric.

Baldin baduçu indarric, eta bihotcic aski, barneco consolacioneac galdu ondoan gaitz handiagoen-ere pairatcera preparatceco; baldin ez baduçu çure burua yustificatcen, alegaturic merecitu gabe gaztigu gogor hec pairatcen tutçula, aitcitic ene probidencia, eta saindutasuna adoratcen baditutçu guerthatcen çaizkitçun gaiz gucietan. Orduan ibilico çare bakearen bidean, eta esparantça ahal dukeçu *berriz-ere içanen duçula ene ikhusteco bozcarioa.*

Bainan çure buruaren mezprecio oso bate-

rat hel ahal baçaite, goçatuco çare bakezco abundantciaric handienaz; bederen mundu huntaco desturruan ahal daiteken beçanbat.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoac eman çaituen estatuan çure eguinbideac eguin. Deusic ez desira Yaincoac nahi duena baicen. Ez errencura nahi gabez, ceren harc permetitcen tuen gure onetan. Atchic çure burua mesprecioric baicen mereci ez duen presuna batentçat. Hitz batez çure nahiaz conturic eguin gabe, çure axeguin gucia eman Yaunaren borondateen complitcean. Orduan iguric deçakeçu Yesu-Christoc bere maitei aguintcen duen bake goçoa.

Othoitça.

O! Yesus ona, non içanen da ene dohaxutasuna çure escuetan baino hobeki? Uzten ditut beraz guciac çure baitharat. Eguiçu nitaz placer duçuna. Çure oin-hatcei yarraikitceaz, çure gogoraco gauça gucietan içateaz, eta çu maitatceaz içanen dire hemendic harateco ene artha guciac. Eguidaçu, othoi, gracia sentimendu horietan, eta horien pratican irauteco heriotceraino. Halabiz.

XXVI. CAPITULUA.

Izpirituco libertatea ardiesten dela, iracurtcez baino hobeki othoitcez.

ARIMAC.

Eçagutcen dut, Yauna, guiçon perfet bati daocola, ceruco gaucetaric izpiritua ez apartatcea, mundu huntaco arthen erdian artha gabe içatea, ez tontotasunezco indiferencia batez, bainan arima libro, eta creaturetaric lachatuaren pribilegio bereci batez.

2. Othoitzten çaitut, ô ene Yauna, beguira naçaçun mundu huntaco artha sobretaric, beldurrez hetan traba nadin, gorphutceco beharretaric, beldurrez hekien complitcen hari naicela, axeguinac atçaman neçan; finean ene salbamenduco traba gucietaric beldurrez trebesiez unhatu eta flacatu ondoan eror nadin.

Eztarotçut galdeguiten solamente beira naçaçun mundanoec lehia handirekin bilhatcen dituzten gaucetaric; bainan oraino libra naçaçun miseria hetaric ceinac baitire guiçon

gucien pena, eta malediccione comunac, ceinec ene arima pisatcen baitute, eta debecatcen nahi luken beçambat libertaterekin izpirituaren bidean ibiltcetic.

3. O ene Yaincoa, axeguin eguiazcoen ithurburua, gambia dietçadatçu behaçunetarat haraguiaren gueçurrezco contsolacione guciac, ceinec ontasun eternalen amodiotic guibelatcen baicaituzte, eta bere ganat thiratcen presenteco axeguin iragancor baten itchurapen enganiosez.

Haraguiac eta odolac, ene Yaincoa, ez naçaten garhai, munduac eta haren loria falsoac ez naçaten lilura, debruac, eta haren malecia guciac ez naçaten engana.

Indaçu indarra gudu eguiteco, pacientcia pairatcceco, eta constancia fineraino irauteco.

Munduco consolamendu banoac gambia çatçu çure izpirituaren gançudura guciz eztirat, eta haraguiaren amodioa çure icen sainduaren amodiorat.

4. Oi ala yatea, edatea, eta bertce gorphutçaren beharrac carga baitçaizco çu maite çaituen arima bati!

Eguidaçu gracia, ene Yaincoa, gure flakeciaren erremedio horiez balia nadin sobreki, eta ez axeguina gatic, edo sobraniaz.

Ecen hec osoki utz deçakegu ceren naturaleça hagoan itcheki behar baitugu, bainan çure legue sainduac debecatcen darocu hetaric behar baino guehiago hartcea, edo hetan sensuen bilhatcea, ceren bertcela haraguia altcha bailiteke izpirituaren contra.

Çure escu botherexuac, ene Yaincoa, guida benaça, eta goarda sobrania gucietaric.

Cer eguin behar dut beraz?

Norc bere umorea, eta sensuec campoco gaucetatarat duten pendura cehatcen ez badu, laster Yaincoaz baino hartuagoa içanen da heyen satifaccionea eguiten duten gauez. Bada cer lastima halacoentçat heriotceco orenean, Yainco guciz podorosa ganic aditcen tuztenen aberax gaichtoac beçala hitz ikhagarri hauc! dohacabea, hire gogoan eta bihotcean ez diat içan tokiric hire bician. Ez diat nic-ere hiretçat nere lorian. Hortic yuya çaçu, cein premia handia den çuretçat, çure sensuen, eta umorearen bridatcea, eta Yesu-Christori capitulu hortaco othoitça cinki, eta maiz eguitea.

Othoitça.

O! ene Yaincoa, emadaçu ene bihotçaren, eta sensuen cehatceco indarra, eta berthutea, oso osoa çure cerbitçu sainduan içan nadin; eta neure bici gucia iragan deçadan çure bihotz sacratuari eguin diotçodan damuen erreparatcen; deus bercetarat gogoa barrayatcerat utci gabe. Halabiz.

XXVII. CAPITULUA.

Gure buruentçat dugun amodioac guibelatcen gaituela ontasun soberanoaren amodiotic.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, eman behar duçu gucia, gucia gatic, eman behar çaizkit gucia; nahi banauçu içan osoki.

Yakin çaçu deusec-ere ecin hambat calte eguin dieçaçukela nola çure buruarentçat duçun amodioac.

Cembatenaz baituçu amodio propi guehiago, hambatenaz çare creaturekin yosiago.

Çure amodioa simplea, garbia eta chu-

chena balinbada, etçare munduco gaucen gathibo içanen.

Etçaçula desira içatea cilhegui etçaitçuna; eta etçaçula içan deus-ere traba çaitçakenic, edo izpirituco libertateaz gabe çaitçakenic.

Miresteco da nola eztuçun bihotçaren barnetic uzten ene ganat çure burua, çuc desira edo içan ahal detçaketçun guciekin.

2. Cergatic tristecia banoez ahitcen çare, eta nekhatcen artha sobraniozcoez?

Egon çaite fermuki ene borondateari, eta deusec ecin calteric eguinen darotçu.

Lotcen baçaizco gauça bati baino hobeki bertce bati; lekhu bat hautatcen baduçu, eta uzten bertce bat çure aisia gatic, eta çure satifamendua gatic, etçare behin-ere içanen grina eta khechagune gabe; ceren causituco baituçu gauça gucietan escasac, eta contrestac lekhu gucietan.

3. Ezta beraz heldu bihotceco bakea munduco gaucen içatetic, ez eta hec nombre handian içatetic-ere, bainan hec arbuyatcetic eta bihotcez uztetic.

Eta gauça hori erran behar da ez solamente aberastasunez, bainan oraino ohoreen eta

laudorioen guticiaz-ere, ecen iragaten da mundua, eta munduarekin gauça horiec guciac.

Lekhuaren saindutasuna guti baliatcenda izpirituaren kharra escas denean, eta campotic bilhatcen dugun bakeac guti iraunen du, ez balin badu bere cimendua bihotceco bakean.

Erran nahi da ez baçare enekin borthizki lothua, alda beçaitezke; bainan hobe ecin çaitezke.

Ecen lehenbicico aldian causituco tutçu çure ganic hastandu *edo urrundu* nahi içan ditutçun gaitz guciac, eta menturaz guehiago-ere.

OTHOITÇA.

Bihotceco garbitasuna Yaincoari galdetceco.

ARIMAC.

4. Ene Yaincoa, borthitz naçaçu Izpiritu sainduaren graciaz.

Borthitz çaçu ene baitan guiçon barnecoa.

Libra çaçu ene bihotça munduco artha eta grina gucietaric.

Etçaçula utz ene bihotça thira deçan bere

ganat cer nahi den gauça tchar, edo baliosen guticiac.

Eguidaçu gracia munduco gauça guciei beha dioçotedan gauça iragancorrei beçala, eta orhoit nadin neroni-ere heyekin batean laster iraganen daicela; *ceren ez baita iguzkiaren azpian deus iraupenecoric; eta guciac baitire banitate, eta izpirituco axecabe.*

Oi ala dohaxu baita gaucei manera hortan behatcen diotena!

5. Indaçu, Yauna, Yaincozco çuhurtcia hori; ikhas detçadantçat çu gauça gucien gainetic bilhatcen, causitcen, gustatcen eta maitatcen. Eta gauça guciez yuyatcen bere baitan direnaren arabera, eta çure probidenciac eman dioten herruncaren arabera.

Indaçu behar den prudencia lausenguen ene ganic urruntceco, eta contresten eztiki yasateco.

Ecen çuhurtcia handi bat da guiçonen hitz banoen mezpreçatcea, eta Syrena perilosen canta eztiei eta lausengu charmagarriei beharria tapatcea.

Manera hortan ibilico gare segurantçarekin Yaincoaren bideetan.

Cer eguin behar dut beraz?

Gure gogoa mudacor da, munduco gauça guciac ere hala dire, salbu Yaincoa, bertce alde egun badire bihar ez dire. Beraz bere gostua horietan contentatu nahi duena, neholere ez daiteke içan Yaincoaz goçatceco behar den pausu hartan. Ukho eguioçu çure baitharic heldu çautçun nahiari, eta guticiei, çure partida, eta exairic handienari beçala. Largaçoçu çure bihotça Yaincoari, ez erdizca, hanitzec eguiten duten beçala; bainan osoki, haren nahiaz çurearen gauça gucietan erreguelatceco. Eguioçu maiz eta bihotcez capitulu horren akhabantçan arimac Yesu-Christori eguiten dioen othoitz hori, eta emaçu haren baitan çure pausua.

XXVIII. CAPITULUA.

Eztugula içan behar mihi gaichtoen beldur.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, paira çaçu hasaratu gabe çure contra nihorc gogoan iragaten badu, edo erraten eerbait.

Ecen cembait estimu guti çutaz yendecc eguiten badute-ere; cerorrec oraino gutiago behar duçu çure burua preçatu, eta uste behar duçu eztela flakeciaric çurearen pareric.

Barnecoya eta ispirituala baçare contu guti eguinen duçu haiceac daramatçan hitcez.

Prudencia handi bat da, guerthateen çaizkigun gaitcetan, eta nahigabeetan ichilic egotea, ene ganat bihotcez itçultcea, eta guiçonen yuyamenduez ez khechatcea.

2. Çure bakearen içateac edo ez içateac ez du egon behar guiçonen errankiçunetan; ecen nahiz yendeac çutaz mintça ditecen ungui edo gaizki, etçare hargatic çarenetic bertce bat.

Non da çure ustez bake eguiazcoa, eta eguiazco loria? Ez othe dago ene baitan?

Bai segur; eta norc-ere ez baitu guiçonen gogoraco içateco guticiaric, ez eta guiçonen desgogoraco içateco beldurric, haina goçatuco da bake handi batez.

Eta contrara, bihotceco khechagune, eta izpirituco barrayadura gueiac sortçen dire amodio desordenatutic, eta guiçonentçat dugun beldurtasun banotic.

Cer eguin behar dut beraz?

Cer probetchu dute damnatuec munduan laudatuac içatea guiçonez, ifernuan erretcen hari diren demboran, dio san Agustinec. Ez dute bada guiçonen erranec Yaunaren beguietan gareu estatua guehiago gambiatuco heyena baino Yaincoac ikhusten gaituenac içanen gare berdin. Beraz Yaincoaren gogoraco içaiteaz eguiten baduçu çure eguitece principala, ez duçu conturic eguinen guiçonec cer erranen duten, hau edo hura eguiten baduçu; bainan bai Yaincoari nola içanen çayon.

Othoitça.

Ez deçaçula, othoi, permeti, ene Salbatçaile maitea, çuri çor darotçudan atencionea deusec mendra deçan ene baitan. Emadaçu, othoi, fede bat aski bicia, çure arabera hari banaiz, bertcez conturic ez eguiteco. Finca naçaçu çure amodioan, çure gogora eguitea baicen, ene bihotçac bilhatuco ez duen beçala. Halabiz.

XXIX. CAPITULUA.

Othoiztu eta laudatu behar da Yaincoa axecabetan.

ARIMAC.

*Yauna, çuc nahi içatu duçu tentacione edo axecabe hau guertha çakidan; çure icena içan bedi benedicatùa eternitate gucian.

Nola ecin itçul bainakioke, çure ganat behar dut ihes eguin; çuc lagun naçaçuntçat haren yasaten, eta ene progotchucotz guertharaz deçaçuntçat.

Yauna, nahasia naiz gucia; ene bihotçac ecin causi deçake soseguric, pasione hunec banarabila, eta tormentatcen nau.

Cer erranen darotçut, ô ene Aita gueiz onhexia, Orai ni naicen hersturan?

Hau da guduco orena, khecha çaito ene laguntcerat.

Bainan dembora hau ethorri da ene ganat, çu guehiago lorifica çaitecentçat, ni libraturic hambatetaraino humiliatu nauçun ondoan.

Yauna beraz, othoi, heda dieçadaçu escua eta athera naçaçu birriscutic.

Ecen naicen beçalaco gachoa, cerdaiket? eta norat noake çu gabe?

Yauna, indaçu aldi huntan-ere pacientcia. Lagun naçaçu, ene Yaincoa, eta cembat herstua banaiz-ere ez naiz beldur içanen.

2. Bizkitartean arte hortan cer erran ahal dieçaçuket baicen ere? *Yauna, çure borondatea compli dadilala.*

Ungui merecituac ditut yasaten ditudan penac.

Pairatu behar ditut Yaincoac nahi duena pacientciarekin yasan detçadan, tempesta iragan, eta calma bihur daiteken arteraino.

Çure escu guciz botherexuac athera naçake tentacione huntaric, edo eman deçake axecabe hau, ni erortcetic guibelatceco; lehenetan asco aldiz eguin derautaçun beçala, ô misericordiazco Yaincoa.

Ecen cembatenaz baitçait niri gaitçago, hambatenaz da ene librantça errechago, Yainco guciz goraren escuarentçat.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoac permetitcen du arimaric hautatuenac tentatuac içan diten, eta duda gabe

exayac heyei nahi diote guehienic. Tentacioneen içaiteaz ez da beraz loxatu behar. Loxatcecoago da holaco hersturaric ez sentitcea; beldur içaiteco baita orduan arimaco atheac exayarentçat çabalduac diren, eta hala placer duena bortcharic gabe eguiten duen. Tentacionez herstua çarenean, cer eguin behar duçun erranen dautçu Yesu-Christoc ondoco capituluan.

XXX. CAPITULUA.

Nola behar dugun Yaincoaren laguntça galdetu, esparantçarekin gracia bihurtuco çaicula.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, *ni naiz Yauna axecabetan arimac borthitzten ditudana.* Çato ene ganat penatua çarenean.

Badakiçu cergatic eztutçun laster içaten ceruco consolacioneac? Hori heldu da ceren nekhezegui galdeguiten baititutçu oracionean.

Ecen othoitz kharxu batez baliatu baino

lehen, campoco consolacioneen ondoan abiatcen çare, eta emplegatcen tutçu guiçonen erremedio banoac.

Hargatic hec guciac guti baliatcen çaizkitçu, eçagut deçakeçun arteraino, *Ni naicela bakharra ene baitan esparantça dutenac* hirriscutic athera detçakedana, eta nitaz campoan eztela aski den laguntçaric, on den conseiluric, probetchos den erremedioric.

Bainan orai tempesta guelditu denaz gueroztic, eta gure izpiritua sosegatuago denaz gueroztic har çatçu çure lehenagoco indarrac ene misericordien arguiac dirabeino.

Ecen hurbil naiz çure ganic ez choilki gauça guciac leheneco estatuan eçartceco; bainan oraino çu gracia berriez bethetceco.

2. *Bada enetçat deus gaitcic?* Ala içanen naiz erraten duena, eta eguiten eztuena beçalacoa?

Non da çure fedea? Çaude fermu, eta iraun çaçu unguian.

Çaren pairacor eta indarxu; bere dembora ethorrico da consolacionea.

Çaude ene beira, iguric naçaçu: *ethorrico naiz segur, eta sendatuco çaitut.*

Tentacione iragancor batec penatcen çaitu; icialdura bano batec nahasten çaitu.

Cer probetchu duçu çure buruaren khechatcea eta nahastea, ethorkiçuneco gauça segur eztirenen gatic? Hori da çure gaitcen berritcea, eta çure buruari tristeciaren gainerat ematea. *Egun bakhotchac aski du bere pena.*

Gauça bano eta alfer bat da, ethorkiçuneco gaucez, eta nihoiz menturaz guerthatuco eztirenez tristatcea edo boztea.

3. Guiçonen arintasunaren marca bat da bere burua halaco gogoeta banoez enganatçerat uztea; eta arima flaco baten seinalea da, hain errechki gure exayac gogoratcen darocuna sinhestea.

Ecen hari orobat çayo baliatcea gueçurraz edo eguiaz, baldin heltcen bada gure enganatcerat.

Eztu acholaric ala eroraraz gaitçan oraingo gaucen amodioaz, ala guerocoen beldurraz.

Etçaitcela beraz nahas; ez bedi ici çure bihotça.

Sinhexaçu ene baitan, eta emaçu çure esparantça ene misericordian.

Noiz ere uste baituçu urrun naicela çure ganic, orduan maiz çure hurbilean naiz.

Eta uste duçunean guciac çuretçat galdu direla; orduan duçu maiz merecitceco paradaric hoberena.

Gauçac çure nahien contra direnean, eztire hargatic bethi çure bidegabetan.

Eztuçu çure buruaz yuyatu behar barnean duçun khechagunaren arabera, eta nondic nahi den ethor dakiçun axecabea, etçaitçu bihotça erori behar, handic ilkhitceco esparantça guciac galdu bacintu beçala.

4. Cerbait damu noicic behin egortcen darotçudan arren, edo cerbait consolacionez gabetcen çaitudan arren, eztuçu uste behar bethicotz utcia çarela; ecen bide hortaz ardiestenda ceruco erresuma.

Duda gabe hobeago da çuretçat, eta ni cerbitçatcen nauten gucientçat, axecabeez frogatuac içan çaitezten ecen-ez gauça guciac çuen gogora doacen.

Eçagutcen tut çure gogoetaric gordeenac; eta badakit on dela çure salbamenducotz utz

çaitçadan noicic behin agortasunean; beldurrez çure nahira gauçac içateac ereraraz çaitçan urgulutan, eta çure buruaz lausenga deçaçun sinhexiric etçarena baçarela.

Eman dudana khen deçaket, eta bihurere placer dudanean.

5. Ematen badut, enea ematen dut; eramaten badut, eztut çurea hartcen; ceren eneac baitire ontasun, eta dohain perfet guciac.

Beraz cerbait pena edo axecabe egortcen darotçudanean, ez bekiçu hargatic eror bihotça: ecen çure gaitçac arin detçaket berehala, eta gambia detçaket bozcarioarat çure nahigabeac.

Eta horla eguiten dudanean, ez naiz hargatic gutiago yustu, eta eztut laudorio gutiago mereci.

6. Çuhurra baçare, eta gaucei eguiaren arabera behatcen badioçute, eztuçu behar axecabeetan hambat tristatu; aitcitic boztu, eta niri eskerrac bihurtu.

Çure bozcario bakharra behar liteke, *nic çuri mundu huntan guphidexi gabe axecabeac egortcea.*

Noizbait erran diotet ene discipulu guciz onhexiei : *Aitac ni maitatu nauen beçala çaituztet maite.*

Bizkitartean eztitut egorri mundurat hango axeguinez goçatcerat, bainan gudu handien pairatcerat ; ez ohoratuac, bainan mezpreçatuac içaterat ; ez pausuan egoterat, bainan pacientciaren bidez fruitu hanitcen ekhartcerat.

Ene semea, orhoit çaite bethi horiez.

Cer eguin behar dut beraz ?

Yesu-Christoren hitz horietan aurkhitu behar tutçu consolacione osoac, çure buruaz edo munduco goçoaz gucia hartua ez baçare. Hortic comprenituco duçu, cer nahi hersturetan içan çaiten, guciac ungui yoanen direla çuretçat, çure lema *edo guida* Yaincoaren borondatea delaric, çure eguinbidei, eta debocionei yarraikitcen çarelaric, eta çure gurutcearekin Yesu-Christori yarraikitcean, çure dohaxutasuna eçartcen duçularic. Çure nahien bentçutcen ikhastea da gucia.

Othoitça.

Ah ! Yauna ecin guti eçagutu tudan çure

bideac, tentamenduac khecha-araci naucnean : bainan arguitcen nauçu, Yesus maitea ; irabaz-bideric handienac orduan dire enetçat. Humilki egonen naiz çure escuari beira, seguratua ez nauçula abandonatuco. Erranen dautçut profetarekin : Yauna çure escuetan ematen dut nere indarra, ceren çure misericordiac ekhartcen bainau nere miserien eçagutçaz baliatcerat. Eguiçu, othoi, sentimendu hautan causi nadin guduco demboran. Halabiz.

XXXI. CAPITULUA.

Creatura guciac arbuyatu behar ditugula, nahi badugu creatçailea causitu.

ARIMAC.

Yauna, haniz gracien beharra dut oraino, ardiexi behar badut estatu hura, ceinetan creatura batec-ere ez bainau trabatuco.

Ecen cerbaitec ichekitcen darotaino, ecin çure ganat libroki hegalda naiteke.

Hala nahi çuen altchatu Profetac cioenean : *Nore emanen darozkit hegalac uso bati beçala,*

hegalda nadintçat, airean nohan, eta aurkhi deçadan pausa lekhubat.

Cer da bakezcoagoric *begui simplea baino?* eta libroagoric mundu huntan, deus desiratcen eztuena baino.

Altchatu behar da beraz gauça creatu guciez gorago, utci osoki norc bere burua, eta goratasun hartan eçagutu çu çarela gauça gucien creatçailea, eta çure obra gucietan eztela çure pareric.

Orduan arima ez bada osoki lurreco gaucetaric lachatua, ezta nihoiz-ere gai içanen ceruco gaucetan gogoa fincatceco.

Hargatic dire bakharrac contemplacionecotz gai diren presunac, ceren gutiac baitire ontasun irancorretaric osoki apartatcen direnac.

2. Hortacotz behar da gracia handi bat arima altcha deçakena bere buruaz gorago.

Eta guiçona ez bada ematen izpirituaren goratasun hortan, eta creatura guciez bilhuciric, ez bada Yaincoarekin osoki yuntatcen, ez dire deus condatu behar haren yakin, eta içan guciac.

Norc-ere uste baitu badela deus handiric,

ontasun soberanoaz, neurri gabeaz, eta eternalaz campoan, haina aphal egonen da, eta herrestan ibilico da luçaro.

Yainco ez den gucia ezta deus, eta ez deus behar da estimatu.

Diferencia handia da guiçon prestu yaincoac arguitcen duen baten çuhurtciaren, eta theologo batec liburuetaric atheratcen duen yakintasunaren artean.

Cerutic heldu diren arguiac, eta graciac gure bihotcerat ichurtcen dituenac hanitcez dire baliosagoac, ecen ez guiçonaren izpirituac bere nekhez eta istudioz ardiesten dituenac.

3. Hanitcec nahi lukete altchatu ceruco gaucen contemplacionerat: orduan eztute eguin nahi hain ontasun handiaren ardiesteco behar dena.

Gu estatu dohaxu hartaric guehienic guibelatcen gaituena da, ceren gauça campocoei, eta sensuen gogoracoei lotcen baiçaizcote, eta ceren artha guti baitugu gure buruaren mortificatceco.

Eztakit cer den, edo cer izpirituc garabilt-

çan, edo cer nahi dugun guc ispiritualtçat pasati nahi dugunac.

Nekhe, eta artha hanitz hartcen dugu ontasun ezdeus eta iragancorrençat, eta eztugu hurren behin-ere pensatcen nola chuchen ahal deçakegun gure barnea, eta atchic bilduac gure sensuac.

4. Helas! ez gare hain laster gure barnean sartcen, non ez garen berehala ilkhitcen, eta eztitugu behin-ere behar beçain herxiki gure obrac pisatcen.

Eztugu ikhusten cein behera dabiltçan gure guticiac, eta eztugu nigarric eguiten ikhusteaz ez garela liçuntasunic baicen.

Yaincoac *egorri çuen uholde handia lurrerat, ceren haragui guciac lohitu baitçuen bere bidea.*

Hala gure bihotceco afeccioneac gaichtatuac direnean, eta gure arima bere indarrez gabetua edireten denean, baitezpada gure campoco accioneec-ere sentitu behar dute barneco flakecia, eta corrupcione hura.

Ecen bicitce onaren fruitua bihotz garbitic sortcen da.

5. Galdetcen da maiz cer nihorc eguiten

duen: bainan guti contutan hartcen da cer chedez hari den.

Galdeguiten da guiçon batez, ea curayosa den, aberaxa, edo ungui eguina den, ea ungui iscribatcen, edo cantatcen duen, ea bere oficioan probetchosa den.

Orduan ea izpirituz pobrea den, ea pairacorra, eztia, barne bildua den, nihor ezta mintço.

Naturaleça, eta gracia hanitz dire diferent, hare eztio behatcen campoari baicen, hau berriz barnera dago beira.

Naturaleça maiz enganatcen da, graciac ez enganatceco, Yaincoa baitan ematen du bere esparantça.

Cer eguin behar dut beraz?

Lekhu eta gauça gucietan present den Yaincoac, igurikitcen du gure bihotcen sacrificioa, eta bethi bihur deçogun çor diogun ohorea, gure gainerat bere gracien gandiduraren, eta goçoen ichurtceco. Bada munduco gauça iragancorrei aplicatuac diren izpiritu, eta bihotz batçuec cer ohore bihurtcen diote Yaincoari? Beraz cembatenaz in-

diferenkiago behatuco batioçute munduco içan, eta ez içanari, hambatenaz amulsutasun guehiagorekin causituco duçu çure Yaincoa.

Othoitça.

Cembat dembora huntan ez çaitut trabatcen creaturetaco nere barrayamenduez, ene baitan amulxuki pausatcetic, ô! ene Yaincoa, eta ene gucia? Çuc eguinen cinautan cembat graciaz ez dut gabetu nere burua? Bainan eguin da, Yauna, ez da guehiago içanen ene baitan artharic, guehiago gogoric, çure gogora eguiteco baicen, hala causi çaitçadan mundu huntan çure gracian, eta bertcean çure lorian. Halabiz.

XXXII. CAPITULUA.

Batbederac ukho eguin behar dioela bere buruari, eta bere guticiei.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, çure buruari alde baterat ukho eguiten ez badioçu, libertate oso bat ecin ardiexico duçu.

Badire batçuec bere escuco içan nahi dute nac, bere buruen maitatçaileac, guticiosac, curiosac, horrat hunat bethi dabiltçanac, bere aisiac bilhatcen dituztenac, eta ez Yesu-Christoren gogoraco gauçac; bethi gogoeta berrietan dabiltçanac, eta deseinu iraupenezcoric behin-ere hartcen eztutenac; eta hec guciac gathibo dire, eta amarratuac daduzcate haraguiac, eta debruac.

Ecen Yaincoa ganic heldu eztena deseguiten da, eta erortcen da laster ezdeusetarat.

Orhoit çaite bethi hitz labur, eta perfeccione gucia cerratcen duen huntaz.

Utçatçu guciac, eta causituco tutçu guciac.

Ukho eguioçute çure pasioneei, eta edirenen duçu eguiazco sosegua.

Eguia hori erabil açu maiz çure gogoan, eta obratcen baduçu, gauça guciac yakinen tuzketçu.

ARIMAC.

2. Yauna, ezta hori egun bateco lana eta ez haur dosteta, hitz labur horiec cerratcen dute ereligioneco perfeccione gucia.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, eztuçu guibela yoan behar, eta bihotça galdu behar perfeccioneco bidea eracusten çaitçunean, aitcitic altchatu behar duçu çure arima estatu gora hartarat edo bederen enxayatu çure desirez, harat igaterat.

Ochala hartan bacine, eta ethorri bacine çure buruaren ez guehiago maitatceraino; bainan onhesteraraino solamente ene borondate saindua, ceina marcatcen baitçaitçu cure aitcindarien manuez.

Oi ala orduan ene gogoraco baitcintezke! eta çure bicia bakez, eta bozcarioz bethea bailiteke.

Hanitz gaucez behar duçu oraino bilhuci; ceinac ez baditutçu osoki ene gatic utci nahi, ez baitutçu seculan ardiexico galdetcen duçunac.

Beraz abisu ematen darotçut aberastecotz eros deçaçun ene ganic urre suan garbitu hura, ceina aguindu baitut, erran nahi da ceruco çuhurtcia mundu gucia oinen azpian osticatcen duena.

Haren içateco arbuya çaçu lurreco çuhurtcia gucia, eta utz çatçu çure buruaren amodio, eta estimu guciac.

3. Ikhusten duçu hitz horiez hertchatcen çaitudala gauçaric baliosenen gostuz, tcharrenen, eta mezpreçagarrienen erosterat.

Ecen ceruco çuhurtcia hura, bere buruarençat estimuric eztuena, iduriz chumea da hanitz, mezpreçagarria, eta hurren ahanzmendurat eroria, eta cembaitec hitçez ohoratcen badute-ere accioneez contra eguiten diote.

Hura da bizkitartean perla preciatua, ceina hanitcentçat estalia baita, eta haren balioa gutiz eçagutua.

Cer eguin behar dut beraz?

Gure guticiac dire guciz gure hiciac becembat iraun behar duten, eta Yob sindua nintco den gudu hartan guducatu behar tugun exayac. Gure naturaleçac tiratcen gaituelacotz bethi gure gostuaren aurkhitcerat, behar gare bethi hari gure baithaco guticiei contra eguiten, nahi ez dugunaren eguiten, horrerat dauden chede heyen Yaincoa ganat altchatcen, eta enseyatu mortificacionean

gostu hartcera. Errechago da erraitea. Bainan içan çaçu çure Yaincoarentçat, eta çure salbamenduarentçat behar den estimua, eta amodioa; eta ez çautçu hain nekhe idurituco.

Othoitça.

O! Yaincoac beretçat eguin çaituzten, ene izpiritu, eta ene bihotça, non çabilçate lurreco goçoen ondotic? Yesus maitea, çu ganic urruntceco nerori aski naiz, bainan çure laguntça behar dut çure ganat bihurtceco. Itçul arazkitçu, othoi, ene gogo bihotçac, eta bihurzkitçu çure gogoraco içateaz bertce chede gucietaric, çuri baicen atchikico ez diren beçala. Halabiz.

XXXIII. CAPITULUA.

Guiçonaren bihotceco arintasuna ecin pausa daitekela Yaincoa baitan baicen.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, etçaitecela sobra fida oraico çure disposicionean, ecen bertce contracorat laster muda daiteke.

Mundu huntan bici çareino nahi eztuçularic-ere bethi gambiacor içanen çare.

Hala batean aleguera içanen çare, eta bertcean triste, batean bakean eta bertcean altaramendu edo nahasmenduan, egun Yaincotiar, eta debocionean bero, bihar ephel eta debocione gabe.

Orai prunt, guero nagui, batean serios eta goardiacor, eta bertcean arin eta goardia gabeco.

Bainan çuhurra fermu dago mudantça horien gucien erdian.

Nola gauça ispiritualez arguitua baita, eztu conturic eguiten bere baitan cer sentitcen duen, eta ez cein partetaric heldu den inconstanciaren haicea.

Haren gogo gucia da guerotic guerora guehiago hurbiltcea marcatua duen chederat, ceina ez baitu behin-ere bichtatic galtcen.

Manera hortan dago bethi bat, eta bethi fermu ceren haren chede chuchen, eta garbia guerthacari diferenten erdian bethi baita ene cerbitçatcea, eta ene gogora eguitea.

2. Cembatenaz gure chedea, ceina baita gure arimaco beguia, garbiago eta chuche-

nago baita, hambatenaz gabiltça seguratukiago hirriscu diferenten artean.

Bainan intencione garbi hura lohitcen da hanitcen baitan, ceren laster bichta aurthikitcen baitute aitcinera heldu çaizcoten sensuen gogoraco gaucen gainerat.

Gaitz da hanitz causitcea bihotz bat osoki libroa, eta amodio propiaren notha gucietaric garbia.

Hala Yuduac lehenago ethorri ciren Bethaniarat, Martharen, eta Mariaren etcherat, ez choilki Yesusen gatic; bainan hobeki Lazaro phiztua ikhustea gatic.

Behar da beraz garbitu intencionearen beguia, chuchena eta simplea içan dadintçat, eta moyan gucien artetic bethi-ere chedeo ene ganat heda deçaçuntçat.

Cer eguin behar dut beraz?

Çuhurrac bere sentimenduetaco mudanlça horiez ez asaldatceco hartcen duen moyana da. 1° Bere estatuaren araberaco bicitceco seguida baten hartcea. 2° Cer nahi içan dadin, ahalic Yaincoa ganaco chederic phuruenaz harri yarraikitcea. 3° Yaincoaren bai-

tan osoki, eta bere buruari batere ez fidatcea. 4° Maiz Yaincoarentçat bakharric haritceco chedearen erreberritcea. 5° Finean Othoitça. Eguiçu gauça bera.

Othoitça.

Ah! ikhusten dut, Yauna, amodio flacoa dela hoin gauça gutiec altaratcen duten amodioa. Bainan eracuxi dautaçu, altaramendu horiez gorago içaiteco bidea. Hartuco, eta seguituco dut, çure graciarekin batean, çurekin çure ganic ecin apartatuzco guisan yunta naçakeraino. Halabiz.

XXXIV. CAPITULUA.

Cein goço den Yaincoa maite dutenentçat.

ARIMAC.

Huna, ene Yaincoa, eta ene gucia, cer guehiago nahi dut, cer çorion desira deçaket handiagoric?

Yaincoa da ene gucia, ô hitz ezti eta goçoa!

Ordean hitz eternala maite duenarentçat,

eta ez mundua, eta munduco ontasunac maite dituenarentçat.

Ene Yaincoa da, ene gucia! Aski erratea da amodioa duenarentçat.

Aditcen tu errechki hitz horiec, eta ezta unhatcen horien maiz ahoan içateaz.

Çure aitcinean gauça guciac on eta gustos dire, khiraxdun, eta unhagarri, çu estalia çarenean.

Çuc ematen dioçu bihotçari bere sosegua, eta bethetcen duçu bakeaz eta bozcarioz.

Çuc gauça guciez ungui yuyarazten darocuçu, eta laudarazten gauça gueietan çure mayestatea.

Deusec-ere çu gabe ecin luceki axeguin daike, deus-ere ezta goço, eta gustoz çure graciac eta çure çuhurtciaren gatçac ez badio guztu ona ematen.

2. Çu gustatcen çaituenac gustatcen tu çure baitan gauça guciac; eta çu goço causitcen etçaituenarentçat khiraxac dire gauça guciac.

Munduco çuhurrec eztute goço causitcen çure çuhurtcia, eztute gusturic haraguiarentçat baicen; bizkitartean cer han causitcen dute? Banitatea, eta herioa.

Contrarat eguiazco çuhurrac dire mundua mezpreçaturic, eta haraguia mortificaturic, çuri daraizkitçunac; ceren iragaten baitire gueçurretic eguiarat, eta haraguitic izpiriturat.

Heyer çaye goço Yaincoa, hec ematen diote Yaincoari creaturetan causitcen den on guciaren ohorea, eta buruipea.

Hekien gostu fin eta delicatuac eçagutcen du cer diferencia den creatçailearen eta creaturen artean, eternitatearen eta demboraren artean, argui creatu ezenaren eta argui hartaric heldu diren arrayoen artean.

3. O argui eternala, argui creatu guciez gorago infinituki altchatua; aurthicatçu ceru goratic çure chimistac, eta çure kharra sarbedi ene bihotceco chokho, eta gordaira gucietan.

Garbi çaçu, aleguera çaçu, argui çaçu, phitz çaçu ene arima, haren puchantça guciac çuri herxiki yunta dakizkitçuntçat.

Oi! noiz ethorrico da oren dohaxu, oren hambat desiratu hura, ceinetan çure presentciaz sasiatuco bainauçu, eta *çu içanen baitçaitut queien orde?*

Universidad de Deusto
Biblioteca

[illegible] ezdautaçuno, eztut [illegible]azco bozcarioric.

Bainan, helas! guiçon çaharra bici da oraino ene baitan, ezta oraino gucia gurutceficatu, ezta osoki h[illegible]no.

Enferratcen çayo muthiriki izpirituari, phitzten dit[illegible]c eta guduac gure barne[illegible] arima bakean erreguinatec[illegible]

4. Bainan çu, ene Yaincoa, *ixasoaren furiaren ne[illegible]en uhin asarreac calm[illegible] çaite eta lagun çak[illegible]*

Sa[illegible] niri gu[illegible] guiten darotatenac: porrosca çatçu ç[illegible] eso guciz botherexuaz.

Eracux çatçu çure obra miraculuzcoac, çure botherea ohora eta lorifica dadintçat; ecen çu çare ene ihes lekhua, eta ene esparantça bakharra, ô ene Yaincoa!

Cer eguin behar dut beraz?

Ene arimac ez du nahi içan guiçonen ganicaco soleimenduric bere behaçunetan, cioen erregue Profetac, altchatu da Yaincoaren ganat, eta han causitu du consolacione gucien bethedura. O! Israelgo Yaincoa, dio guero, ala çure ona, bihotcez chuchen çuri daudenentçat! froga goço horren eguiteco, maitha çaçu harrec beçala çure Yaincoa, erran nahi dut, maitha çaçu bakharric, gauça gucien gainetic, eta haren gogora eguitea gatic, bere guciac utz-araz ditçaketçun amodio batez. Ez lateke-ere bercenaz Yaincoari eman cayon beçala maithatua, dio san Chrisostomoc.

Othoitça.

Egun guciez ene ontasun bakharra çarela aithortcen dudan Yaincoa, cer goço miragarriez ez dut gabetu nere burua çuri eman çaitçun beçala çu maithatu faltaz! Horra, Yauna, cer naicen neure baitharic. Ordean, Yauna, maithatu nahi çaitut. Phitzçaçu, othoi, ene baitan çure amodiaren kharra; bero, erre deçan ene bihotça, orai hasiric, mendeen mende gucietan.

XXXV. CAPITULUA.

Nihor ezteia tentacionetaric segurantçan mundu huntan bici deno.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, mundu huntan çareno etçare nihoiz-ere segurantçan içanen; bainan bethi harma ispiritualen beharra içanen duçu.

Exayez alde gucietaric inguratua çare, ceinec ematen baitarotçute gudu escuin, eta esker.

Baldin ez badioçute pharatcen hekien colpe guciei pacientciaren erredora edo harma, etçare hanitz egonen cembait çauri hartu gabe.

Çure bihotça ez baduçu ene baitan fincatcen, ene gatic gauça gucien pairatceco borondate fermu batekin, hambat gudu borthitz ecin yasanen tutçu, eta ecin ardiexico duçu dohaxuen khoroa.

Iragan behar tutçu beraz hirriscu hec guciac, bihotz handirekin, eta indarca garaitu traba hec guciac.

Ecen victoriosentçat dago mana, bihotz gabeentçat laceria *edo miseria* handia.

2. Mundu huntaco bakearen ondoan baçabiltça, nola ardiexico duçu sosegu eternala?

Etçaudecela pausuaren ustean, bainan egon çaite sofricarien beira.

Bilha çaçu bake eguiazcoa, ez lurrean, bainan bai ceruan; ez guiçonen eta creaturen artean, bainan Yainco choila baitan.

Munduco gaitz guciac yasan behar tutçu, nekheac, doloreac, tentacioneac, persecucioneac, beharrac, eritasunac, afruntuac, erran gaichtoac, idoyac, humiliacioneac, ahalkeriac, mehatchuac, mezprecioac; guciac behar tutçu pairatu Yaincoaren amorca gatic.

Horiez aitcinatcen gare berthutean, horiez frogatcen gare, horiez eguiten da ceruan errecibituco dugun khoro preciatua.

Ecen aguindu dut golardo *edo* sari bethi iraunen duen bat nekhe laburrentçat, eta loria fin gabeco bat berehala iragaten den ahalkerientçat.

3. Uste duçu bethi nahiaren arabera içanen tutçula consolacione ispiritualac?

Ene sainduec ezdituzte bethi halacoac içatu, egorri diotet pena penaren gainean, tentacionea tentacionearen gainean?

Bainan gaitz horiec guciac pairatu tuzte paciencia bandi batekin, yasan tuzte gudu horiec fermutasun miragarri batekin bere esparantça gucia ematen çutela, ez bere baitan, bainan Yaincoa baitan; baitçakiten *bicitce huntaco sofricariac eztirela deus loria haren aldean, ceina içanen baita hekien pagua eternitate gucian.*

Nahi cinduke eman nieçaçun berehala hambat sainduec hain nekhe, eta nigarren ondoan içatu dutena?

Çaude ene laguntçaren baira, eztuçun impacientciaric, çaren fermu eta animoxu fida çaite ene baitan, egon çaite fincatua berthutean, eta hirrisca çatçu çure arima eta gorphutça, ene ohoretan.

Nic emanen darotçut compliki golardoa, eta *içanen naiz bethi çurekin çure axecabetan.*

Cer eguin behar dut beraz?

Gure exayei bortcha eguinez, behar dugu heldu cerura, dio Yesu-Christoc. Hortacotz alfer dugu tentacioneric gabe içan nahia; bainan prepara çaçu çure arima tentacionera, erraiten darotçu çuhurrac; erran nahi baita, eguiçu tentacioneen ongui yasaitera. Ezçaiteçala eman ceroni ocasionean, bainan yardiexia çarenean tentacioneaz, cerbait gogoeta onetarat izpirituaren aldatcerat enseya çaite. Eguiçu ahalaz ihes, edo guduca çaite curayerekin; egon atçarria, eta eguiçu othoitz esparantçarekin. Horrela behar gare salbatu.

Othoitça.

Cer deiteke, Yauna, gogorragoric gure naturaleçarentçat, heriotcerainocoan cherkha gaitçaketen exaï batçuekilaco gudua baino? Bainan, Yesus maitea, ceronec lagundu nahi gaituçunaz gueroz, emaguçu, othoi, gure gogaindura, eta uzcurdura guciac garraituric biciac diraino, çuri guduan leyal içaiteco çurayea, eta indarra. Halabiz.

XXXVI. CAPITULUA.

Mezpreçatua behar ditugula guiçonen yuyamendu banoac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, emaçu segurantçarekin ene escuetan çure bihotça, eta eztuçun beldurric guiçonen yuyamenduentçat, çure concienciac deusez acusatcen etçaitueno.

Çorion bat da horla pairatcea, eta hori etçayo gaitz eta penagarri idurituco bihotz humilari, eta bere baitan baino Yaincoa baitan fidatcenago denari.

Guiçon guehienac sobra mintço dire, eta sinheste guti eman behar çaye hekien hitçuntcikeriei.

Bertce alde ecin guciac contenta detçakeguke.

Ecen Yondoni Pauloc bere ahal guciac eguin dituelaric Yaincozco chedez gucien gogoraco içatecotz, eta hartacotz *gucia gucientçat eguin delaric*, halere eracuxi du *eztela contu hari guiçonen yuyamenduez condenatua içateaz.*

2. Bere ahal guciac eguin ditu arimen onetcotz eta salbamenducotz, eta halere ecin egotu da bertceez yuyatua, eta mespreçatua içan gabe.

Gauça guciac utci cituen Yaincoa ganat, ceinac guciac eçagutcen baititu, eta etcen baliatu bere pacientciaz eta humiltasunaz bai cen guiçonen errankiçun, eta suspicha falsoen contra.

Eta noicic behin ihardexi badiote bertceen gaichtakeriei, hori eguin du beldurrez haren ichiltasuna behaztopa-harri bat içan çadin flacoentçat.

3. Çaren beçalacoa, cergatic çare beldur guiçon hilcor batentçat? Egun bada, bihar ezta.

Çaren Yaincoaren beldur, eta etçare guiçonen beldur içanen.

Cer bidegabe eguin dieçaçuke guiçon batec bere solasez, eta hitz gaichtoez? Bere buruari calte guehiago eguiten dio çuri baino; ecen nor nahi den ecin itçurico *edo espacatuco* çayo Yaincoaren yuyamenduari.

Duçun beraz yuye yustu hura bethi beguien aitcinean, etçaitecela balia errencurez

eta ihardukitceaz yendeen erasia gaichtoen contra.

Baldin orai garaitua iduri bacindu bertceen gaichtakeriaz, eta estalia baçare merecitu ez ditutçun laidoz eta ahalkeriaz, beira çaite çure merecimendua gutitcetic, eta çure khoroa mendratcetic çure pairu escasez.

Itçul çatçu çure beguiac ene ganat, ceinac baitut ahala ceru goratic çure libratceco laido eta afruntu gucietaric, eta *batbederari bihurtceco bere obren arabera.*

Cer eguin behar dut beraz?

Sainduric handienac, Yesu Christo bera, guiçonez yuyatua, eta mespreçatua içan da; eta guc mirexico dugu hala içaiteaz? Progotcha gaiten beraz bertcec gutaz hartcen duten sinheste gaichtoaz, Yaincoa ganat gure gogoen altchatceco, gure buruen humiliatceco, eta Yaincoaren gogoraco içaiteaz baicen conturic ez eguiteco chedean, gure barnen berreguintceco. Ikhusaçu cer den errana hogoi eta çortci garren capituluaren ondoan.

XXXVII. CAPITULUA.

Utci behar dugula osoki gure burua Yaincoaren nahirat, bihotceco libertatearen içateco.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, utçaçu çure burua, eta edirenen nauçu.

Ezdeçaçula içan, ez hauturic, ez yabetasunic, eta bethi irabaci handiac eguinen dituçu.

Ecen ene borondaterat uzten baduçu çure burua bethicotz, bethi gracia berriac emanen darozkitçut.

ARIMAC.

2. Yauna, cembat aldiz behar dut manera bortan utci neure burua?

YESU-CHRISTOC.

3. Dembora guciez, lekhu gucietan, gauça chumeetan handietan beçala, ez dut deusere berechten, eta nahi çaitut gauça guciez bilhucia causitu.

Bertcela nola çaitezke enea, eta ni çurea: ez baçare campoan, eta barnean osoki hustua nahi propio gucietaric.

Cembatenaz hori eguinen baituçu lasterrago, hambatenaz hobeki causituco çare; eta cembatenaz osokiago, eta cinezago utcico baituçu çure burua, hambatenaz guehiago merecituco duçu ene amodioa, eta ene graciac.

4. Hanitz niri ematen çaizkit, bainan ez osoki eta ene probidencian eztire hambat fidatcen, non ez baitute berec-ere cerbait artha bere buruez atchikitcen.

Batçu ematen çaizkit osoki, bainan guero tentacionez herstuac direnean hartcen dute eman dutena, eta hala eztire batere berthutean aitcinatcen.

Batçuec eta bertceec eztute behin-ere ardiexico bihotz garbien libertatea, eta ene adiskidetasunaren fagore eztiac.

Ecen ecin daiteke enekin goçamenezco amodioric, eta batasun progotchosic presuna ez bada lehenago ene ganat osoki uzten, eta ez badaut egun oroz bere içate guçia sacrificatcen.

5. Erran darotçut maiz, eta berriz-ere erraten darotçut: ukho eguioçu çure buruari, eman çakizkit osoki, eta çure arima goçatuco da barneco bake handi batez.

Emaçu gucia, gucia içatea gatic, etçaçula deus desira, etçaçula galde yadanic eman duçuna.

Çaude enekin phuruki, eta fermuki lothua, eta ni içanen nauçu.

Orduan içanen da çure bihotça eguiazki libro, eta ilhumbe gucietaric campoan.

Çure eguin gucien, çure othoitcen, çure desiren chedea behar da içan yabetasun guciez bilhuciric, Yesu-Christo bilhuciari yarraikitcea, eta çure buruari bilic enetçat eternitate gucian bicitcea.

Orduan yoanen dire çure ganic beldurtasun humanoac, eta hilen dire çure bihotcean amodio desordenatu guciac.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaunaren nahirat gure buruaren uztea osoki da, haren graciaren moguimenduz, eta haren gogora eguiteco chedea baicen ez içaitea, gure nahiaz edo gostuaz conturic

batere eguin gabe: Gure presunez batere conturic eguin gabe, gauça gure gogora içan dadin, ala ez dadin, ea Yaincoaren arabera den baicen ez behatcea, eta cer nahi den gostaric-ere izpiritu sainduaren inspiracioneen seguitcea naguiduraric gabe. Hola eguiten ez dugunean Yaincoari hambatenaz beretic eramaten diogu, gure buru propiei çucen contra emateco: eta hala, nola emanen da gucia guri, gure satifaccionea eguiteco guisan.

Othoitça.

Noiz artio içanen naiz bada, Yauna, gauça gucietan traba baicen eguiten ez daroten, nere nahi propi hautaz hartua? Yauna, othoi, bilhuz naçaçu nere buruazco sentimendu guciez, çutaz, eta çure gogoraco osoki içateaz, eta cer nahi guertha dadin, gauça gucien çure gogora ikhusi nahiaz baicen ez nadin hartua içan: mundu huntan ene sustengu bakharra içan ondoan, içan çaitecen bercean ene golardoa *edo saria.* Halabiz.

XXXVIII. CAPITULUA.

Nola behar dugun campoco gaucetan comportatu, eta Yaincoa ganat ihesi eguin hirriscuetan.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, lekhu, ocasione eta lan gucietan duçun artha handi bat libro içateaz çure barnean, eta çure campoaren nausi.

Gauça guciac diren çure azpico, eta çu ez baten ere; içan çaitecentçat çure accioneen nausi, eta ez esclabo.

Manera hortan gathibotasun gucietaric libraturic, Israeldar eguiazco bat beçala iraganen çare Yaincoaren umeen condicionerat, eta libertaterat.

Ceinac altchateen baitire dembora huntaco gaucez gorago, ontasun eternaletan gogoa fincatceco.

Ceinec ezkerreco beguiaz beatcen baitiote ontasun irangorrei, eta escuinaz cerucoei.

Ceinac hain guti creaturen esclabo yarteen baitire, non contrarat hec arrimatcen baiti

tuzte creaturac Yaincoaren cerbitçuan, berac creaturetan eman duen ordenuaren arabera, ceinetan ez baita deus makhurric; bainan gauça guciac eguinac baitire creatçailearen ohoreco

2. Baldin fermu baçaude munduco guerthacarri gucietan; ez baduçu yuyatcen ikhusten, edo aditcen ditutçun gaucez campoco idurien arabera, eta haraguizco beguiz.

Aitcitic ocasione gucietan sartcen baçare Moïse beçala tabernaclean barna, Yaincoari conseilu galdetcerat, maiz adituco ditutçu haren errepusta dibinoac, eta handic ilkhico çare hanitz gauça oraingoez, eta guerocoez arguitua.

Ecen Moïse bethi tabernaclerat çohan argui eta conseilu bilha gauça gaitz, eta dudazcoetan; othoitcerat eguiten çuen bere ihesa guiçonen maleciac hirriscutan ematen çuenean.

Çuc-ere manera berean sarthu behar duçu çure bihotceco tabernaclean, Yaincoari mintkiago bere laguntça galdeguiteco.

Ecen iracurtcen dugu escritura sainduan Yosue, eta Israeldarrac Gabaondarrez enganatuac içatu cirela; *ceren ez baitçuten artha içatu gauça guciac baino lehen Yaincoari conseilu galdetceco*, ceren errechkiegui sinhexi baitcituzten hekien hitz eztiac, eta urricalmendu falso batez hunkitcerat utci baitcituzten bere buruac.

Cer eguin behar dut beraz?

Mundu huntan campoco gaucec gogotic gal-arazten darotçute Yaincoaren, eta gure salbamenduaren orhoitçapena; ceren ez baitiotegu munduco guerthacariei Yaincoac manatcen eta erreguelatcen dituen gauça batçuei beçala behatcen; bainan bai gure intresaren, edo gostuaren arabera; eta hala campoco gaucec emaiten dute gure bihotcetan placer, edo bozcario bat, Yaincoari behatcen ez çaizcotenac. Ikhas-çaçu beraz gauça guciei behatcen Yaincoaren escuetan; eta çure gogora direnean haren laudatcerat, eta ez direnean, edo hirriscuan, haren ganat ihes eguiterat erakharrico çaituzte.

Othoitça.

Çu çare, ene Yaincoa, gauça guciac çure loriara, bere azken chedera beçala, daramatçatçun, çuhurtcia hura bera, eta ene ondicoa da, ez baitiotet ordena hortan behatcen, eta ez baititut nere urhax guciac hari obeditceco chede phuruz eguiten, çure probidenciari fida ez banintz beçala. Ah! Yauna, sentitcen dut nere errebestasuna çure alderat, eta ahalcatcen naiz. Eguiçu, othoi, gauça guciei beha dioçotedan çure probidenciaren ordenan, eta hortan pausa nadin. Halabiz.

XXXIX. CAPITULUA.

Yaincoari utci behar diogula gure eguitecoen artha, eta haren ganic iguriki gauça guciac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, utzçaçu ene gainean çure eguitecoen artha, nic burutan atheratuco ditut cein bere demboran.

Çaude ene ordenuaren beira, eta progotchu içanen duçu.

ARIMAC.

2. Yauna, gogotic uzten ditut çure ganat ene eguiteco guciac, ecen ikhusten dut berdin ene arthec deus guti daiketela.

Ochala ez banu grignaric gueroco gaucez, eta osoki çure nahirat arrimatcen banintz!

YESU-CHRISTOC.

3. Ene haurra, guiçona badabila, eta khechatcen da hanitz desiratcen duenaren içateco, eta ardiexi duen beçain sarri higuintcen çayo, eta hartaz bertcela yuyatcen du; ceren guiçonaren guticiac gambiacorrac baitire, eta errechki iragaten baitire gauça batetic bertcerat.

Ezta beraz berthute chumea gauçaric chumeenetan norc bere buruari ukho eguitea.

4. Guiçonaren aitcinamendu eguiazcoa bicitce izpiritualean datça bere buruari ukho eguitean; hori eguiten duena goçatcen da libertateaz, eta soseguaz.

Guciarekin-ere debruac ungui gucien exayac ezcaitu behin-ere uzten tentacione

gabe ; gabaz eta egunaz hedatcen tu sarcac, hetan hatcemateco bere buruen goardian ez daudecenac.

Hargatic erran diotet ene Apostoluei: *çaudete atçarriric, eta eguiçue othoitz tentacionean sar etçaiteztentçat.*

Cer eguin behar dut beraz?

Gure eguitecoetan khechatcen gare. Certaco? Ceren guerorrec eguin, eta guidatu behar baguinitu beçala behatcen baitiotegu, Yaincoac egunean eguneco oguia emaiteraino artha gutaz içan nahi duen demboran. Hala nola içanen dugu haren ganic behar dugun pausua? Gomendaçotçu beraz haste hastetic çure eguitecoac Yaincoari. Desira çaçu haren gogoraco ondore baten içaitea; galdeguioçu gauça bera Yaincoari. Guero trabaila çaite hetan haren escuac gobernatcen duen tresna bat beçala, eta gaineracoa utz-çacu haren escurat, eta haren çuhurtciarat. Eta içanen çare soseguan.

Othoitça.

Ala! alferretan hainitz nekhatcen bainaiz,

ene Yaincoa, cer naicen çure alderat, eta çu cer çaren ene alderat gogoan ez ongui atchikiz! ecen ordutic nola ez neçake larga neure burua çure artha samurrei? Ah! Yauna, berant bada berant, aditcen dut egun erraiten dautaçula, ez nadin khecha, çuc badakiçula ceren heharra dudan: largatcen ditut beraz neure eguiteco guciac çure escuetarat. Guertha bekit çuc placer duçuna. Iraunaraz dieçadaçu, othoi, gogo on huntan heriotceraino. Halabiz.

XL. CAPITULUA.

Guiçonac eztuela berenez onic, eta ecin dukela deusez-ere buruipe edo sobera confidentciarekin.

ARIMAC.

Yauna, *cer da guiçona çu hartaz orhoitceco, edo cer da guiçonaren semea çuc hura çure bisitaz ohoratceco?*

Nondic merecitu ditu çuc hari eguiten diotçotçun gracia guciac?

Uzten baninduçu-ere, ô ene Yaincoa, cer çucen nuke errencuratceco?

Eta cer causi deçaket erraiteco ez badarotaçu emaiten galdetcen darotçudana.

Ecin neure buruaz deus pensa, eta erran deçaket eguiagoric hauche baino, Yauna, ez naicela deus, ez daikedala deus, ene ganic eztudala deus onic; ez naicela flakeciaric baicen, eta bethiere neure yaidura gucia ezdeusera dudala.

Halaco maneraz bai non ez banauçu campotic laguntcen, eta barnetic borthizten, lachatcen bainaiz berehala, eta erortcen epheltasunerat.

2. *Bainan çu, Yauna, bethi orobat çare* eternitate gucian, bethi on, yustu, saindu.

Gauça guciac ordenatcen, eta arrimatcen ditutçula ontasunekin, yustutasunekin, çuhurtciarekin eta saindutasunekin.

Bainan ni ceina aitcina bainoa guehiago bainoa guibela berthutearen bidean, eznago dembora lucez estatu batean, ceren gambiatcen bainaiz demboraren arabera.

Halere laster altchatcen naiz placer duçunean hedatu çure escua ene laguntceco.

Ecen çu cerori nihoren laguntçaric gabe aski çare ene laguntceco, eta ene borthizteco

balaco façoinez non ez bainaiz hain gambiacor içanen, bainan ene bihotça osoki çure ganat itçulico baita, eta çure baitan baicen ez baitu bilhatuco bere sosegua.

3. Baldin banaki munduco consolacioneen uzten, nahiz debocionean aitcina yoaiteco, nahiz çure baitan causitceco guiçonen artean etcintuzkedan laguntçac, eta soleguimendaac.

Orduan arraçoinekin uste behar nuke betheco nintekela çure graciaz, eta cerutiaco dohainez, eta consolamenduez.

4. Esker darotçut, ô ene Yaincoa, ene ganat heldu diren ontasun guciac çure ganic heldu direnaz gueroztic.

Ecen ez deus naiz, eta banitate hux çure aitcinean gucia naiz gambiacorra herbala, eta flacoa.

Certaz duket beraz ene baitan buruipe edo *confidentciaric*, eta cergatic nahi dut içan preçatua bertceez?

Ene esdeustasuna gatic? Hori liteke azkeneco banitatea.

Eguiaz bana-loria içurri perilos bat da, eta liluramendu handi bat eguiazco loriaz gabet-

cen, eta çure graciaz bilhuzten gaituenaz gueroztic.

Ecen nihor bere buruaz content denean çure desgogora eguiten da, eta guiçonen laudorioen ondoan dabilanean galtcen tu eguiazco berthuteac.

5. Arimaren eguiazco loria, eta bozcario saindua da çure baitan bere axeguina ematea, eta ez bere baitan çure handitasunaz boztea, eta ez bere berthuteaz, eta creaturetan, gure gogoraco diren gauça guciez çuri ohore emaitea.

Hala beraz, Yauna, guiçonec lauda beçaiçate çu, eta ahantz ni; glorifica beiçate çure obrac, eta ez eneac; laudorio guciac diren çuretçat, eta nic ez deçadan enetçat gueldi batere.

Çu çare ene loria, eta ene bihotceco bozcarioa.

Eztut nahi loriaric, eta bozcarioric hartu çure baitan baicen, ene bici gucian; ecen nitaz denaz beçambatean eztu deus loria, eta buruipe eman dieçakedanic ene flakeciac, eta ez deustasuna baicen.

6. Yuduec eta mundanoec *bilha beçate*

elkarri ematen dioten loria; nic bekintçat eztut nahi bilhatu Yaincoa ganic heldu dena baicen.

Ecen mundu huntaco loria, ohore eta handitasun guciac eztire banitateric, eta erhokeriaric baicen çure eternitateco loriaren aldean.

O ene Yaincoa, ceina baitçare ene misericordia, eta ene eguia; Trinitate dohaxua! çuri choilki çor çaizkitçu laudoriac, ohoreac, berthuteac, eta loria mende gucietaco mendetan.

Cer eguin behar dut beraz?

Deus ez gare gure baitharic, deusez ez gaitezke beraz lorifica, ez errencura, ez eta buruiperic deusez içan. Hortic erori behar gare humiliacione suerte gucietara. Ordean Yaincoac eguin gaitu cerucotz, eta hain maiteki egartcen gaitu. Gure accione ez deusac altchatu nahi ditu ceruaren merecimendura. Hortaz behar ditugu gure buruac urus estimatu, eta Yaincoari ahalaz eskerrac eman. Behar gare bici gure autorari, eta gure yabe, loki gucietan present denari, çor diogun errespetuarekin, eta bere galçarre sacratuan

hazten dituenec çor dioten, haren ganaco samurtasunarekin.

Othoitça.

O! Yainco, ni ez deusa baitan hambat gauça espantagarri demboran eguiten, eta eternitatean eguin nahi duçuna, eguiçu, othoi, nere ez deustasunaz orhoit nadin bethi; eta mirexiz çuc ene gainean dituçun deseinuaz, ez deçadan bilha çuri eskerren bihurtcea, çure gogoraco içaitea, eta çure loriara heltcea baicen. Halabiz.

XLI. CAPITULUA.

Mundu huntaco ohoreac mezpreçatu behar ditugula.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, etçaitecela trista ikhusteaz berteeac ohoretarat altchatuac, eta çu arbuyatua, eta beheratua.

Altcha çaçu çure bihotça ene ganat cerurat, eta eztuçu içanen damuric guiçonez lurrean mezpreçatua içateaz.

ARIMAC.

2. Yauna, hain ixuac bagare non banitateac errechki enganatcen baicaitu.

Neure buruari ungui behatcen badiot, eçagutuco dut egundaino nihorc eztarotala bidegaberic eguin, eta hala eztudala arraçoinic çutaz errencuratceco.

Ecen creatura guciec çucen dute ene contra altchatceco, hambateraino egun oroz ofensatcen çaitudanaz gueroztic.

Hala desohorea, eta arbuyoa hain yustuki dahozkit niri, nola çuri laudorioa, ohorea eta loria.

Eta ez banago gogotic creatura guciez mezpreçatua, utcia eta ezdeustçat idukia içaterat, ecin duket ene barnean bakeric, eta fermutasunic, ez çure graciaren arguiric, ez çurekin batasun osoric.

Cer eguin behar dut beraz?

Sar çaite ongui arimac hor Yesu-Christori eracusten dituen sentimenduetan. Eta çure hux handien bistan altcha çaçu çure gogoa, aita on haren baithaco esparantçarat. Orai-

dinocoan iguriki çaituen paciencia bera, cer arraçoin ez duçu, haren ontasunaz seguratua içaiteco ?

Othoitça.

Bai, ene Yaincoa, ene biciari baicen behatu ez bacinu, ez mundu huntaco mezprecioac choilki, bainan ifernucoac behar nituen. Ordean, Yauna, uruski aita çaitut, eta ene salbatçailea çare. Ene huxac barkhatu nahi daroztatçu. Emadatçu, othoi, ceronec hartaco behar ditudan disposicioneac; eta eguiçu çure graciaz, gal naçakeçularic salbatu nahi nauçula orhoituz, çuretçat beldur baino amodio guehiago içan deçadan. Halabiz.

XLII. CAPITULUA.

Bicitce huntaco bakea eztugula guiçonen baitan eçarri behar.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, çure bakea ematen baduçu cein nahi den presunaren baitan, ceren den çure gogoracoa, eta ceren lakhet çaitçun harekin bicitcea, bethi içanen çare khechos eta trabatua.

Bainan lotcen baçaizkit niri ceina bainaiz eguia eternala, eta nihoiz-ere gambiatcen ez naicena, etçare tristatuco çure adiskidea hiltcen çaitçunean, edo bertce maneraz uzten çaituenean.

Nic behar dut içan çure adiskideençat duçun amodioaren cimendua, eta ene gatic, behar tutçu maitatu berthutexu iduritcen çaizkitçun guciac, eta mundu huntan maiteen ditutçunac.

Ni gabe ezta adiskidetasun eguiazcoric, ez iraupenecoric, eta bi presunen arteco amodioa ezta garbia, baldin ni ez banaiz hec elkharrekin lotcen tuen coropiloa.

Halaco maneraz behar duçu içan hila maite tutçun presunen afeccioneari, non çure baitan dagoen beçambatean nahi behar baituçu içan guiçonen compainiaric gabe.

Cembatenaz guiçona lurreco consolacione gucietaric urruntcen baita, hambatenaz hurbiltçen da Yaincoa ganat.

Eta hambatenaz gorago altchatcen da Yaincoa ganat, cembatenaz beherago yausten baita bere ezdeustasunerat, eta bere beguietan aguertcen mezpreçagarriago.

2. Cerbait on bere baitharic duela uste duenac debecatcen du bere buruipeaz Yaincoaren gracia bere ganat yaustetic, ceren Izpiritu sainduaren graciac bethi bihotz humila bilhatcen baitu.

Bacinaki çure buruaren osoki eceztatcen, eta creaturen alderaco amodio gucietaric bilhuzten, ikhus ninçakeçu çure ganat yausten ene gracien abundantciarekin.

Orduan creaturei beha yartcen çaizcotenean galtcen duçu bichtatic creatçailea.

Ikhasaçu gauça gucietan çure buruaren garaitcen Yaincoaren amorea-gatic, eta altchatuco çare emeki emeki Yaincozco gaucen eçagutçarat.

Gauça bat chumea içan arren, Yaincoaren ordenuaren contra maitatcen baduçu, liçuntcen du çure bihotça, eta urruntcen çaitu ontasun soberanoa ganic.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoa da bakharric perfeccione gucien ethorkia; hura behar da beraz içan gure bihotçaren pausa-lekhua; adiskidetasun bat dencan beraz Yaincoaren ganat ez garamatçana, eta haren ganaco samurtasuna gure baitan flacatcen duena, eta cer nahi guertha dakigun haren borondate saindua eman behar dugun pausu hartan altara gaitçakeyena, ordutic çucen contracoa da; ordutic Yaincoac behar afeccionearen pharte bat creaturac baitarama. Ez deçaçula beraz nihor maitha, grigna handiric gabe bederen utz ezdeçakeçun beçala.

Othoitça.

O! bakharric çuretçat içaiteco eguin nauçun Yaincoa, eguiçu çure graciaz, ene bihotça ez dadin loth çuri baicen, eta ez deçan har creaturentçat afeccioneric, çure arabera, eta çu gatic baicen. Çureaz campoco amodio guciec, khiraxic baicen ez dute ondotic. Eguidaçu gracia hortan fincateeco; içan nadin neure ahidura gucietan gortua, aguindu daucuçun khoroaren esparantçaz. Halabiz.

XLIII. CAPITULUA.

Cein banoa den munduco yakintasuna.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, ezteçaçula utz çure burua

charmatcerat guiçonen solas ederrez: *Ecen Yaincoaren erresuma eztago hitcetan; bainan bai Yaincozco berthutean eta indarrean.*

Çaude erne ene hitcen aditceco, hec berotcen dute bihotça, hec arguitcen izpiritua, ariman urrikimendua phizten, eta consolacione suerte guciac ematen.

Ezteçaçula behin-ere ene hitça iracur, çuhurrago eta yakinsunago guiçonen artean aguertceco.

Ikhasaçu çure pasioneen hezteco antcea; hura guehiago baliatuco çautçu gauçaric gaitcenen eçagutça baino.

2. Iracuraçu nahi duçun beçambat: içan çaite nahi beçain çuhur, eta yakinxun; bethiere ethorri behar da principiorat; nic iracasten diotedala guiçonei yakintasun guciac.

Nic ematen diotedala haurrei, eta simplei argui, eta yakintasun guehiago guiçon guciec elkharrekin eman ahal deçaketen baino.

Ni mintço natçayona laster içanen dela yakinxun, eta hanitz aitcinatuco dela çuhurtcian.

Çorigaitz hanitz gauça curios ikhasten hari

direnentçat, eta ene ungui cerbitçatceco moldearen ikhasteaz artharic eztutenentçat!

Ecen ethorrico da egun bat, ceinetan Yesu-Christo, doctoren doctorac eta aingueruen nausiac, examinatuco baititu batbederaren istudioac, erran nahi dut miratuco bihotçac, eta concienciac.

Orduan *miratuco du Yerusalem arguiac escuetan, ilhumbean gordeac daudecen gauçac aguertuco dire, eta ahalkeriac mututuco ditu hitz ederretaco mihiac.*

3. Nic memento batez alchatcen dut izpiritu humila, eta gayago eguiten dut eguia eternalaren arraçoinamenduan aditceco, hamar urthez escoletan istudiatu dutenec baino.

Nic irakhasten dut hitcezco habarroxic gabe, opinione diferenten nahasmenduric gabe, yakintasunac ematen duen hanturaric eta buruiperic gabe, ihardukitcen guducaric gabe.

Nic iracasten dut lurreco gaucen arbuyatcen, oraico ontasun iragancorren uzten, eternitatecoen bilhatcen, eta gustatcen; ohoreei ihes eguiten, laidoen pairatcen, Yainco choila baitan esparantça emaiten, hura baicen

ez desiratcen ; eta hura maitatcen gauça guciac baino guehiago.

4. Presuna batçuec ni bere bihotz guciaz maitatuz ikhasi tuzte ene ganic Yaincozco gauça handiac, eta hetaz mintçatu dire miragarriki.

Hainec çuhurtcia guehiago ardiexi dute gauça guciei ukho eguinic, gauça ederrac eta gorac istudiaturic ikhasico çuten baino.

Batçuei gauça ardurazcoac erraiten diotçatet, berteeei iracasten diotçatet goragoac ; batçuei aguertcen natçayote itçalen eta figuren azpian, eta bertce batçuei ene misterioac argui handian eracusten diotçatet.

Liburuec gauça bera erraten diote guciei ; bainan eztituzte guciac orobat arguitcen, ceren ni barnean bainaiz eguiaren iracaxçailea, bihotçaren çundatçailea, eta nic batbederari partitcen baitiotçat arguiac mereci duela yuyatcen dudan beçala.

Cer eguin behar dut beraz ?

Bere yakintasunaz buruipe *edo urgulu* hartcen dutenei, ez ohi diotcite Yaincoac emaiten arguiric hautatuenac. Hec presuna ichil, eta

humilentçat ditu. Ez çaitecela beraz lehia yakinxun içaitera, bainan bai ichil, eta humil : ez caritateaz, eta bertce berthutez, edo iracurtu, edo aditu tutçun gaucez mintçatcerat ; bainan hai berthute heyen içaitera, eta aditu, edo irracurri tutçunen praticatcerat. Galdeguioçu maiz, eta minki Yaincoari, erregue Profetarekin, haren borondate sainduen bethetceco, eta çure salbamenduaren eguiteco antce ecin aski preçatuzco hura, eta çaude hortan.

Othoitça.

Izpiritu saindua, argui çatçu gure izpirituac, eta susta gure bihotçac çure amodioaren kharraz, eçagut, eta obretan eman ditçagun salbatceco yakin eta eguin behar tugunac. Ez deçaçula, othoi, permeti gure fedeac berac condenna gaitçan egun batez, harrec erranen ikhasteco, edo eguiteco laçokeria dela causa ; bainan içan deçagun bat eta bertcearen alderaco arthari aguindua den golardoa. Halabiz.

XLIV. CAPITULUA.

Eztugula behar campoco gaucez izpiritua trabatu.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, on da hanitz gaucen gainean etçaitecen içan yakinxun, eta çure burua iduc çaçun munduari hiltçat, *eta mundua çuri hil eta gurutceficatutçat.*

Gor içan-ere behar duçu hanitz solascentçat, eta erne hanitz bakea eman ahal dieçaçuketen gaucentçat.

Hobeagoda beguiac çure gogoraco eztiren gaucetaric apartatcea, eta batbederari nahi duenaren eguiterat uztea; ecen-ez contrestetan, eta ihardukitcetan sartcea.

Yaincoarekin ungui lothua baçaude, eta haren yuyamenduari behatcen badioçu achola guti içanen duçu guiçonen yuyamenduan garaitua içateaz.

ARIMAC.

2. Helas! ene Yaincoa, certerat bilhacatuac gare? Auhendatcen dugu calte temporal

bat, intres chume batec nekharazten gaitu, eta bagarabiltça lasterca; eta galtcen dugu gure arima, hurren nola eztakigula anxia gabe, eta hain calte icigarriaz unkituac içan gabe.

Artha handi dugu progotchu gabeco, edo gutitaco gaucentçat, eta anxicabeki largatcen tugu baitezbada edo nesesarioki behar ditugunac, ceren gure pendurac camporat baicaramatça, eta hetan gogotic baicaudez, ez bagare serioski sartcen gure baithan.

Cer eguin behar dut beraz?

Gogoari emoçu maiz, eta serioski munduco gauça guciac cer, eta cer iraupenetaco diren. Egun badire bihar ez dire. Heriotcean munduco ontasun, ohore, eta abantail guciac içan, ala batere ez içan, berdin satifaccione içanen dugu: eta oraino ez içanic guehiago. Gogoeta horiec eracarrico çaituzte çure Yaincoari, çure salbamenduari, eta çure eguinbidei bakharric atchikitcerat. Eta horiec eguin faltaz, cer guerthatcen da? Oi! ixumendu, eta gogortasun ecin asmatuzcoa! Yaincoa bera da, eta gure salbamendua galtceaz munduan damuric gutiena içaten dugun ontasuna.

Othoitça.

Ah! Yauna, senti-araz dieçaguçu, othoi, cer ondico den guretçat çure graciaren galtcea, bere gauça guciac aldebat utciric, haren beguiratceaz içan dadin gure errencura gucia. Finca çaçu çure graciaz, Yesus maitea, bil batec çuphutic baino contu guehiago, munduco itçuliez ez eguiteco hartcen dudan gogoa. Mundu huntan çutaz choilki hartua içanic, bertcean har naçaçun çure lorian. Halabiz.

XLV. CAPITULUA.

Eztela edocein sinhexi behar, eta guti behar dela mintçatu.

ARIMAC.

Yauna, *lagun çakiskit ene axecabean, ecen guiçonaren laguntça ezta deusetaco.*

Oi, cembatetan guerthatu çait leyaltasunic ez causitcea guehien ustenuen lekhuan! eta cembatetan causitu dut gutienic ustenuc presunetan?

Alferric ematen dugu beraz gure esparantça guiçonen baitan, yustuen salbamendua ezta causitcen çure baitan baicen, ô ene Yaincoa!

Çaren benedicatua, ô ene Yauna, guerthatcen çaizkigun gauça gucietan.

Flacoac gare eta gambiacorrac; enganatcen gare, eta mudatcen aldi gucietan.

2. Nor dago bere buruaren gainean hain erne, eta hain atçarria non ez baita noicic behin erortcen ustecabeco faltetarat, eta izpirituco penetarat?

Bainan çure baitan bere esparantça ematen duena, eta bihotz simple, eta chuchen batekin çu bilhatcen çaituena, ezta hain errechki hetarat erorico.

Eta axecabetarat erortcen bada, hetaz alde gucietaric inguratua balitz-ere, laster hetaric atheraco duçu eta consolatuco, ceren ez baititutçu uzten behin-ere çure baitan fineraino esparantça dutenac.

Bakharrac dire hanitz adiskide leyalac, bere adiskideen herxtura, eta çorigaitz gucien gatic gambiatcen eztirenac.

Çu bakharric çare, ô ene Yaincoa, adis-

kide guciz leyala, eta ezta çure adiskidetasunaren eta leyaltasunaren pareric.

3. Oi, ala biryina saindu batec çuhurki erran baitçuen tormentaric handienac ikhustean : *Ene arima fincatua da eta fermuki cimendatua Yesu-Christo baitan!*

Hala baninz ni-ere guiçonen beldurrac ez nintçake hain errechki altara, eta enetçake hain minki senti mihi gaichtoen colpeac.

Nor da gaitz guciac aitcinetic ikhus ahal detçakena, edo heldu çaizkigun çorigaitz guciei itçul ahal dakioketena ?

Eta aitcinetic ikhusiric heldu çaizkigunacere hain min baçaizkigu, cein dorpheac dire bada ustecaberic çaurtcen gaituzten colpeac ?

Ene dohacabea! cergatic ez ditut gaitz horien gucien contra segurantçaric handienac hartcen ? eta cergatic fidatcen naiz guiçonen hitzetan ?

Helas! guiçonac gare, eta guiçon flacoac, hanitcec ainguerutçat bagaduzcate-ere.

Nor beraz sinhexico dut baicen çu, ô ene Yaincoa, ceina baitçare eguia, eta ceinac

ecin nihor engana baiteçakegu, ez çu-ere nihorc ?

Guiçon guciac gueçurtiac dire, flacoac, gambiacorrac, eta erorcorrac bere gainki hitzetan : hala eztire errechki sinhexi behar, cembat hekien hitzec eguia iduribaitute-ere.

4. Ala çuc, Yauna, çuhurki abisatu baicaitutçut : *Ezgaitecela fida guiçonetan ; guiçonaren exayac haren etchecoac direla ;* eta nihorc erraiten badarotçu *Hemen da*, edo *han da Christo*, eztugula behar sinhexi.

Hori frogatu dut ene gostuz : ochala frogantça harc eguin banindu goardiacorrago, eta çuhurrago ethorkiçunecotz.

Presuna batec gomendatcen darot secretu bat ; atchicaçu gorderic, diotça, nic erraten darotçudana, eta nic gauça hura secretu datchecat, eta estalitçat daducadala, bera ecin dagoke ichilic, eta erraten du nic erran deçadan nahi eztuena : badoa ene ganic, eta dembora berean bere buruari, eta niri hitça faltatcen darocu.

Otboi, ene Yaincoa, beira naçaçu yende hitzcuntci eta arinetaric ; ez nadin eror

hekien escuetarat, ez nadin içan hekien idurico.

Ematçu ene ahoan hitz eguiazcoac, eta cinezcoac; urrun çaçu ene ganic mihi enganagarria; ecen eztut behar ene baitan onexi bertceen baitan gaitcesten dudana.

5. Oi nolaco bakea eta abantaila den bertceez ez mintçatcea; erraten diren guciac ez sinhestea, hec bertceei ez condatcea, gutiri bere barnea aguertcea, gure bihotceco lekhuco, eta yuyeari beçala çuri bethi behatcea, guiçonen haicezco solasen arabera ez itçulicatcea, eta nahi içatea gauça guciac iragan ditecen gure barnean eta campoan, çure borondate sainduaren arabera!

Ala on baita, gracia segurean beiratceco, ihes eguitea guiçonen beguietan distiatcen duten gauça guciei; ez desiratcea munduaren estimua, eta admiracionea gure ganat erakhar deçaketen gauçaric, eta artha handirekin bilhatcea gure escasac guti, eta gure berthuteac emenda detçaketen guciac!

Ecen berthute distianteguiac, eta sobra preçatuac hanitz galdu ditu.

Eta contrarat progotchos içatu da bethi,

ichiltasun handi batean gracia gordetcea bicitce huntan, ceinetan bethi tentacioneez, eta exayez inguratuac baicare.

Cer eguin behar dut beraz?

Cer da santa Agatha bere tormentetan beçala, Yesu-Christoren baitan cimendatua içaitea? hura da, guiçonen aguintcetan conturic eguin gabe, Yesu-Christo baitan choilki fidatcea, eta arau hartara bicitcea, harekilacoaren atchikitceco guiçonekilacoari ukho eguinez, eta maiz gure bihotcean haren inspiracioneac adituz, heyei behatuz, eta artharic handienarekin heyei yarraikiz. Horrela eguiten duçularic, causituco duçu heriotcean urricalmenduzco aita bat, Salbatçaile bat, eçagutu, eta maitatu duçulacotz, bere haur maitetçat eçagutuco çaituena.

Othoitça.

Aski esker gabe, eta fede-hotcecoa othe ninteke bada, Yesus maitea, çutaz bercei nere bihotçaren lotcerat uzteco, eta guiçonez çutaz baino contu guehiagoren eguiteco? Ah! ikhusten dut, Yauna, hola mundu hun-

taco, eta bertceco tormenta guciac merecinintuzkela. Ez, ene Salbatçaile ona, ez dut nahi bertce dohaxutasunic çure borondate sainduaren eguitea mundu huntan, eta bertcean çurekin içaitea baicen. Halabiz.

XLVI. CAPITULUA.

Yaincoa baitan eman behar dugula gure fidantcia mihi gaichtoz çaurtuac garenean.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, çaude fermu, eta emaçu ene baitan çure esperantça; ecen cer dire guiçonen solasac? baicen hitz airean galtcen direnac, eta harriec hausten eztuztenac.

Eguia bada çutaz erraten dena, lehia çaite lehen baino lehen correïtcea.

Ez baduçu çure burua faltiar causitcen paira çaçu gogo onez, erran gaichto bura Yaincoaren amoreac gatic.

Etçare gai tormenta handien yasateco; ez duçu bada bederen cembait hitz gogor pairatu behar?

Cergatic hain gauça chumeac min eguiten darotçu bihotcean? Ceren oraino haraguizcoa baitçare, eta behar baino guehiago guiçonei behatcen baitioçute.

Arbuyatua içateco beldurrez, eztuçu hiroic *edo erreprotchuric* aditu nahi çure escasen gainean, eta çabiltça çure buruaren edertceco aitceguia *edo estacuru* bilha.

2. Bainan sar çaite barnago çure buruaren eçagutçan, eta ikhusico duçu mundua oraino çure bihotcean bici dela, eta guiçonen gogora eguin nahizco guticia banoac çure baitan badirauela.

Ecen çure falten gatic beheratua, eta mezpreçatua içateco duçun beldurrac eracusten du agueriki, etçarela eguiazco humila, ez eguiazki *munduarentçat hila*, eta eztela *halaber mundua hila eta gurutceficatua çuretçat.*

Bainan adi çaçu ene hitça, eta guiçonen solas guciez etçare contu haricо.

Guiçonen gaichtakeriac asma ahal detçakeen guciac çure contra erasten balire-ere, cer bidegabe cinduke? Uzten bacintu erran hec guciac anxia gabe aireco fixa beçala, gai

Universidad de Deusto
Biblioteca

othe litezke çure burutic ile baten atheratceco-ere?

3. Presuna bat eztenean bere barnean sarthua; bihotça camporat barrayatua duenean, eta Yaincoa beguien aitcinean eztuenean, hitz moco bat aski da haren çaurtceco, eta minki ofentsatceco.

Bainan ene baitan bere esparantça emaiten duenean, bere yuyamendu propian tricatu gabe, guiçonen yuyamendüentçat ezta beldur içanen.

Ecen ni naiz yuyea, eta bihotcen barneac eçagutcen ditudana; nic badakit cer maneraz gauçac iragaten diren; badakit norc eguin duen ofensa, eta nori eguiten çayon.

Nic permetituric eguin da hunelaco gauça, edo erran halaco hitza; eta hori guerthatu da *arguitarat atheratceco hanitcen bihotcetan gordiac çaudecen gogoetac.*

Inocenta eta faltaduna nic yuyatuco ditut mundu guciaren aitcinean: bainan nahi içatu ditut bata eta bertcea lehenago frogatu yuyamendu gorde batez.

4. Guiçonen lekhucotasuna maiz enganiosa da; bainan ene yuyamendua eguiazcoa

da, fermua eta deusec ecin gambiatuco du.

Maiz gordea da, eta nihor gutic eçagutcen ditu haren secretuac.

Eta ez bethi yustua iduritu arren presuna çuhurtciaz gabetuei, hargatic chuchena da, eta ecin nihor engana deçake.

Niri utci behartçait beraz gauça gucien yuyamendua, norc bere burua sinhexi gabe.

Ecen yustua ezta altaramendurat erorico cer nahi den gaitz guertha dakion Yaincoac permetituric.

Damu guti içanen du yende batçuec haren contra gaizki eta inyustuki mintçatcen badire, eta halaber bozcario guti bertce batçuec haren alde yarriric yustuki defendatcen badute.

Ceren baitaki *nic çundatcen ditudala bihotcen, eta errainen barneac*, eztudala yuyatcen campoco idurien arabera, eta maiz guiçonen beguietan on eta laudagarri dena gaichto dela eta criminel ene yuyamendian.

ARIMAC.

5. Ene Yauna eta ene Yaincoa, ceina bait-

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
BIBLIOTECA

çare yuye yustu, borthitz eta pairacorra, ceinac eçagutcen baituçu guiçonen flakecia eta gaichtotasuna; çaren, othoi, ene indarra, eta ene habe bakharra.

Ezta aski ni neure beguietan hohendun ez içatea; çureec ikhusten dute ene baitan nic ecin eçagut deçakedana, eta mehatchatu nauten aldi gucietan behar içatu dut humiliatu, eta hirör guciac eztiki hartu.

Barkha dietçakidatçu, ene Yaincoa, bertcela comportatuz eguin ditudan huxac, eta eguidaçu gracia ethorkiçunean humilago eta pairacorrago içaiteco.

Hobeago dut othoitztu çure misericordia guciz handia, ene barkhamenduaren ardiesteco ecen-ez fidatu ene baitan dela ustedudan, yustutasunean: ecen ene contcientciaco çokho-mocoac eztitut eçagutcen.

Ecen deusetan-ere faltiar neure burua causitcen eztudalaric, halere ecin neure burua yustifica dezaket; ceren eta çure misericordia gabe, *guiçon bat-ere ez baita yustu edirenen çure aitcinean.*

Cer eguin behar dut beraz?

Ez çaitecela pausa mezprecioec, eta errancari gaichtoec bihotcean sor arazten duten behaçunean, sacrifica-çoçu berehala Yaincoari; eta eguin beguitarte ona, eta ahal onguiac çutaz gaizki mintço direnei. Neke da: bainan beha-çoçu Yesu-Christori, eta ikhusico duçu, amodio propia dela hortan sofritcen duena. Gutiac dire pontu horren gainean minbera ez direnac; ceren gutiac baitire humiltasun eguiazcoa, eta Yaincoaren amodioa dutenac.

Othoitça.

Çuri beha eta, ala guti eman baitçaut, Yesus maitea, munduco errankiçunez errencuratcea, eta guiçonen estimuaren bilhacea! cer penxatcen othe duçu ceronec nitaz? Cer erranen othe dautaçu çure yuyamenduan? Ez deçaçula, othoi, permeti gogoeta horiec yoan diten ene izpiritutic, horiec atchic naçaten çutaz choil hartua. Halabiz.

XLVII. CAPITULUA.

Munduco pena guciac gogotic behar direla pairatu bicitce eternalaren ardiesteco.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, etçaitecela unha ene amorea gatic hartu ditutçun lan gaitz, eta penagarrietan, ez bekiçu bihotça eror axecabetan; bainan ene aguintçac borthitz beçaitça, eta consola cer nahi den guertha dadin.

Aski podorosa naiz neurri gabeco sari bat hekien orde çuri emateco.

Etçare hemen dembora lucez nekhatuco, eta etçare bethi nahigabetan içanen.

Iguricaçu aphur bat, eta laster ikhusico duçu çure gaitz gucien akhabantça.

Ethorrico da memento bat ceinetan çure pena eta altaramendu guciac finituco baitire.

Demborarekin iragaten direnac arinac dire bethi, eta laburrac.

2. Eguiçu bethi eguin behar duçuna; har çaite leyalki lanean ene mahastian, eta neroni içanen naiz çure golardoa.

Escriba çaçu, iracur, canta psalmuac; maita çaçu penitentcia, ichiltasuna, othoitça, eta paira çatçu animozki guerthatcen çaizkitçun axecabe, eta contresta guciac.

Bicitce eternalac merecitcen ditu gudu horiec guciac, eta handiagoac-ere.

Egun batez ethorrico da bakea, eta egun hura eztaki nihorc Yaunac baicen; ezta hura içanen oraicoa beçalaco eguna, ceinaren ondoan gaba baita; bainan içanen da egun eternal bat claritate fin gabeco bat, bake fermu bat, eta sosegu seguratu bat.

Eztuçu orduan erranen: *norc libratuco nau heriotcezco gorphutz huntaric?* eta etçare guehiago oihuz egonen. *Helas! ene desterruaren lucea!*

Ecen heriotcea deseguinen da, eta eceztatuco; çure dohaxutasuna ecin altaratuzcoa içanen da, eta goçatuco çare grignaric gabe ceruco bozcario guciez, Yaincoaren compainiaz, eta loriaren edertasunez.

3. Oi! ikhusten bacintu ceruan ene sainduen khoro eternalac, eta nolacoa den orai hainen loria ceinei munduac lehenago mezpreciorekin behatcen baitcioten, bicitcea-ere

merecitu ez balute beçala! Duda gabe humilia cintezke lurreraino, eta nahiago cinduke guiçon guciei obeditu, ecen ez bati-ere manatu.

Nahiago cintuzke Yaincoa gatic axecabeac pairatu, ecen-ez bicitce huntaco egunac axeguinetan iragan; eta abantail handitçat estima cineçake guiçonen aitcinean esdeusçat idukia içaitea.

4. Oi! eguia hauc gusta bacinetça, eta çure bihotçaren barneraino sar balitez, nola atrebi cintezke çure gaitz gucietan errencura chume baten-ere eguiterat?

Cer da hain gaitz handiric, gogotic pairatu behar eztenic bicitce dohaxu, eta eternal baten ardiesteco?

Ezta gauça gutia Yaincoaren erresumaren galtcea, edo irabaztea.

Altcha çatçu beraz çure beguiac cerurat; han ikhus naçaçu ene saindu guciez inguratua: hec gudu handiac içatu tuzte munduan: bainan orai bozcarioan dire, consolacionean, bakean eta egonen dire enekin eternitate gucian, ene aitaren erresuman.

Cer eguin behar dut beraz?

Bethi paira? bethi nekha? bethi nere nahiei borteha eguin? ordean bethi hori cembat da luceenaz ere? sofricari horiec cer dire, horien bidez sainduec goçatcen duten, eta Yaincoac aguintcen darotçun dohaxutasunari behaturic? Ah! deithoraçaçu çure fedearen flakeça, orhoit çaite heriotcean ez duçula bertce consolacioneric içanen, Yesu-Christo gatic pairatu içana baicen.

Othoitça.

O! ene Salbatçaile ona, ene salbatceco gurutcearen gainean, eta laido suerte gucien erdian hila, hain guti preçatcen dut bada nic salbamendua, haren gatic deusic guphidesteco neure baitan? Badakit, Yauna, mundu huntan, edo bertcean pairatu behar dudala ceruan sartceco. Phitz-çaçu, othoi, ene fedea, borthitz-çaçu ene esperantça, anima çaçu ene caritatea, ceruaren esperantçan, cer nahi den sofritcerat bihotcez ekharria içan nadin. Halabiz.

XLVIII. CAPITULUA.

Ceruco dohaxutasunaz, eta mundu huntaco miseriez.

ARIMAC.

Oi, Yerusalem, cerucoaren egoitça goço, eta dohaxua! O eternitateco egun distiantá, gabac ilhuntcen eztuena, bainan eguia soberanoac bethi arguitcen duena!

Egun çorionezcoa, ceinetan gustatcen baita bethiereco bozcarioa, segurantça osoa, eta eztitasun ecin altaraztucoa!

Ochala ethorria balitz egun hura, eta oraico egun hauc guciac akhabatuac balire!

Orai danic egun harc arguitcen du sainduentçat bere distiadura gucian: bainan urrundic hanitz, eta hanitz itçalen artetic bere arrayoac arthikitcen ditu lurreco egoilen gainerat.

2. Ceruan daudecenec gustatcen dute axeguinekin egun dohaxu hura; Ebaren ume desterratuec frogatcen dute bihotz minekin cembat khirestasunez betheac diren hemengo egun dohacabeac.

Ecen dembora huntaco egunac laburrac dire, gaichtoac, axecabez, eta behaçunez betheac.

Hemen guiçona bekhatuec liçuntcen dute, pasioneec amarratcen dute, beldurrac altaratcen du, arthec khechatcen dute, curiostasunac barrayatcen du, banitateac trabatcen du, enganioac ixutcen du, nekheac ahitcen du, tentacioneec penatcen dute, axeguinec flacatcen, eta gabeac tormentatcen.

3. Oi! noiz ethorrico da gaitz hauyen gucien fina? Noiz libratuco naiz bicioen gathibutasun dohacabetic?

Noiz ez naiz çutaz baicen orhoituco, ó ene Yaincoa? Noiz osoki çure baitan boztuco naiz?

Noiz gorphutceco eta izpirituco traba gucietaric ilkhiric manera guciez libro içanen naiz?

Noiz goçatuco naiz bake fermu, eta nahasimendu gabeco hartaz, bake seguratu, barneco eta campoco bake deusec ecin altaratuzco hartaz?

O Yesus ona eta maitagarria! noiz içanen naiz estatu hartan, ceinetan nic çu bekhoz

bekho ikhusico baitçaitut, ceinetan çure erresumaco loria contemplatuco baitut? Noiz içanen çaitut çu gauça gucien orde?

Noiz içanen naiz çurekin erresuma hartan, *ceina preparatu baituçu maite çaituztenentçat eternitate gucitic.*

Helas! utcia naiz hemen desterratu dohacabe bat beçala exayen lurrean, ceinetan bethiereco guerlac baitire, eta laceria ecin guehiagocoac.

4. Yauna, consola naçaçu ene desterruan, goça çatçu ene axecabeac, ecen ene bihotçac eztu çuretçat baicen hasbeherapenic.

Munduac ene gaitcen arintceco eman nahi darozkidan consolamendu guciac nekhagarri eta penagarri dire enetçat.

Ene guticia mina da çurekin herxiki lothua içaitea, eta ecin hartarat hel naiteke.

Ene desirec altchatcen naute ceruco gaucetarat, bainan ene pasioneen cargac pisatcen nau, eta lurreco gaucec lurrerat thiratcen naute.

Izpirituac eman nahi nau gauça guciez gorago, bainan haraguiac, nahi badut eta ez, beheratcen nau.

Eta hala ni dohacabea ene buruaren contra guduan hari naiz: *ene buruaren exai naiz*, eta contresta neure buruarentçat carga ecin yasanezco bat, ene izpirituac goiti, eta haraguiac beheiti naramanaz gueroztic.

5. Oi, cer bihotz min eztut pairatcen, noiz eta ere othoitcean nagoenean, eta ceruco gaucetan gogoa dudanean, haraguiac mila fantasma, eta liluramendu gogoratcen baitarozkit!

O ene Yaincoa! etçaitecela, othoi, urrun ene ganic; etçaitecela çure cerbitçaria ganic itçul çure coleran.

Aurthicatçu çure ihurtçuriac, eta çure chimichtac, eta sunxi çatçu liluramendu hec. Etcha çatçu çure fletchac, eta egoratçu ihesi ene exayac bere artificio guciekin.

Biribilaçatçu çure ganat ene sensu guciac; ahantzaraz dietçakidatçu munduco gauçac; eguidaçu gracia hei ukho eguiteco, eta bicioen fantasma banoac arbuyatceco.

O eguia eternala! hel çakizkit; ezteçaçula sofri banitateac eguin dieçada daignuric.

O ceruco eztitasuna! çato ene ganat, eta khen çatçu ene bihotcetic lohitasun guciac.

Çure misericordia infinituac barkha bietçakit othoitcean nagoenean çure ganic ene gogoa apartatcen duten errebelamendu guciac.

Aithortcen dut ardura dudala bertcetan gogoa, eta maiz gutiago naicela ene gorphutça den lekhuan, ecen-ez ene gogoeta airatuec naramaten lekhuetan.

Eta eguiazki ene gogoa den lekhuan naiz, eta da ene gogoa nic maite dudana den lekhuan.

Eta naturalki axeguin eguiten darocun gauçacedo usantça gure gogoraco eguiten duena laster heldu çaicu izpiritурat.

6. Hori ceronec erran darocuçu clarki, ô eguia eternala! *çure bihotça den lekhuan da çure tresora.*

Cerua maite badut, ceruco gauçac axeguinekin gogoan erabilico ditut! mundua maite badut, munduco onez boztuco naiz, eta tristatuco munduco gaitcez.

Haraguia maite badut, haraguiari daozcan gauçac ethorrico çaizkit gogorat: izpiritua maite badut, izpirituaren araberaco gaucetan hartcen dut axeguin.

Finean, gogotic mintço naiz maite ditudan gaucez, eta halacoez mintçatcen berteeac gogotic aditcen ditut, eta bihurtcen naiz etcherat halaco gaucen orhoitçapenez eta imaginez burua betheric.

Bainan dohaxu da, ene Yaincoa, çure gatic creatura guciac bere bihotcetic urruntcen dituena, bere naturaleçari bortcha eguiten dioena, eta haraguiaren guticiac izpirituaren kharraz hersten eta mortificatcen dituena.

Manera hortan bere conciencia soseguan emanic othoitz garbia ofrenda dieçaçuntçat; Jurreco gauçac campoan eta barnean bere ganic apartaturic, gai causi dadintçat aingueruen balxan egoteco.

Cer eguin behar dut beraz?

Capitulu hortan iscribatuac direnac bihotcean sentitcen dituenac, comprenituco du Yondoni Pauloren bihotça certan cen, cioenean: desiratcen nuke gorphutz huntaric ilkhitcea, eta Yesu-Christo ganat yoaitea; probetchu, eta irabaci da enetçat hiltcea. Nehor ez da dohaxutasun hartara nahi ez lukeyenic; ordean badakiçu ceri yarraikiz,

eta ceri ihes eguinez behar garen harat heldu. Horiei aplica gakizcoten beraz, han içateco dugun khar guciarekin.

Othoitça.

O! loriazco egoitça, parabisu dohaxus! nor orhoit diteke çutaz, horratco desirez sustatua içan gabe? Ordean ikhusten duçu, Yesus maitea, cembat liçundurec horco on ez naicen beçala emaiten nauten. Garbi naçaçu, othoi, Yauna, mundu huntan nere notha gucietaric, eta çure yusticiari satisfaccione oso baten eguiteco harteen dudan gogoan fintca naçaçu: içan deçadan dohaxutasuna, hemendic harateco nere leyaltasunaz çutaz han emana içaitea merecitceco. Halabiz.

XLIX. CAPITULUA.

Dohaxutasunaren guticiaz; eta bertce munduco golardoez edo loriaz.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, sentitcen duçunean ematen dudala çure baitan berotasun saindu bat eter-

nitateco çorionarentçat, desiratcen duçunean çure gorphutceco presondeguitic ilkhitcea, ene arguiaren contemplatceco; orduan çabal çaçu çure bihotça, eta har çaçu inspiracione hori çure arimaren hedadura guciaz.

Eskerrac bihur diotçotçu Yaincoaren misericordiari, ceina hain eztiki heldu baita çure ganat, ceinac hain samurki atçartcen baitçaitu, ceinac hain sendoki sustengatcen baitçaitu, beldurrez çure pisutasun propiac ererraz çaitçan lurreco gaucen amodiorat.

Ezta hori heldu çure gogoetetaric, eta ez çure ahaletaric; bainan ene graciaren fagoretic, eta ene misericordiazco beguitartetic berthutean aitcina çaitecen, humiltasunean borthitz çaitecentçat, ethorrico çaizkitçun gudutarat prepara çaitecentçat; çure bihotz guciaz niri loth çakizkidantçat, eta çure borondate guciaz cerbitça naçaçuntçat.

2. Ene haurra, sua phizten da errechki; bainan kheric gabe ezta garra altchatcen.

Hala badire presuna batçu cerucotz desira beroac dituztenac; orduan eztire osoki garbi afeccione humanoen cikhinetic.

Handic heldu da cembat khar handirekin

ceruco ontasunac galdetcen badarozkidatcere, ez baitituzte phuruki ene loria choila gatic galdetcen.

Halacoac dire maiz çure guticiac, eta hargatic dire hambat grignez nahastatuac.

Ecen intres eta amodio propiaz nothatua dena, ecin daiteke ez chahua, ez perfeta.

3. Galde dieçadaçu beraz, ez çure nahiaren eta aisiaren arabera dena, bainan ene loriari daocana eta ene gogora dena; ecen gaucez ungui yuyatcen baduçu, behar duçu ene ordenuac çure guticia baino guehiago preçatu, eta çure nahia utciric, enea complitu.

Eçagutcen ditut çure nahiac, eta maiz entçuten ditut çure hasbeherapenac.

Nahi cinduke orai danic goçatu Yaincoaren umeen libertateaz eta loriaz: axeguinekin darabilaçu gogoan etche eternal hura, eta herri bozcarioz bethe hura.

Bainan ezta oraino çure orena ethorri: iguriki behar duçu cembait demboraz, eta dembora hura guerlaren, nekhearen eta frogancen dembora da.

Nahi duçu içan bethea ontasun soberanoaz; bainan ecin dukeçu orai.

Ni naiz ontasun gucien gaineco ontasun hura: çaude ene beira, dio Yaunac, Yaincoaren erresuma ethor dadin arteraino.

4. Asco axecabe behar duçu lurraren gainean pairatu, eta hanitz frogantcetaric iragan.

Consolacioneac-ere içanen tutçu batçuetan: ordean eztuçu içanen bozcario perfeta.

Ez içan beraz beldurric, eta prepara çaite animorekin eguiterat, eta pairatcerat naturaleça guehienic contrestatcen duten gauça guciac.

Guiçon berriaz beztitu behar duçu, eta behar duçu bertce quiçon batetarat gambiatu.

Maiz eguin behar duçu nahi eztuçuna, eta utci behar duçu nahi duçuna.

Bertceac helduco dire bere chede gucietan, eta çu ez batetan-ere.

Hec diotena adituco da, eta çuc dioçuna arbuyatuco.

Bertceen othoitçac entçunen dire; çureez ezta khasuric eguinen.

5. Bertceac laudatuco dire, eta çu ahanticico.

Bertceei emanen çaizte carguac, eta çu elçare deusetaco gai idukico.

Orduan naturaleçac pairatuco du, eta handia daikeçu horlacoac ichilic, eta errencura gabe pairatcen baitutçu.

Manera hortan frogatcen da Yaincoaren cerbitçari leyala, ikhusteco nola dakien gauça gucietan bere buruari ukho eguiten eta bere pasioneen garaitcen.

Nihoiz-ere eztuçu beharrago çure buruari hila içatea, nola ikhusi eta pairatu behar duçunean çure nahiaren contraco gauçac; eta guciz manatcen darozkitçutenean gauça batçu arraçoinic, eta progotchuric gabe iduritcen çaizkitçunac.

Eta nola buruçagui baten azpian baitçare, eta ecin contra eguin baitioçokeçu haren podoreari, garratz iduritcen çaitçu çure nahi propiac utciric haren ordenuen complitcea.

6. Bainan, ene haurra, considera çaçu nolacoa içanen den nekhe haukien fruitua, cein guti iraunen duten, eta cein sari handia darrayoten; eta etçaiztute tristatuco, aitcitic borthitztuco dute çure pacientcia.

Ecen çure nahiei ceren cerbait bortcha hemen eguin dioçuten, çure nahi guciac complituco dire ceruan.

Han causituco duçu placer duçun gucia, eta desira ahal deçakeçun gucia.

Han ontasun gucien yabe içanen çare hekien galtceco beldurric gabe.

Han çure borondatea enearekin bat içanen da, eta eztu bertceric deusere nitaz lekhora desiratuco.

Han nihorc eztarotçu contraric eguinen, nihor ezta çutaz errencuratuco; nihorc eztitu çure chedeac debecatuco, ez trabatuco, bainan nola ontasun guciac aitcinean içanen baititutçu, çure desira guciac complituac içanen dire, eta betheco dute çure bihotçaren hedadura gucia.

Orduan emanen darotçut loria fin gabeco bat pairatu duçun afruntu baten orde; bozcario gucien bilduma cembait nigarren orde, eta ceren eman çaren bethi azkeneco herruncan, yarrico çare bethicotz cerruco lorian.

Han aguerico da nolacoa den obedientciaren fruitua, cer bozcario darrayon penitentciari, eta cein handia den humiltasunaren balioa.

7. Orai beraz umilia çaite, eman çaite gucien azpian, eta etçaitecela contu hari

noren ganic heldu den çuri eman çaitçun manua.

7. Içan çaçu artha solamente gogo onez hartceco, eta oso osoki compliteeco çure ganic galdetcen dutena ; nahiz den galdetçailea çure aitcindaria, nahiz den çure azpicoa edo çure kidecoa.

Batac bilha beça hau, bertceac hori, hainac eman beça bera loria gauça batean, eta hare bertcean ; içan beitez laudatuac ehun mila presunez.

Çuc etçaçula eman çure bozcarioa, edo ohorea horlaco gaucetan ; bainan çure mezpreçatcean, eta ene loriaren bilhatcean, eta ene loriaren complitcean.

Çuc içan behar duçun guticia bakharra da *Yaincoa içan dadin bethiere lorificatua nahiz çure biciaz, nahiz çure heriotceaz.*

Cer eguin behar dut beraz ?

Axecabeez laster unhatcen gare, eta consolacioneen erdian nahi guinduke eguin ceruraco bidaya. Ordean consolacioneac, Yaunac emaiten ditu gurutcea leyalki garrayatcen dutenen sustengatceco, eta heyen borthitz-

teco. Hiradura heldu çaitçunean beraz, ez horren gatic loxa. Çure aita onac frogatu nahi du çure leyaltasuna. Galdeguin çotçu indarrac, eta anima çaçu çure burua, haren gogora eguiteco axeguin phuruaz, eta constant denari Yaincoac aguindu duen golardoaren orhoitçapenaz. Ordean behar da bitorios içan guduan, haren içaiteco.

Othoitça.

Eguin da, Yauna, çurea naiz gucia. Cer nahi pairaraz dieçadaçudan, ez dut nahi bertce axeguinic, çure gogora eguitea, eta çure satisfatcecoa baicen. Borthitz naçaçu, othoi, Yauna, nere uzcurduraren contra, gucia çurea içanic bicitce huntan, çutaz goça nadin ceruan Halabiz.

L. CAPITULUA.

Nola arima afliituac eman behar duen Yaincoaren escuetan bere burua.

ARIMAC.

Ene Yauna, eta ene Yaincoa, aita guciz saindua, çaren benedicatua orai, eta mende

gucietan, ceren çuc nahi içatu duçun gucia eguina içan baita, eta çuc eguiten duçun gucia bethi ona baita.

Çure cerbitçaria boz bedi ez bere baitan, edo bertce nor nahi-denen baitan, baiñan choilki çure baitan; çu çarenaz gueroz ene eguiazco bozcarioa, bai ene Yaincoa, çu çare ene esperantça, ene khoroa, ene contentamendua, eta ene loria.

Eta eguiazki, Yauna, *cer du çure cerbitçariac çure ganic içatu duena baicen*, eta halere oraino merecitu gabe?

Gauça guciac çureac dire, çuc eguin ditutçu, eta çuc eman ditutçu.

Ni pobrea naiz, eta nekhatua ene gaztelasuneco demboratic, ene arima doloratcen da, eta baçuetan nigarretaraino: *altaratcen da* maiz ene pasioneez garaitua içateco beldurrez.

2. Çure bakearen bozcarioa nahi dut, çuc çure umeei ematen dioçuten bakea galdeguiten dut, eta kharxuki desiratcen dut çure consolacioneen arguia ceina baita ume hekien bazca.

Bake hura ematen badarotaçu, eta ichurtcen baduçu bozcario saindu hura çure cerbitçariaren arimarat, alegriazco cantez betheco da gucia, eta kharrekin harico da çure laudatcen.

Bainan urruntcen baçare haren ganic, maiz eguiten çaren beçala, *ecin ibilico da lasterca çure manamenduen bidean*: belhaunac aldi gucian flacatuco çaizco, eta haren escuec eztute indarric içanen bere bulharren yotceco baicen; ikhusiric erori dela lehen çuen estatu dohaxutic: *Noiz eta ere çure arguiac haren buruaren gainean distiatcen baitçuen, eta gueriçatcen baitcinduen* tentacione muthirien contra *çure hegalen itçalaz*.

3. Aita yustu, saindu, eta bethi laudatcecoa, ethorri da çure cerbitçariaren frogatceco orena.

Aita guciz maitagarria, yustu da çure cerbitçariac oren huntan cerbait paira deçan çure amorea gatic.

Aita bethi adoragarria, huna non den ordua, ceinetan çuc eternitate gucitic ikhusi duçun beçala çure cerbitçariac campotic garaitua behar baitu içan aphur batecotz, çurekin bethi bicitcecotz bicitce barneco batez.

Içan bedi beraz arbuyatua, içan bedi humilia-

tua, içan bedi guiçonen beguietan eroria, eta garaitua, sofricariz cargatua, ahiduraz flacatua, çurekin batean argui berri baten alhan phitz dadintçat, eta finean dohaxuen çorionaz ceruan goça dadintçat.

Aita guciz saindua, çuc horla manatu duçu, çuc horla nahi içatu duçu, eta çure ordenuen arabera guerthatu da gauça.

4. Ecen çuc çure maiteei eguiten dioçuten gracia da, heyer indarra ematea gauça gucien gogo onez pairatceco, çure amorea gatic, eta heyer axecabeac egortcea, placer duçun aldi guciez, eta placer duçun presuna gucien bidez.

Ecen lurrean ezta deus guerthatcen çure probidentciaren ordenuz, eta conseiluz baicen: deus ezta eguiten bere ethorkia çure borondate soberanoan eztuenic.

On içatu da enetçat, Yauna, humiliatu bainauçu, yakin detçadantçat, bide hortaz yustu eguiten ditutçula guiçonac, eta ene bihotcetic urguluzco goratçapen guciac eta buruipe bano guciac khen detçadantçat.

Progotchos da enetçat ceren *ene bisaya ahalkeriaz estalia içatu baita.* Ene consolacioneac bilha detçadantçat hobeki çure baitan, ecen-ez guiçonen baitan.

Hortic ikhasi-ere dut çure yuyamendu gordeen beldur içaten: ikhusiric gastigatcen duçula gaichtaguina beçala yustua-ere; bainan bethi yustuki eta çucenki.

5. Esker darotçut, ene Yaincoa, ceren eztarozkidatçun guphidexi çure gaztiguac; aitcitic, ceren çure colpeez porroscatu bainauçu, niri dolorea dolorearen gainean egorriric, eta barneco penei gorphutceco sofricariac-ere yuntaturic.

Ezta deus-ere ceruan ez lurrean ni consola neçakenic baicen çu, ô ene Yauna, eta ene Yaincoa, arimen miricu cerutic ethorria, *ceinac çaurtcen baigatuçu eta sendatcen, eramaten thombaraino, eta handic bihurarazten.*

Hedatu duçu çure besoa ene gainerat, eta çure cigorrada instruccionetçat baliatuco çait.

6. Huna non naicen çure escuetan, aita guciz maitagarria; humiliatcen naiz, eta ematen dut neure burua bihotz onez çure gaztiguen azpian.

Yaçar çaçu ene bizcarraren gainean, behera çaçu ene buru urguluxua, chuchen

çaçu ene borondate makhurra çurearen arabera.

Eguin naçaçu çure discipulu humil, eta Yaincotiar; hala nola baitakiçu eguiten placer duçunean, çu obedi çaitçadantçat den kheinuric chumeenean.

Neure burua, eta nic ditudan guciac ematen ditut çure gaztiguzco chigorraren azpian, hobeago dut mundu huntan gaztigatu bertcean baino.

Çuc eçagutcen ditutçu gauça guciac, yeneralean eta particularrean, eta ezta gure concientcia barnean deus estaliric çuretçat.

Ethorkiçuneco gauçac çure eçagutçan dire, ethor ditecen baino lehenago, eta nihorc eztarotçu iracaxi behar, cer lurrean iragaten den.

Çuc badakiçu cer dudan on berthutean aitcina yoaitceo, eta cein progotchos diren axecabeac bicioen herdoildura khentceco.

Eguiçu nitaz placer duçun gucia, eta eztençaçula arbuya ene arima bere bekhatuen gatic, ceina nihorc baino hobeki çuç eçagutcen baituçu.

7. Indaçu gracia, ez deçadan ikhas, yakin

behar dudana baicen, ez deçadan maita maitatu behar dena baicen, ez deçadan lauda çure gogora denic baicen, ez deçadan preça çuri preciatu çaitçunic baicen, eta ez deçadan arbuya çure desgogora denic baicen.

Eguidaçu gracia ez deçadan gaucez yuya *campoco itchurapenen arabera, eta ez nadin mintça yendeen ganic aditcen ditudan hitz arinen arabera;* bainan yuya deçadan gauça agueri direnez eta ispiritualez chuchenki: eta eguiaren arabera, eta gauça gucien gainetic bilha deçadan çure borondate sainduaren complitcea.

8. Guiçonac enganatcen dire maiz bere sensuen arabera yuyaturic.

Munduaren maitatçaileac enganatcen dire halaber gauça agueri direnac eta iragancorrac baicen ez maitaturic.

Guiçon bat hobeagotcen othe da, ceren den handiagotçat idukia?

Ez segur, eta guiçon bat bertce batez laudatua, ezta bertceric, baicen enganari bat enganatua bertce enganari batez: urguluxu bat bertce urguluxu batez, ixubat bertce ixu batez, eri bat bertce eri batez: eta laudorio

bano horiec baliatce dire hobeki ohorateceo baino desohoratceco, eta confunditceco.

Ecen san Franses humilac erran duen beçala : guiçona hambat da bere baitan cembat baita çure beguietan, ó ene Yaincoa.

Cer eguin behar dut beraz?

Yaincoac, garbitasun soberanoa eta saindutasuna bera delacotz, den notharic chumeena duenic ez deçake cerurat har. Hortacotz hari leyal direnac garbitcen ditu, munduhuntan, hemengo axecabe barneco eta campocoez, edo bertcean purgatoriotaco suaz. Bainan cembatez ez da eztiagoa hemengo pena? Hari çaite beraz bethi bihotçaren lachatcen lurreraco, eta guciz bekhatuzco afeccione gucietaric. Har çatçu axecabeac Yaincoaren alderaco eçagutçarekin, eta yasan, penitentciazco izpirituan, baliarazten tutçularic, gaizkiaren alderaco higuintçaren berreguintceco, eta atçartasunaren, othoitçaren, eta humiltasunaren beharraren gueroago gueliago eçagutceco.

Othoitça.

Oinhace eta behaçun hetan erraiten dut,

Yauna, heyec irauten badautet, ez çaitçakedela cerbitça : bainan orai ikhusten dut, exayaren enganioa; baitakit, Yauna, çuc nahi duçunaren eguitea dela çure cerbitçatcea, eta orduan orduco graciac ez dautatçula faltaco. Ah! Yauna, beguira naçaçu enganiotic : egor-daçu mundu huntan nahi duçun beçambat sofricari, ceronec laguntcen naucularic, hekien yasaiten, heriotceco memento an, çu ganat ethortceco guisan, garbi neçaketen beçala. Halabiz.

LI. CAPITULUA.

Gauça humiletan hari behar dela, handiagoric ecin eguin ditekenean, guciz agortasuneco demboran.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, ecin bethi iraun deçakeçu çure berotasunean, eta bethi ecin çaudezke contemplacionezco gradu gora batean; ecen naturaleça hain da gaiztua, eta flacatua, non baitezbada behar baituçu yauxi beheragorat, eta behar baituçu ikhasi bortchaz be-

deren bicitce huntaco lacerien edo miserien yasaiten.

Içanen ditutçu bethi hanitz khirax, eta barneco pena pairatceco, gorphutz hilcor batean biçi çareno.

Behar duçu beraz haraguian çareno maiz auhendatu haraguiaren carga pisua, ceinac guibelatcen baitçaitu bicitce ispiritualari çure burua osoki ematetic, eta Yaincozco gaucen contemplatcetic.

2. Orduan eguin deçakeçun hoberena da çure unhaduraren arintcea campoco cerbait obra humilez, ene baitan çure esperantça ematea, eta ene beguira egoitea; çure agortasuna, eta çure desterrua pacientciarekin yasatea; çure ganat bihur nadin arteraino çure consolatcerat, eta çure pena gucietaric libratcerat.

Ecen ahantzaracico darozkitçut çure nekhe guciac, eta goçaracico çaitut barneco bakeaz.

Idekico darotçut ene Escrituren axeguihezco baratcea, çure bihotça bozcarioac çabalduco du, eta *abiatuco çare lasterca ene manamenduen bidean.*

Orduan eçagutuco duçu *bicitce huntaco sofricariac eztirela deus, bertcecotz çuretçat dagoen loriaren aldean.*

Cer eguin behar dut beraz?

Desteruzco bici huntan gure içaitea hain da tristea, non mement huntan barnea sustatcen, eta arintcen darocuten Yaincoaren arraicia miragarriac nola ez dakigula bistatic gal, eta causitcen baicare agortasunean. Hori eguiten du sobratan, gure izpirituac campoco gaucetarat duen lehiac, edo Yaincoac gure frogatceco. Cer nahi moldez, orduan enxeya çaite emeki emeki gogoaren Yaincoa ganat biltcerat khechatu gabe, eta cerbait lani aplica hari ofreituric.

Othoitça.

Yauna bekhoz bekho ikhus çaitçakedan artean, ene sosegu bakharra çure ontasunen admiracionean da. Bainan hain naiz ezdeusa non hec-ere gogotic yoaiten baitçauzkit. Ez naçaçula, othoi, utz. Eguidaçu, othoi, gracia mundu huntan çure presentciaz goçatceco, eta urruntcen çauztan mement hetan çure borondatera erorteeco. Halabiz.

LII. CAPITULUA.

Batbederac uste behar duela gaztiguac hobeki dituela mereci consolacioneac baino.

ARIMAC.

Yauna, eztut mereci ethor çaitecen ene consolatcerat. Yustuki tratatcen nauçu miserian, eta axecabean uzten nauçunean.

Ecen ixasoan ur den beçambat nigar eguiten banu-ere, eznetçake mereci çure consolacioneac.

Ecen hain handizki, hambat aldiz, eta hambat maneraz ofensatu çaitudan ondoan, eztut iguriki behar gaztiguric eta punicioneric baicen.

Hala gauça guciac ungui pisatu ondoan, eztut mereci den consolacioneric chumeena.

Bainan çuc, Yainco guciz ona, çure obrac deseguin nahi eztitutçuna, eta *çure graciazco tresorac misericordiazco untcietan cracuzi nahi ditutçuna*, ematen dioçotçu çure cerbitçariari merecitu gabe Yaincozco consolacioneac, guiçonen consolacioneac ez beçalacoac.

Ecen çure consolacioneac munduco solasen consolacionetaric hanitz dire diferentac.

2. Cer eguin dut, Yauna, çuc niri ceruco consolamenduric emateco.

Helas! ez dut causitcen deus onic ene bicitce gucian, eztut deus ikhusten ene baitan, baicen bethiereco pendura bat biciorat, eta naguitasun handi bat ene escasen uzterat.

Eguia da gauça hori, eta ecin ukha deçaket, bertcela erraten banu, ene contra altcha cintezke, eta nihor ez ene alde.

Cer beraz merecitu dut ene bekhatuez baicen ifernua, eta eternitateco sua.

Aithortcen dut cincinez, ene Yaincoa, mereci dudala manera guciez trufatua, eta arbuyatua içatea, eta ez naicela gai çure cerbitçarien artean condatua içaiteco.

Herabeekin eguiten dut aithor hori, halere erranen dut eguia ene buruaren contra; ene bekhatuez accusatuco naiz çure ganic errechkiago misericordiaren eta barkhamenduaren ardiesteco.

3. Cer erranen dut ene bekhatuen orhoitçapenac ematen darotan ahalkerian eta nahasmenduan.

Ecin ahoa idec deçaket baicen errateco hitz hauc: bekhatu eguin dut, Yauna, bekhatu eguin dut; urrical nakiçu eta barkha dieçadaçu.

Utz naçaçu aphur bat ene axecabean, auhen eta nigar eguiterat, yaux nadin baino lehenago ilhumbezco lur hartarat, ceina baita herioaren egoitça.

Eta cer galdeguiten ducu bekhatore criminel eta dohacabea ganic; baicen içan deçan bihotça humiliatua, eta bere bekhatuen urrikiaz erdiratua?

Eguiazco urrikiac eta bihotceco humiliacioneac sor-arazten du barkhamenduaren esperantça; harc sosegatcen du conciencia altaratua, cobrarazten gracia galdua, libratcen guiçona Yaincoaren coleratic, eta yuntatcen musu sain lu batez arima penitenta bere Yaunarekin.

4. Bekhatore baten urrikimendu humila çure gogoraco sacrificio bat da, ceinaren urrina hobeago batçaitçu insensu, eta bertce usain on guciena baino.

Urriki hura compara daiteke *usain on preciatu harekin, ceina ichuria içatu baitcen çure oin sacratuen gainerat: ecen eztuçu egundaino*

arbuyatu bihotz eguiazki urrikitu eta humiliatu bat.

Urrikimendu hura da ihes lekhua gure arimaco exayen contra.

Harc eramaten du bertcetan hartu ditugun notha, lohidura, eta khuxu gaichto guciac.

Cer eguin behar dut beraz?

Sar çaite ungui arima horren sentimenduetan, eta axecabe, eta sofricariric duçunean, ez çaitçu çure burua hain urricalduco; aitcitic heyec berec erakharrico çaituzte Yaincoari hain lakhet çayon humiltasunerat, eta urrikirat. Urriki salbagarri hura sorthuz gueroz bekhatorearen bihotcean, Yainco maite hura heldu çayo aitcinera bere samurtasunezco seinaleekin. Horrec berac cembat ez du consolatcen arima bat, axecabe, eta mezprecio gucien erdian?

Othoitça.

O ene Yaincoa, ez dut edireten niri eman çautan hitzeunçaric ebanyelioco prodigoaren ahoan baicen. Arbuyatu çaitut, ô! ene Aita ona. Ez dut mereci çure haurretan deit

naçaçun. Ez dut galdetcen, trabailatuz, nekhatuz, nere nigarrez ematen dautaçun oguia ongui arregatuz, nere buruari behin-ere ez barkhatuz, çure barkhamenduaren içatea baicen. Esparantça hori ceronec emaiten darotaçu, eta hortan pausatcen naiz. Halabiz.

LIII. CAPITULUA.

Munduco ontasunekiñ yosiac direnei estiotçotela Yaincoac emaiten bere graciac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, deus ezta hain baliosic, nola ene gracia, eztu nahi içan bertce gaucekin balsatua, ez nahastatua munduco consolacioneekin.

Nahi baduçu beraz hura eman dieçaçudan, urrunt çatçu çure ganic traba guciac.

Bilha çaçu erretiramendua, lakhet bekiçu bakharric çure buruarekin egoiten.

Ihes eguioçute solas alferrei, yarraic çakizco othoitçari, duçun artha çure con-

cientcia garbi idukitceaz, eta çure bihotça bethi çure bekhatuen urrikiaz çaurtua içateaz.

Munduari ez balitz beçala behatu behar dioçu, eta lothu behar çaizco Yaincoari herxikiago lurreco gauça guciei baino.

Ecen ecin dukeçu gogoa ene baitan fincatua, munduco axeguin iragancorren ondoan çabiltçala.

Urrundu behar duçu çure eçagunetaic, eta maitetaric, eta iduki behar duçu çure arima munduco consolacione guciez gabetua.

Hartaracotz Yondoni Petri Apostoluac othoizten ditu hersiki guiristino guciac, bici ditecen lurraren *gainean lekhortar, eta bideante beçala.*

2. Oi, nolaco segurantçarekin hiltcen den guiçona deusi ere mundu huntan amodioz estecatua ezdena.

Orduan arima eri eta flacoa ecin dagoke gauça gucietaric horla apartatua, eta lurreco gaucekin yosia denac eztaki cer den guiçon barnecoi, eta ispiritualaren libertatea.

Bada nahi badu içan ispiritual, behar diote

ukho eguin, atceei beçala hurbilecuei ere, eta bere buruaren beldur içan behar du nihoren-ere baino guehiago.

Çure burua osoki garait ahal badeçaçu errechkiago guero bertceac eguinen tutçu.

Bictoriaric handiena norc bere burua garaitcea da. Norc-ere bere burua heci baitu halaco maneraz non haren sensuec arraçoinari obeditcen baitiote, eta haren arraçoinac gauça gucietan ene borondateari, hura da bere buruaren garaitçaile, eta munduaren nausi.

3. Nahi baduçu perfeccione gora hura ardiexi, lothu behar çaizco lan hari çure indar guciez, hari behar duçu çuhaitça errotic picatcen, athera behar duçu çure bihotcetic çure buruarentçat, çure aisientçat, eta cein nahi den munduco ontasunentçat duçun amodio desordenatua.

Norc ere bere amodio propia garaitu baitu, hainac eguin du hurren gucia, ecen ebaki du bicio gucien erroa.

Eta bictoria haren fruitua da bake bat deusec-ere ecin altara deçakena.

Bainan nola gutiac baitire bere buruei hiltcera enxayatcen direnac, hala guehienac bere pasioneen gathibo guelditcen dire, halaco maneraz bai non izpirituac ecin garait baiteçake haraguia.

Bada enekin libertate osoan ibiltceco heci behar dire guticia desordenatuac, eta ez lothu creatura bati-ere pasionez, edo amodio propiaz.

Cer eguin behar dut beraz?

Orhoitcen baguine, Apostoluac dioen beçala, ez dugula lurrean egoitça iraupenezcoric, bainan eternitatean igurikitcen dugula; eta mundu hau iragaiten dela itchurapen bat beçala; orhoitcen baguine cein laster hil, eta munduco gauça guciac utci behar tugun, dio san Yeromec, contu guti eguin guineçake hemengo gauça guciez: eta eguiazki, cembait mementetaco goçoa gatic, norc nahico luke hirriscatu seculaco çoriona galduric, seculaco çorigaitcetarat yoaitea? Orhoit çaite beraz horiez maiz eta cinki, eta ez duçu gosturic içanen Yaincozco, eta eternitatearen gaineco gogoetetan baicen. Cer hari garen buruari ez emaiteac, hari gaitu galtcen, dio Izpiritu sainduac.

Othoitça.

Ala gauça ezdeusa baitçaut lurra ceruari behatcen diodanean, erran deçakeçuket, Yauna, san Ignaciorekin! cerc erakhartcen nau bada ni handic beguien beheititcerat mement batere? Ah! ene Yaincoa, eguidaçu, othoi, gracia bethi maitatu behar dudanic baicen ez maitatceco; eta hala çure gatic bertce gucien aldebat uzteco. Halabiz.

LIV. CAPITULUA.

Graciaren, eta naturaleçaren mobimendu diferentez.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, artha handirekin har çaite çure baitan berechten naturaleçaren, eta graciaren mobimenduac, ecen hanitz dire gaitçac eçagutcen, eta presunaric arguituenecere nekhez ikhasten dute hekien artean diferenciaren eguiten.

Guciac unguiari darraizco, guciec cerbait ontasun dute bere hitcen, eta obren chedet-

çat; bainan unguiaren itchurac hanitz enganatcen ditu.

2. Naturaleça fineciosa da, guiçon guehienac irabazten ditu, eta bere ganatcen, enganatcen, eta bere saretarat erorarazten, eta eztu bertce chederic bere buruaren contentatcen baicen.

Contrarat graciac eztu nihor enganatcen, simplea da, eta artificio gucien exaya: apartartcen da gaizkiaren iduri gucietaric, guciac eguiten ditu phuruki Yaincoac gatic ceina baita haren eguiazco sosegua, eta haren chede bakharra.

3. Naturaleçac eztu hil nahi, eztu nahi içan çapatua, ez garaitua; nekhez obeditcen du, eta gaitci çayo azpico içatea.

Bainan graciac darabilan arimac artha daoca bere buruaren mortificatceaz, eta axeguinen guticiei contra eguiteaz, nahi du garhait deçaten, hez deçaten, libertateaz gabe deçaten, erreguela herxien azpian eman deçaten.

Urrun da nausitasuna bilhatcetic edo desiratcetic; aitcitic bethi nahi du içan Yaincoaren manuco, eta egon haren azpian, *eta bethi*

prest dago bere burua Yaincoaren amorea gatic *guiçon gucien azpian ematerat.*

4. Naturaleça bere intresac darabila, hura bere abantailen ondoan dabila.

Graciac berriz eztio beiratcen bere aisiari, eta probetchuari ; bainan bai bertceren onari.

5. Naturaleçac nahi du içan ohoratua, eta errespetatua.

Graciac eztu nahi ohore, eta loriaric Yaincoarentçat baicen.

6. Naturaleça ahalkeriaren, eta mezprecioaren beldur da.

Graciac *pairatcen ditu afruntuac bozcariorekin Yesu-Christoren amorea gatic.*

7. Naturaleçac maite du pausua, eta gorphutçaren aisia.

Gracia ecin dagoke alferric, eta gogotic lanari lotcen çayo.

8. Naturaleça gauça ederren eta curiosen ondoan dabila, higuin ditu gauça tcharrac, lodiac eta latçac.

Graciac bilhatcen tu gauça arruntac, eta guti baliosac, eta gogorrac eztitu arbuyatcen;

gogotic yauzten tu arropa çahar, eta ihetcheac.

9. Naturaleça lurreco gaucei darrayote, boztenda irabaciaz, tristatcen calteaz, hasarratcen, eta sumintcen hitz ofensagarri batez.

Gracia lotcen çaye ceruco ontasunei hain horthitzki non munduco calteec ez baitute altaratcen, ez ukitcen bide gabeec, ez hasarratcen ofensec ; ceren bere tresora, eta bozcarioa eman baitu ceruan deusic galtcen ezten lekhuan.

10. Naturaleça abariciosa da, eta hirritsez bethea gogoticago dago ematerat baino hartcerat, bereac ditu maite, eta yabetu nahi du gauça guciez.

Gracia liberala da, harc eztu nahi yabetasunic, balsan nahi ditu gauçac ; gutiz contentatcen da, eta *axeguinago çayo hartcea baino ematea.*

11. Naturaleçac ematen darocu amodio munduarentçat, eta creaturentçat bilharazten darokigu gorphutçaren nahicarac ; eta erabiltcen gaitu banitateen ondoan ; galarazten darocu dembora solas, eta yoan ethorri alferretan.

Graciac ematen du Yaincoaren amodioa, eta berthuteena ; harc ukho eguiten diote creaturei, ihes munduari, higuin ditu haraguiaren guticia lohiac ; uzten ditu pasayeta inutilac, eta ahalke da yende artean aguerteaz-ere.

12. Naturaleçari on çayo campoco consolacioneen içaitea, eta sensuen axeguinez goçatcea.

Graciac gure consolacionea bilharazten darocu Yaincoa baitan, eta ontasun soberanoan gure axeguin gucia.

13. Naturaleça bethi hari da bere progotchu, edo aisia gatic, eztu deus eguiten dohainic edo urriric, bainan hain bertce, edo guehiago içaitea gatic, eta bederen fagorez, eta laudorioz pagatua içaitea gatic, eta hanitz baliarazten-ere du eguiten, edo ematen duena.

Bainan graciac eztu bilhatcen deus iragancorric, eztu nahi bertce irabaciric edo sariric Yaincoa bera baicen, eta lurreco ontasunetaric eztu nahi ceruco ontasunen ardiesteco behar dena baicen.

14. Naturaleça bozten da ahaide, eta adiskide hanitcen içaiteaz, loriatcen da bere sortce distiantaz, eta casta nobleaz ; handiei gorthe eguiten diote, lausengatcen ditu aberaxac, eta bere idutacoei eguiten diote besta eta beguitarte.

Graciac maite ditu bere exayac, eta adiskide hanitz içateac eztio buruiperic ematen, eztu urgulu hartcen bere sortceaz, eztu preçatcen bere aitcinecoen noblecia, berthuteac ez badio preçarazten.

Pobreei guehiago behatcen diote aberaxei baino, eztitu handiac lausengatcen bainan innocent doloratua urricaltcen çayo. Presuna simpleac, eta eguiatiac ditu maite, eta ez dobleac, eta artificiosac.

Presuna prestuac hertchatcen ditu, *guerotic guerorat perfeccionean aitcina yoaiterat*, eta Yesu-Christoren berthuteac obretan emanic haren idurico eguiterat.

15. Naturaleça laster errencuratcen da penaz, eta gabeaz.

Graciac constantki pairatcen du pobrecia.

16. Naturaleça beretçat hari da, ihardukitcen badu, gudu eguiten badu, beretçat eguiten du.

Graciac gauça guciac bihurtcen diotça Yaincoari, ceina ganic heldu baitire; eztu uste baduela deus onic, eztu deusez-ere buruiperic, eztu ihardukitcen, eta eztaoca bere burua bertceac baino arguituago; bainan bere adimendua, eta argui guciac ematen ditu Yaincoaren çuhurtciaren, eta haren yuyamenduen azpian.

17. Naturaleçac yakin nahi tu gauça gordeac, eta secretuac: aditu berriac, ilki camporat, eta yastatu gauça gucietaric. Nahi du içan eçagutua, eta cerbait eguin bederen laudorioac, eta estimua erakhar dioçaketenic.

Gracia ezta contu hari berriez, eta curiostasun banoez; ecen horietan eztu ikhusten gure corrupcione çaharraren marcaric baicen, eta bertce alde eguia errateco ezta deus berriric, hala nola ez baita deus iraupenezcoric lurraren gainean.

Harc iracasten du sensuen guticien hezten, banaloriari, eta gure buruaz dugun contentamenduari ihes eguiten, gure baitan laudagarri, eta miragarri direnac humiltasunaz gordetcen, gauça gucietan, eta yakintasunaren argui gucietan arimaren progotchua, eta Yaincoaren loria bilhatcen.

Eztu nahi içan laudatua, bainan Yaincoa nahi du lauda dadin bere dohain gucietan, ceren harc bere liberalitate phuruz ematen baititu gauça guciac.

18. Gracia hura naturaz gorəgoco argui bat da, Yaincoaren dohain bereci bat.

Hura da ungui mintçatceco hautexien marca eta ciguilua, eta salbamendu eternaren bahia. Harc arima altchatcen du lurreco gaucen amodiotic ceruco gaucen amodiorat, eta lehen gucia haraguizco cena gucia ispiritual eguiten du.

Hala cembatenaz naturaleça heciago, eta çapatuago baita, hambatenaz gracia ichurtcen da bethekiago arimarat, eta guiçon barnecoya egunetic egunera Yaincozco ichuri husuez perfeccioncan aitcinatcen da, eta hurbiltcen Yaincoarekin behar duen idurirat.

Cer eguin behar dut beraz?

Capitulu hori comprenituz gueroz, ez da comprenitcea gaitz graciac, ala naturaleçac othe garabiltçan gure gogoeta, solas, eta accionetan. Bada badakigu Yaincoa graciaren mobimenduz beçala, mundua, debrua, eta

haraguia naturaleçarenaz mintço çauzcula, eta graciaren gogoramenduec cerurat altchatcen gaituzten beçala, naturaleçarenac seculaco çorigaitcetarat herrestatcen gaituztela. Yuya çaçu hortic, cein premia handia den guretçat, cer nahi gostaric-ere, batçuen çapatcea, eta bertceen arthoski seguitcea.

Othoitça.

Ikhusten dut, Yesus maitea, naturaleçaren lausengatcea, coin gauça ondicozcoa den. Eçaguturic hura dudala nere exairic sothilena, eta lanyerosena, deliberatcen dut, Yauna, deusetan hari ez behatceco. Eguiçu, othoi, Yauna, çure graciaz, çure inspiracione sainduec borthitz naçaten guerotic guerorat, heyei urhaxez urhax yarraikitceco hartcen dudan gogoan. Halabiz.

LV. CAPITULUA.

Naturaleçaren corrupcioneaz, graciaren beharraz, eta harc arimetan eguiten dituen efetuez.

ARIMAC.

Ene Yauna, eta ene Yaincoa, çure imagi-

narat, eta idurirat creatu nauçuna, indaçu bada çure gracia hura ceinaren handitasuna, eta beharra hain ungui eracuxi baitarotaçu; garait deçadantçat ene naturaleça gaichtoa, ceinac bethiere bekhaturat, eta heriotcerat bainarama.

Ecen sentitcen dut ene haraguian bekhatuaren leguea, izpirituaren legueari contra eguiten dioena, ceinac gathibo atchikitcen bainau, eta maiz eraguiten baitarozkit sensuen nahicarac.

Hala ecin garait deçaket ene pasioneen indarra, çure gracia ez bada ethortcen ene bihotcerat, ene laguntcerat eta borthizterat.

2. Çure graciaren, eta gracia handiaren beharra dut hezteco naturaleça bat, *haste hastetic gaitcerat ekharria.*

Ecen naturaleça hura lehenbicico guiçonaren bekhatuaz gaichtatua, eta poçoatua içatu da, eta bekhatu haren pena yauxi da Adamen ume gucietarat.

Halaco maneraz bai non naturaleça ona, eta escas gabea celaric çuc creatu cinduenean, orai haren icena ematen baitçayo bicioari eta flakeciari; ceren eta naturaleça

harc graciaz ez bada lagundua lurrerat, eta bekhaturat baicaramatça.

Harc orai duen indar aphurrac su phindar bat iduri du hauxaz estalia, eta su phindar hura arraçoin naturala da ilhumbeez estalia, ceinaren artetic eguiten baita oraino unguiaren eta gaizkiaren, eguiaren eta gueçurraren artean berechcoa, eta diferencia; eztuelaric arren ahala ungui çayonaren eguiteco, gabetua delaric eguiaren eçagutça osoaz, eta haren desirac eztirelaric yustuac eta innocentac.

3. Hargatic, ene Yaincoa, *çure leguean lakhetcen çait, eta maitatcen dut barneco guiçonaren arabera*, baitakit, *ona dela, yustua, eta saindua dela*, condenatcen dituela gaizki guciac, eta iracasten darocula bekhatuaren higuintcen.

Bainan haraguiac bekhatuaren leguearen azpian ematen nau; eta sensuen guticiac hobekiago eguiten ditu arraçoinarenac baino.

Handic heldu da, *causitcen baitut ene baitan unguiaren eguiteco nahia, eta ez baitut causitcen haren complitceco ahala.*

Deliberacione onac hartcen ditut; bainan

nola ene flacotasunean escasten baitçait hagoan egoteco behar dudan gracia, den trabaric chumeena edireten dudanean flacatcen maiz, eta bihotça erortcen çait.

Hala eçagutcen dut perfeccionearen bidea, eta badakit cer behar dudan eguin haren ardiesteco; bainan ene corrupcionearen carga pisuac çapaturic ecin harat hel naiteke.

4. Oi, ene Yaincoa, ala çure graciaren beharetan bainaiz unguiaren hasteco, hartan aitcinatceco, eta haren osoki akhabatceco!

Ecen hura gabe ecin deus dadiket; *bainan gauça gucien eguiteco gai naiz hartaz borthitztua naicenean.*

O gracia ceruco dohain eguiazcoa; ceina gabe ez baita merecimendu propiric, eta ceina gabe naturaleçaren dohain guciac ez baitire deus!

Hura gabe guiçonaren yakintasuna, eta antcea, aberastasuna eta edertasuna, indarraren, eta bihotçaren handitasuna, izpiritua, eta hitz ederrac, eztire deus çure beguietan, ó! ene Yaincoa.

Ecen naturaleçaren abantail horiec ematen çaizcote onci beçala gaichtoei ere, gracia eta

Yaincoaren amodioa da hautexien dohain berecia, hartaz merecitcen dute bicitce eternala.

Hain gauça handia da gracia, non profeciazco izpiritua, miraculuen obratceco dohaina, eta contemplacioneric gorena-ere ez baitire hura gabe preçatceco.

Fedea bera, esparantça, eta bertce berthuteac ecin daitezke çure gogoraco, ô ene Yaincoa, gracia, eta caritatea gabe.

5. O gracia dohaxua, ceinac izpirituz pobre direnac berthutez aberax eguiten baititutçu, eta ceruco dohainez betheac direnac humil baitaduzcatçu!

Yaux çaite ene arimarat, çato ene ganat, eta goicetic bethe naçaçu çure consolacioneez, beldurrez nekheac, eta agortasunac flacaturic ererarаz naçaten.

Othoizten çaitut, ene Yaincoa, bethi causiaraz naçaçu çure gracian çure aitcinean.

Ecen *aski dut çure gracia*, naturaleçac desiratcen dituen bertce gauça gucietaric içaten ez banu-ere.

Cer nahi den tentacione, edo axecabe guertha dakidan, *ez naiz deusen-ere beldur içanen çure gracia enekin deno.*

Harc borthitzten nau, guidatcen, eta laguntcen nau.

Ene exai guciec baino indar guehiago du, eta argui guehiago munduco çuhur guciec baino.

6. Harc iracasten du eguia, harc chuchentcen bicitcea, harc arguitcen bihotça, arintcen penac eta axecabeac; khentcen tristecia, eta beldurra; hazten debocionea, eta hanitcen penitentciazco nigar sainduac.

Cer naiz ni hura gabe, egur ihar bat sucoz baicen on eztena?

Beraz, ene Yaincoa, çure graciaz prepara naçaçu aitcinetic, eta gracia hura lagun bekit bethi, eta atçarria iduc benaça contino obra onen eguiterat, Yesu-Christo çure seme Yaunaren merecimenduac gatic.

Cer eguin behar dut beraz?

Adamen haur beçala, haren bekhatuaz naturaleçac hartu çuen gaizkiraco yaidura ondicozco hartaz khuxatuac, sartcen gare guciac. Halaco guisaz, non gaizkiari ihes eguiteco-ere, hanitcetan gure burua borchatu behar baitugu. Hain gare ez deus gure bai-

tharic, non gure accioneric hoberenec deus ez baitute balio cerucotz, Yaincoaren graciac grado hartara altchatcen ez baditu. Bainan bateco ala bertceco, gracia hura ez dugu behin-ere escas. Yaincoac berac aguindu du galdetcen dioenari emanen dioela. Cer kharrekin, eta cein maiz ez diogu beraz galdetu behar!

Othoitça.

Cembat aldiz, ò! ene Yaincoa, cembat aldiz çure gracia sainduari eguin diotçodan contrestec ez dautet mereciaraci hartaz arraz gabetua içaitea? Eta hala, akhabo citeken orai nitaz. O! Yauna, ikhusten dut nere miseria, eta huni baicen behatcen ez banu, esparantça gabe ninteke: bainan uruski aita çaitut, eta çure escu maitea hedatcen da, iraganac barkhaturic, bide onean ene emaiteco, eta idukitceco han. Eguiçu, othoi, çure graciaz, içan deçadan onguian, eta othoitcean hartaco behar dudan constancia. Halabiz.

LVI. CAPITULUA.

Gure buruari ukho eguin behar diogula, eta yasan gurutcea Yesu-Christoc beçala.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, cembatenaz guehiago higuinduco baituçu çure burua, hambatenaz herxikiago enekin lothuco çare.

Eta nola campoco deus ez desiratceac eguiten baitu barneco bakea; hala gure burucei ukho eguiteac eguiten du Yaincoarekin gure batasuna.

Nahi dut ikhas deçaçun gauça guciac ene nahirat uzten contrestaric, eta errankiçunic batere gabe.

Niri yarraic çakizkit, ni naiz bidea, eguia, eta bicitcea; bideric gabe nihor ecin dabilke, *eguia* gabe ezta eçagutça seguric, *bicitcea* gabe ezta nihor bici.

Ni naiz çuc hartu behar duçun *bidea;* çuc sinhexi behar duçun *eguia*, çuc desiratu, eta iguriki behar duçun *bicitcea*.

Ni naiz *bide* segura, *eguia* ecin enganatuzcoa, *bicitce* fin gabecoa.

Ni naiz *bide* chuchenena, *eguia* lehena, *bicitce* eguiazcoa, dohaxua, eternala.

Ene bidean baçaude, eçagutuco duçu eguia; *eguiac salbatuco çaitu*, eta bici aracico çaitu eternitate gucian.

2. *Bicitcea ardiexi nahi baduçu, beguira çatçu ene manamenduac.*

Nahi baduçu eguia eçagutu, sinhexaçu ene baitan.

Perfet içan nahi baduçu, salçatçu ditutçun guciac.

Ene discipulu içan nahi baduçu, ukho eguioçu çure buruari.

Bicitce dohaxua irabaci nahi baduçu, mezpreça çaçu oraico bicitce hau.

Nahi baduçu cerurat alchatu, behera çaite, eta humilia lurrean.

Ene erreguetasunean partalier nahi baduçu, yasan çaçu enekin gurutcea.

Ecen gurutcearen maitatçaileec baicen eztute causituco dohaxutasunaren eta eguiazco arguiaren bidea.

ARIMAC.

3. Ene Yauna eta ene Yaincoa, çure bicitcea hain nekhatua, eta munduaz arbuyatua içatu denaz gueroztic, eguidaçu gracia çure imitatceco, eta munduaren mezprecioaren desiratceco.

Ecen cerbitçaria ezta handiago bere Yauna baino, ez eta discipulua bere nausia baino.

Usa çaçu beraz çure cerbitçaria çu beçala bicitcen, ecen hortan dago ene salbamendua, eta saindutasun eguiazcoa.

Çure bicitceaz mintço eztiren liburuec, edo solasec eznaute consolatcen, eznaute osoki contentatcen.

YESU-CHRISTOC.

4. Ene haurra, dakiçunaz gueroztic, eta iracurri duçunaz gueroztic nic cer eguin, eta iracaxi dudan, *dohaxu içanen çare hec obretan ematen baditutçu.*

Norc-ere baitakizki, eta beguiratcen baititu ene manamenduac, haric ni maitatcen nau, eta nic-ere hura maitatuco dut; eta hura yararacico dut ene aitaren tronuan.

ARIMAC.

5. Yesus ene Yauna, eguin bedi çuc erran eta aguindu duçun beçala, eta, othoi, gai errenda naçaçu gracia haren ardiesteco.

Hartu dut gurutcea çure escutic, yasanen dut gurutce hartu dudana, eta garrayatuco dut heriotceraino çuc manatu darotaçun beçala.

Fraide saindu baten bicitcea gurutcea da; bainan gurutce hura ceruco bidea da.

Sarthu naiz bide hartan, etçait cilhegui guibelat bihurtcea; arere gutiago bide haren uztea.

6. Ea beraz, anayac, goacen elkharrekin, Yesus gurekin içanen dugu.

Yesusen amorea gatic hartu dugu gurutcea: haren amorea gatic yasan çagun fineraino.

Hura içanen da gure laguntçaile, guidari, aitcindari.

Horra gure erreguea non doan gure aitcinean, harc gure alde nahi du guducatu.

Yarraic gakizcon bihotz handirekin, eztugun exayen beldurric.

Hil gaitecen behar bada guerla hortan, eta gure laidoetan etçagula erranaraz gai içatu yarela gurutcearen banderaren uzteco.

Cer eguin behar dut beraz?

Yesu-Christoc, erran du, *norc-ere nahi baitu ene ondotic ethorri, har beça bere gurutcea, eta yarraic bekit.* Gurutceaz aditcen dire munduan nondic, edo noren ganic nahi içan çatkegun campoco sofricari, eta barneco behaçun guciac. Compreni çaçu Yesu-Christoc ez derauçula hemen choilki perfeccionezco conseilu bat eman; bainan bai salbamenduco manu bat. Eguia eternalean beçala haren baitan sinhexi, bide eguiazcoari beçala hari yarraiki, eta bici eguiazcoan beçala haren baitan bici behar badugu, horiec guciac, harc beçala sofrituz, eguin behar tugu.

Othoitça.

O! ene Yesus maitearen gurutce sacratua, nola behatuco-dautçut haren yuyamenduan, orai apartatcen baçaitut? Nola atrebituco naiz çure besarcatcerat nere heriotcean, orai çure ihesi banabila? Ah! Yauna, bertcela bohaz,

othoi, gauçac; eguidaçu, othoi, gracia gurutcean eta sofricarietan emateco nere dohaxutasuna. Esparantça emanen darotaçula hartaco behar dudan indarra. Halabiz.

LVII. CAPITULUA.

Etçaicula bihotçac erori behar gure escasen edo huxen gatic.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, nahiago çaitut ikhusi humil, eta pacient axecabetan; ecen ez debocionez eta consolacione ispiritualez bethea, gauçac çure gogora daozkitçunean.

Cergatic horla khecha-cen çare çure contra eguin edo erran den gauça chume batez?

Handiagoa balitz-ere etcinduke hargatic altaratu behar.

Utçatçu guiçonen solas bano horiec, ezta gauça berri bat halacoen aditcea, ezta lehen aldia horla çure contra mintçatu direna; ez eta azkena-ere hanitz bici baçare.

Bihotz hanitz duçu deus pairatcecoric eztu-

çunean, bertceei conseilu onac ematen diotçote, eta çure hitz onez borthitzten ditutçu; bainan ustecabeco cerbait gaitz guerthatcen çaitçunean, berehala escasten çaitçu conseilua, eta indarra.

Eçagut-çaçu beraz çure flacotasun ecin guchiagocoa; frogatcen duçu maiz den gauçaric chumeenetan. Halere yakin çaçu pena horiec, eta horlacoac cerutic egortcen çaizkitçula çure salbamenducotz.

2. Khen çatçu lehen bai lehen pena hec çure bihotcetic; eta ecin baçaozke hec sentitu gabe, bederen etçaitecela khecha, eta hekien gatic ez bekiçu bihotça eror.

Paira çaçu bederen pacienciarekin ecin eguin badayeçakeçu bozcariorekin.

Pena baduçu çure contra mintçatcen aditceaz; eta orduan colera phizten bada çure bihotcean, ezti çaçu berehala, eta ez bedi athera çure ahotic hitz behar gabecoric, eta flacoac escandala detçakenic.

Çure barnea descansatuco da laster graciarekin batean, eta gracia harc sosegatuco du çure bihotceco altaramendua, eta erresumin gracia goçatuco.

Bici naiz oraino, dio Yainco Yaunac, bethi prest çure laguntcerat, eta çuri egundaino baino consolacione guchiagoren ematerat, baldin çure esparantça gucia ene baitan emanic othoitzten banauçu khar handirekin.

3. Içan çaite fermu, eta prepara çaite egundaino baino guehiago pairatcerat.

Ez deçaçula exi guertatcen baçare axecabeez maiçago penatua, edo borthixkiago tentatua.

Ala bainan, guiçon çare, eta ez Yainco: baduçu gorphutz bat, eta etçare izpiritu butz ainguerùac beçala.

Nola cinagozke bethi berthutezco, eta indarrezco estatu berean, hala egotu eztirenaz gueroztic ez aigueruac ceruan, ez eta guiçona parabisu lurrecoan.

Nic plainuz daudecenac consolatcen ditut, eta atheratcen bere penetaric, nic yaincotasuneraino altchatcen ditut bere flacotasuna eçagutcen dutenac.

ARIMAC.

4. Ene Yauna, den bethi-ere benedicatua çure hitça; *goçoago da ene bihotçarentçat eztiric hoberena ene ahoarentçat baino.*

Cer eguin neçake hambat axecabe, eta hersturen erdian, çuc ez baninduçu borthitzten çure hitz sainduez?

Bainan cer anxia dut nic cer nahi den pairaturic-ere, heltcen banaiz salbamenduco porturat?

Yauna, indaçu fin on bat, eta mundu huntaric bertcerat iragate dohaxu bat.

Ene Yaincoa, orhoit çaite nitaz, eta guida naçaçu bideric chuchenenaz çure erresumarat.

Cer eguin behar dut beraz?

Compreni çaçu hemen, mortificacionean, edo axecabean, coleraren, edo khechaduraren phiztura baten bihotcean sentitcea, ez dela bekhatu, heyen eztitcerat, camporat eracuxi gabe, berehala enxeyatcen baçare. Hortaco moyanic hoberenac ditutçu bada: 1º Gogoari ematea, pasione harrec norat çaramatçan, eta Yesu-Christo ganic cein diferent eguiten çaituen. 2º Othoitça, galdeguioçu Yesu-Christori anima deçan çure bihotça gurutcerat, eta ichil-araz detçan çure amodio propiaren errencura eta erasiac.

Othoitça.

O! ene salbatçailea, ahalcatua nere errencurez çure gurutcearen bistan, nic galdetcen dautçudana da, axecabezco moment hartan, orhoit-araz naçaçun, othoi, çure pacientcia miragarriaz; orhoitçapen horrec sar-araz naçan nere baitan, eta eraguin deçadan nere sofricariez, enekin içan nahi duçun batasunaren gueroago guehiago finca-arazteco, behar den gucia. Halabiz.

LVIII. CAPITULUA.

Ez ditugula çundatu behar Yaincoaren yuyamenduac, eta gutaz gorago diren gauçac. Cer maneraz behar ditugun ohoratu sainduac.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, beguira çaite sartcetic gauça goreguietan, eta çundatcetic Yaincoaren yuyamendu gordeac.

Ea cergatic Yaincoac bat uzten duen, eta bertce bati gracia handiac eguiten diotçon;

cergatic den bat humiliatua, eta bertce bat altchatua.

Gauça horiec ichitcen edo pasatcen dituzte guiçonen argui guciac, eta hekien izpiritu eta arraçoinamendu guciac eztire gai Yaincoaren yuyamenduen eçagutceco.

Hala beraz debruac horlaco gogoetac egortcen darozkitçunean, edo guiçon curiosec horlaco galde suerteric eguiten darozkitçutenean; ihardex dioçoçute Profetaren hitz hautaz: *Yustua çare, Yauna, eta çure yuyamenduac çucenac dire.*

Edo bertce hautaz: *Yaunaren yuyamenduac eguiazcoac dire, eta berenaz dire yustuac.*

Guiçonec icialdura behar dute ene yuyamenduentçat, eta ez dute hari behar hekien çundatcen; ecen guiçonaren adimendua ezta gai hekien eçagutçan sartceco.

2. Eçaitecela halaber yar ihardukitcen sainduen merecimenduez; hea bata sainduago den bertcea baino, nor den handiago edo gorago ceruco erresuman.

Horlaco gaucec phizten tuzte maiz behar gabeco escatimac, hazten urgulua, eta

bana-loria, eta batbedera banitate gorde batez bere sainduaren bertceac baino gorago haltchatcen hari delaric, eguiten dire banderiçac, eta hetan sartcen herrac eta inbidiac.

Ihardukitce horiec eztire behin-ere on eta probetchos guiçonentçat, eta bethi dire higuingarri sainduentçat, *cerèn ez bainaiz ni escatimetaco Yaincoa; bainan bai bakescoa*, eta bake hura eztago norc bere burua eguiazki altchatcean : aitcitic norc bere burua eguiazki humiliatcean.

3. Batçuec debocione guehiago dute saindu batentçat bertce batentçat baino; orduan afeccione hori maiçago da humanoa, eta naturala ecen-ez naturaz goragocoa, eta Yaincozcoa.

Saindu guciac nic eguin ditut, nic eman diotet gracia, nic loriaz saristatu ditut.

Nic eçagutcen tut bakotcharen merecimenduac, *Nic eman diotçatet ene eztitasunaren eta ontasunaren seinaleac*, hec enetçat deus eguin baino lehen.

Nic eçagutu ditut mende guciac baino lehenago, nerorrec maitatu, eta predestinatu ditudanac, eznaute hec ni lehenic hautatu, *Nic hec hautatu ditut, eta bereci mundutic.*

Nic deithu ditut ene graciaz, ene ganat thiratu ditut ene misericordiaz, nic munduco tentacione diferenten artean guidatu ditut.

Nic bethe ditut ene consolacione sainduez, nic eman diotet onean iraupena, eta perseberancia, nic finean khoroatu dut hekien pacientcia.

4. Nic guciac eçagutcen ditut, guciac lehenbicicotic azkeneraino, eta maitatcen amodio infinitu batez.

Nic behar dut beraz içan laudatua gauça gucietan, eta gauça gucien gainetic, nic behar dut içan ohoratua ene sainduetan; ecen nic predestinatu ditut, eta altchatu hain loria handirat, merecimendu propiric aitcinetic içan gabe.

Hargatican norc-ere mezpreçatcen baitu chumeena, hainac eztu ohoratcen handiena, *ecen nic eguin ditut handia, eta chumea.*

Eta norc-ere ofensatcen baitu saindu heta-

ric bat, hainac ni ofensatcen nau eta ceruan diren bertce guciac.

Ecen guciac caritateaz yuntatuac, eta bat eguinac dire.

Eztute guciec gogo bat, borondate bat, eta amodio bat baicen.

5. Bainan guciz miragarri dena da, maiteago bainaute ni bere buruac, eta bere merecimendu guciac baino.

Ecen bere buruaz gorago altchaturic, bere amodio propitic ilkhiric, maitatcen naute ni soberanoki, eta bere indar guciez, eta hartan causitcen dute bere pausua, eta dohaxutasuna.

Deusec ecin guibela detçake ene maitatcetic, eta ecin yaux ditezke ni baino deus beheragoren maitatcerat, ceren nola baitire eguia eternalaz betheac, seculan iraunguituco ezten amodioaren suaz erretcen hari baitire.

Hala beraz guiçon haraguizco lurrera bihotça ichuria dutenac, eta bere axeguinac baicen maitatcen eztakitenac ez bitez atrebi sainduen dohaxutasunaz mintçatcerat.

Berretcen, edo gutitcen dute hekien loria

bere nahiaren arabera, eta ez eguia eternalac emaiten duenaren arabera.

6. Hetaric hanitcen baitan bada ignorancia, guciz hainen baitan, ceinec argui escasez ez baitakite cer den amodio phuru, eta ispiritual batez nihoren maitatcea.

Nihoren maitatcean amodio naturalac, eta adiskidetasun humanoac darabiltça; eta uste dute lurreco gaucez beçala dela cerucoez-ere.

Bainan diferencia hanitz handia da, presuna imperfetec uste dutenaren, eta presuna cerutic arguituec eçagutcen dutenaren artean.

7. Beguira çaite beraz, ene haurra, mintçatcetic gauça goreguiez eta çure yakina ichitcen dutenez.

Bainan çure eguin ahal guciac eguitçu ceruco erresuman lekhu baten içaiteco, azkena behar balitz-ere.

Hortaz nihore balaki-ere nor den handiago, edo senduago ceruan, certaco luke eçagutça hura? baldin ez bada hortaz baliatcen bere buruaren ene aitcinean humiliatceco eta ene guehiago ohoratceco, eta laudatceco.

Nihor pensatcen dagoenean cein handiac diren haren bekhatuac, cein chumeac haren

berthuteac, cein urrun den sainduen perfeccionetic, hobekiago eta Yaincoaren gogorago eguiten du, sainduac elkharrekin comparatcen, eta hekien handitasunaz, edo chumetasunaz ihardukitcen hari denac baino.

Hanitcez hobeago da sainduac ohoratcea, eta othoiztea, eta hekien laguntça humiltasunekin, eta nigarrekin galdetcea, ecen-ez hekien secretu gordeen curiostasun alfer batez miratcen, eta çundatcen haritcea.

8. Hec osoki content dire, guiçonec balakite contentatcen, eta solas, eta ihardukitce bano horiec bere ganic urruntcen.

Eztute loriaric tiratcen bere merecimendu propietaric, eztute hartcen deus onic dutela bere ganic, guciez niri eguiten darotate ohore; hortaz nic guciac eman diotçatet hekiençat içatu dudan amodio soberanoaz.

Hain betheac dire Yaincozco amodioaz, eta ceruco axeguinez, non ecin baitukete deus escasic hekien loriac eta dohaxutasunac.

Cembatenaz baitire sainduac lorian gorago altchatuac, hambatenaz dire bere baitan humilago; eta arraçoin hartaz dire ene ganic

guehiago hurbilduac, eta enekin herxikiago yuntatuac.

Hargatic da errana Escritura sainduan: *Ematen dituztela bere khoroac Yaincoaren oinetan, ahuspez yartcen direla bildoxaren aicinean, eta adoratcen dutela mendetaco mendetan bici dena.*

9. Hanitcec galdetcen dute, *nor den handiena ceruco erresuman*, eta ez baitakite hea berac gai içanen diren condatuac içateco chumeenen artean.

Gauça handi bat da chumeen-ere ceruan içatea, ceinetan guciac handiac baitire; guciac deithuac direnaz gueroztic Yaincoaren umeac, eta eguiazki guciac hala direnaz gueroztic.

Ecen chumeac altchatuco dire milen artean, bicico dire milaca mendez, *eta bekhatoreac bicitceric luceenaren ondoan hilen dire seculacotz.*

Apostoluec galdetu çuten egun batez nor içanen cen *handiena ceruco erresuman*, eta aditu çuten errepusta hau: *Ez baçaite conbertitcen, eta eguiten haurren idurico, etçaite sarthuco ceruco erresuman. Nor-ere beraz humi-*

liatuco baita haurtto bat beçala, hura içanen da handiena ceruco erresuman.

10. Çorigaitz chumeekin batean humilialtu nahi eztutenentçat; ecen nola baita ceruco athea behera ecin han sarthuco dire.

Çorigaitz halaber *abaraxentçat ceinec baitituzte mundu huntan bere axeguinac*, eta nahicariac; ecen pobreac ceruan sartcen direnean hec egonen dire campoan oihuz eta nigarrez.

Humilac bozçaitez: *bozçaitezte pobreac; ecen çuena da ceruco erresuma;* baldin Yaincoaren bidean chuchen ibiltcen baçaite.

Cer eguin behar dut beraz?

Guerthacari guciac Yaunac erreguelatcen ditu bere probidentciaz. Ez deçagun bilha certaco, edo nola hau hula, edo nola hura hala. Sainduei bihur diotçoketegun ohoreric lakheten çayotena da, heyen imitatcea, heyec Yesu-Christo eguin duten beçala. Eta nola Yaincoaren adiskide guisa haren aitcinean credit handia baitute, khar handirekin baliatcen dire heyen bithartecotasunaz baliatu nahi direnentçat: Yaincoac ere hanitz onhesten ditu heyei eguiten diren othoitçac. Othoitzkitçu beraz fidantciarekin. Aski duçu yakitea gaineracoan, mundu huntan bere burua aphalenic iduki duena dela gorena ceruan.

Othoitça.

Sainduen exempluac cer moyan podorosac ez lirate gure salbamenduco, hartaco eraman behar dugun bicitceari beçala, heyenari behatcen baguinu? cer baliatuco çauçu ordean heyen berthuten laudatcea, hetan imitatcen ez baditugu. Emaguçu, othoi, Yauna, çuri yarraikitceco eman dioçuten kharbera, heyen urhaxen seguitceco; hala berthute berec hel gaitçaten, gu-ere, heyec goçatcen duten loriara. Halabiz.

LIX. CAPITULUA.

Yainco choila baitan behar dugula eman gure esperantça guciac.

ARIMAC.

Yauna, noren baitan eman behar dut ene fidantcia hemen naiceno? eta noren ganic

iguric ahal deçaket consolamenduric mundu huntan?

Eztut deus uste çure ganic baicen, ô ene Yaincoa, ceinaren misericordia infinitua baita.

Non ungui içatu naiz çu gabe, edo non gaizki causitu naiz çurekin?

Nahiago dut gauça gucien escasean bici çure amorea gatic, ecen ez aberastasunen erdian çu gabe.

Nahiago nuke lurreco desterrua baldin çu han bacine enekin, ecen-ez ceruco erresuma çu han ez bacine.

Ecen çu çaren lekhuan da cerua eta heriotcea, eta ifernua çu etçaren lekuan.

Çu çare ene guticia gucien chedea, çure ganat egon behar dut bethi plainuz, oihuz, eta haxbeherapenez.

Finean ene beharretan ecin bertce nihori fida nakioke çuri baicen, ô ene Yaincoa, eta nihor eztago çu beçain prest ene laguntcerat.

Çu çare ene esparantça, ene laguntç ailea ene consolatçailea, eta ene adiskide guciz leyala.

2. *Guciac bere progotchuaren ondoan dabiltça.* Çuc eztuçu bilhatcen ene salbamendua baicen, eta gauça guçiac ene progotchucotz baliarazten tutçu.

Tentacione eta axecabeen hirriscuan çuc ni maiz utci arren, guciac ene progotchutan eguiten ditutçu; ecen usatu ohi duçu çure maiteen mila maneraz frogatcen.

Hargatic eſçaitut gutiago maitatu eta laudatu behar axecabe eta frogantça horietan naicenean, ceruco consolacioneric handienez bethetcen nauçunean baino.

3. Hargatic, ene Yauna, eta ene Yaincoa, çure baitan ematen dut neure esparantça gucia, çure ganat eguiten dut ene ihesa, çure oin sacratuetan ematen tut neure penac, eta axecabe guciac, ceren ez baitut causitcen çutaz lekhora deus flacoric, eta gambiacorric baicen.

Ez ene adiskiden nombreac, ez ene beiratçaileen indarrac ecin lagunduco nau; çuhurrenec-ere ecin emanen dautet conseilu probetchosic; ecin causituco dut consolacioneric, guiçon yakinsunen liburuetan, ez laguntçaric aberastasunetan, ez segurantçaric lekhu batetan ere ceroni ez baçare adiskidea, ene

laguntçailea, habea, ene sustengatçailea, iracaxçailea, ene arguitçailea, ene aberasteco tresora, eta ene segurean emateco ihes lekhua.

4. Iduriez gure bakecotz, eta çorionecotz diren gauçac eztire deus çu gabe, eta eztire baliatcen batere gure dohaxutasunecotz.

Çure baitan da beraz ontasun gucien gaindidura, bicitcearen goçoa, çuhurtciazco tulumbioa; eta çure cerbitçariec çure baitan duten esparantçac eguiten du hekien consolacionea eta indarra.

Çure ganat daduzcat ene beguiac altchatuac, ô ene Yaincoa, çure baitan da ene esparantça çure ganic igurikitcen tut guciac, ô misericordien aita.

Benedica naçaçu, sanctifica naçaçu, ene baitarat ichuratçu çure ceruco benedicioneac. Eguiçu ene arimaz templu saindu bat, eta çure loriaren tronua, eta ez bedi causi templu hartan deus-ere çure Yaincozco mayestatea ofensa deçakenic.

Beguira dieçadaçu, ene Yaincoa, çure ontasun eta misericordia infinituaren arabera.

Entçun çaçu çure cerbitçari gachoa, gauça gucien escasean dena, desterratua, eta urrundua bere herri dohaxutic, eta chortcia herioaren itçalean.

Defenda çaçu ene arima, eta garbi iducaçu bicitce huntaco hirriscuen, eta corrupcionearen erdian; eta çure graciaz guida çaçu seculaco loriarat bakearen bidetic.

Cer eguin behar dut beraz?

Har çaçu capitulu hortaric, arima guiristinoa certaz den penatua. Ez munduco ontasunez, axeguinez, eta gaineraco abantailez gabetua içaiteaz, edo heyen gal beldurraz; bainan Yaincoarekin içan nahiaz, eta ez içan beldurraz. Hari behatcen baitio bere ontasun, bere sustengu, bere ihes lekhu, et consolatçaile bakharrari beçala. Gaineraco guciac deus ez çaizco hura gabe, eta hura badu, ez da deusez beldur. Ikhusaçu, khechadurarat eman gabe, cein amulxuki, eta samurki eguiten duen Yaincoa ganat bere ihesa bere beharrean, eta cer fidantcia eracusten duen Yaincoa baitan. Har çaçu çure exemplutçat, eta molda çaite horren gainean.

Othoitça.

O ! Yainco soberanoa alde batetic aditcen çaitut erraten , çorigaitz creaturetan bere fidantcia emanen duenarentçat ; bertcetic ikhusten dut errencura çarela cer causitcen dugun escas çure baitan , çutaz campoan deusec bilhatceco. Madaricione hortan sobratan eroria , errencura horiez ahalcatua , barkhamendu eske nagotçu , Yauna , içan dudan fidantcia escasaz , nere içaite gucia , mement huntaric , çure escurat uzten dudalaric ; eta çure ganic , igurikitcen ditudalaric , mundu huntan salbatceco behar ditudan laguntça guciac , eta bertcean çure loria. Halabiz.

YESU-CHRISTOREN
IMITACIONEA.

LAUGARREN LIBURUA.

ALDARECO SACRAMENDU ADORAGARRIAZ.

Amodiozco deiha mahain saindurat.

YESU-CHRISTOC.

Çatozte *ene ganat , penatuac eta cargatuac* çareten guciac , *eta nic arinduco darozkitçuet* çuen penac , *eta nekheac.*

Nic aguintcen dudan oguia ene haraguia da , munduari bicitcea emanen cioena.

Harçaçue , eta yan çaçue ; hau da ene gorphutça , ceina emanen baita eta largatuco heriotcerat çuentçat , eguiçue hau ene orhoitça-penetan.

Ene haraguia yaten duena, eta ene odola edaten duena ene baitan dago, eta ni haren baitan.

Nic erraten darozkitçuedan hitçac izpiritu eta bicitce dire.

I. CAPITULUA.

Cembat errespeturekin behar den errecibitu sacramendu saindua.

ARIMAC.

O Yesus, eguia eternala! hitz horiec guciac çureac dire, eta çure ganic ilkhiac, ez içan arren guciac dembora berean erranac, ez lekhu berean escribatuac.

Eta ceren diren çureac, eta eguiazcoac, hartu behar ditut eçagutçarekin eta federekin.

Çureac dire hitz horiec, ceren çuc erranac baitire, eta halaber eneac dire, ceren enetçat eta ene salbamenducotz erran baititutçu.

Gogotic hartcen ditut çure ahotic lekhora, ene bihotcean barnago sar ditecentçat.

Ene bihotça animatua sentitcen dut hitz samur ezti, eta amulxu horiez; bainan ene

bekhatuec icitcen naute, eta ene conciencia-ren lohitasunac urruntcen nau misterio handi hortaric.

Çure gombidatce eztiac thiratcen nau bainan ene bekhatuen nombreac, eta pisutusunac guibelatcen nau.

2. Manatcen darotaçu fidantciarekin çure ganat hurbil nadilala, baldin nahi badut çure primeçan parteric; yan deçadala Yaincozco ogui hura nahi badut bethi bici eta ardiexi loria eternala.

Çatozte ene ganat, dioçu, *penez eta nekhez cargatuac çareten guciac, eta nic çuen peneiaric arinduco çaituztet.*

O hitz maitagarria, eta bekatore batentçat guciz consolagarria, çuc ene Yauna eta ene Yaincoa, gombida deçaçun creatura pobre bat, gauça guciez gabe bat, miseriaz bethe bat, çure gorphutz guciz sainduaren comunionerat!

Bainan, ene Yauna, nor naiz ni atrebitceco çure ganat hurbiltcerat?

Ceruen hedadura çabalac ecin itchec çaitçake, eta dioçu: *çatozte guciac ene ganat.*

Universidad de Deusto
Biblioteca

3. Nondic heldu da caritate sobraniazco hori, eta gombidatce guciz samur hori?

Nondic duket ausartcia çure ganat ethortceco ni, ceinac ez baitut ene baitan sentitcen deus onic, cerbait buruïpe, edo segurantça eman ahal dieçakedanic?

Nola atrebituco naiz çu ene bihotcean errecibitcerat, hambat bekhatu çure beguietan eguin dudan ondoan?

Aingueruac eta archangeluac ikharan daudez çure aitcinean, yustuac eta sainduac beldur dire çuretçat, eta dioçu halere: *çatozte guciac ene ganat.*

Cerorrec ez bacindu erraten, Yauna, norc sinhex leçake? hurbiltcerat ausarta liteke, ceronec ez bacindu manatcen?

4. Noe, hain guiçon yustua, ehun urthez haritu cen arkha baten eguiten, ceinetan berac yende gutirekin behar baitçuen salbatu.

Nola bada ni prepara ahal naiteke oren batez munduaren creatçailea errecibitcerat hari çor çayon errespetuarekin?

Moïsez çure cerbitçari handia, eta çure adiskide bereciac eguin çuen arkha bat ecin ustelduzco çurez, eta estali çuen urreric phu-

ruenaz, haren barnean emateco leguaren bi thaulac; eta nic creatura ustel, eta corrompituac içanen dut ausartcia hain errechki errecibitceco legue emaile soberanoa, eta bicitcearen nausi eta autora?

Salomon, Israelgo erregue gucien çuhurrenac, çazpi urthe eman cituen çure ohoretan templu guciz magnifico baten eguiten, çortci egunez eguin çuen haren dedicacioneco besta, milaca sacrificioac ofrendatu cituen, eta alienciaco arkha trompeta soinuz, eta populuaren bozcariozco oihuen erdian, eraman çuen harençat preparatua cen lekhurat.

Eta ni gacho, eta dohacabea, nola atrebituco naiz çu ene baitan errecibitcerat, ni ceinac oren erdi batez ecin gogoa othoitcean iduc baiteçaket?

Eta ochala behin bederen oren erdi bat behar den beçala eman banu!

5. O ene Yaincoa, cer eztute saindu hec eguin çuri axeguin eguiteco!

Helas! ala nic eguiten dudana deus gutia baita, eta hala nic dembora guti emaiten baitut comunione saindurat preparatcen!

Gutitan causitcen naiz ene baitan arras bildua, eta sarthua; gutiagotan gogoaren barrayadura gucietaric libratua.

Arraçoin liteke bada çure Mayestate adoragarriaren aitcinean, ezneçan içan gogoeta sainduric baicen, eta urrun litecen ene bihotcetic creatura guciac.

Ceren nic errecibitu behar dudana ez baita solamente aingueru bat, bainan aingueruen nausia eta Yaincoa.

6. Hortaz diferencia handia da alienciaco arkharen alde batetic, eta bertcetic çure gorphutz guciz garbiaren artean, arkha harren barnean ciren gaucen, eta çure graçiaren artean.

Legue çaharreco sacrificio guciac-ere figura batçuc ciren, eta etciren comparatceco çure gorphutçarekin, ceina baita bictima eguiazcoa sacrificio çaharren figurac bethetcen dituena.

7. Cergatic bada eznaiz kharxuago çure presentcia adoragarrian?

Cergatic eznaiz preparatcen artha guehiarekin çure gorphutz preciatuaren errecibitcerat? Patriarca eta Profeta çahar hec, Erregue eta Prince hec populu guciarekin, hambat

zelo eta amodio eracuxi dutenaz gueroz çuri çor çaitçun Yaincozco ohorearen emaiteco?

8. Dabid Erregue Yaincotiar hura, *dantcatu cen bere indar guciez* arkharen aitcinean, Yaincoac haren aitei eguin ciotçaten unguien orhoitçapenetan.

Eraguin cituen hanitz musicaco instrument suerte, psalmuac cantaraci cituen bozcariorekin, cantatu cituen berac-ere harpa soinuz Izpiritu sainduaren graciaz betheric.

Iracaxi cioten Israeldarrei bere bihotz guciaz Yaincoaren laudatcen, eta boz batez haren egun oroz benedicatcen eta lorificatcen.

Bada Testament çaharreco arkha hambat debocionerekin ohoratcen bacen, eta hambat artharekin Yaincoa laudatcen bacen haren aitcinean muga suerte batçuez; cembat errespetu eta debocione guiristinoec eta nic eztugu behar içan gure aldaretaco Sacramendu adoragarriaren aitcinean, eta Yesu-Christoren gorphutz preciatua errecibitcen dugunean?

9. Badabiltça yendeac hanitz lekhu suertetarat sainduen erlekien ikhusterat eta ohoratcerat; espanturekin aditcen tuste hekien

berthute eta obra handiac : mirexiric dauscate hekien ohoretan eguin diren elicen edertasuna eta magnificencia, errespeturekin musu ematen diote hekien heçurrei urrez eta ciricuz *edo cetaz* estaliei.

Bainan, ene Yaincoa, çu ceroni çare gure hurbilean, eta aitcinean gure aldareen gainean.

Çu, ene Yauna, ceina baitçare saindutaco saindua, guiçonen creatçailea eta aingueruen nausia.

Horlaco erromeriac *edo* debocioneco piayac maiz curiostasunez eguiten dire cerbait gauça berri ilkhustea gatic ; hortaz nihor guti hetaric prestuago bihurtcen da, gueiz yoan ethorri horiec arintasunez eguiten direnean, bicitcearen gambiatceaz conturic eguin gabe.

Bainan eguiazki çare eta errealki aldareco Sacramenduan, eta çare han osoki, ô Yesus dibinoa, han çare ; eta nore han digneki errecibitcen baitçaitu, haina santificatcen da eta bethetcen graciez.

Ez gaitu arintasunac, ez curiostasunac, ez sensuen axeguinac çure ganat erakhartcen, bainan fede bici batec, esperantça fermu batec, eta caritate phuru eta eguiazco batec.

10. O Yainco, ikhusten etçarena eta mundua creatu duçuna, ala çure comportamendua miragarria baita gure alderat ! ala çure eztitasuna, eta çure samurtasuna handia aguertcen baita çure hautexien alderat, hei çure gorphutça sacramendu huntan yaterat emaiten dioçutenean !

Gauça horrec ichitcen *edo pasatcen* tu guiçonen adimenduac, horrec guehienic fidelen arimac çure ganat thiratcen tu ; horrec amodioz sustatcen ditu çure cerbitçarien bihotçac.

Ecen çure cerbitçari eguiazcoei, eta bere bici gucia bere arimen garbitcen daramatenei sacramendu adoragarri hortaric debocionezco khar handi bat heldu çaye, eta bethi berri den amodio bat berthutearentçat.

11. O misterio bandi hunen gracia miragarria ! bainan gordea guiristino eguiazcoec baicen sentitcen eztutena, eta sinhexgorrec, eta bekhatuaren gathibuec ecin errecibi deçaketena !

Sacramendu hunec ichurtcendu gure bai-

tharat Izpiritu sainduaren gracia ; bihurtcen diotça gure arimari galdu cituen indarrac ; eta cobratcen dio bere edertasuna bekhatuaren ixutasunac khendu cioena.

Eta gracia hura hain handia bada batçuetan non arimatic gorphutz flaco huntarat iraganic osasuna, eta indarrac-ere emaiten baitiotçat.

12. Bainan auhendatceco dena da ceren garen hain ephel, hain anxicabe, eta dugun hain debocione guti Yesu-Christoren errecibitceco, ceina baita hautexien esperantça bakharra ; eta ceinac eguiten haitu hekien merecimendu gucia.

Yesusec santificatcen gaitu, eta harc erosi gaitu ; Yesus da gure consolatçailea desterru huntan, eta sainduen dohaxutasuna bertce bicitcean.

Bainan lastimagarri da ceren hanitz yendec hain guti eçagutcen duten sacramendu hunen handitasuna, eta excelencia, ceinac eguiten baitu ceruaren bozcarioa, eta munduaren salbamendua.

O guiçonen bihotçaren gogortasun ecin erranezcoa ! ô ixutasun handia hain dohain

baliosa hain guti preçatcea ; eta ceren egun oroz errecebitcen, dugun anxicabetasunetarat erort cea !

13. Ecen sacramendu handi hori ez balitz emaiten, eta errecibitcen lekhu batean baicen, eta ez balitz mundu gucian aphez bat baicen consecratceco podorea lukenic ; cer debocionezco kharrekin eztioazke yendeac lekhu hartarat, eta Yaincoaren aphez haren-ganat misterio sainduen celebratcen ikhusterat?

Orai hanitz aphecec hanitz lekhutan Yesu-Christoren sacrificioa ofrendatcen dutenean, cergatic ez progotcha fagore hortaz ? Ecen Yaincoac manera hortan bere gracia eta amodioa hobeki eracusten darocu ; ceren munduaren parte gucietarat bere gorphutz sacratuaren comunionea hedatu duenean, eman baitiote guiçon guciei haren errecibitceco errechtasun guehiago.

O Yesus, artçain eternala ! esker darotçut ceren pobreac, miseriaz cargatuac, eta gure herritic desterratuac garelaric, halere çure gorphutz eta odol preciatuaz hazten baicaitutçu, eta sacramendu handi horren errecibitcerat gombidatcen çure ahoco hitcez erra-

ten darocuçula : *çatozte ene ganat, penatuac eta cargatuac çareten guciac, eta nic arinduco darozkitçuet çuen penac eta nekheac.*

Cer eguin behar dut beraz?

Norc compreni, arere gutiago esplica deçake Yesu-Christoc aldareco sacramenduan eracusten daucun yenerostasuna? Bera emaiten da guri den gucia. Halaco guisaz non erran baiteçakegu san Augustinekin, Yaincoac bere podore guciarekin ez deçakegula eguin emaitça handiagoric, bere aberastasun gucietan ez baitu emaiteco; bere çuhurtcia guciarekin ez deçakela causi gurekin batago yartceco moyenic. Hortic yuya çaçu Salbatçaile maite haren borondateaz, eta pensa cer iehia behar duçun içan mahain saindurat, eta cer errespetu, eta eçagutçarekin behar duçun hurbildu.

Othoitça,

Çure ganic egun guciez içaiten ditudan ontasunez eskerrac ongui ecin eman, eta nola emanen darozkitçut ceroni ontasuntçat emaiten çaiztanean, ò! Yainco guciz ona? O! misterio huntaz oroz gainetic mirexiac

çaudeten izpiritu dohaxuac, cer çautçue Yaincoaren emaitça huntaz. Hunkituac ez diren, gomitu huntarat lehiaric ez duten, eta eçagutçaz bihotçac gaindi eguin gabe, mahain saindurat hurbiltcen ikhusten dituçuenez? Salbatçaile maitea, ez deçaçula, othoi, permeti hetaric içan nadin. Agrada bekiçu, othoi, nere eçagutçaren lekhucotasunetan, neure içaite guciaz eguiten dautçudan sacrificioa, eta garbi çaçu ceronec eue arima, çure chedea den beçala, nere dohaxutasunetañ, errecibi çaitçakedan guisan. Halabiz.

II. CAPITULUA.

Yaincoac sacramendu huntan guiçonari miragarriki eracusten dioela bere ontasuna eta amodioa.

ARIMAC.

Ene Yaincoa, ene esperantça gucia çure ontasun, eta misericordia infinituan emanic, beldu naiz çure ganat eria bere miricua ganat beçala, gose eta egarri dena biciaren ithurrirat beçala, pobrea ceruco Erreguea

ganat beçala, cerbitçaria bere nausia ganat beçala, creatura bere creatçailea ganat beçala, axecabez bethea bere consolatçaile podorosa ganat beçala.

Bainan nola merecitu dut çu ethor çaitecen ene ganat? Nor naiz ni çuc niri çure buruaren emaiteco?

Nola bekhatore bat atrebitcen da çure aitcinean aguertcerat? eta çu, Yauna, nola beheititcen çare bekhatore baten ganat ethorceraino?

Çuc eçagutcen duçu ungui çure cerbitçaria eta badakiçu eztuela bere baitan deus onic çure bisita mereci deçakenic.

Aithortcen dut ene ezdeustasuna, eçagutcendut çure ontasuna, laudatcen dut çure misericordia, eta esker darotçut çure amodio ecin guehiagocoa gatic.

Ecen ontasunez bethetcen banauçu, hori eguiten duçu çure bihotceco penduraz, eta ez ene baitan den merecimendu baten-ere gatic, niri çure ontasuna hobeki eçagunaraztеco, çure amodioa ene bihotcean handiago emateco, eta ni humiltasunean guehiago fincatceco.

Beraz horla nahi duçunaz gueroz errecibitcen ditut bozcariorekin çure fagoreac: ochala ene indignitateac ez baliote trabaric emaiten!

2. O Yesus, guciz ona, guciz eztia! cembat errespetu, eçagutça eta laudorio eztarozkitçute guiçonec çor çure gorphutz sacratuaz eguiten dioçuten dohaina gatic?

Ezta nihor munduan sacramendu hunen excelencia bere hitcez eçagutaraz deçakenic.

Bainan nolacoac içanen dire ene gogoetac comunione sainduan ene Yauna ganat hurbiltcen naicenean, ceinarentçat ecin baitutket errespeturic aski, eta ceina nahi bainuke halere digneki errecibitu?

Cer cogoeta ahalduket hobeagoric, eta ene salbamenducotz progotchosoagoric çure aitcinean neure burua ahalic beherena humiliatcea baino, eta çure ontasun infinituki nitaz gorago altchatua laudatcea eta adoratcea baino?

Laudatcen çaitut, ene Yaincoa, eta ez naiz nihoiz-ere guelldituco çure laudatcetic.

Arbuyatcen dut neure ezdeustasuna, emaiten naiz çure manu gucien azpian, eta

yausten naiz ene beheratasunaren tulumbioraino.

3. Çu çare saindutaco saindua, eta ni bekhatore gucietaric dohacabeena.

Yausten çare ene ganaino, eta ni eznaiz gai ene beguien çure ganat altchatceco.

Heldu çare ene ganat, enekin nahi duçu egon, deitcen nauçu çure banket sacraturat, eman nahi darotaçu ceruco yanaria, *aingueruen oguia*, ceina ez baita bertceric, çu ceroni baicen: *Cerutic yauxiricaco ogui bici hura, ceinac emaiten baitio munduari bicitcea.*

4. Horra nola eracusten duçun certaraino maitatcen, eta ohoratcen gaitutçun.

Cer esker, cer laudorio eztarotçugu çor hain fagore handiarentçat?

Oi ala çure chedeac gure salbamenducotz onac eta progotchosac içatu baitciren sacramendu hau ordenatu cinduenean!

Oi cein goçoa den, eta gustosa banket hura, ceinetan çure burua yanaritçat emaiten baitarocuçu! Oi ala çure obrac miragarriac baitire! Yauna, ala çure botherea handia baita, eta infinitua; çure eguia ecin erranezcoa!

Mintçatu çare, eta gauça guciac eguin dire, eta *guciac* eguin *dire* çure *hitçaren arabera.*

5. Gauça miragarria, eta fedearen arguiac gabe sinhex ez daitekena, çu, Yauna, eguiazco Yainco eta eguiazco guiçona, estalia çare ogui pichca baten, eta arno chorta baten idurien azpian; han çare gucia osoric, eta errecibitcen çaituenac yaten çaitu behin-ere consumitu gabe!

Çu çare mundu guciaren nausi, eta yabea, deusen-ere beharric eztuçuna, eta halere eguin duçu sacramendu hori gure baitan egotea gatic.

Ene arima, eta gorphutça iducatçu garbiric bihotz chahu, eta bozcarioz bethe batekin maiz pharte har deçadantçat çure misterio sainduetan, eta errecibi deçadantçat ene arimaren salbamenducotz sacramendu adoragarri hori, ceina ordenatu baituçu berezgainki çure loriacotz, eta çure ganic içatu dituçun ontasunez gu bethi-ere orhoitarazteco.

6. Boz çaite ene arima, eta eskerrac emotçu Yaincoari hain dohain baliosaz, eta higarrezco haran huntan utci darocun hain consolacione bereciaz.

Ecen misterio hau celebratcen, eta Yesusen gorphutça errecibitcen duçun aldi gucian çure erospenaco obra handia erreberritcen duçu, eta çure salbatçailearen merecimendu gucietan partalier eguiten çare.

Yesu-Christoren caritatea ezta behin-ere gutitcen, eta haren merecimenduen tresora ezta ahitcen.

Hala behar duçu bethi-ere disposatu barneco erreberrimendu handi batez gracia hartarat, eta consideratu misterio handi hura errespetu eta amodio bethi berri den batekin.

Bai, Meçaco sacrificioa nahiz ofrenda deçaçun, nahiz entçun deçaçun, hain handi, hain berri, hain miragarri, iduritu behar çaitçu nola egun hartan berean Yaincoaren semea biryinaren sabel garbian guiçon eguiten balitz, edo gurutcean itçaturic gure salbamendua gatic pairatcen balu pasionea, eta heriotcea.

Cer eguin behar dut beraz?

Gurutceco misterio dolorosaz Yainco semeac ifernutic erosi guintuen; nahi du ordean Salbatçaile maite harrec haren gorphutz, eta

odol sacratua içan diten mundu huntan emplegatuac gure arimen yanhari, eta edaritçat, eta behar ordu gucietaco soccorritçat. Cer amodio! aingueruec haren ikhusteaz bere buruac dohaxu estimatcen dituzte, eta gu miserableen baithara heldu da bere amodio phuruz. Cer samurtasun! O! Yesu-Christoren amodiaren sacramendua, dio emen san Augustinec. Non ikhusi da artçainic bere gorphutz eta odola yaterat, eta edaterat bere arthaldeari eman duenic, galdatcen du san Chrisostomec. Beraz amodioa amodiorentçat bihurroçu, ongui, eta maiz errecibi çaçu. Yesus maitearen nahia guciz hori da.

Othoitça.

Cer erranen dautçut hemen, ô! Yesus, maitea? Sinhesten ditut eguia horiec. Bainan nere buruari beira eta, ene barneac dioena da, Yondoni Petric lehenago erran çautçun beçala, urrun çaite Yauna ene ganic bekhatoros aborrigarri bat bainaiz. Bizkitartean sacramendu horri iratcheki tutçun laguntcen beharric handiena dut, eta çurekin bat eguitea desiratcen dut. O! amodioaren Yaincoa,

hunenbat eguin duçunaz gueroz, garbiçaçu, othoi, ene arima, susta çacu ene bihotça, çuc eracusten darotaçun amodioari ihardex deçokeyen khar batez; hala içan nadin bihotcez, eta errealki çurea, eta çutaz goça nadin orai, eta mendeen mendetan. Halabiz.

III. CAPITULUA.

Probetchos dela maiz comunialcea.

ARIMAC.

Huna non heldu naicen, Yauna, çure dohainaz progotchatcea gatic, eta çurekin boztea gatic *pobreari preparatu dioçun aze-guinezco banket hortan.*

Çure baitan causitcen ditut nic desira ahal detçakedan, eta desiratu behar ditudan gauça guciac.

Çu çare ene salbamendua, ene erospena, çu çare ene esparantça, eta ene indarra, çu çare ene ohorea, eta loria.

Ichuraçu beraz egun bozcario çure cerbitçariaren bihotcerat, ô Yesus adoragarria; *ecen çure ganat altchatua dut ene arima.*

Orai nic guehienic desiratcen dudana da çu ene baitan errecibitcera behar den debocione, eta errespetu guciarekin; çu ene baitan sararaztea, Zakee beçala ni ere benedicanaçaçuntçat, eta eman naçaçuntçat Abrahamen umeen nombrean.

Ene arimac borthitzki desiratcen du çure gorphutçaren erreçibitcea, ene bihotceco guticiaric handiena da çurekin bateguitea.

2. Eman çakizkit, eta content naiz, ecen çutaz lekhora ezta eguiazco consolacioneric.

Ecin naiteke çu gabe; ecin bici naiteke çutaz bisitatua içan gabe.

Hargatic behar dut maiz hurbildu çure ganat, eta errecibitu behar çaitut ene gaitcen erremediotçat, beldurrez bidean flaca nadin, ceruco yanari hortaz gabetua banaiz.

Populuei predicatcen cinoten demboran, eta hekien eritasun diferentac sendatcen cituenean, erran cinduen egun batez: *Eztitut yende hauc egorri nahi bere etchetarat, yatera eman gabe, beldurrez flacaturic gueldi ditecen.*

Hori bera eguiçu ene alderat, Yauna, çure burua eman duçunaz gueroztic sacramendu

hortan, çure cerbitçari leyalen consolamenducotz.

Ecen çu çare arimaren yanari gustosa, eta çu digneki errecibitcen çaituenac içanen du primeçatçat, eta saritçat loria eternala.

Nola ni maiz erortcen bainaiz, eta bekhatu hanitz eguiten baitut; nola laster lachatcen bainaiz, eta errechki flacatcen, maiz behar dut baliatu othoitçaz, eta maiz hurbildu confesionerat eta comunione saindurat.

Horla behar dut erreberritu, garbitu eta berotu, beldurrez comunionetic sobra urruntcen banaiz, ahantz detçadan ene deliberacione onac.

3. *Ecen guiçonaren sensuac, gogoetac eta desirac haren gaztetasunetic ekharriac dire gaitcerat*, eta haren gaichtotasuna emendatuco da bethi, cerbait Yaincozco laguntçac ez badu sendatcen.

Eta comunione sainduac gaizkitic guibelatcen gaitu, eta unguian borthitzten.

Orai beraz maiz hain lacho, eta hain ephel banaiz comuniatcen, edo meça celebratcen dudalaric; cer liteke bada erremedio hura

hartcen ez banu, eta ez banu bilhatcen laguntça handi hura?

Hala gai eznaicen arren egun guciez misterio sainduen celebratceco, artha içanen dut demboratic demborarat bederen comunione sainduaren errecibitceco, eta hain gracia handian pharte hartceco.

Ecen arima leyal batec çure ganic urrundua deno, eta gorphutz *hilcor huntan desterratua dagoeno*, ahal duken consolacioneric handiena da çutaz orhoitcea, eta bere nausi guciz maitea debocione kharxu batekin maiz errecibitcea.

4. O amodiozco miraculua! O beheramendu ecin guehiagocoa! Çu, ene Yauna eta ene Yaincoa, izpiritu guciei içaitea, eta bicia eman dioçutena; çu yaux çaitecen arima pobre baterat, eta çure Yaincotasuna eta guiçontasuna emplega detçatçun haren gabearen bethetcen, haren beharren complitcen!

Ala çorionezcoa baita arima, denbora bihotça, bere Yauna eta bere Yaincoa errecibitceco gai dena, eta hura errecibitcean bozcario saindu batez bethetcen dena!

Universidad de Deusto Biblioteca
UNIVERSIDAD DE DEUSTO -BIBLIOTECA-

Oi cein handia den haren ganat heldu den Yauna! Cein maitagarria den harc errecibitcen duen arrotça, eta cein charmagarria haren compainia! Cein leyala haren bisitatcerat heldu den adiskidea! Cein ederra harekin yuntatu nahi duen esposa! Cein handia eta maitatcea mereci duena, lurraren gainean maita eta desira daitezken guciac infinituki ichitcen dituenaz gueroztic!

O Yesus eztia eta ene guciz maitea? cerua eta lurra bere edertasun guciekin ichil beitez, behera beitez, çure aitcinean; ecen deus badute laudagarriric, deus ederric, guciac heldu çaizte çure ontasunetic eta manificenciatic; eta hekien edertasunac eztu deus çure icenaren loriarekin compara ditekenic, ceinac distiatcen baitu, çure çuhurteia infinituac eguin tuen obra gucietan.

Cer eguin behar dut beraz?

Comunione sainduan Yesu-Christoc nahi du içan gure arimen indarra eta arguia; erremedio bat bekhatu benialen nothetaric arima garbitcen, eta mortaletaric beguiratcen duena. Yesu-Christoren nahia liteke maiz

errecibi deçagun, Yanhari, eta edari eguin dituenaz gueroz bere gorphutça eta odola, eta sustengu beharretan causitcen garen gucian, deitcen gaituenaz gueroz harat. Eliça ama sainduac bethi danic exortatu ditu bere haurrac, ahalic maicena errecibitcerat; cer eskergabetasuna beraz gure baitan, mahain saindurat lehiaric ez içaitea!

Othoitça.

Helas! Yauna, çuc, çure sosegua ene bihotcean eguin nahi, çu ene laguntcerat, garbitcerat eta sustatcerat heldu sacramendu adoragarri huntan, eta oraino cherkhatua, hertchatua behar naicela içan harat hurbiltcerat! eta nic oraino lehia guehiago içan deçadan naturaleçaren gostuco gauça batçuetarat! ah! Yauna, certan othe ditake ene fedea? Nola erran deçaçuket maite çaitudala? madaricatcen tutçu çure mahainerat hurbiltcen ez direnac. Yustu da Yauna. Ordean norat othe narama Yanhari sacratu haren alderaco nere indiferentciac? Ah! Yesus maitea, ez naçaçula alde bat utz, mereci dudan beçala. Emoçu, othoi, cererec ene bihotçari enetçat

duçun amodioari ihardesteco necesario duen khar hura. Garbi çaçu ceronec afeccione gachto gucietaric, balia nadin, posible bada egun guciez, ceronec ene ganat ethorriz eguin nahi dauztaçun ongui handiez, ecin apartatuzco guisan çurekin, çure lorian, bat eguin nitekeraino.

IV. CAPITULUA.

Comunione sainduaren abantailac.

ARIMAC.

O ene Yauna eta ene Yaincoa, ichuraçu çure gracia ene arimarat: *emadaçu pharte çure benediccione eztietan*, eguin naçaçu gai çu digneki errecibitceco sacramendu handi hortan, atçar naçaçu ene lokhuma pisutic, thira çaçu ene bihotça çure ganat, bisita çaçu ene arima, eta *bisita hartaz saindu çaçu* izpirituz gusta deçadan ceruco eztitasun hura, ceinaren bethetasuna cerratua baita sacramendu hortan bere ithurburuan beçala.

Argui çatçu ene beguiac misterio handi hori contempla deçadantçat, borthitz çaçu ene fedea fermuki sinhex deçadantçat.

Ecen misterio hori çure obra da, Yaincoac ordenatua, eta ez guiçonec asmatua.

Hala guiçona ezta gai haren comprenitceco, eta ungui eçagutceco, ceren ichitcen baititu aingueruen eçagutçaric eta arguiric biciena c.

Nola bada nic çundatuco dut, eta eçagutuco hain secretu barna, nic ceina ez bainaiz lurric eta herrauxic baicen, corrupcioneric eta bekhaturic baicen?

2. Heldu naiz çure ganat, ó ene Yaincoa, bihotz simple batekin, fede fermu batekin, esparantça, eta errespeturekin, çure obeditcea gatic, eta ceren manatcen darotaçun.

Sinhesten dut eguiazki, eta errealki presentçarela sacramendu huntan Yainco beçala, eta guiçon beçala.

Nahi duçu, ene Yaincoa, errecibi çaitçadan, eta çurekin amodioz herxiki yunta nadin.

Beraz çure ontasuna othoitzten dut eta galdeguiten darotçut hortacotz gracia bat, ceina baita ene arima urth dadin amodioz eta samurtasunez ichur dadin gucia çuretçat, eta

ezteçadan guehiago çutaz campoan bilha consolacioneric.

Ecen sacramendu guciz handi hau arimaco, eta gorphutceco salbamendua da, eta eritasun ispiritual gucien erremedio soberanoa.

Horrec gure bicioac sendatcen tu, gure pasioneac bridatcen, gure tentacioneac garaitcen, edo bederen flacatcen, haren bidez ichurtcen dire gracia handiac gure arimetarat, emendatcen da doidoya hasten den berthutea, fincatcen da fedea, borthiztzen esparantça, sustatcen eta hedatcen caritatea.

3. Ecen çuc eman dioçute, eta orai-ere maiz emaiten diotçotçute sacramendu handi hortan hanitz gracia çure maiteei, eta behar beçala errecibitcen çaituztenei.

Hortaz, ene Yaincoa, çu eçagutcen çaitut ene arimaren salbatçailetçat, flakecia humanoen sendatçailetçat, eta barneco consolacione gucien emailetçat.

Ecen hanitz consolacione emaiten dioçute bere axecabe diferenten erdian, altchatcen dioçute bihotça eroria dutenei, emaiten dioçute çure laguntçaren esparantça handi

bat, eta gracia berriez phizten tutçu eta berotcen.

Halacoz façoinez bai non comuniatu baino lehen khechos, ephel, eta anxicabe cirenac, causitcen baitire onerat gambiatuac, eta hobeki disposatuac ceruco yanari hura hartu ondoan.

Manera hortan comportatcen çare çure hautexien alderat, ô ene Yaincoa, bere flakecia frogaturic eta eçaguturic hobeki aithor deçatentçat çure ganic dutela bere berthute gucia.

Hortaz bere baitharic hotçac, gogorrac, eta debocionezco sentimendu gabeac, bainan çuc eguiten tutçu, bero, kharxu, Yaincotiar.

Ecen nor doake humilki eztitasunen ithurrirat, handic eztiago bihurtu gabe?

Nor dagoke berotu gabe su handi baten aldean?

Çu çare, ene Yaincoa, ithurri akhitcen eztena, çu çare sua bethi phiztua dagoena, eta behin-ere iraunguitcen eztena.

4. Beraz ecin aski hurbil banaiteke ithurrirat ene egarriaren osoki hiltceco ceruco ur

hekien canalerat, hurbilduco dut ahoa handic cembait chortaren hartceco, eta moyan hortaz ene agortasuna heçatceco, eta ene egarxua aphur bat bederen frescatceco.

Eta ecin banaiteke gucia cerucoa, eta amodioz sustatua cherubinac, eta serafinac beçala, guciarekin enxayatuco naiz eguiazco debocionearen ardiesterat, eta ahalaz ene bihotça preparatuco dut humiltasunekin ainguerucn oguiaren errecibitcerat, ceruco suharen cembait phindar bederen ene baitan sentitceco.

Compli çaçu çure ontasunaz, eta çure graciaz ene baitan escas den gucia, Yesus dibinoa, ene salbatçaile guciz ona eta eztia, ceinac erran baitarocuçu : *çatozte ene ganat penatuac eta cargatuac çareten guciac, eta nic arinduco darozkitçuet çuen penac eta nekheac.*

5. Ikhusaçu, Yauna, nekhatcen naicela, eta ene bekhokia icertcen dela, bihotz minez herstua naicela bekhatuez cargatua, tentacioneez khechatua, ene pasioneez trabatua eta penatua, eta eztela nihor-ere çu baicen ni lagun naçakenic, libra naçakenic, salba naçakenic.

Çure escuetan beraz emaiten naiz osoki eta ematen dut dudan gucia, beira naçaçuntçat bicitce iragancor huntan, eta bicitce eternalerat guida naçaçuntçat.

Har naçaçu beraz çure artharen azpian çure icen sainduaren ohoretan, eman nahi içatu darotaçunaz gueroztic çure gorphutz saindua yanaritçat, eta odol preciatua edaritçat.

Ene Yaincoa eta ene salbatçailea, eguidaçu gracia cembatenaz maiçago hurbilduco bainaiz sacramendu handi hortarat, hambatenaz ene baitan berri ditecen guehiago çure alderat amodiozco eta debocionezco sentimenduac.

Iracur çatçu aitcineco capituluaren ondoan erranac direnac.

V. CAPITULUA.

Aldareco sacramendu sainduaren excelentciaz, eta apheztasunari daocon garbitasunaz.

YESU-CHRISTOC.

Bacindu-ere ainguerucn garbitasuna, eta

Yondoni Yauni-Batistaren saindutasuna, halere, etcintezke gai, eta digne sacramendu handi horren ofrendatceco, edo errecibitceco.

Ecen cer nahi den merecimendu duken guiçonac eztu behin-ere aski ene gorphutçaren consecratceco, eta aingueruen oguia berac yateco, edo bertceei partitceco.

Misterio handia! dignitate ikharagarria! ceinac emaiten baitiote aphecei podore bat aingueruei eman etçayotena.

Ecen choilki aphez Eliçaz legitimoki ordenatuei eman çaye podorea misterio saindu hunen celebratceco, eta ene gorphutçaren consecratceco.

Eguia da apheçac sacramendu huntan Yaincoaren ministro, eta instrument dire, haren icenean hari dire, haren hitcez baliatcen dire, eta harc manatcen diotena eguiten dute; bainan sacramendu haren eguile nausia, eta buruçaguia Yaincoa bera da.

Harc obratcen du estaliki, ceren baitu podore nahi duen guciaren eguiteco, eta gauça guciac prest baitaudez haren obeditcerat.

2. Beraz sacramendu handi huntan hobeki behar dugu sinhexi Yainco bothere gucia duena ecen-ez gure sensuac, eta gaucen campoco iduri penac.

Hala errespeturekin, eta ikhararekin behar duçu bethi-ere hurbildu misterio handi hortarat.

Ikhusaçu cer çaren, eta cer ministerio, edo cargu eman çaitçun Aphespicuac çure gainean escuac pausatu dituenean.

Eguin çare aphez, eta sacratu çare misterio handi horren celebratceco.

Duçun beraz artha behar denean Yaincoari sacrificioaren ofrendatceco leyaltasun, eta debocione handi batekin; eta bicitceco bethi-ere çutaz erratecoric içanen ezten maneran.

Aphez eguin çarenean etçaizkitçu obligacioneac gutitu, aitcitic hartu ditutçu eguinbide berriac, obligacione berriac, sainduki bicitceco, eta perfeccione handiago baten ardiesteco.

Apheçac berthute guciez bereguindua behar du içan, eta eman behar diote guciei bicitce onaren exemplua.

Berecia behar du içan populutic, eta eztu bici behar guiçon comunec beçala; bici behar du aingueruac ceruan, eta presuna perfetac lurrean bici diren beçala.

3. Aphez batec yaunztura sacratuez bestitua denean, Yesu-Christoren lekhua daoca, bere othoitça humilki Yaincoari ofrendatceco, beretçac eta populu guciarentçat.

Bere casolaren gainean marcatua darabila nahiz aitcinean, nahiz guibelean salbatçailearen gurutcea, bethi erreberritceco barren pasionearen orhoitçapena.

Ekhartcen du aitcinean, Yesu-Christoren exempluac behin-ere bichtatic ez galtceco, eta hei zelorekin yarraikitceco.

Ekhartcen du guibelean, bertceen ganic heldu çaizcon gaitçac eztiki eta pacienki yasateco.

Aitcinean dakharke bere bekhatuez nigar eguin deçantçat; eta guibelean bertceren hobenac-ere auhenda detçantçat, eta yakin detçantçat ararteco beçala dela Yaincoaren eta bekhatoreen artean.

Hargatic bethi behar diotça ofrendatu bere othoitçac eta sacrificioac Yaincoari, ardiex

deçakeen arteraino hekientçat galdetcen duen gracia eta misericordia.

Finean apheçac sacrificioa celebratcen duenean ohoratcen du Yaincoa, bozten aingueruac, populu guiristinoari emaiten sentimendu onac, laguntcen ditu biciac, emaiten hilac soseguan, eta bere burua ontasun hetan gucietan partalier eguiten du.

Cer eguin behar dut beraz?

Meça sainduan, gurutcean eguin çuen beçain ongui, Yesu-Christoc bere burua ofreitcen dio guretçat bere Aita Yaincoari. Agueri den maneran apheçaren escuz, eta hitcez, eguiten da sacrificio miragarri hori. Yesu-Christo ez da bera choilki ofreitcen, ofreitcen guiotcigu-ere bere Aitari. Apheçaren hitcec choilki gambiatcen tuzte oguia eta arnoa haren gorphutz eta odolerat; oguiric ez arnoric baratcen ez den beçala, eta ematen Yesu-Christo heyen idurien azpian; bainan guiristino guciac yauntciac dire apheztasun suerte batez, dio Yondoni Petric, ceinaren bidez, Meça saindua entçutean Yaincoari ofreitcen baitiote apheçaren escuz, bere semea. Yesus

ofreitcen da Meça sainduan guretçat Yaincoaren adoratceco, eguin dauzcun fagoreez eskerren bihurtceco, behar ditugun gracien galdeguiteco, eta bekhatuen barkhamenduaren içaiteco behar dugun urriki haren osatceco. Meça saindua entçutean Aita eternalari ofreitcen diogu beraz bere Seme maitea, haren handitasunari eman den bictima bat beçala chede horietan; eta harc ofreitcen gaitu gu bere buruarekin bere Aitari, gure ofrendaren onhex arazteco. Hortic compreni çaçu, nola preparaturic, cer urriki, cer atencione, eta cer debocionerekin behar duçun entçun Meça saindua.

Othoitça.

Cembat aldiz ez dut escarniatu çure mayestatea, ô! Yainco handia, eta profanatu çure sacrificioa, salbatçaile adoragarria, Meça sainduco misterioan? Çure aldare sainduen inguruetan ikhusi nauçu, behar bada nere bihotz liçuna, ene atencione, errespetu, eta debocione gabea direla casu, çure gurutcearen inguruan çure laidoztatcen ikhusi cintuen hec beçala. Ah! Salbatçaile maitea, ez

naçaçula, othoi, abandonna, ez nauçu guehiago ikhusico Eliça sainduan ikhara, eta errespeturekin baicen. Bictima adoragarria, ceroni balia çakizkit, othoi, hortaco behar dudan fede bici, eta caritate kharxu haren içaiteco. Halabiz.

VI. CAPITULUA.

Comunionetic urruntcen denac bicitceari ihes eguiten dioela, eta indigneki hurbiltcen denac heriotcea emaiten dioela bere buruari.

ARIMAC.

Yauna, behatcen diodanean aldebatetic çure goratasunari, eta bertcetic ene beheratasunari, ikharatcen naiz, eta confunditcen ene baitan.

Ecen ez banaiz çure ganat hurbiltcen bicitcetic urruntcen naiz, eta indigneki hurbiltcen banaiz heriotcerat noha.

Cer eguinen dut beraz, ô ene Yaincoa, ene habea, ene laguntçailea, duda eta pena gucietan ene arguitçailea?

2. Iracax daçu bide chuchena, eta indaçu molde labur bat comunionearen sainduki eguiteco.

Ecen abantail handi bat da enetçat yakitea cer maneraz behar dudan ene bihotça preparatu progotchoski sacramendu horren errecibitceco, edo sacrificio handi horren ofrendatceco çor darotçudan, errespetu, eta debocionearekin.

VII. CAPITULUA.

Norc bere buruya examinatu behar duela mahain saindurat hurbildu baino lehen, eta hartu bere huxen uzteco deliberacione fermu bat.

YESU-CHRISTOC.

Apheçac, digneki misterio sainduen celebrateceo eta errecibitceco, behar duen lehenbicico artha da, hetarat hurbiltcea humiltasun eguiazco batekin, errespetu handi batekin, fede oso batekin, eta Yaincoaren ohoratceco chede phuru eta chuchen batekin.

Examina çaçu beraz ungui çure concientcia, eta ahal guciaz garbi çaçu contricione, eta confesione humil baten bidez; halaco maneraz non ez bailaiteke çure baitan gueldi notharic, çu hain ontasun handitic urrunt çaitçakenic.

Duçun urriki min bat yeneralean çure bekhatu guciez; bainan duçun damu bereci bat egun oroz eguiten ditutçun huxez.

Eta demboraric aski baduçu, aithor diotçotçu Yaincoari çure bihotçaren barnean çure pasionen miseria guciac.

2. Duçun damu handi bat çure buruya ikhusteaz oraino sensuen placeretarat hain emana, eta munduarekin hain yosia, hain guti mortificatua eta guticia desordenatuez hain bethea.

Hain guardia gabea çure sensuen gainean, imaginacione banoez hain nahasia.

Hain errecha çure baitharic ilkhitcerat, eta campoco gaucetan barrayatcerat; hain anxicabea çure barnearentçat.

Hain ekharria irri eguiterat eta dostatcerat, hain gogorra urrikiarentçat, eta nigarrarentçat.

Hain laster gorphutceco aisiac eta axeguinac bilhatcen dituena ; hain nekhez penitenciaren garraztasunac hartcen dituena.

Hain curios berrien aditceco, eta gauça ederren ikhusteco ; hain exái humiliacione gucientçat.

Hain gosea ontasunen biltceco ; emateaz doanean hain beiratua ; hain herxia hekin atchekitceco.

Hain guti beiratua mintçatcean ; ichilic egoten hain guti usatua.

Hain guti erreguelatua bicitcean ; hain imperfeta manera gucietan.

Hain emana yan edanerat ; hain gorra Yaincoaren hitçaren aditcerat.

Pausuaren hain maitatçailea ; hain lanaren exaya.

Hain atçarria elheen aditceco ; hain lotia khoroan cantatceco.

Hain khechatua akhabatceco ; hain gogo barrayatua othoitceco.

Hain anxicabea Eliçaco oficioetan ; hain ephela meçan, hain agorra comunionean.

Hain errecha çure baitharic ilkhitceco ; hain gaitça çure barnerat bihurtceco.

Hain lasterra hasarratceco ; hain errecha berteen ofensatceco.

Hain arina çure yuyamendutan ; hain dorphea çure mehatchuetan.

Hain lorios, eta aleguèra gauçac ungui doazkitçunean, flaco, eta bihotz eroria çure nahi-gabetan.

Hain franco, eta generos deliberacione hartcean ; hain lacho, eta agor hekien complitcean.

3. Escas horiec, eta horlaco bertceac Yaincoaren aitcinean auhendatu, eta confesatu ondoan, eta çure flacotasunaz behar den dolorea concebitu ondoan, har çaçu deliberacione fermu bat çure bicitcearen chuchentceco, eta ethorkitçunerat berthutean aitcina yoaiteco.

Eguiçu guero çure bihotçaz aldare bat, eta han ofrenda çakizkit osoki bethiereco sacrificio, edo holocostatçat : utz çatçu ene escuetarat çure gorphutça eta çure arima ene cerbitcatceco borondate fermu batekin.

Manera hortan eguinen çare gai Yaincozco misterioen celebratceco, eta ene gorphutça-

ren sacramendua çure arimaren probetchu handitan errecibitceco.

4. Ecen ezta ofrendaric Yaincoarentçat digneagoric, eta nahicarazcoagoric, ez eta satisfaccioneric gure bekhatuen urratceco hobeagoric, eta probetchosagoric, nola nore bere burua phuruki eta osoki ofrendatcea Yesu-Christoren gorphutçarekin batean Meçaco sacrificioan, eta comunione sainduan.

Guiçonac eguiten badu bere eguin ahala, eta bere bekhatuez eguiazco urrikimendu bat harturic heldu baçait barkhamendu galdetcerat : *Yuramentu eguiten dut neure buruaz*, dio Yainco Yaunac, *eztudala nahi bekhatorearen heriotcea, nahiago dudala conberti dadin, eta bici dadin ; eta conbertitcen bada ahantcico ditudala osoki haren* bekhatuac, eta yeneralki guciac barkhatuco diotçadala.

Cer eguin behar dut beraz ?

Comuniatcen ez badut galdua, gaizki eguiten badut galdua, oi! hau dolorea ! dioçu. Bainan fede gutitaco guiristinoa, cerc penatcen çaitu hor ? Beha çaçu Salbatçaile maiteharen ontasunari. Bekhatutan senti baduçu-

çure burua, urrikirekin confesa çaite. Ez yustuen, bainan bekhatoreen bilha ethorria dela erraiten darotçu, cerutic lurrera. Horrela garbituric, eta bekhatuari ukho eguinic, hurbil çaite beraz mahain saindurat. Yaincoaren aitcinean examinaturic, capitulu hortan erran escas horiec baicen ez baduçu ikhusten çure atçartasunari espacatu çayola, horiec auhendaturic ; çure biciaren mudatceco deliberacione fermu bat harturic, guciz çure naturaleçac guehienic eguiterat ekhartcen çaituen huxen gainean, hurbil çaite. Hura da flacoac hazcartu behar dituen oguia. Ez dugu pensatu behar duda gabe, Yesu-Christoren gogoraco içaiteco gure buruac bortchatu gabe, Yainco maite hura ethorrico dela complacentciarekin gu ganat.

Othoitça.

Ikhusten dut, ene Salbatçaile maitea, ene alferreriac, eta helas! behar bada, cembait pasione gaichtoc-eman nautela pena hautan ; eta cembat aldiz behar bada hola ene burua çure aitcinean certan nintcen examinatu ere gabe, ez naiz çure ganat hurbildu ? bainan,

Yauna, çure graciac bertcela eracusten darozkit orai gauçac. Ez dut ikhusten enetçat biciric, ez onic, Yesus maitea, çurekin baicen. Cer nahi gostarien, nahi çaitut errecibitu, Yauna, othoi, ceronec garbi çaçu ene bihotça, anima ene fedea, susta ene baitan caritatea, ene bihotcean aurkhi detçakeçun beçala, çure gogoraco egoitça bat. Halabiz.

VIII. CAPITULUA.

Yesu-Christori osoki eman behar gaizcola, harc bere burua guretçat eman duen beçala.

YESU-CHRISTOC.

Nola nic ene nahiz ofrendatu baitiot neure burua ene aitari çure bekhatuentçat gurutcean, escuac hedaturic eta gorphutça bilhuciric, eta ez baita deus ene baitan gueldítu guiçonac Yaincoarekin baketceco eta erreconciliatceco sacrificatu eztudanic.

Hala egun guciez meça entçutean behar çaizkit ofrendatu osoki ofrenda garbi eta saindu bat beçala çure amodio guciaz, çure

indar guciez, eta çure bihotceco hedadura guciaz.

Cer nahi dut guehiago çure ganic, baicen çaren gucia niri eman çakizkidan?

Çuc çure burua eman gabe ematen darotaçun gucia, eztut deus estimatcen, ecen ez nabila çure gaucen, eta emaitcen bilha, bainan çure.

2. Ecen nola çuc gauça guciac-ere ez baitcintuzke aski ni gabe; hala niri-ere etçait çureric deus on çu gabe.

Ofrenda çakizkit beraz, eta eman çakizkit osoki, eta errecibituco dut axeguinekin çure ofrenda.

Nic ofrendatu diot osoki neure burua ene Aitari çuretçat; çure yanaritçat eguin dut ene gorphutça, eta ene odola: ni gucia çuretçat, eta çu gucia enetçat içaiteco.

Bainan çuc çure burutic guelditcen baduçu cerbait eman gabe, balinbaduçu oraino çuretçat cembait amarradura, eta ez baduçu çure burua osoki, eta gogotic ene nahirat largatcen, çure ofrenda ez liteke osoa, ez perfeta gure arteco batasuna.

Nahi baduçu beraz ardiexi eguiazco liber-

tatea eta gracia, behar duçu gauça guciac baino lehenago çure burua gogo onez ofrendatu, eta Yaincoa ganat alde baterat largatu.

Ecen gutiac dire presuna arguituac, eguiazco izpiritualac, eta bere pasioneen nausi direnac; hori heldu da ceren gutiac baitire bere buruei osoki ukho eguiten dakitenac.

Bethi eguia içanen da nic erran dudana, *Norc ez baitiote ukho eguiten dituen guciei ecin daiteke ene discipulu.*

Beraz nahi baduçu içan ene discipulu, eguidaçu sacrificio bat çure buruaz, eta çure afeccione guciez.

Cer eguin behar dut beraz?

Capitulu hori clara da. Çure buruaren osoki ofreitcea Meça sainduan, edo comuniatcean ez da aski hargatic, guero nahicaretan beçala axecabean, Yainco Salbatçaillearen nahian pausatcen ez bacine, hura guretçat bere Aita Yaincoarenean gurutcerainocoan eguin den beçala.

Othoitça.

Cembat aldiz ez dautçut ofrenda oso hori

eguin, ô! ene Salbatçaile maitea? ordean hambat aldiz neure amodio propiari eman baitiot çuri ofreitu dudana. Bainan oraicotic yabe çaite, othoi, Yauna ene bihotçaz behin bethicotz. Eguiçu çure graciaz, içan nadin humil, pairacor, ezti eta amulxu, çure gatic cer nahi eguinen, eta pairatuco duen beçala; eta hala enekin comunione sainduan eguiten duçun batasuna, içan dadin bethierecoa. Halabiz.

IX. CAPITULUA.

Gure burua, eta gure guciac behar diotçagula Yaincoari ofrendatu, eta othoitz eguin behar dela gucientçat.

ARIMAC.

Ene Yaincoa, ceruan eta lurrean diren gauça guciac çureac dire.

Eta eztut deus berceric nahi baicen çur neure buruaren emaitea, eta eternitate gucian çure içaitea.

Egun beraz, ene Yauna, ofrendatcen natçaiçu bihotz chuchen eta simple batekin çure

gathibo beçala çure bethi obeditceco, eta laudoriozco sacrificio bat bethi çuri ofrendatceco.

Har çaçu neure buruaz eguiten darotçudan ofrenda, çure gorphuz sacratuaren sacrificioarekin batean, ceina egun ofrendatcen baitarotçut ene eta populu guciaren salbamenducotz aingueru sainduen aitcinean, ceinac aldarearen inguruan baitire agueri ez badire-ere.

2. Yauna, emaiten ditut çure misericordiazco aldarearen gainean çure ofensatcen hasi nintcen egunetic orai arteraino aingueruen eta çure aitcinean eguin ditudan hoben eta bekhatu guciac, çure amodioaren suac erre eta sunxi detçantçat.

Urra çatçu ene bicioen nothac, garbi çaçu ene concientcia bekhatu gucietaric.

Bihur daçu ene hobenez galdu dudan gracia, indaçu ene huxen barkhamendu osoa misericordia eguiten darotaçula, eta emaiten bakezco musua, erreconciliacionearen seinalea.

3. Cer eguin deçaket ene bekhatuen deseguiteco, baicen hec auhendatcea, eta confesatcea, eta misericordia çuri galdeguitea?

Othoitzten çaitut, ene Yaincoa, duçun bada nitaz misericordia, huna non naicen çure oinetan; othoi entçun çaçu ene plainua.

Damuric handiena dut neure bekhatuez; eztut nahi guehiago hetarat bihurtu.

Auhendatcen ditut, eta auhendatuco bici naiceno, prest naiz penitencia eta satisfaccione ene ahal guciaz eguiterat.

Barkha dietçakidatçu ene falta guciac, ene Yaincoa, barkha dietçakidatçu, çure icen sainduaren ohoretan.

Salba çaçu ene arima çure odol preciatuaz erosi duçuna.

Largatcen dut neure burua çure misericordiarat, naicen gucia çure escuetan emaiten naiz.

Çure ontasunaren arabera trata naçaçu, eta ez ene maleciaren eta gaichtakeriaren arabera.

4. Ofrendatcen darotçut halaber ene baitan den unguia, nahiz den hanitz chumea, eta imperfeta içan; çuc garbi, eta escas gucietarie libra deçaçuntçat. Errecibi çaçu arren, ene Yaincoa, eta emoçu behar duen mereci-

mendua, çure beguietan eder, eta nahicarazco içan dadintçat, eta emoçu bere azkeneco perfeccionea, fin dohaxu batetarat guida naçaçu, ez naicen arren cerbitçari alfer, inutil, eta creatura ezdeus bat baicen.

5. Ofrendatcen darozkitçut halaber arima onen guticia sainduac, ene ahaideen beharrac, ene adiskideenac, anayenac, arrebenac, maiteenac, eta çure amorea gatic, niri, edo bertceei ungui eguin darocuten gucienac.

Othoiztten çaitut halaber hainentçat ceinec ene othoitçac galdetu baitituzte beretçat, edo bere yendeentçat, nahiz diren biciac, edo hilac.

Guciec ardiex deçatentçat çure graciaren laguntça çure consolacioneen eztitasuna, heriscutan çure sustengua, eta librantça bere gaitz gucietaric; manera hortan bere pena gucietaric ilkhiric bere eskerrac bozcariorekin bihur dietçakitçutentçat.

6. Ofrendatcen darozkitçut halaber ene othoitçac, eta erreconciliacionezco sacrificio hau bereciki niri cerbait ofensa, damu, afruntu, bidegabe, edo pena eguin darotanencat.

Finean othoitz berac eguiten darozkiçut cerbait damu, altaramendu, gaitz, edo escandala eman diotedan gucientçat, nahiz hitcez, edo obraz, nahiz ustecabez, edo maleciaz.

Yauna, khen çaçu gure bihotcetic suspitchac, despitac, herrac, hasarradurac, escatimac, eta cerc-ere caritatea çaurt, eta guiristinoen arteco amodioa guti baiteçake, eta hura gucia.

Barkha dioçoçute, Yauna, barkha dioçoçute misericordia galdetcen darotçutenei, emoçute çure gracia, haren beharra dutenei, eta eguin gaitçatçu gai gracia hartaz goçatceco mundu huntan, eta bicitce eternalaz bertcean.

Cer eguin behar dut beraz?

Yesu-Christoc berac eracuxi othoitcean guretçat beçala bertceentçat eracusten daucu othoitz eguiten. Arraçoin bereci batez eguin behar dugu Meça sainduan. Garen guciac Yaincoarenac garelacotz, garen guciac ofreitu behar gaizco bethi; bainan guciz Meça sainduan den gucia bere Aita Yaincoari ofreitcen

den, eta gu bere buruarekin ofreitcen gaituenarekin yuntatceco, harc dituen chede beretan.

Othoitça.

Adoratcen çaitut, ô! Yainco soberanoa, gai naicen errespetu, amodio, eta fidantciaric handienarekin. Ofritcen darotçut Meça saindu eta comunione hau, eguin daroztatçun graciez ezkerren bihurtceco, çure cerbitçuco behar ditudan gracien, ene bekhatuen barkhamenduaren, bekhatoros gucien conbersionaren, eta yustuen aitcinamenduaren çuri galdeguiteco. Yauna, naicen gucia çurea naiz, naicen gucia emaiten natçaitçu, eguin deçaçun nitaz nahi duçuna. Nolaz ez dut parada neure biciaren çuretçat emaiteco dudan borondatearen çuri, çure graciaz dudan fidantciarekin, eracusteco. Eguidaçu, othoi, gracia gogo on huntan, eta hunen eredura bicitceco, eta hiltceco. Halabiz.

X. CAPITULUA.

Comunione saindutic eztela arraçoin gutiz guibelatu behar.

YESU-CHRISTOC.

Maiz hurbildu behar duçu gracien, eta misericordien eztitasun, eta garbitasun gucien ithurbururat, senda çaitecentçat çure bicioetaric, eta pasione desordenatuetaric; eta borthitçago içan çaitecentçat, eta erneago debruaren tentacioneen, eta enganio gaichtoen contra.

Ecen nola baitaki exayac cein probetchu, eta laguntça handiac causitcen diren comunione sainduan, bere eguin ahal guciac eguiten ditu presuna Yaincotiarrac handic guibelatceco eta urruntceco.

2. Handic heldu da cembaitec comuniatcerat preparatcean baitituzte tentacioneric borthitcenac.

Maliciazco izpiritu hura, ceina causitcen baita Yaincoaren umeen artean-ere Yopen liburuaren errana den beçala, heldu da he-

kien nahasterat bere finecia ardurazcoez, hekien altaratcerat beldurtasun banoez, duda, eta escrupula arraçoin gabecoez hekien debocionea hozteco, eta fedea gutitceco, aguian guibelatuco direla alde baterat comunione t ic edo comuniatcen badûte bederen eguinen dutela ephelki, eta anxicabeki.

Bainan ezta conturic eguin behar haren artificioez, eta harc egortcen dituen gogoetez cembat icigarriac, eta ahalcagarriac badirecere, behar da garaitu bere harma propiez, eta egorri behar çaizco berari bere inspiracione lohiac.

Arbuyatu behar da dohacabe hura, eta burlatu behar da ahal guciez: cer nahi den atacada eguin dieçaçun, cer nahi den nahasmendu altcha deçan çure baitan, eztuçu hargatic urrundu behar comunione saindutic.

3. Maiz halaber debocionearen içateco lehia handiac, eta ungui confesatu nahizco khechagune sobraniazcoac penatcendu izpiritua, eta trabatcen comunione saindua.

Segui çaçu beraz çuhurren conseilua, khen çatçu çure ganic khechaguneac, eta escrupulac, ecen hec apartatcen dute Yaincoaren gracia, eta agortcen debocionea.

Ezteçaçula comunione saindua utz cembait altaramendu arin, edo izpirituco pena chumen gatic; bainan çoaz berehala confesatcerat, eta barkha dioçoçute bertceei bihotz onez çuri eguin darozkitçuten ofensac.

Ceronec nihor ofensatu baduçu humilki barkhamendu esca çakizco, eta Yaincoac barkhatuco darozkitçu çure bekhatuac.

4. Cer progotchu duçu confesionearen horla luçatçeaz, eta comunionearen guibelatceaz?

Lehia çaite çure arimaren purgatcerat penitentciaz; aurthicaçu lehen bai lehen poçoina camporat, har çaçu contra-poçoina, guehiago irabacico duçu horla, ecen-ez luçamendutan ibiliz.

Egun arraçoin batec guibelatcen baçaitu comuniatcetic, bihar menturaz handiago bat sorthuco çaitçu: manera hortan hanitz cinaudezke comuniatu gabe, eta luçamendu horien ondoan causi cintezke menturaz gutiago gai sacramenduaren errecibitceco.

Khen çatçu ahalic lasterrena beldurkhunde,

eta gogo hurritasun horiec, ecen ezta deusetacotz on khechagunetan egotea, egunac altaramendutan iragatea; eta sacramendutaric urruntcea, egun oroz guertha ditezken trabachumeen gatic.

Aitcitic caltiar da hanitz comunionearen hambat guibelatcea, ecen luçamendu horiec ephelteen dute, pisatcen, eta lohacartceu gure arima.

Helas! badire presuna lacho, eta anxicabe batçuc, ceinen axeguina baita bakhan confesatcea, eta ceinec gogotic guibelatcen baitute comunione saindua, bere buruen hain goardia herxian egoterat obligatuac ez içateco.

5. Oi ala Yaincoaren amodio, eta debocione guti baitute hain errechki comunioné sainduric guibelatcen direnec!

Oi ala dohaxua baita, eta Yaincoaren gogoracoa hain ungui bici dena, eta bere concientcia hain garbi daducana, non gai bailiteke egun guciez-ere comuniatceco cilhegui balitçayo, eta eguin ahal baleça beguietan hartua içan gabe.

Baldin norbait urruntcen bada noicic behin mahain saindutic errespetuz, humiltasunez, edo bertce cembait arraçoin onez, laudatceco da.

Bainan epheltasunerat erortcen bada behar du bere debocionea phiztu, eta bere ahalac eguin, eta Yaincoac borondate ona maite duenac eguinen du gaineracoa.

6. Cembait arraçoin yustuc comuniatcetic guibelatcen badu, eta halere balin-badu eguiazco desira eta chedea comuniatceco, ezta gabetua içanen comunione onaren fruituez eta progotchuez.

Ecen arima onec egun guciez, eta oren guciez-ere trabaric batere gabe comunia deçakete ispiritualki eta progotchurekin.

Ordean badire dembora batçuc, eta egun bereci batçuc, ceinetan behar baitute sacramentalki-ere comuniatu amodio, eta errespetu handirekin, ene loria hobeki bilhatcen dutela, ecen-ez bere consolacione propia.

Ecen salbatçailearen Incarnacionea eta Pasionea debocionerekin gogoan darabiltçagun gucian, eta harekin bat eguiterat enxeyatcen garen gucian ispiritualki comuniatcen dugu, eta haren gorphutça errecibitcen beguiec ikhusten eztuten manera batean.

7. Bainan besta gatic choilki, edo usantça gatic comuniatcerat hurbiltcen dena, gutitan içanen da gai ungui comuniatceco.

Dohaxu bere burua Yaincoari ofrendatcen dioena holocóstazco sacrificio bat beçala meça erraten edo comuniatcen duen aldi gucian!

Meça erratean etçaitecela içan ez lucegui ez laburregui, beguira çaçu neurri arraçoinezco bat; eta segui çaçu çurekin bici direnen usantça ona, eta laudatcecoa.

Etçaitecela içan bertceentçat nekhagarri edo penagarri, çabiltça bide comunaz, segui çaçu çure aitcinecoec eman darotçuten exemplua, eta hobeki beha dioçoçu bertceren progotchuari, ecen-ez çure guticiari, eta debocione propiari.

Cer eguin behar dut beraz?

1º Gauça segura da bere pasionen bentçucceco, eta bere eguinbidei guristino guisa yarraikitceco laçokeriaz bakhan baicen comuniatcen ez dutenec, ez dutela Yesu-Christoren amodioari ihardesten, eta harc eman daucun salbamenduco moyan handi baten

gainean dela heyen laçakeria. 2º Confesorac behar duela ikhusi ea guibelatceco casuan garen, eta haren erranean egon. 3º San Frances Salescoac emaiten daucun erreguela da, çorteitic comuniatceco behar dela içan bekhatu benialaren beraren afeccioneric gabe, eta içan comuniatceco desir handi bat. Maiz comuniatceco gure buruac gai senti ez baitugu beraz, gaitecen enxeya içaitera aditcen den sensuan, nahi badugu Yesusen amodioa amodioz pagatu.

Othoitça.

Ala dohacabe eguin baitut nere burua, ene Yesus maitea, mahain sainduraco ene luçamenduez! Ah! Yauna, exayac enganatu nau, biciaren ithurburutic ene urruntceco. Bainan eguin da, Yauna, ene artha handia içanen da ahalic maicena çure mahain sainduan causitcea, hortaco lurreraco afeccione gucietaric, ene bihotça garbitcen dudalaric. Ethorrico naiz eria miricu soberanoaren, eta pobre erromesa aberastasun gucien yabearen gana beçala. Çato beraz, Yesus maitea, çato ene bihotcera; bici çaite ene baitan orai eta mendeen mendetan. Halabiz.

XI. CAPITULUA.

Arimac Yesu-Christoren gorphutzçaren, eta Escritura sainduaren behar handia duela.

ARIMAC.

O Yesus, guciz ona eta eztia! nolaco axeguina duen arima Yaincotiarrac yaten hari denean çure mahainean, ceinetan ez baitçayo emaiten bertce yanhariric çu ceroni baicen, ceina baitçare harc maitatcen duen gucia, haren guticien chede bakharra, eta ontasun gucietan den maitagarriena!

Oi-ala goço bailitçaiket ene bihotça nigarretan urtcea çure aitcinean ichurtceco, eta çure oinen bustitceco, Madalena dohaxuac beçala!

Bainan non causituco dut debocione samur hura, eta norc eguinen tu ene beguiez nigarrezco ithurriac?

Eguiaz çure aitcinean naicenean çure aingueruez gucia inguratua ene bihotçac sustatu behar luke, eta bozcarioz urthu nigarretan.

Ecen oguiaren, eta mahax arnoaren idu-

rien azpian estalia içan arren, halere badakit eguiazki çarela sacramenduan.

2. Ene beguiac ez litezke gai çuri behatceco aguertcen bacine çure argui propien eta çure Yaincozco distiaduran; eta mundu gucia ecin laoke ez deusetarat bilhacatu gabe çure loriaren eta mayestatearen aitcinean.

Beraz ene flacotasuna gatic estaltcen çare, eta gueriçatcen sacramendu hortan.

Halere badut eguiazki, eta adoratcen dut lurraren gainean aingueruec ceruan adoratcen dutena, bainan nic fedeaz ikhusten dut, eta hec agueriki eta belo gabe.

Halere contentatu behar dut fedeaz, eta argui haren laguntçarekin ibili behar dut, *eternitateco egun handia aguer dadin arteraino, ceinac sunsituco baititu itçalac, eta arguituco figura guciac.*

Estatu perfet hura ethor daitekenean, etçare guehiago baliatuco sacramenduz, ceren dohaxuec ceruco lorian ez baitute horlaco erremedioen beharric.

Goçatcen dire fin gabeco bozcario batez Yaincoaren aitcinean; ikhusten dute bekhoz bekho; han argui chumeago batetic iraganic

Yaincotasunaren arguizco tulumbiorat gustatcen dute berbo eternala, ez hartu duen haraguiaren arabera; bainan mende guciac baino lehenago cen beçala, eta eternitate gucian içanen den beçala.

3. Gauça miragarri hauc gogoan iragaten tudanean, consolacione ispiritualac-ere unhagarri çaizkit, ecen ene Yaincoa bere lorian agueriki ikhusten eztudaino, ez deus çaizkit munduan aditcen, eta ikhusten tudan gauça guciac.

Çuc badakiçu, ene Yaincoa, deus eztela gai ene contentatceco, eta consolatceco çu baicen, hortaz eztut-ere deus bertcetic desiratcen çu eternitate gucian contemplatcea baicen.

Orduan ene guticia ecin compli deçaket gorphutz hilcor huntan naiceno; hala yarri behar naiz pairatcerat, eta çure nahi sainduaren azpian eman behar dut neure burua ene guticia guciekin.

Ecen çure sainduec ceruco erresuman bozcarioz betheric çurekin daudecenac mundu huntan cirenean fede eta esparantça handirekin idurikitcen çuten egun dohaxu hura,

ceinetan behar baitcintuen hec hartu çure loriarat.

Hec sinhexi dutena sinhesten dut nic-ere; hec çuten esparantça bera dut; eta segurantça humil batekin uste dut helduco naicela çure graciarekin batean hec yadanic ardiexi duten çorionerat.

Bizkitartean fedearen arguiz ibili behar dut hemen bici naiceno sainduen exempluez borthitzturic.

Içanen dut ene consolacione, eta ene arguitceco liburu sainduac-ere, eta gucien gainecoa içanen dut çure gorphutz guciz sacratua, erremediotçat ene flakecietan, eta ihes lekhutçat ene axecabetan.

4. Ecen ikhusten dut bi gauça baitezbada behar ditudala mundu huntan, eta hec gabe ecin kharraya deçakedala bicitce dohacabe hau.

Ene gorphutceco presondegui huntan naiceno bi gaucen beharra dut, yanhariaren, eta arguiaren.

Hartaracotz nahi içatu nauçu ene flacotasunean lagundu çure gorphutz sacratuaz, ceina baliatcen baitçayo yanharitçat

ene arimari eta gorphutçari, *eta bertce alde çure Yaincozco hitçaz eguin duçu argui bat ene arguitceco neure bide gucietan.*

Bi gauça horiec gabe ecin bici naiteke, ecen Yaincoaren hitça da ene arimaren arguia, eta çure gorphutçaren sacramendua da bicitcearen oguia.

Erran daiteke oraino bi gauça horiec direla bi mahain beçala, ceinac eman baititutçu çure Eliçan, bata alde batean, eta bertcea bertcean.

Bata da aldare sacratuaren mahaina, ceinaren gainean baita aingueruen oguia, çure gorphutz preciatua.

Bertcea da Yaincoaren leguearen mahaina, ceinac cerratcen baititu Erreligioneco eguiaric sainduenac, ceinac iracasten baitu fede chuchena, eta ceinac sarrarazten baicaitu beloaz barnago saindutaco saindua den lekhurat.

O Yesus! arguia eternalaren arrayo saindua, ditutçun eskerrac, ceren eman darocuçun çure legue sainduaren mahaina, ceina preparatu baitarocuçu çure Profetez, Apostoluez, eta Eliçaco bertce doctorez.

5. Bethiereco eskerrac dorozkitçut, ô guiçonen creatçailea eta salbatçailea, ceinac munduari eracusteco harençat duçun amodioa, preparatu baitarocuçu banket handi bat, ceinetan emaiten baitarocuçu yaterat, ez bazcoco bildotcha, ceina baitcen figura bat, bainan çure gorphutça bera, çure odolarekin.

Banket sacratu hartan bethetcen tutçu bozcarioz çure cerbitçari leyalac, *eta horditcen tutçu sainduki hei edanaraciric salbamenduco khalitcean, ceinetan baitire ceruco axeguin guciac;* han sasiatcen dire gurekin aingueru sainduac; bainan manera eztiago, eta dohaxuago batez.

6. Oi ala Aphecen dignitatea handia baita, eta ohoragarria, hec choilki dutenaz gueroztic podore mayestatezco Yaincoaren gorphutça consecratceco, hitz sainduen berthutez, bere ezpainez haren laudatceco, bere escuetan haren atchikitceco, bere ahotan haren errecibitceco, eta yanharitçat fidelei partitceco!

Oi ala hain maiz garbitasun gucien Yaincoa errecibitcen dutenec escuac garbi be-

har baitituzte, ahoa chahu, bihotça notha gabe!

Ala aphez batec bildotch nota gabearen haraguia errecibitcen usatuac, goardian egon behar baitu beldurrez itçur *edo escapa* hitcic onest, saindu, probetchos eztenic.

7. Haren beguiec Yesu-Christoren gorphutz adoragarria egun guciez ikhusten dutenec modest, simple, eta garbi behar dute.

Haren escuec chahuac behar dute içan, eta bethi-ere cerurat alchatuac ceruaren, eta lurraren creatçailea bain maiz hunkitcen dutenaz gueroz.

Aphecei guciz erraten çaizte leguean escribatuac diren hitz hauc, *çareten saindu ceren saindu bainaiz ni, ceina bainaiz çuen Yauna eta Yaincoa.*

8. O Yainco botherexua, lagun gaitçatçu çure graciaz gu ceinac apheztasunaz ohoratu baicaitutçu, gure caracterari daocon garbitasunarekin eta debocionearekin cerbitça çaitçaguntçat.

Eta ecin bici bagaitezke behar beçainbat innocencia, eta saindutasunekin, igutçu nigarrac gure bekhatuen cincinez auhendatceco; eta eguiguçu gracia cerbitça çaitçagun guerorat fermutasun, berotasun, eta humiltasun guehiagorekin.

Cer eguin behar dut beraz?

Har çaçu ongui arimac hor dioena, Yesu-Christoc eguin duela bere gorphutz eta odol sacratuaz gure arimen yanharia eta edaria, eta bere hitz sainduaz gure arimen arguia. Ordutic Yaincoaren ganaco amodioric ez baduçu-ere, çure arima goseaz, eta egarriaz hiratcerat, eta ilhumben erdian galcerat ez uzteco bederen arthox içanen çare aguian, sacramenduetarat hurbiltceco, eta Eliçaco instruccionei, eta iracurtce onei ahal gucian errespetu eta premia handirekin yarraikitceco.

Othoitça.

Moyan horiez nahi tutçunaz gueroz gure arimac haci eta arguitu, horien gainean laço içatu banaiz oraidinocoan, ez deçaket erran beraz, Yesus maitea, estaturic tristcenean eta deithoragarrienean dudala baicen ene arima. Harritua, Yauna, hitz horiez, bainan ez loxatua, oraino escua hedatcen dau-

taçunaz gueroz, hementchet naiz, ene Yaincoa, çure errekeitceco altcha deçaçun arren; eta argui ene arima gaichoa. Hitz dautçut, ene artharic handiena içanen dela hemendic harat mahain saindurat, eta instruccioneta-rat yarraikitceco. Finca naçaçu, othoi, ceronec deliberacione saindu huntan. Halabiz.

XII. CAPITULUA.

Artha handirekin behar dugula preparatu comunione saindurat.

YESU-CHRISTOC.

Ni naiz garbitasunaren maitatçailea, eta arimen saindutçailea.

Bihotz garbi baten bila nabila, hartaz eguiteco ene pausa lekhua.

Prepara dieçadaçu sala handi bat, ungui mublatua, han yanen dut ene dicipuluekin bazcoco bildotcha.

Nahi baduçu ethor nadin çure ganat, eta çurekin egon nadin, *garbi çaite lemami edo altchagarri çaharretic*, eta chahu çaçu çure bihotceco egoitça; khen çatçu handic muna-

duaren khuxu guciac, eta bicioen habarroxac, *egon çaite çure bakhartasunean hegastina hegasteguian bakharric dagoen beçala, eta erabil çatçu çure izpirituan, bihotz minekin çure bicico errebelamendu guciac.*

Ecen adiskide samur batec bethi-ere lekhuric hoberena, eta ederrena aphaintcen du bere maitearentçat, ceren hortan eracusten baitu cein maite duen haren ganat heldu dena.

2. Yakin behar duçu halere cer nahi den eguin çaçun ecin aski ungui prepara çaitezkela ene errecibitcerat; ez eta deus bertceric gogoan içan gabe urthe batez çure artha guciac hortan emaiten baicintu-ere.

Graciaz eta misericordiaz uzten çaitut ene mahainerat, guiçon aberax batec bere mahainerat gombidatcen balu beçala pobre escaile bat, ceinac ecin bere eçagutça eracux bailioçake bere miseriaren aithorrez, eta bere esker choilez baicen.

Eguiçu çure baitan dagoen gucia, eta eguiçu arthoski, ez usantçaz edo ecin bertcez.

Errecibi çaçu errespetu handi batekin, eta beldurtasun amodiozco batekin çure Yauna-

ren eta Yaincoaren gorphutça, ceinac maite baitçaitu, eta nahi baitu çure ganat ethorri.

Nic deitcen çaitut ene mahainerat, nic nahi dut ethor çaitecen, nic complituco dut çuc escas duçuna, çu çato, eta errecibi naçaçu.

3. Debocionezco sentimendu samurrac emaiten darozkitçudanean, eskerrac emotçu Yaincoari, ceinac eguiten baitarotçu graçia bat eta misericordia bat mereci eztuçuna.

Contrarat çure burua sentitcen baduçu agortasunean, eguiçu othoitz, plainu, nigar; yo çaçu athea, etçaitecela unba, iraun çaçu gracia salbagarri haren pochi bat, edo ihintz bat mereci deçakeçun arteraino.

Çuc ene beharra duçu, nic eztut çure beharric.

Çu etçare ene ganat heldu ene sanctificatceco, bainan ni heldu naiz çure ganat çure hobetceco eta saindutceco.

Ene ganat heldu çare saindutcerat enekin hat eguinic gracia berrien errecibitcerat, eta guerotic guerorat perfetago eguiterat.

Etçaçula har anxicabeki hain gracia han-

dia, çure bihotça arthoski prepara çaçu, han sararazteco çure maitea.

4. Orduan ezta aski gure debocionearen phiztea, eta gure arimen preparatcea comuniatu baino lehen; comuniatu ondoan-ere artha behar duçu debocionezco sentimendu hetan irauteco.

Ecen sacramenduan errecibitu dugun graciaren ez galtceco hambat artha behar da nola haren errecibitcerat preparatceco; eta artha hura bera moyan bat da gracia berrien ardiesteco.

Contrarat bere Yaincoa errecibitu ondoan campoco consolacionetarat barrayatcen denac galtcen du disposicionea eta gaitasuna haren errecibitceco.

Ebac orduan solas alferrac, çoaz aparterat, goça çaite pausuan çure Yaincoaz.

Ecen eguiazki çurekin duçu, eta mundu guciac-ere ecin idoc dieçakeçu.

Niri eman behar çaizkit çaren gucia, ene baitan behar duçu bici, çure baitan baino bobeki; ene baitan behar duçu hemendic harat gauça guciez pausatu deusen-ere grinaric gabe.

Cer eguin behar dut beraz?

Comunione sainduan gure bihotça parabisu eguiazco bat eguiten da, eta Yesu-Christoren thronu eguiazcoa; beraz comuniatceco behar guinduke içan federic bicienaren, esperantçaric fermuenaren, eta caritateric kharxuenaren sentimenduez berreguinduac. Othoitcez, nigarrez, edo gaineraco obra onez ardiesten baditugu sentimendu horiec, Yaincoari eskerrac; yoan humilki: ecin sor-araz baitçakegu, ez khecha; yoan fidanciarekin, Salbatçaile maite haren gomitura hari gaitci çayon afeccioneric, edo notharic sentitcen ez dugularic gure baitan, gaineracoa haren ganat uteiric, eta nola nahi indigne garelaco eçagutçan.

Othoitça.

O! Yesus miragarria, aingueruec bethi amiracione berri batekin ikhusten çaituztena! norc mirexi behar luke ene bici gucia comunione on baten eguitera preparatcen eramatea manatcen bacinaut-ere? Ala hobendun bainaiz beraz, galdetcen dautaçun beçala, çure ontasunaz baliatceco ahal guciac eguiten ez

baditut! huna, Yauna, bihotz bat osoki çurea içan nahi duena. Ceronec haux, pica çatçu lurrerat lacoketen izpi guciac; oso osoa çurea, eta çurekin içanic lurrean, içan deçadan dohaxutasuna ceruan çutaz goçatceco. Halabiz.

XIII. CAPITULUA.

Gauça guciez bilhuci behar dela Yesu-Christorekin perfetki comunione saindu bat eguiteco.

ARIMAC.

Noiz içanen naiz aski dohaxu, oi ene Yaincoa, çu bakharric causitceco, çuri neure bihotça idukitceco, eta çutaz goçatceco ene arimac desiratcen duen beçala; halaco façoinez non nihorc ez bainau guehiago arbuyatuco, eta creaturec ez bainaute mobituco, eta ez baitarotet behatuco-ere?

Bainan mintçatuco baitçaizkit çu niri, eta ni-ere çuri buruz adiskide bat bere adiskidearekin mahainean mintço den beçala.

Nic desiratcen dudan gucia, nic çuri gal-

detcen darotçudan gucia da, ô ene Yaincoa! çurekin bat eguin nadin osoki, lacha deçadan ene bihotça creaturen amodiotic, misterio saindu hau maiçago ofrendatuz, eta errecibituz ikhas deçadan ceruco gauça eternalen guerotic guerorat guehiago gustatcen.

Helas! ene Yaincoa, noiz içanen naiz hain herxiki çurekin bat eguina, eta çure baitan hondatua; non ene burua-ere ahantcico baitçait osoki?

Çaren enekin, ni çurekin içan nadintçat, eta hemendic harat bat baicen içan ez gaitecentçat.

2. Çu çare eguiazco ene maitea *milen artean hautatua*, çure baitan nahi dut pausatu bici naiceino.

Çu çare Yainco baketiarra; çuc dakharkeçu lekhu gucietarat bakea eta sosegua; çu etçaren lekhuan ezta penaric oinhaceric, eta miseria ecin akhabatuzcoric baicen.

Çu çare eguiazco Yainco gordea comunionean, çuc ezluçu ariaric, eta eguitecoric gaichtaguinekin, simpleekin eta humilekin dire çure solasac.

Oi ala çure izpiritua eztia baita, Yauna,

çure amodioaren samurtasuna çure umeei iracusteco hazten ditutçunaz gueroztic ogui goço, gustos, eta cerutic yauxiricaco batez.

Eguiazki ezta populuric den handienic-ere bere Yaincoac hain hurbil dituenic, nolaçu baitçare hurbil çure cerbitçari leyaletaric, nahi duçunaz gueroz içan hekien egunorozco oguia, hekien consolatceco, eta hekien bihotçac cerurat altchatceco.

3. Cein *populu da munduan* guiristinoen *populuarekin compara ditekenic*?

Non causituco da ceruaren azpian creaturaric hain Yaincoaz maitaturic, nola arima saindu bat, ceinetan sartcen baita Yaincoa, haren hazteco bere haragui loriosaz?

O gracia ecin ezplicatuzcoa, fagore berecia, amodio neurri gabecoa Yaincoac guiçonar, bereciki marcatcen dioena!

Cer bihurtuco diot yaincoari hambat gracia, fagore, eta amodiorentçat?

Eztut deus haren gogoracoago denic ene bihotça baino, ceina emaiten baitiot alde baterat bere bihotçarekin herxiki bat eguin deçantçat.

Oi ene arima Yaincoarekin osoki yuntatua

balitz, orduan ene barne gucia bozcarioz hetheliteke!

Orduan Yaunac erran lieçaket: enekin Egon nahi baduçu, nic-ere nahi dut çurekin egon: eta nic ihardex nioçoke: Ah! Yauna, gogotic, eguidaçu fagorea enekin egoiteco, nic nahi dut çurekin egon ene bihotz guciaz.

Ene nahi gucia da ene bihotça içan dadin osoki, eta hethicotz çurekin bat eguina.

Cer eguin behar dut beraz?

Arimac hor desiratcen duen batasunaren Yesu-Christorekin içaiteco, orhoit çaite maiz Yesus maite hura aldare sainduan dela gure Yainco beçala, gure adoracioneen içaiteco, gure beharretan gure laguntceco, eta arimen hazteco; eta hala bisita çaçu ahalic maicena, eta adora çaren tokitic, eta eguin çotçu çure galdeac. Causi çaite ahalaz meça sainduan, eta comunia maiz. Eguiçu Yesu-Christoc ikhus çaitçan hartaz hartua gauça gucien gainetic, eta bihotcetic hunkitua haren sacramendu hortaco aphaltasunaz, eta gure alderat dituen borondate miragarriez. Gutiagoz cer batasun mereci deçakegu içaitea salbatçaile maite harekin?

Othoitça.

O! ene arima, horra hire Yaincoa, hire salbatceco guicon eguin, hil, eta hire hazcurri eguina. Nola eracusten dautçut ordean oradinocoan nere eçagutça, Yesus maitea? cembat gauça ez-deusec ez dautet bihotça trabatcen çuc baino guehiago? Ah! ene salbatçailea, eta ene Yaincoa, ez naiz yoanen çure aitcinetic, non ez den ene bihotça osoki çutaz hartua causitcen. Phitz-çaçu beraz, othoi, ceronec hunen baitan, hortaco behar duen çure ganaco kharra. Halabiz.

XIV. CAPITULUA.

Arima saindu batçuc comuniatceco duten guticiaz.

ARIMAC.

Oi ene Yaincoa, cein handiac, cein hanitçac diren çure beldur direnentçat gordeac daoscatçun ontasunac, eta eztitasunac!

Orhoitcen naicenean cembat kharrekin, eta debocionerekin arima on batçuec hurbiltcen diren çure sacramendurat, gorriteen naiz ahalkez ikhustea cembat epheltasunekin eta anxicabetasunekin ni hurbiltcen naicen mahain saindu hartarat.

Ahalcatcen naiz ceren agor eta gostu gabe guelditcen naicen; ceren eztudan barnea samurtua, eta sustatua çure aitcinean; ceren eztudan sentitcen comunionearentçat hambat amodio eta khar nola bertce hanitcec, ceinac ecin baitçaozken nigarrac ichuri gabe bere desiren, eta berotasunaren podorez.

Bere kharrac idec-arazten cioten bere bihotceco, eta gorphutceco ahoa çure erreci-bitceco ur bicien ithurria beçala, eta çure haraguia yanic bere gosearen sasiatceco.

Hargatic hurbiltcen ciren çure mahainerat bozcario handi batekin, eta apetitu, eta gosete ispiritual batekin.

2. Oi ala hekien fedea beroa baitcen, eta bicia ala harc ungui frogatcen baitu errealki present çarela sacramendu hortan!

Arima *hec eçagutu dute eguiazki Yauna oguiaren haustean, eta eracusten dute*

Emaüzco discipuluec beçala Yesus heyekin dabilala; hekien bihotçac haren amodioz hain sustatuac direnaz gueroztic.

Helas! ala urrun bainaiz ni hain debocione samurretic, eta hain amodio kharxutic!

Yesus ona, eta eztia, othoi, nauçun urricari pobre laceriatu bat naiz çure aitcinean.

Indaçu, othoi, çure amodiotic cembait phindar bederen comunione sainduan ene fedea handi dadintçat guerotic guerorat guehiago, ene esparantça borthitz dadintçat, eta ene bihotça behin çure amodioz sustatua ceruco manna hor dastatu ondoan behin-ere ephel eztadintçat.

3. Çure misericoardiac, Yauna, eman diçaket errechki hambat desiratcen dudan gracia hori, ceina baita ene ganat ethortcen çarenean ichurtcea ene bihotcerat susco eta kharrezco, amodiozco eta eztitasunezco izpiritu hura.

Ecen arima bereci hekien afeccione, eta desira kharxuac sentitcen eztitudan arren, emaiten darotaçu bederen afeccione bero hekien guticia.

Desirateen dut handizki, eta othoitzten

çaitut partalier eguin naçaçun hain beroki maite çaituzten arimen merecimendutan bai eta oraino hekien lorian.

Cer eguin behar dut beraz?

Yesu-Christoren ganaco khar hori eguiaz balin baduçu, seguiçatçu çure bihotçaren moguimenduac: ordutic errealki ez bada, izpiritualki maiz errecibituco duçu salbatçaile maite hura. Comunione izpirituala noiz nahi, eta non nahi eguin diteke, bainan guciz meça sainduan, apheçac comuniatcean. Hortaco aski duçu Yesu-Christoren ostia sainduco presentciaren gainean fedezco acta bat eguitea, bihotcez desiratcea haren errecibitcea, eta othoiztea Yesus maite hura, orai errealki errecibi ez deçakeçun haren gophutz sacratuac eguin leçakeyen berreguintça çure ariman eguin deçan bere graciaz. Guero esker onezco acta bat eguiçu.

Othoitça.

Çuc duçu beraz Yesus maitea, ene behar eta miseriarentçat nic çure handitasunarentçat behar nukeen ikhustatea. Niri çure

dohain miragarrien comunicatcerat çaude tabernacle saindu hortaric. Cer abalkeria, Yauna, enetçat, ceren hor ahantcia atchiki çaitudan! bainan promes darotçut, Yauna, gogo eta bihotcetic ez çaitudala galduco hemendic harat, ceren çutaz eta çurekin nahi baitut bici, gaineraco guciac utciric, orai eta bethi. Halabiz.

XV. CAPITULUA.

Debocionea ardiesten dela humiliatuz, eta norc bere buruari ukho eguinez.

YESU-CHRISTOC.

Debocioneco gracia behar duçu galdeguin cincinez; desiratu beroki, iguriki pacientciarekin eta esparantçarekin, eskerrekin errecibitu, humiltasunekin beiratu, arthoski hari ihardexi, eta hartaz baliatu; eta utci Yaincoari hautua har deçantçat berac placer duen manera, eta dembora çure bisitatceco.

Humiliatu bebar duçu banitz debocioneric batere, edo guti baicen sentitcen ez duçu-

nean ; bainan etçaitçu hargatic bihotça erori behar , eta eztuçu behar sobera tristatu.

Maiz Yaincoac colpe batez , eta ahanx orduan emaiten du dembora lucez eman nahi içatu eztuena , eta othoitçaren hastean eman eztuena akhabantçan emaiten du batçuetan.

2. Hain flacoa da guiçona , non Yaincoac egortcen baliotça graciac harc galdeguiten diotçan beçain sarri , eta bere nahien arabera ecin yasan bailetçake.

Iduricaçu beraz debocione bero baten gracia esparantça fermu , eta pacientcia humil batekin bainan ez badarotçu Yaincoac eman nahi , edo eman ondoan segretuki khentcen badarotçu , çure gain eguiçu , eta sinhex çaçu escas hori çure bekhatuetaric heldu dela.

Ecen maiz graciaren debecatceco edo urruntceco gure ganic , aski da deus guti , baldin deus guti behar bada deithu , eta ez escas handi batentçat iduki hain ontasun handia debecatceco aski handi dena.

Cer ere baita traba hura , dela handia edo chumea garaitcen baduçu , eta khentcen alde baterat , galdetcen duçuna ardiexico duçu.

3. Ecen noiz eta ere bihotz guciaz emanen

baitçaizco Yaincoari , eta çure fantesiaren arabera ez baituçu hau edo hori galdeguiten , bainan haren escuetan alde baterat emanen baitçare , causituco çare bake handi batean , eta Yaincoarekin herxiki yuntatua , ceren çure contentamendu gucia içanen baita Yaincoaren nahiaren complitcea.

Hala norc-ere bere chedea Yaincoa ganat altchatuco baitu bihotz simple eta chuchen batekin , eta bere burua garbituco baitu creaturen amodio desordenatu , edo herra gucietaric , haina gai içanen da graciaren errecibitceco , eta ardiesteco Yaincoa ganic debocionearen dohaina.

Ecen Yaincoac eztitu bere benediccioneac ichurtcen toki huxetarat baicen , eta cembatenaz nihorc guehiago ukho eguiten baitiote behere huntaco gaucei , eta hiltcen baitçayo bere buruari , bere burua mezpreçatuz , hambatenaz graciac heldu çaizco lasterrago , eta hanitçago , eta da libroago ceruco gaucetarat bihotçaren altchatceco.

4. Orduan haren izpirituac beguiac idekico ditu ; causituco du bere burua aberax ceruco ontasunez ; eta berac-ere mirexico du bere

çoriona, haren bihotça idekico da, eta çabalduco bozcarioz, eta emanen du bethicoitz bere burua haren escuetan.

Manera hortan bethetcen da benediccionez Yaincoa bere bihotz guciaz bilhatcen duena, eta bere arimaz gaizki baliatcen eztena, hura munduco gauça banoetan emplegaturic.

Halacoari emaiten çayo comunione sainduan Yaincoarekin herxiki bat eguiteco gracia, ceren hainac ez baitio behatcen bere debocioneari, eta bere consolacioneari; aitcitic sacrificatcen baitiotça debocione, eta consolacione guciac Yaincoaren ohoreari, eta loriari, ceinac hobeki bilhatcen baititu sacramendu hortan causitcen duen gostu ispiritual guciac baino.

Cer eguin behar dut beraz?

Debocioneac ezdu erran nahi goço, eta gosturekin Yaunaren cerbitçatcea, bainan bai gure gostu, edo desgostuaz conturic eguin gabe, haren gogoraco gauça eta urhaxentçat dengogo bicia, eta naguitasun gabea. Hori galdeguioçu Yesu-Christori, bereciki comunione sainduan, ceinetan heldu baita gure

gana guiristino berthuteen gure baitan bere odolaz ciguilatcen, gure baitan bicitcerat, eta gure urhax gucien erreguelatcerat. Galdeguioçu, guciz comuniatu ondoan, eguin deçaçun gracia deusetan çure buruaz hartua ez içateco. Debocionearen exaya hura baita.

Othoitça.

Ala guti baliatu bainaiz, Yauna, hambat comunionez! cerc iduki nau bada enganatua nere gostu propioa debocionean berean bilhatcerainocoan. Largatcen naiz egun çure escuetarat osoki, Yesus maitea, nere burua deusetan bilhatu gabe, çure nahiac arthoski eguiteco. Eguidaçu, othoi, gracia, gogo on hortan fermu egoteco heriotceraino. Halabiz.

XVI. CAPITULUA.

Aguertu behar diotçogula gure beharrac Yesu-Christori, eta galdetu bere gracia.

ARIMAC.

Ene Salbatçaile guciz eztia, eta maitagarria, ceinaren orai errecibitcea desiratcen baitut eguiazco debocione batekin, çuc, Yauna.

Universidad de Deusto
Biblioteca

Eçagutcen ditutçu ene flakeciac, eta ene beharrac.

Badakiçu nolacoac diren ene gaitçac eta bicioac, eta cein maiz naicen penatua, tentatua, altaratua, khechatua, eta bekhatuzere liçundua.

Heldu naiz çure ganat erremedio bakharrerat beçala, othoitzten çaitut, consola naçaçu, eta arin dietçakidatçu ene penac.

Gauça guciac dakizkienari mintço natçayo, ene barne gucia ikhusten duenari, ene perfetki consolatceco, eta laguntceco bakharric gai denari.

Çuc badakiçu eztela nihor-ere, ni baino on beharragoric, eta berthute guciez gabetuagoric.

2. Huna non naicen, ene Yaincoa, pobrea, eta bilhuça çure aitcinean, gracia galdeguiten darotçut, misericordia eske nagotçu.

Ene goscaren sasiatceco indaçu bicitcearen oguia, ene epheltasunaren khentceco, susta naçaçu çure amodioaz; ene ixutasunaren sendatceco argui naçaçu çure bisayaco arrayoez.

Gambia dieçadaçu gostua halaco maneraz

non munduco axeguinac causituco baititut khiraxez betheac, bicitce huntaco penac, eta gaitz guciac arinac; eta munduan laudatcen diren gauça guciac mezpreçagarriac, eta ahanztecoac.

Itçul açu ene bihotça çure ganat, altcha çaçu cerurat, eta ez naçaçula utz balsan, eta errebelatua lurrean ibiltcerat.

Ezteçadan causi, ez orai ez nihoiz, goçoric çure baitan baicen; ceren çu baitçare ene yanaria eta edaria, ene amodioa eta ene bozcarioa, ene axeguina eta ene on gucia.

3. Oi! ochala çure presenciaz sustatcen baninduçu, erretcen, eta çure baitharat osoki gambiatcen; halaco façoinez non amodioz çurekin bat eguinic, eta su sacratu hartaz nolaz baitere urthuric, ez baininteke çurekin izpiritu bat baicen.

Ezteçaçula permeti ene arima doan çure ganic gose, hux, eta agor; bainan balia çaite ene alderat misericordia hartaz beraz, ceinazhain miragarriki baliatu baitçare çure sainduen alderat.

Norc behar luke mirexi çu errecibitcean gucia susko eguiten banintz-ere, eta samur-

tasunez çuretçat urtcen banintz-ere ; çu ceroni çarenaz gueroztic su bat bethi phiztua, eta nihoiz iraunguitcen etçarena, khar bici bat bihotçac garbitcen, eta izpirituac arguitcen ditutçuna.

XVII. CAPITULUA.

Nolaco amodio eta debocionearekin behar dugun desiratu Yesu-Christoren errecibitcea sacramendu sainduan.

ARIMAC.

Yauna, nahi çaitut errecibitu debocione handi batekin amodio bero, eta guticia kharxu batekin, hala nola eguin baitute çure sainduec, eta hanitz presuna prestuc, ceinen debocionea çure gogoracoa içatu baita, eta çeinac hanitz Yaincotiarki bici içatu baitire.

O ene Yaincoa, amodio eternala, ene ontasun bakharra, ene dohaxutasun fin gabecoa, nahi çaitut errecibitu egundaino sainduac içatu duen, edo içatu ahal duken guticiaric borthitcenarekin, eta errespeturic handienarekin.

2. Eta gai ez naicen arren debocionezco sentimendu horien ene baitan içateco, halere ofrendatcen darozkitçut ene bihotceco afeccione guciac, neronec guticia kharxu hec guciac banitu beçala.

Ofrendatcen darozkitçut halaber ene bihotz guciaz humiltasun handirekin arimaric Yaincotiarrenac ahal tusken desiraric kharxuenac.

Ez dut deus-ere enetçat atchiki nahi ; bainan neure burua, eta neure ontasun guciac nahi ditut bihotz onez çuretçat sacrificatu, eta guciac çure cerbitçucotz emplegatu, eta consumitu.

Ene Yauna eta ene Yaincoa, ene creatçailea eta salbatçailea, nahi cintuzket egun errecibitu çuri dagotçun beçalaco samurtasun errespetu, ohore, eçagutça, amodio, eta saindutasun guciarekin ; fede, esparantça, eta garbitasun guciarekin, hala nola errecibitu baitcintuen Biryina loriosac, çure ama sainduac, noiz eta ene Incarnacioneco misterioaren berria ekharteen cioen aingueruari ihardexi baitcioen errespetu, eta humiltasun handirekin : *Huna Yaunaren nescatoa, compli bedi ene baitan çure errana.*

3. Nahi nuke gai banintz çure aitcinean aguertceco bihotça desira sainduz betheric, eta çure amodioz sustaturic disposicione saindu heyekin, ceinetan baitcen Yoannes-Baptista sainduetan den handiena, eta çure aitcindari dohaxua, noiz eta ere Izpiritu sainduaren mobimenduz yauxi baitcen bere amaren sabelean, eta noiz eta ere yendartean : Çu ibiltcen ikhusiric erran baitçuen çutaz humiltasun, eta zelo handirekin : *Esposaren adiskidea bozcario handitan da esposarekin denean, ceren aditcen baitu haren boça.*

Ofrendatcen darozkitçut halaber çure sainduei eman diotçotçuten bozcario Yaincozcoac, afeccione kharxuac, izpirituen bere baitharic ilkhitceac, argui naturaz goragocoac, eta ceruco bisioneac.

Hec ofrendatcen darozkitçut creatura guciec ceruan eta lurrean egundaino eman, eta seçulan emanen darozkiçuten laudorio guciekin.

Ofrendatcen darozkitçut nahiz enetçat, nahiz ene othoitcetan gomendatu behar darozkitçudan gucientçat, guciez behar beçala

laudatua, eta lorificatua içan çaitecentçat eternitatean.

4. Ene Yauna eta ene Yaincoa, errecibi çatçu nic çuri laudorio infinituen emaiteco dudan desira, eta çure perfeccione neurri gabecoen arabera ohoratu ikhusteco dudan nahia, eta guticia.

Ohore hori bihurtcen darotçut, eta nahi darotçut bihurtu egun guciez, eta mementu guciez-ere.

Eta gombidatcen ditut, othoitzten tut bihotz guciaz ceruco izpirituac, eta guiristino leyal guciac lagun naçatela çure laudatcen, eta çuri eskerren emaiten.

5. Lauda beçaitçate, Yauna, lurreco populu, casta eta erdara guciec, lorifica beçate çure icen adoragarria bozcario saindu, eta zelo kharxu batez bere baitaric ilkhiric.

Misterio saindu bere debocionerekin eta errespeturekin celebratcen dutenec, eta fede bici batekin errecibitcen dutenec ardiex beçate çure ganic bere bekhatuen barkhamendua.

Orhoit beitez, othoi, ni naicen beçalaco bekhatore dohacabeaz mahain saindutic il-

khitcen direnean, çurekin minki bat eguinac, debocionez hunkituac, eta samurtuac, bozcarioz, eta consolacionez betheac, eta osoki sasiatuac.

Cer eguin behar dut beraz?

Bi capitulu horietaco hitzcunça miragarriaz Yesu-Christori mintço çaizconean guciz, beha çaçu harrec sacramendu hortan emaiten dauzcun berthutezco exempluez. Cer humiltasun! bere mayestatea ez deustua daco oguiaren iduri ez deusaren azpian. Cer obediencia! apheçaren hitz bat aski da haren estatu hil hartan emaiteco. Cer pacientcia! cer ez du Yainco maitç harrec han yasaiteco guiçonen ganic? consideracione horiez berreguinduco çare berthute horien sentimenduetan, eta utcico duçu salbatçaile maite hura çure bihotcean nausi.

Othoitça.

Hemen çaitut beraz, Yesus maitea, sacramendu huntan, gracia gucien ithurburua beçala, eta berthute gucien miraila. Çure ohoreaz doha, Yauna, imita çaitçadan. Nausi

çaite beraz, othoi, ene izpirituaz eta ene bihotçaz; bat çure berthute miragarrien contemplatcen, bertcea heyen eredura ene biciaren erreguelatcen osoki aplica diten bici huntan gucian. Halabiz.

XVIII. CAPITULUA.

Eztela sobera curiostasunekin çundatu behar misterio hau; bainan humilki arraçoina eman behar dela fedearen azpian.

YESU-CHRISTOC.

Ene haurra, beguira çaite curiostasun alfer batez misterio handi hunen çundatcen haritcetic, beldurrez eror çaitecen dudazco, eta sinhex gortasunezco tulumbio barnerat.

Yainco guciz goraren mayestatea çundatu naki duena, haren loriaz lehertua içanenda.

Guiçonaren izpirituac asma deçakena baino guehiago daïke Yaincoaren escuac.

Ezta debecatcen eguiaren bilhatce humil eta simplea, nihor prest dagoenean arguien

errecibiteerat, eta Eliçaco aitec iracasten darocutena sinhesterat.

2. Dohaxu da simpleki, eta lagnoki dabilana, gauça gaitz, eta izpiritua nahas deçaketenei ihes eguiten diotena, eta Yaincoaren manamenduen bide chuchenean segurantçarekin ibiltcen dena.

Hanitcec galdu dute debocionea, gauça ilhunac, eta bere eçagutçaz goragocoac yakin, eta çundatu nahiz.

Eztarotçut galdeguiten izpiritu gora bat, eta misterioen eçagutça barna bat; bainan fede simple, eta bicitce chahu bat.

Çutaz beherago diren gaucec-ere ichitcen badute çure eçagutça, nola bada yakinen tutçu çutaz gorago direnac?

Humilia çaite Yaincoaren aitcinean, emaçu çure arraçoina fedearen azpian, eta içanen tutçu cerutic çure izpiritua soseguan emateco beharco ditutçun argui guciac.

3. Badire misterio hunen sinhestearen gainean tentacione borthitçac dituztenac, bainan hori heldu da hobeki exayaren maleciatic, ecen-ez hekien fede escasetic.

Çu etçaitecela penetan eman, etçaçula iharduc çure gogoetekin; eztioçoçutela ihardex harc emaiten darozkitçun dudei, bainan sinhex çaçu Yaincoaren hitça; entçun çatçu Sainduac eta Profetac; eta çure ganic ihesi egorrico duçu izpiritu maleciazco hura.

Horlaco tentacioneac pregotchos dire maiz Yaincoaren cerbitçarientçat.

Ecen debruac eztitu tentatcen sinhexgorrac, eta gaichtakinac; hec osoki beretuac daozca; bainan leyalei, eta Yaincotiarrei mila tentacione, eta axecabe egortcèn diotçate.

4. Çoaz beraz mahain saindurat fede fermu eta garbi batekin, eta errespetu humil batekin.

Eta çure izpiritua ichitcen duten gauça guciez pausa çaite Yaincoaren gainean.

Etçaitu enganatuco sinhesten baduçu; bainan enganatuco çare çure burua sinhesten baduçu.

Yaincoa simpleekin, eta bihotz chuchenekin dabila: humilei aguertcen çayote: chumei emaiten diote comprenimendua, eta arguia:

Arima garbiei emaiten diotçate hainitz eçagutça; bainan bere gracia gordetcen diote izpiritu curiosei, eta urguluxuei.

Guiçonaren arraçoina flacoa da, eta engana ditake, bainan fedea bethi eguiazcoa da, eta ecin enganatuzcoa.

5. Hala arraçoina, eta argui naturala fedeari behar çayo yarraiki; eztu behar haren aitcinean ibili; ez hura deseguin, eta irauli.

Ecen sacramendu handi huntan fedeac eta amodioac daoca lehenbicico herunca berthute gucien artean, eta efetu handiac eguiten tuzte manera gorde, eta ecin erran beçalaco batez.

Yainco eternalac içate, eta podore infinitua duenac eguiten tu ceruan, eta lurrean gauça handiac, eta gure eçagutçaz goragocoac; eta haren obra miragarriec ichitcen dute gure izpirituen hedadura gucia.

Hortaz obra hec ez balire guiçonaren izpirituaz goragocoac, eta errechki eçagut ahal balitez, ez litezke deithu behar miraculuzcoac, ecin erran, eta esplicatuzcoac.

Cer eguin behar dut beraz?

Yesu-Christoc dio hura dela harren gorphutça eta odola. Ez guehiagocoric bilha, çoaz haren errecibitcerat fede bici, eta caritate bero batekin. Cer nahi duda, edo barrayamendu ethor dakiçun, çaude simpleki Yesu-Christoren hitcean. Consecra çoçu çure eçagutça laburra; eta mirexia harc guretçat duen borondate samurraz, eta sustatua haren ganaco amodioaz, eta osoki harena içaiteco chederic bicienaz, aurthic çaçu çure burua haren besoetarat.

Othoitça.

Liburu huntan direnen praticatceco graciaren galdeguiteco.

Yesus adoragarria eta ona, ez deçaçula othoi permeti liburu huntan eracusten dauzcutçunac guretçat alfer içan diten. Aitcitic eguiçu çure graciaz, balia dazkioten iracurtcen tuzten guciei çure etçagutceco, maitatceco, eta cerbitçatceco gueroago khar guehiagorekin. Ecen cororen ganic ikhasiric, horietan daucogu dela gure çoriona.

Biryina saindua, Yaincoaren ama, balia çakizkigu, othoi, çure seme maitearen aintcinean, ardiesteco haren ganic, liburu huntan adi-arazten dauzcun eguia, eta exempluac, balia dazkigun, bicitce saindu baten eramanarazteco, hunec hel gaitçan heriotce on baten eguitera, eta handic akhabatuco ez den bicitce dohaxura. Halabiz.

AKHABANTÇA.

TABLA.

Iracurtçaileari. 5
Meça Saindua. 7
Cer eguin behar den ongui cofesatceco. . . 23
Comunioneco othoitçac. 24
Igandetaco Bezperetan. 29
Igandetaco Completetan. 38

LEHENBICICO LIBURUA.

BICITCE ISPIRITUALECOTZ ON DIREN ABISUAC.

I. CAP. — Imita Yesu-Christo, mezpreça munduco banitate guciac. 43
II. CAP. — Guti iduc gure buruac humil behar dugu içan gure yakin guciekin ere. 47
III. CAP. — Yaincoaren entçutea, nore bere buruaren eçagutcea eta garraitcea dela eguiazco doctrina, eta ikhasi behar den çuhurtcia. 51

IV. CAP. — Ez errechki sinhex bertcez erraten den gaizkia. Ez gaizki yuya edo mintça bertcez. Balia prudenciaz. 57

V. CAP. — Nola behar diren iracurri Escritura sainduac, eta debocionezco liburuac. Contseilu galdatu behar çayela presuna çuhur eta prestuei. 59

VI. CAP. — Afeccione eta guticia desordenatuez. Ecin dukegula bakeric hec mortificaturic eta heciric baicen. 61

VII. CAP. — Gure esparantça eman behar dugula, ez gure baitan, edo bertce guiçonen baitan, bainan Yaincoa baitan, ceina ganic heldu baitire on guciac. Humiliatu behar dugula, eta gure buruac iduki behar ditugula bertce guciac baino gutiago. 64

VIII. CAP. — Hautatu behar dela adiskide çuhur eta prestu bat; ez dela behar familiertu asco presuna suertekin. 67

IX. CAP. — Maita obeditcea eta berteeren guidaren azpian içatea; nor bere ustean ez sobra finca, eror berteeren nahirat eta abisurat. 69

X. CAP. — Utz mundanoen companiac eta solas sobraniazcoac; beguira ichiltasuna; probetchos dire hanitz solas izpiritualac. . 72

XI. CAP. — Nola behar den ardiexi bihotceco bakea, eta aitcina yoan berthutearen bidean. Heci behar direla bicioac, eta guticia desordenatuac. 75

XII. CAP. — Cein progotchos den sofritcea. 79

XIII. CAP. — Tentacionen progotchuaz, eta nola behar çayoten contra eguin. . . . 82

XIV. CAP. — Ez yuya bertcez temerarioki: finca çatçu beguiac çure gainean, eta etçaitecela yar berteen accionen yuye. . . . 88

XV. CAP. — Accione guciac amodiorekin eguin behar direla. 90

XVI. CAP. — Nola behar tugun yasan bertceren escasac. 93

XVII. CAP. — Ereligioneco bicitceaz. . . 97

XVIII. CAP. — Sainduen exempluaz progotchatu behar dugula. 99

XIX. CAP. — Debocioneco pratikez. . . . 104

XX. CAP. — Maitatu behar dela erretiramendua, eta ichiltasuna. 111

XXI. CAP. — Bihotceco urrikimenduaz. . 118

XXII. CAP. — Consideratu behar ditugula mundu huntaco miseriac. 123

XXIII. CAP. — Heriotceaz behar dugula pensatu, eta hartarat preparatu. 130

XXIV. CAP. — Yaincoaren yuyamendu ikharagarriaz, eta Bekhatoren suplicioaz. 137
XXV. CAP. — Guerotic guerorat berthutean aitcinatcera behar dugula lehiatu. 145

BI-GARREN LIBURUA.

BICITCE ISPIRITUALEAN ARIMAREN ABANTÇUAZ.

I. CAP. — Sarthu behar dugula gure barnean, eta solastatu Yesu-Christorekin. . . 155
II. CAP. — Guiçonec ecin deus eguin deçakete bere esparantça Yaincoa baitan emana duenaren contra. 162
III. CAP. — Barneco bakeaz. 165
IV. CAP. — Bihotceco garbitasunaz eta chedearen simpletasunaz. 168
V. CAP. — Gogo gucia eman behar dugula gure buruen esteustaçunean eta Yaincoaren handitasunean pensatcen. 172
VI. CAP. — Conciencia onaren bakeaz. . . 176
VII. CAP. — Maitatu behar dela Yesus gauça gucien gainetic. 180
VIII. CAP. — Yesusen amodioa dela on gucien ethorkia. 184
IX. CAP. — Barneco agortasunez eta desgustuez. 189

X. CAP. — Yaincoaren gracientçat behar den eskerraz eta eçagutçaz. 196
XI. CAP. — Gutic dutela maite Yesu-Christoren gurutcea. 201
XII. CAP. — Gurutcea dela ceruco bidea. 205

BIRURGARREN LIBURUA.

BARNECO CONSOLACIONEAZ.

I. CAP. — Nola behar den preparatu Yaincoaren aditcerat. 217
II. CAP. — Arimac Yaincoari galde eguiten dio mintça çakion beraz bihotcerat. . . . 220
III. CAP. — Yaincoaren hitçac humiltasunekin entçun behar direla, eta hanitcec eztituztela hec aski pisatcen. 224
IV. CAP. — Eguiaren eta humiltasunaren arabera ibili behar dela Yaincoaren aitcinean. 230
V. CAP. — Yaincoaren amodioaren efetu miragarriez. 235
VI. CAP. — Nola amodioa eztagoen axeguin ispiritualetan; bainan bai gudutan leyal içatean. 242
VII. CAP. — Arimaco agortasunean beguiratu behar dela humiltasunean, eta bakea. 248

VIII. CAP. — Nola behar dugun gure burua eceztatu Yaincoaren aitcinean. 253
IX. CAP. — Nola Yaincoa baita gucien fina, eta azkenchedea, hari behaturic eguin behar direla gauça guciac. 257
X. CAP. — Cein on den Yaincoaren maitatcea, eta munduaren mezpreçatcea. 260
XI. CAP. — Guticia onac ere behar ditugula bridatu, izpirituaren azpian eman haraguia, eta izpiritua Yaincoaren azpian. . . 265
XII. CAP. — Pairacor içan behar dela gaitcetan, eta arbuyatu behar direla axeguinac. 268
XIII. CAP. — Obedienciaz. 272
XIV. CAP. — Yaincoaren yuyamenduetan pensatuz behar dugula beguiratu obra onen banaloriatic. 276
XV. CAP. — Eztugula nahi behar Yaincoac nahi duenic baicen. 280
XVI. CAP. — Yaincoa choila baitan bilhatu behar dugula gure consolacionea eta sosegua. 284
XVII. CAP. — Gure buruazco artha guciac eman behar tugula Yaincoa baitan. . . . 287
XVIII. CAP. — Pacienki behar ditugula sofritu munduco miseria eta nahi gabeac Yesu-Christoc beçala. 290

XIX. CAP. — Nola behar ditugun pairatu afruntuac eta mezprecioac. 294
XX. CAP. — Eçagutu behar dugula gure flakecia, eta mundu huntaco miseriac. . . 298
XXI. CAP. — Yainco choila baita causitu behar dugula gure sosegua. 303
XXII. CAP. — Orhoitu behar dugula bethi Yaincoa ganic iça ditugun unguiez. . . . 310
XXIII. CAP. — Lau abisu probetchos bihotceco bakearen içateco. 315
XXIV. CAP. — Eztugula behar curiostasunic bertceren berrien yakiteco. 320
XXV. CAP. — Certan dagoen bihotceco bakea, eta aitcinamendu ispirituala. . . . 323
XXVI. CAP. — Izpirituco libertatea ardiesten dela, iracurtcez baino hobeki othoitcez. 327
XXVII. CAP. — Gure buruentçat dugun amodioac guibelatcen gaituela ontasun soberanoaren amodiotic. 330
XXVIII. CAP. — Eztugula içan behar mihi gaichtoen beldur. 334
XXIX. CAP. — Othoiztu eta laudatu behar da Yaincoa axecabetan. 337
XXX. CAP. — Nola behar dugun Yaincoaren laguntça galdetu, esparantçarekin gracia bihurtuco çaicula 339

XXXI. CAP. — Creatura guciac arbuyatu behar ditugula, nahi badugu creatçailea causitu. 345
XXXII. CAP. — Batbederac ukho eguin behar dioela bere buruari, eta bere guticiei. 350
XXXIII. CAP. — Guiçonaren bihotceco arintasuna ecin pausa daitekela Yaincoa baitan baicen. 354
XXXIV. CAP. — Cein goço den Yaincoa maite dutenençat. 357
XXXV. CAP. — Nihor eztela tentacionetaric segurantçan mundu huntan bici deno. 362
XXXVI. CAP. — Mezpreçatu behar ditugula guiçonen yuyamendu banoac. 366
XXXVII. CAP. — Utci behar dugula osoki gure burua Yaincoaren nahirat, bihotceco libertatearen içateco. 369
XXXVIII. CAP. — Nola behar dugun campoco gaucetan comportatu, eta Yaincoa ganat ihesi eguin hirriscuetan. 373
XXXIX. CAP. — Yaincoari utci behar diogula gure eguitecoen artha, eta haren ganic iguriki gauça guciac. 376
XL. CAP. — Guiçonac eztuela berenez onic, eta ecin dukela deusez-ere buruipe edo sobera confidentciarekin. 379

XLI. CAP. — Mundu huntaco ohoreac mezpreçatu behar ditugula. 384
XLII. CAP. — Bicitce huntaco bakea eztugula guiçonen baitan eçarri behar. . . . 386
XLIII. CAP. — Cein banoa den munduco yakintasuna. 389
XLIV. CAP. — Eztugula behar campoco gaucez izpiritua trabatu. 394
XLV. CAP. — Eztela edocein sinhexi behar, eta guti behar dela mintçatu. 396
XLVI. CAP. — Yaincoa baitan eman behar dugula gure fidantcia mihi gaichtoz çaurtuac garenean. 402
XLVII. CAP. — Munduco pena guciac gogotic behar direla pairatu bicitce eternalaren ardiesteco. 408
XLVIII. CAP. — Ceruco dohaxutasunaz, eta mundu huntaco miseriez. 412
XLIX. CAP. — Dohaxutasunaren guticiaz; eta bertce munduco golardoez edo loriaz. 418
L. CAP. — Nola arima afliituac eman behar duen Yaincoaren escuetan bere burua. 425
LI. CAP. — Gauça humiletan hari behar dela, handiagoric ecin eguin ditekenean, guciz agortasuneco demboran. 433
LII. CAP. — Batbederac uste behar duela

gaztiguac hobeki dituela mereci consolacioneac baino. 436
LIII. CAP. — Munduco ontasunekin yosiac direnei eztiotçotela Yaincoac emaiten bere graciac. 440
LIV. CAP. — Graciaren, eta naturaleçaren mobimendu diferentez. 444
LV. CAP. — Naturaleçaren corrupcioneaz, graciaren beharraz, eta harc arimetan eguiten dituen efetuez. 452
LVI. CAP. — Gure buruari ukho eguin behar diogula, eta yasan gurutcea Yesu-Christoc beçala. 459
LVII. CAP. — Etçaicula bihotça erori behar gure escasen edo huxen gatic. 464
LVIII. CAP. — Ez ditugula çundatu behar Yaincoaren yuyamenduac, eta gutaz gorago diren gauçac. Cer maneraz behar ditugun ohoratu sainduac. 468
LIX. CAP. — Yainco choila baitan behar dugula eman gure esparantça gucia. . . 477

LAUGARREN LIBURUA.

ALDARECO SACRAMENDU ADORAGARRIAZ.

Amodiozco deiha mahain saindurat. 483

I. CAP. — Cembat errespeturekin behar den errecibitu sacramendu saindua. . . . 484
II. CAP. — Yaincoac sacramendu huntan guiçonari miragarriki eracusten dioela bere ontasuna eta amodioa. 493
III. CAP. — Probetchos dela maiz comuniatcea. 502
IV. CAP. — Comunione sainduaren abantailac. 508
V. CAP. — Aldareco sacramendu sainduaren excelentciaz, eta apheztasunari daocon garbitasunaz. 513
VI. CAP. — Comunionetic urruntcen denac bicitceari ihes eguiten dioela, eta indigneki hurbiltcen denac heriotcea emaiten dioela bere buruari. 519
VII. CAP. — Norc bere buruya examinatu behar duela mahain saindurat hurbildu baino lehen, eta hartu bere huxen uzteco deliberacione fermu bat. 520
VIII. CAP. — Yesu-Christori osoki eman behar gaizcola, harc bere burua guretçat eman duen beçala. 526
IX. CAP. — Gure burua, eta gure guciac behar diotçagula Yaincoari ofrendatu, eta othoitz eguin behar dela gucientçat. . . . 529

Universidad de Deusto Biblioteca

X. CAP. — Comunione saindutic eztela arraçoin gutiz guibelatu behar. 535
XI. CAP. — Arimac Yesu-Christoren gorphutzçaren, eta Escritura sainduaren behar handia duela. 542
XII. CAP. — Artha handirekin behar dugula preparatu comunione saindurat. . . . 550
XIII. CAP. — Gauça guciez bilhuci behar dela Yesu-Christorekin perfetki comunione saindu bat eguiteco. 555
XIV. CAP. — Arima saindu batçuc comuniatceco duten guticiaz. 559
XV. CAP. — Debocionea ardiesten dela humiliatuz, eta norc bere buruari ukho eguinez 563
XVI. CAP. — Aguertu behar diotçogula gure beharrac Yesu-Christori, eta galdetu bere gracia. 567
XVII. CAP. — Nolaco amodio eta debocionearekin behar dugun desiratu Yesu-Christoren errecibitcea sacramendu sainduan. . 570
XVIII CAP. — Eztela soberá curiostasunekin çundatu behar misterio hau; bainan humilki arraçoina emaiz behar dela fedearen azpian. 578

Universidad de Deusto Biblioteca
UNIVERSIDAD DE DEUSTO - BIBLIOTECA -